



LABAYRU IKASTEGIA

Maigret

bbk



ASPALDIKO MAIGRET

GEORGES SIMENON

GEORGES SIMENON

ASPALDIKO MAIGRET

Itzulpena:
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa:
Andres Urrutia



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

1954. urtean deitu zuen Euskaltzaindiak polizia eleberrirako lehiaketa. Hara bildu ziren Loidi eta Erkiaga. (Urteetan berdintsu dira; lehena Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa bigarrena. Biok, baina, euskara dute helburu eta xede.

Hala bada, sortua da euskal polizia eleberria. *Hamabost egun Urgainen* lehen lerroak idatziak izan dira eta Simenonen *Aspaldiko Maigret* bidean dator.

Erkiaga, bulegoko leihotik begiratu duenean, Bilboko giroak aztoratu du. Herri iluna, nabarra, euskararentzat itxia eta hertsia. Badirudi, halako batean, burdina eta kea nagusi direla, ikatzaren pisua gaineratu zaiola euskarari, errekan zehar gora eta behera doazen eta datozen gabarrak, dirua eta aberastasuna ekartzearekin batera, euskararen letrak eramango balituzte bezalaxe.


Euri zirina hasi da kanpoaldean. Bulegoko mahaietan, bankuko zenbakiekin dihardu behin, birritan, hirutan..., jakin gabe buruan dantzan ari zaiola testu berria.

Euskal idazle mututua dugu Erkiaga; mututua edo hobeto esanda, mutuarazia. Gerla aurrean kazetari ibilitako olerkaria, ahotsik gabe dago ezinbestez, haren luma euskaldunak sor dezakeenak ez baitu abagunerik txikiena ere jendaurrean agertzeko.

«Gela hura zeharraga beltz batek bi aldeetan bereizia zan. Alde bata, jendearentzako lekua zan; zizelu edo alkiluze bat, bizkarroholgabeari hau ere beltzez margoztatuta-, agindupaperez bete zana horma zuria jotzen zegoan.»

(Aspaldiko Maigret)

Euskal Biblioteka Labayru



1054504

LITERATURA / N. 8471

GEORGES SIMENON

Aspaldiko Maigret

Eusebio Erkiagaren itzulpena

GEORGES SIMENON

Aspaldiko Maigret

*Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia*

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2009

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Bilboko Udalaren laguntza izan dau.

AURKIBIDEA

La Première Enquête de Maigret © 1949 Georges Simenon Limited (a Chorion company). All rights reserved.

Aspaldiko Maigret © 2009 Georges Simenon Limited (a Chorion company). All rights reserved.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-1239-09
ISBN: 978-84-92599-01-1

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Maigretegaz Erkiagaren bila. <i>Igone Etxebarria</i>	9
Aspaldiko Maigret, istorio-misterio baten katebegiak	
<i>Andres Urrutia</i>	13
1. Goizeko zortziak: idazle isildua	13
2. Goizeko hamaikak: distirarik gabeko hiria	16
3. Arratsaldeko ordu biak: letrak vs erregimena	18
4. Arratsaldeko laurak: hizkuntza ikusezina	20
5. Arratsaldeko seiak: Akademia baten lehiaketa	21
6. Ilunabar gogoetsua: euskarazko polizia eleberriaren hasikinak	23
7. Goizalde emankorra: Simenon eta Erkiaga	24
8. Gauaren ondoko egunsentia: saria ez da errenta	27
9. Galera eta aurkikuntzaren patua: azalaren enigma	33
10. Istorioaren azkena: argitalpena	38
11. Eskerrak ematea	55
12. Bibliografia	56

ASPALDIKO MAIGRET

I. Zirulariaren aitortpena	61
II. Rikardek gezurra esan du	81
III. Paumelleren zurrutaldiak	101
IV. Oihanera Bideko zaldun zaharra	121
V. Maigreten lehendabiziko irritsa	141
VI. Senide arteko jaitxoa	159

VII. Maigret andrearen irriparra	177
VIII. Bata isila eta bestea berriksua	197
IX. Basoaldeko bazkari gozoa	217

MAIGRETEGAZ ERKIAGAREN BILA

Unibersidadeko ikasle nintzala, Labayru Ikastegian Eusebio Erkiagaren nobela baten edizinoa prestetea eskini eusten, sarrera eta guzti egiteko. Hori zala-ta egin neban lehenengo hartu-emona Eusebiogaz; telefonoz lehenengo, bera Lekeition egoan eta; eta Bilbon gero, aurrez aurre. Hortik aurrera beste lan batzuk egiten, hitzaldietan, ikastaroetan, epai-mahaietan, han-hor-hemen bat egin genduan, Labayruren inguruan eta euskal literaturaren gane-ko kontuetan beti be.

Gerora, Bizkaiko Foru Aldundiak omenaldia egin eutsanean, Eusebioren poesiak batu eta edizino bat atontzea agindu eutsien omenaldiko saritzat. Orduan, Aldundian bertan gengoza, berak esan eustan “Hori zeuk egingo dozu ondoen”, eta horretan parau nintzan. Hil arteko denporea lan hori prestetan emon eban, adore eta kemen guztiagaz, berak egin ohi eban zehaztasunagaz, makinaz testu guztiak banan-banan jo eta bape errata barik, urterik urte ordena kronologikoan jarrita. Hartu-emon sarriago-koa egin genduan orduan, hil aurretik dana prest itxi gura eban eta.

Hori lanori atzeratu eta luzatu egin zan, baina azkenean urten eban; *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtiz* berak pentsautako izenburuagaz, liburu lodi bi osatu genduzan.

Euskal literaturan idazle gitxi dago Eusebiok beste idatzi dauenik. Horrek beti harritu izan nau, bera lanbidez bankuko gizona zala kontuan hartuta, ganera.

Beste ezaugarri bat be deigarri egiten jatan, zelako gogoa eukan ikasteko. Gizon heldua zala, ordurako bere produzino gehiena eginda eukala, errusiar idazle ospetsu baten nobelea leidunten egoala-ta, mira eginda egoan, "Hori bai nobelea taiututea, haria ondo eroan eta pertsonaien nortasuna ondo jostea!" esaten eban.

Aparteko sena eukan berbakaz olgetako, sortu eta leku apropos-aproposean erabilteko. Sorkuntzako idazlanetan hori agiri-agirikoa dau, baina liburu honetako itzulpena irakurten dauena atoaan konturatuko da zeinen berezko egiten dituan esapiderik luze edo adierazgarrienak be.

Labayru Ikastegiak Eusebioren lanik gehien-gehienak kalera-tu ditu, baina zorionekoak gara, Andres Urrutiaren ekinari esker-rak, galdutzat egoan lan hau lehenengoz argitara ekarteko moduan gagozalako.

Andresek lotura estua euki dau Eusebiogaz eta haren lanagaz, berak batu ebazan lehenago *Berbalauaren kulunkan* izenburupean Erkiagaren prosazko idatziak, era guztietako genero eta estilo-etakoak, liburu bitan. Biok euki dogu idazle handi honen ikasle izateko suertea, beste maisu handi bat be euki genduan moduan, Karmelo Etxenagusia. Karmelok Eusebioren lana goratzen eta ezagutzera emoten asko lagundu eban, eta baita guri bioi horretarako harra sartzen be. Eusebio eta Karmelo, bakotxa bere behar-raren bitartez, gidari euki doguz Andresek eta biok literaturaren ibilbide honetan. Ohore handia dot, lehenago Karmelok prosazko lanen bilduman egindako lez, Eusebioren lan honen atarirako, Andres euskaltzainburuak eskatuta, testu hau idazteko aukerea emon izana.

Lan honetan Eusebio Erkiaga molde ezezagunagoan topauko dogu. Alde batetik itzultzaile, eta ez idazle; beste alde batetik nobela poliziakoan, nahita hau bere nobeletan be erabilia dan; hizkuntza aldetik, bere denporako joereari lotuta, batasunerako proposamen moduko baten ahalegina egingo dau, gaurko begietara berezitzoa, baina bere aldirako meritugarria.

Hatan be, gaur egun hiztegi, gramatika, testu, euskalkien barri, zuzentzaile eta apareju guztiak eukita be, eta eurok eskura eta erraz erabilteko moduan eukita be, nekez ikusten da sorkuntzako literaturan Eusebiok bere idazlanetan darabilen hizkera ugaritasun eta aberastasunik. Bitartekoz eta eredu ia esku hutsik egozan garaian, deigarria da zelako erregistro zabala erabilteko gai dan, espresibidade aldetik zehetasun guztiak jasoten dituala.

Simenon idazle handiaren Maigret pertsonaiaren istorio bat hautu dau, euskeraz leidu gura dauen irakurleari irakurgai serioak ezeze gozagarri eta entretenigarriak be eskura ipinteko. Euskerrea noranahikoa, Lizardik esaten eban harako esaldia bete guran, beti be gurari didaktikoz eta militantez horniduta.

Eusebio Erkiagaren ibilbidea ezagutu gura dauenak ikuspegi osoagoa euki dagian merezidu dau lan honek argia ikustea. Lekeittiar-bilbotar honen erdua ez ahaztea komenidu da, gerora begira be esateko asko dauka eta.

Zorionak eta eskerrik asko.

Igone Etxebarria

ASPALDIKO MAIGRET, ISTORIO-MISTERIO BATEN KATEBEGIAK*

1. Goizeko zortziak: idazle isildua

Goizeko zortzietan Eusebio Erkiaga, azken hamalau urteetako beste lan-egunetan bezalaxe, García Rivero kaleko 4. zenbakidun etxetik atera eta Bilboko Gran Vía kalean zehar joan da lanera. Banco de Vizcayak kale horren lehen zenbakian duen egoitzan sartu aurretik, hain zuzen ere, bankuaren egoitza nagusiak nabarmentzen duen eraikinean sartu baino lehenago, besterako bidea hartu du, aurrean den Abandoko tren-geltokian barruratu arte.

1954. urteko udaberria da eta geltokiaren sarrera aldean hara eta hona dabilen jende-aldra ohartzearekin batera, jaioterriaren burutazioa etorri zaio. Orduantxe bertan izango dira Lekeitioko arrantzaleak itsasoratzeko prestaketa-zereginetan. Begi-bistan ditu, Bilbo inguruetatik datozen tren hotsak eta jendearen berba-

* Begien bistakoa denez, istorio-misterio honen gertaerak eta *gertaldirikiak* -hala esango zuen Erkiagak berak-, neronek asmatuak dira. Tartean, alabaina, badira xeheatasun egiazkoak eta alegia deus ez, biak ala biak, asmatuak zein egunerokoak izan ditut gogoan, irakurleari erakusteko euskararentzako urte latz haietan Bilbon zer giro euskaldun zegoen. Giro horren fruitua izan zen itzulpen hau, ezerezetik barik, norabide irmo batetik abiarazi zena. Gero etorriko ziren, jakina, euskararentzako urte alaitsuagoak.

roak barik, lekeitiarren arteko deiak eta deiadarrak, aparexuei eta sareei azken ukituak egiten dizkieten bitartean. Txalupen motorrak eta uraren gaineko joan-etorriak buruan dituela, egunkari eta aldizkarien kioskora iritsi da, trenbidea baino lehenago dagoen etxetxora.

Ez da horko bezeroa, ohikoa baitu Erkiagak egunkaria erostea Gran Vía kaleko saltoki batean. Eskaintza ere ez da esparru handikoa: *El Correo Español-El Pueblo Vasco* eta *La Gaceta del Norte* goizean, *Hierro* arratsaldean.

Badu, alabaina, lekeitiarrak asmo bereizia ibilaldi horretarako. Hainbatez, Georges Simenon idazle belgikarraren nobela bat eskuratu behar du, batez ere bidaiari eta egon beharra duten askoren eskuetan, denbora-pasa eta asperraldi luzeen aringarri, ikusten diren horietariko bat.

Kiosko-arduradunari galdetu dionean Simenonen liburuengatik, erantzun arina izan du. Nahi adina titulu eskuratu dizkio hark, irakurle gosetuaren pozerako eta harridurarako. Simenonen izena lehendik ezaguna bazaio ere, ez du aurretiaz haren testurik irakurtzeko paradarik edota gutziarik izan.

Iritzira jarrita ere, ez daki titulu-zerrenda hartatik zer aukeratu. Nonbaitetik hasi behar eta, lehen-lehena aztertzen jardun du. Halako batean eskuetara etorri zaio izenetik bertatik hasikinarenean espiritua idoro dezakeena. Haren titulua *La primera investigación de Maigret* da eta asmotan hartuta, azalean jartzen duen 13 pezetako salneurria ordaindu eta kaleratu da, geltokiko hotsak eta durundak atzean uzten dituela, Hurtado de Amezaga kaleko semaforotik igarotzen den bitartean.

Ibilbide laburra egin du Abandoko geltokitik Banco de Vizcaya. Artean, begi-bistako laburra egin dio erosi berri duen liburuari. Lehen orrietan nabarmena da jatorrizko izenburua, *La première enquête de Maigret*, eta horren gaztelaniatzailearen nortasuna ere, *F. Cañameras*.

Bankuko lanak, nolana ere, bere ordutegia du eta horrek estutzen du Erkiaga une hartan. Bankuko ateak zeharkatu ondo-

ren, jakaren patrikaran sartu du, agudo eta inork ikusi aurretik, liburutxoa.

Nor da Eusebio Erkiaga? Urte eta garai hartan, agerian behintzat, Banco de Vizcayako langilea. Isilean, aldiz, euskal idazle mututua. Mututua edo hobeto esanda, mutuarazia. Gerla aurrean kazetari ibilitako olerkaria, ahotsik gabe dago ezinbestez, haren luma euskaldunak sor dezakeenak ez baitu abagunerik txikiena ere jendaurrean agertzeko.

Egoera larrian bizi da euskara eta euskal kultura eta, zer esanik ez, horren barruko euskal idazleak. Gerraoste latzak euskarari ateak itxi dizkio, Espainiaren batasuna urratu duelakoan. Are nabarmenagoa da hori Bilboren moduko hiriburu handietan. Debeku gogorra euskararena eta ustezko euskalgintzarena, lurpean eta katakunbetan dagoena. Hantxe ere, bizitzera baino hobeto, hiltzera bideratua eta agolina mingotsean. Hil aginean dagoenak, bestalde, ez du behar besterik arin-arineko laguntza eta sorospidea baizik, egoera larri horretatik lehenbailehen ateratzeko. Euskal dantza-taldeak, dantzaldiak eta txistulariak onargarriagoak, antza, euskarazko hitzak eta letrak zabal ditzakeen oro baino.

Zaila da idazlearentzat bere arrotz-hizkuntzatik eta -kulturatik bizi eta kontuak lantzea. Ez du beste biderik berea ez den hizkuntza batez baliatzea edo isilean jarraitzea baino. Bizimodu erraza ere ez du idazleak, non, zer eta nola irabazi hori gaiztotzen eta oztopatzen baitzaio errukirik gabe.

Halakoak ditu gainean Erkiagak ere. Gerra aurreko merkataritza-ikasketak eta azterketak eginda, Banco de Vizcayan eskuratu du aspaldi lanpostua; batzuen eta besteen armadetan, hala nahita eta hala behartuta, ibili aitzin. Gatazka bukatu da, Jose Mari Arizmendiarrietaren lekukotzapean Erkiaga Begoñan ezkondu eta aitá familiakoa da. Bankuan jarraitzen du lanean, euskaraz idatzi ezinean. Udarò-udarò Lekeitiara doa, bertan Rufò Atxurra adiskidearekin hizketaldi luzeak egiten dituela, neguan ere gutun bidez segida gozoa izaten dutenak.

Kezkaz beterik dago, euskararen geroak arrangurutzen du. Ezari-ezarian hasi da beste euskaltzale batzuekin harremanak izaten, Bizkaian, Gipuzkoan nahiz erbestean. Badirudi askatasun puntutxoa ere badatorrela eta 1950. urtean, olerki batzuk bidali ditu Donostiako lehiaketa batera, sari eta guzti ekarri diotenak. Antzerki lanak ere, hortxe nonbait. Bidea ematen diote beste behin ere, luma euskalduna zorrozteko eta idazletzari bere nortasuna emateko.

Gerra aurreko lan ugariak, tantaka bada ere, aukera ekarri dio, erro-errotik ebakitako hegoak berriro kimatu eta hazteko. Idazlea, isilean, ez dago alferrean. Bere hitzetan esateko, «isilaldia bai, alperraldia ez». Hortxe ari da, eten gabe, etxeko lanean, testu-sormenean eta -egokitze ahaleginetan, euskararen hariak beste behin ere bilbatu nahian.

Etxe barne horretan arnasa handiko lanak izan ditu orain Erkiagak eskura, besteak beste, Platon filosofo grekoak ondutako *Parmenides* elkarrizketa hura. Itzulpenaren patuak, hala ere, gizartearen giroa ez du gainditu. Bazterrean dago, norik argitaratuko zain.

Nondik, beraz, Erkiagaren jakinmina eta oharra testu-itzultze horretarako? Zalantzarik ez, beste idazle batzuekin bat egiten du Erkiagak Bilbo aldean, hain justu ere, ardura bera dutenekin, eta hortik datozkio haize berriak. Ideia bat dute, euskara herbiztearena; asmoak ere badituzte, euskaldunen artean, aldi gaitz horietan euskara eta euskal kultura zabaltzeko, eta egitarau esanguratsua atondu dute. Kide da Erkiaga eta kide zena horren emaitza izango da *Aspaldiko Maigret*.

2. Goizeko hamaikak: distirarik gabeko hiria

Agindu zorrotza eman dio bankuko buruzagiak langileari. Hala, Erkiagak joan beharra dauka Banco de Bilbaoko bulegora, han diren kanbio-letra batzuk kobratzera. Goizeko hamaikak dira eta jaka jantzi ondoren, badao Gran Vían zehar. Gerora ere gora-

go joan beharko du, beste agindu baten bidez, Caja de Ahorros Municipal de Bilbao delakora. Luze barik, labur izan da Erkiagaren kudeaketa-lana lehen bankuan. Bigarrenean doan bitartean, aurrera egin du kalean eta bertan ikusi du, luze-sendo, Nazario de Oleagaren giza irudia. Euskaltzaindiaren idazkaria da bera, urte askotan Azkue euskaltzainburuaren aldamenean indartsu jokatu duena eta orain umezurtz dabilena, Azkue zena iaz hil baitzen.

Umezurtz egonagatik ere, Nazario de Oleagaren euskaltzaleatasuna bizi-bizirik dago. Elkarri oles egin eta Oleagak berehala gogoratu dio Euskaltzaindiaren hurrengo bilerarako deia. Urri dabil laguntzaileez Akademia eta Oleagak behin eta berriro esan dio lekeitiarrari idazten jarduteko, laster egingo duela Euskaltzaindiak sariketa baterako deia eta testuak, jatorrizkoak zein itzulpen bidezkoak, behar-beharrezkoak direla aurreko urtean Euskaltzaindiaren egoitzan hasi diren euskara eskoletan ikasgaiak izan daitezzen. Bertsolarien norgehiagokak ere hasi beharko dutela baieztatu dute, oraingoz horretarako aukerarik egon ez arren. Buruz buru barik, ingurura ari dira begira biok, aldamenekoen kezkarik gabe euskaraz hitz egitea ez baita erraza Bilboko Gran Vían.

Gero, hitzen haria etenik, bakoitza bere aldetik joan da. Apartera urrundu gabe, Erkiagak beste bi gizonezko aurkitu ditu. Berehala ezagutu ditu haicn trazak. Izan ere, Arruza eta Garro *Otxolua* euskaltzaleak dira elkarrizketan datozenak. Erkiagarekin bat egin dutenean Arruzak halako papertxoa luzatu dio, Krutwig euskaltzale gartsuak erbestera joan aurretik emana, euren artean moldatu behar zuten elkarte delata eta. Erkiagak gainetik irakurri du:

«EUSKAL KULTURAREN ARAUDIA.

Konstituzinoa eta xedeak. Bilbaon eta Euskaltzaindiaren filialea bez[a]lla, legezko personalitatearen gabe (sic) eta xede ta helburu haukiez, Euskal Kulturaren Elkharago haur kreatzen da.

Xedeak:

a) Euskara kultur hizkuntza bat bilhaka dadin ekhintzea.

- b) Euskaraz kultur baten kreatzea.
- c) Euskalherriaren buruzko kulturaren hedatzea.
- d) Euskararen kultur prestijea goititzea.
- e) Euskalzaindiari edolako ekhinzetaz laguntzea»
(Krutwig, F., *Euskal kulturaren araudia*, 1 or.).

Hurrengo batzarra noiz egin zehaztu dute. Berriz ere, ahopeka ari dira, euskarazko berbak norbaitek entzutea arriskua baita.

Bankuan berriro sartzean, Erkiagak igarri du bere patrikaran goizetik dakarren liburutxoaren nondik norakoa. Asmoak ditu horretarako. Agiantza handiak, hitz batez esateko. Nahiko luke horren bitartez euskara zabaltzea, eta nork daki?, kalean ere ikusgarri eta salgarri egotea, liburutegiko ilaretan beste idazkiekin batera.

Bankuko mahaian bi agindu ditu. Lehena egin eta bigarrena egiteko utzi du. Hain zuzen ere, Bordegaray bankuko agintariak deitu du, Bankuak berak zerbait egin dezake-eta euskararen babeserako. Itxaropentsu dago Erkiaga, Simenon baitu sorosle eta Maigret polizia nahi duelako euskararen eramaile.

Bulegoko leihotik begiratu duenean, ostera, Bilboko giroak aztoratu du. Herri iluna, ñabarra, euskararentzat itxia eta hertsia. Badirudi, halako batean, burdina eta kea nagusi direla, ikatzaren pisua gaineratu zaiola euskarari, errekan zehar gora eta behera doazen eta datozen gabarrak, dirua eta aberastasuna ekartzearekin batera, euskararen letrak eramango balituzte bezalaxe.

Euri zirina hasi da kanpoaldean. Eusebio Erkiagak, berriro ere bere laneko mahaian, bankuko zenbakiakin dihardu behin, birritan, hirutan..., jakin gabe buruan dantzan ari zaiola testu berria.

3. Arratsaldeko ordu biak: letrak vs erregimena

Aterri du Erkiagak bankua itxi duenean. Gran Viatik gora *El león de oro* kafetegi berriztatua utzi du alboan, kanpoko mahaian gizonetzko batzuk *Movimiento Nacional* delakoaren jantziekin

ikusten dituela. Alkondara urdinak eta korbata beltzak nabarmentzen zaizkie bibote txikien azpian. Barreka ari dira, zigarroa erretzen duten bitartean.

Euretariko batzuk ezagutu ditu. Lekeitioko Udaleko agintariak dira, eta Erkiaga deitu dute. Beraiengana hurbiltzeko esan diote; Erkiagak ukorik ezin egin. Hara hurreratu da banan-banan agurtuz. Aldundiaren Jauregian izan dira lekeitiarrak, Lekeition behar diren obra batzuen eskabidez. Laster Enperatrizen Jauregia turismorako jarriko dutela adierazi diote Erkiagari. Honek, aldiz, herriko jendearengatik eta arrantzagatik galdetu die, ea antxoarik sartu den...

Baiezko lasaigarria entzunda, Erkiagak euskaraz egin die han baturikoei. Haserrea sortu zaio udal-idazkariari, eta hitz gogorrak jaurti dizkio Erkiagari, Espainian daudela gogoratuz eta Espainiako hizkuntza bakarra gaztelania dela. Alkateak baretu du giroa eta Erkiaga, modurik zuhurrenean, herrikideei adio eginez, Gran Viatik gora joan da.

Guardasola berriro ere ireki behar izan du etxera aurretik, zirimiri leuna hasi duelako Plaza Moyuara iritsi denean. *Hotel Carlton* bere ezkerrean utzi duenean Simenonen akordua izan du eta oinez doala liburuaren zenbait pasarte irakurri ditu irazean, gain-gainetik, nondik hasten den jakin guran. Gaztelaniazko testuak laua eta behaztoparik gabekoa ematen du, esamolde labur eta mamitsuekin. Badirudi Maigret ez dela halako barrokismoaren jabe, ez zale. Poztu da Erkiaga. Badaki horrek lana ahalbidetuko diola.

Horretan diharduela, Plaza Moyuan dagoen Gobernu Zibila-ren Jauregitik atera da kotxe distiratsu bat. Tartean-martean gidariaren atzean jaka zuriz eta kondekorazioz beterik giza ezauzgarria antzeman du, goizean bertan egunkarian lehen orrian datorena. Genaro Riestra du izena, eta *Gobernador Civil de Vizcaya* eta *Jefe Provincial del Movimiento* tituluen jabe da, Franco buruzagiak emanak. Erkiagak ez badaki ere, Ondarroara doa Riestra, Francoren erregimenak itsasalde euskaldunean eraiki nahi dituen etxebizitza sozialak ikuskatzera.

Haren eskuetan, zer esanik ez, euskararentzako baimenak eta debekuak; haren eskuetan ere, bistan da, euskaldunon hizkuntzari eta Erkiagaren gogoari bideak eta ateak ixtea eta herstea.

Euskararen aldeko arma berriak ditu Erkiagak bere patrikaran. Hain justu ere, literatura unibertsalaren kemena, herriak ulertzen duen literatura baten adorea, erregimen politiko baten debeku indartsuen aurka. Hala iruditu zaio berari, kotxe ofizialak alde egiten duen bitartean Gran Viatik behera, San Anton eta Atxurirantz.

Heldu da etxera Erkiaga, ordu biak dira eta bazkaltzeko garaia. Emazteak, amultsuki, goizekoagatik galdetu dio Erkiagari; honek, oharkabean edo, asperraldiaren zimikoa egin du, zer garrantzitsuagoak buruan balitu bezalaxe.

4. Arratsaldeko laurak: hizkuntza ikusezina

Mundua mundu deino, bankuetzeko ordutegiak bere eskakizunak ditu. Arratsaldeko lanarena, besteak beste, lauretan hastekoa. Erkiaga etxetik atera da, goizean eskuraturiko liburutxoa oraindik ere patrikaran duela. Euria ari du, atertu barik, eta gabardina ere jantzi behar izan du lekeitiarrak. Horrekin batera liburutxoa jakatik gabardinarara eramane eta bankuetxe aldera jo du.

Laurak jotzen ari direla, Erkiaga bere laneko mahaian jarri da. Laguntzaile batek gogoratu dio bost minutu barru bilera bat duela bankuko kontseilariarekin, Bordegaray jaunarekin, hartan ere.

Baiezkoa erantzun dio Erkiagak buruarekin eta haren bulegora abiatu da. Atea jo eta igarotzeko agindua eman dionean, Erkiaga Bordegarayren aurrean dago. Aspalditik ez du ikusi. Gerra aurrean ezagutu zuen, Bordegaray bere bankuko bidea Gernikan hasi eta lasterrera. Beti izan dio begirune handia eta elkarrekin egoki konpondu direlakoan dago lekeitiarra.

Euskaraz agurtu dira eta Bordegarayk besterik gabe azaldu dio deiaren xedea. Hainbatez, bankuak interes handia dauka

erbestean lan egiten duten euskaldunekin harremanetan egoteko. Ameriketara, Australiara, Kanadara... eta beste herrialde askotara artzain edo langile doazen euskaldunentzat halako argitalpen moduko bat egin nahiko luke, hemengo gorabeherak, ekonomia, kultura eta abar haiei azalduko lizkiekeena.

Aintzat hartuta gehienak euskaldunak direla eta euskaraz izan behar duela horrek, bankuak arduraren bereiziaz eman nahi dio Erkiagari, honek antola ditzan horren zer guztiak, batik batik kazararienak eta edukiarenak, ondo ere ondo baitaki berak Erkiagak horretan duen esku trebea. Bankua arduratuko litzateke baimenekin eta prentsa ekonomikoaren arloan sartuko litzateke, hilabetez gisa.

Baietz esan du Erkiagak zalantzarik gabe, esku artean duen lan berriak, une batez, ostendu diola gabardinan duen testuarekiko garra. Puntu-puntu egon da Bordegarayri laguntza eskatzeko liburu berriarentzat, baina azkenean etsi egin du, zer bitzuko nahastea ez zaiolako komeni.

5. Arratsaldeko seiak: Akademia baten lehiaketa

Arratsaldeko orduak luze joan dira Erkiagaren asmoetan. Halako batean, arratsaldea amaitzeaz dagoela, seiak inguruan, egunean-eguneango lana uzteko agindua etorri zaie langileei. Egunero bezalaxe, erreskadan doaz kanpoaldera, hurrengo igandean nora joango diren elkarri azalduz.

Erkiagak, beste askok legez, beherantzako bidea hartu du. Euririk ez eta, Navarra kaletik behera, Areatzako eta Erriberako norabidean doa. Errekaren gaineko zubia igaro du, Francok jarritako arranoak albo banatan utzita, egundo ere Bilboko hiriak gozatu ez zuen loriaren eta goraipamen itzalaren lekuko mutuak.

Gero, txorimalo horien azpian, gerra zibilaren etengabeko oroitzak, irabazleena. Apirilaren bata, horra hor eguna. Azpian, azken gerrako albistearen letrek berunezko arrastoa gaineratzen diote zubiaren harriari.

Areatzan bertan, Alde Zaharreko zarata eta hotsen artean mur-gildu barik, Atxurirantz egin du Erkiagak. Erribera kalera doa, 6. zenbakira eta berehala iritsi da Arriaga antzokiaren atzean dagoen Euskaltzaindiaren egoitzara.

Arruza eta Garro han daude, beraren zain. Irigoyen ere aparte ez. Irakaskuntzarako gelan jarri dira eta autua arin doa. Lehen-dabizi, eskola kontuak aipatu dituzte. Euskarazko eskolak nola joan diren, zenbat ikasle eta abar. Poliziak ere ez du larregi miatu kontua. Badirudi Oleaga idazkariak egindako kudeatze-lanak egokiak izan direla.

Hartara, Eusebio Erkiagak dio material batzuk beharko lirakeela ikasleentzat eta horretan lan egiteko ardura hartuko lukeela berak. Irigoyen ere prest dago horretarako eta hurrengo batean halakoak ekartzeko zina egiten dute bertaratuek.

Irigoyenek, berriz, atera behar duela dio, mandaturen bat-edo daukala eta. Beste bulegaria hantxe dagoenez, batzartuek aurrera jarraitzen dute euren kontuetan.

Garro eta Arruza zinez kezkatuta daude Krutwigen erbestertzeaz. Izatez, esku artean erabili duten gaia garrantzi handikoa da. Euskararen egoera halakoa izanda, euskara bera nola gizarteratu da pisuzkoena, jendeak ez baitaki euskara hor bertan dagoenik ere.

Arruzak esan ahala, Erkiagak argi dauka Krutwigen pentsamoldea. Bi-bitara ikusten zuen hark euskararena. Batera, euskara goi mailako idazle klasikoen eramaile. Horretarako, argi dago klasiko greko eta latindarrak euskaratu behar direla, sendo eta tinko, kate oso baten zatiak izan daitezen holakoak. «Bete dut hori!», diotsa bere buruari lekeitiarrak, Platoneneko elkarriketa luzea arestian euskaratua baitu. Hura da *Parmenides* eta bistan da Erkiagak ezin izan duela argitaratu.

Garrok, alabaina, beste nonbaitetik darama haria eta Krutwigen gogoia ere bertaratzen du, hark argi esan baitzuen herri xeheak irakurriko lituzkeen euskarazko liburuak behar zirela, edozein tokitan irakurtzeko moduko testu erraz eta erakargarriak.

Erkiaga patrikaran duenaz ohartu da. Hori ere testu erraza izan daiteke, eskurik eskura euskaraz ibili daitekeena. Denez ere, arrakasta nabarmena izan dute Simenonen nobelek Espainian eta zentsurak ere onargarri ikusten ditu.

Horretan direla, Nazario Oleaga idazkaria Euskaltzaindiaren egoitzara bertaratu da. Gozoki agurtu ditu hirurak eta eurekin jarrita, albiste pozgarria eman die: Euskaltzaindiak erabaki du, Irigarai euskaltzain osoaren ekimenez, polizia nobela lehiaketa antolatzea, itzulpen zein sorkuntzaren bidez. Sariak ere ez dira nolana hikoak: mila pezeta lehena, zazpiehun eta berrogeita hamar pezeta hurrengo eta bostehun pezeta, hirugarrena.

Berbok entzuten dituen bitartean Erkiagaren asmamena aurrera joan da. Badaki zer egingo duen goizean erositako nobelarekin. Simenon euskaratuko du eta Maigret poliziak euskaraz hitz egingo du bere lumaren bitartez. Bai, horixe egingo du. Eta ordubete geroago, Oleaga Euskaltzaindiaren egoitzan utzita, elkarri agur esan diotenean hiru gizonok, Erkiagaren erabaki hura sendo hartuta dago. Lehiaketa horretan parte hartuko du.

6. Hunabar gogoetatsua: euskarazko polizia eleberriaren hasikinak

Irun hiria Espainia eta Frantziaren arteko mugan dago. Bateko eta besteko gizakumeak ari dira bertan, ari eta ari, etengabeko mugimenduan, Santiagoko zubian barrena, mugaren alde batera zein bestera. Gaztelania eta frantsesa entzuten dira barra-barra hango *venta* eta saltokietan. Euskara ere, ez gutxi. Mugak, nahitaez, mugalariak ditu eta jendarmeak eta guardia zibilak nekez ibiltzen dira haien lorratzetan.

Garraioak, nolana ere, baditu bere bide izkutu eta korapilatsuak. Istorioak sarri-sarri entzuten dira askoren ahotan hiri mugalariaren gerraoste gogorrean. Hamar urte joanak dira aleman soldadu ilegorriak joan zirenetik eta jendarme frantsesen kasketak, ohi bezalaxe, begi-bistan dituzte irundarrek.

Mugalariak, baina, ez dira jende gozo eta leunak. Aitzitik, gogorrak eta zakarrak dira, lanaren kezkek gizontzen eta trinkotzen baititu horiek. Noizbait ere, pistolak eta labanak agertu behar, kontrabandoan etorri datorren eta joan doan hori babes-tu nahian.

Polizia eleberria esango diete batzuek horrelakoei; mugalarien ipuinak bestetziek. Bi-biok ezagutzen ditu Irungo botikarioak, Jose Antonio Loidik. Euskaldun peto-pettoa, kontakizunari emana eta euskaltzale sutsua. Aspalditik darabil barruan egitasmo euskalduna. Egin-eginean ere, euskaraz ematea maiz irakurri dituen halako eleberriak, poliziaren eta gaizkileen artekoak.

Simenon, Hammett... ezagutzen ditu eta ez daki zer egin, holakoak euskaratu edota hasiera-hasieratik norabidetu jatorrizko euskal testua.

1954. urte horren udaberrian izan du Euskaltzaindiak eginiko deialdiaren berri. Hasteko, bere kautan asmatuko du nobela berria. Horra doaz, beraz, Erkiaga eta Loidi. Urteetan berdintsu dira: Erkiagak 41 urte ditu; Loidik, aldiz, 38. Lehena Bizkaitik dator, bigarrena Gipuzkoatik. Biok, bistan da, euskara dute helburu eta xede.

Hasia da euskal polizia eleberriaren bidea. *Hamabost egun Urgainen* eleberriaren lehen lerroak idatziak izan dira eta Simenonen *Aspaldiko Maigret* bidean dator.

7. Goizalde emankorra: Simenon eta Erkiaga

Itzultze-lana egiteko, behar-beharrezkoa izaten da parada ederra izatea, alegia, lasaitasuna eta isiltasuna.

Afaldu ondoren, umeak oheratu dira zaratatsu, aitari musua emanda. Emazteak etxeko lanak eginak dituela ikusita, Erkiagak bere kaieratxo hartu du eta letra txiki eta moldatuaz oharrak egin hasi da. Aldamenean du liburutxo berria; idazteko makina ere urrun ez...

Taktika behar du liburua itzultzeko. Hau ez da *Parmenides*, gero! Lehen esamolde eta perpausak misteriorik gabekoak dira:

«Una balaustrada negra dividía la habitación en dos. En el lado reservado al público, había solamente un banco sin respaldo, pintado también de negro, adosado a la pared enjalbegada y cubierta de edictos. Al otro lado había pupitres, tinteros, anaqueles repletos de enormes registros, negros también, de suerte que todo era allí blanco y negro. Destacaba, encima de una plancha de latón, una estufa de hierro como sólo se ven hoy en las estaciones de las localidades pequeñas, con su tubo que subía primeramente hacia el techo, se doblaba después y, atravesando todo el espacio, iba a perderse en la pared.

El agente, de rostro infantil, que había desabrochado su uniforme e intentaba dormir, se llamaba Lecoeur».

Hitz berriak edo «azalgarriak» ere trumilka: *zirulari* 'flautista', *men-jantzi* 'uniforme', *letoizko maindire* 'plancha de latón', *komisari* 'comisario', *komisaritegi* 'comisaría', *zadorlari* 'secretario'... Ohartuki ari da Erkiaga eta idazteari ekin dio. Euskaraz dator lehen zirriborroa, eta Simenonek euskaraz dihardu:

«Gela hura zeharraga beltz batek bi aldetan bereizia zan. Alde bata, jendearentzako lekua zan: zizelu edo alkiluze bat, bizkarroholgabea –hau ere beltzez margoztatuta–, agindupaperez betea zan horma zuria joten zegoan. Beste aldean, baziran mahai, tinteru eta apalak ugari liburuz beteak, beltzak hauek ere; eta honela, toki hartan beltz eta zuri beste kolorerik ez zegoan. Lurrean, letoizko maindire baten gainean burniazko estufa zahar bat agiri zan nabarmen, orain herri koxkorretan bakarrik ikusten ditugun gisara; haren hodia zut zegoan lehenbizi zerurantz, gero okertu samar eta azkenez gela hura alderen alde zeharkatuz horman sartu eta bukatzen zan.

Polizigizona, haur-musuduna, abizenez Lecoeur, lo-nahien agiri zan, bere men-jantziaren botoiak askaturik».

Orduak aurrera doaz eta goizalde osoan sarturik dago idazlea. Hamabiak jo ondoren, ordu bata etorri zaio Erkiagari idazten.

Lehen kapitulua bukatuxe du eta hiztegitxoaren lehen hitz bereiziak ere bai.

Bihar idazmakinez moldatuko du eta banan-banan idatziko. Maigret ezagutu du eta Parisen dago. Inor ere ez da hil eta kontuak pil-pilean datoz.

Egunetik egunera, goizaldetik goizaldera, Erkiagak, eroapen handiz, euskaraz ehotuko du nobelaren haria. Hariak hari, Erkiagak ez daki, nonbait, liburu horren izkutuko ibilbidea.

Katalunian dago horren jatorria eta arduraduna. Izena Ferran Canyameres du. Hura joan zen, 1942. urtean, Simenonen gaztelura, naziek harturiko Frantzian hark zuen gaztelura. Haren lanak gaztelaniaratzeko konbentzimentura ekarri nahi zuen polizia eleberri-egile ospetsua. Ozta-ozta lortu zuen hori eta lanean hasi. Hamalau urte pasatu dira eta gorabehera handiak dira artean.

Bigarren kontratua egin dute 1954. urtean eta badatoz itzulpenak, Francoren zentsura gorabehera. Ez dute, onik onenean ere, itzultze-lan hauek irakurleen gogoia asebate. Katalunian frantsez irakurtzen dute Simenon.

Badirudi Simenon bera Bartzelonaraino etortzekoa dela; haren izeneko saria bertan sortu da. Eman ere, 1952. urteko Sant Jordi egunean Georges Simenon saria ematen da Bartzelonan. Ferran Canyameres da Simenonen ordezkaria epaimahaian, Simenon bera epaimahaiburu izendatua delarik, nahiz eta Bartzelonara azaldu ez.

Izan du, ziur asko, horren berri Aingeru Irigarai euskaltzain osoak eta berehala ekarri du ideia Euskaltzaindira.

«Irigarai jaunaren asmoz, Euskaltzaindiak Idazti-sariketa bat atondu bear leuke, Iztegia, Ipuinak eta beste elerti lanak gaitzat arturik. Ontzat artu da asmo au ta urrengo batzarrera Irigaraik beronen egitamua ekarri dagiala erabagi da» (Euskaltzaindia, "Euskaltzaindiaren batzar-agiriak", *Euskera*, 1937-1953, 30 or.).

Batu da Akademia 1953. urteko irailaren hogeita bostean eta gai honetan hartu du erabakia: Euskaltzaindiak «Idazti-sariketa» deituko du.

«Irigarai jaunak azaltzen dau lenaurreko batzarrean aita-tutako Idazti-sariketaren egitamua, ta luze, sakon ta zabal gai au azterturik, erabagi da sariketa ori gertu ta iragartea zertzelada oneekaz (...)» (Euskaltzaindia, "Euskaltzaindiaren batzar-agiriak", *Euskera*, 1937-1953, 33 or.).

Goizaldeko ordu bata jo du Indautxuko Karmengo elizaren erlojuak. Erkiaga nekaturik dago eta itzultze-lana, gaurkoz behintzat, amaitutzat eman du.

Argia itzali eta ohe-izaren artean sartu da. Kanpoan, García Rivero kalean, isila da nagusi, lantzean behin auto baten hotsak urratzen duena, apartean, gauaren zabalean.

8. Gauaren ondoko egunsentia: saria ez da errenta

Caueroko lana aurrera doa. Egunean-egunean ibilbide bera darama Erkiagak. Maigreten liburua eskuratu eta haren lumak pasarterik nabarmenenak azpimarratzen ditu, gero paperean ohartu eta azkenean makinaz idatzi.

Zalantzak izan ditu, ez baitaki itzulpena bizkaieraz ala gipuzkera osatuaz egin. Aldeko eta aurkako arrazoiak haztandu ditu eta euskara osatuago baten alde egin du.

Oihartzunak ditu horretan bere Lekeitioko euskarak. Erkiagak, dena den, argi dauka helburua, behinola, Krutwig, Garro eta Arruzak asmatu zutena, alegia, euskara bera gizarteratzea, hala goi-mailako testu klasikoak euskaratuz nola eskurik esku erraz ibil daitezkeen bestelako testuak euskal jantziaz hornituz.

Zalantzak bestelakoak ere badira... Pasarte batzuk itzuli ez egitea erabaki du, hizkuntz arrazoen gaimetik duen barne ezintasun moralak-edo hala aginduta. Nahiz eta holako esaldiek era-

kusten duten sexu-edukia azal-azalekoa izan, bihurritasunik gabekoa, Erkiagak laburtu edo ezabatu egin ditu horiek, itzulpenetik at nahi dituelako.

Hona hemen gaztelaniazko itzulpenaren testu-zatiok eta Erkiagaren eskua, edo eskurik eza, euretan.

IV ATALA

«Hay una sola habitación en la casa, con una cama grande, y una ampliación de la fotografía del matrimonio, en un marco ovalado» (85 or.).

«¡Cuántas cosas pudiera decir yo de su cuerpo! ¡Su pecho, por ejemplo!» (90 or.) > *Haren gorputzaz zerbait erran nezake...!*

V ATALA

«Para sorprender al amante de su hermana» (108 or.) > *Bere arrebaren alde irtetzeko...*

«Y, de seguro, algunas otras combinaciones. Sin contar las mujeres» (118 or.) > *Eta, gero, badakizu, beste gorabeheraren batzuk ere bai eta...*

«Estaban los dos sentados en divanes forrados de hule, y Maigret se dio cuenta de que la mano de Germana se apoyaba en la rodilla del músico con toda tranquilidad» (120 or.).

«De pronto, mientras hablaban de otra cosa, exclamó la señora Maigret:

—¡Apuesto a que lo ha conquistado!

Y no pensó ni por un instante que la joven hubiera podido conquistar también a su marido» (120-121 or.).

VI ATALA

«Su punto de partida era precisamente el hotel donde habitaba el conde y, en su umbral, otra mujer mucho más gruesa que las otras esperaba más plácidamente.

¿Por qué se fijó Maigret en que, enfrente, había un taller de planchadora en que trabajaban muchachas jóvenes? ¿Fue a causa del contraste?» (124 or.).

«Subió, en medio de un olor a humanidad y a cocina. Una camarera amontonaba sábanas que parecían todavía húmedas de sudor, en el fondo del pasillo» (124 or.).

«No preguntó más por temor a que aumentara la desconfianza hacia él. Si no sabía dónde encontrar a Lucila, ¿qué iba a hacer allí?» (125 or.).

«... y Maigret sospechó matices entre ellas y las que pululaban por la calle de Brey. Aun las había de otra clase, las que caminaban lentamente hasta l'Etoile y, volviendo sobre sus pasos, descendían hasta la Plaza de Ternes, parándose ante los escaparates; alguna de ellas hubiera podido tomarse por una burguesa en pleno paseo» (125 or.).

«... de suerte que, durante más de una hora, le tomaron por un cliente que no acababa de decidirse» (125 or.).

«Vio entrar a unos hombres serios, con la cabeza baja, en el hotel de la calle de Brey, como atraídos por una fuerza invisible.

Los vio salir, más lamentables aún, con la mirada inquieta, y franquear el espacio desierto que los separaba de la multitud en cuyo seno recobraban al fin su aplomo» (126 or.).

«Uno de los rostros era el de una joven, fofa y plácida, que debía de hacer sus paseos por el otro lado de la avenida y que había sido atraída por el ruido. La había visto, aquella tarde, dos o tres veces en su puesto y sin duda no había tenido suerte, ya que andaba aún al acecho a aquella hora» (142 or.) > *Haietarik bata, neskatxa bat zan gizen eta barea, arratsaldean hiru edo lau bider ere ikusi zuana.*

VII ATALA

«Ella estaba bonita con su uniforme. A juzgar por la manera de mirarse, se habrían hecho el amor antes de que llegara Maigret» (146 or.).

IX ATALA

«¡Iba a dejarla escapar! Incluso la condujo al hotel de la calle de Brey, que usted conoce. Para ver hasta dónde llegaría ella. ¿Me entiende? Era un buen mozo. Pero ella no era una muñeca para entrar en un hotel como aquél, sólo por un capri-

cho. En este sentido tenía menos temperamento que una pared de cemento» (203 or.).

«No se recataba por Lucila. ¡Si ésta hubiera debido mostrarse celosa de cuantas le pasaban por las manos!» (203 or.)
> *Bai. Mutil ederra zan hura, bainan neska ordea ez zan bate-re gizonzalea.*

Zalantzak zalantza, lehenari, hots, goi-mailako testu klasikoa euskaratzeari ekin zion, *Parmenides* hura bihurtuz; bigarrenari daragoio oraingoan, konbentzitura baitago arrakasta handikoa gerta daitekeela euskalgintza urri eta debekatu honetan halako polizia eleberria.

Aurrera doaz hilabeteak eta 1953. urteak bide eman dio 1954. urteari.

Euskaltzaindiak, zernahi gisaz, urtea amaitu aurretik bere erabakia hartu du.

«Baten gaia, ertzain-gertaera irudikoa, al dala erdal izakeraduna. Neurria, irureun orrialde txiki idazkailuz lerro binaka idatzia. Epea, iragarri ondoren, sei ilabete. Sariak: lenengoa, mila peseta; bigarrena, zazpireun eta berrogetamar peseta; irugarrena, bosteun peseta» (Euskaltzaindia, «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak», *Euskera*, 1937-1953, 33 or.).

Erkiaga gogotsu ari da lanean. Egunak ordu, 1954. urtearen egutegia arin doa uda aldera.

Erkiaga Lekeition dago, bere betiko etxean, eta han bertan, Lekeitioko eliza histan duela, idazmakinari ekin eta ekin dihardu, atsedenaldi bakarrak eskura eman dioten Axularren *Gero* irakur-gaiarekin betez.

Makalago dabil euskara Lekeitioko udaldian. Udatiarrak nagusi, nekez entzuten du Erkiagak euskara kaleetan, betiko lagunen eta bertokoen artean izan ezik. Guardia zibilak eta aguzilak edonon adi-adi eta erne, euskara eta euskal kultura izan daitekeen oro debekatzeko. Azkue zenaren gomuta bizia eta lekeitia-

rren berbaro gozoa, hala ere, Arranegi kaletik datorkio usu, haize freskoa legez, boladan-boladan, erdal sargoriaren leungarri eta aringarri.

Presaka dabil bere itzultze-lanean, albait arinen amaitu beharra dago, jakin daki-eta abuztuan agortzen dela testua aurkezteko epea eta lehiakideak ere izango dituela. Ez nolana hikoak, gainera. Badirudi, galarazo guztien gainean, gogoz datorrela euskararen aldeko haizea eta olatuaren puntan dagoela hizkuntza.

«Heldu beharra dago!», diotso bere buruari Erkiagak.

«Erdu hona!», diotso ahots ezagun batek Goikokalean, egun batean, hara mandatu bat egitera joan den lekeitiarrari.

Atzera egin duenean aspaldiko adiskidea ikusi du Erkiagak, hain zuzen ere Augustin Zubikarai ondarroarra, Lekeitiora itsas afera batzuk argitzen etorri dena.

Autuetan jardun dute bi-biek, eta elkarri agur esan eta alden-du direnean, Erkiagak etxerako bidea hartu du, egun horretan amaitu behar baitu testua.

San Kristobal eguna joan da eta uztailaren azkenetara Rufo Atxurra Compañía de Autobuses Vascongadoseko arduradun eta adiskideari eman dio paketetxoa, hurrengo egunean Euskaltzaindiak Erribera kalean duen egoitzan utz dezan, Nazario Oleaga zadorlariaren eskuetan.

Paketetxoaren barruan, liburuaren testu itzulia dago. Titulua ere badu, *Aspaldiko Maigret*, eta lehiaketarako bidean daramatza, ondo lotuak, Erkiagaren itxaropen eta desioak.

Lekeitioko Eskolapetik behera, andrazko haurdun bat agurtu du hark. Maistra da eta laster ekarriko du unetxoa mundura. Galdetu dio haren neba bakarrarengatik, behinola kuadrillakide izandakoarengatik. Gerrak hura Venezuelara eramane zuen eta bertan geratu zen. Itsas kapitainaren berri eman ondoren, elkarri agur esan eta «gero arte!» batez alden-du dira.

Erkiaga, pentsakor, maistra horren unea eta ikasleak euskaldunak izango ote diren kezkatuta. Maistra, pozik, laster mundura etorri behar duen haurraren esperantzan.

Euskararen prosak, beste behin ere, Erkiagaren luma berreskuratu du.

Joanak dira 1954. urteko San Antolin jaiak. Erkiaga berriro ere Bilbon dago langile, eta Euskaltzaindia ere betiko jardunean dabil. Zenbatu ere egin ditu lehiaketan parte-hartzaile direnak. Guztira, 11 egile eta itzultzaile.

Hala jakin du Eusebio Erkiagak, Erribera kaleko egoitzara joan denean aurreko ikasturtean zehar emandako euskal eskolen jarraibideak antolatzen. Hiru dira irakasleak: Erkiaga bera, Xabier Peña eta Alfonso Irigoyen.

«El curso comienza el 1º de octubre y termina el 31 de mayo. Por ahora las personas dispuestas a llevar a cabo el desarrollo de este programa son las siguientes: Don Xabier Peña, Don Eusebio Erquiaga y Don Alfonso Irigoyen» (Euskaltzaindia, "Euskaltzaindiaren batzar-agiriak", *Euskera*, 1937-1953, 41 or.).

Erruz egin du lan Erkiagak uda aldean; Simenonena ez ezik, bestelako ikasgaiak ere atondu ditu ikasturte berrirako. Ikasgaiok liburutxo batera bildu ditu, gero kopiak atera eta ikasleen artean banatzeko. Hiztegia eta aditza dira gai nagusiak han eta Erkiagak honetara dio bertan:

«Advertencia.

Por carencia de material para los alumnos de la Lengua Vasca, y en espera de libros próximos a publicarse, presentamos este reducido Vocabulario, apresuradamente confeccionado, para uso privado de nuestros discípulos, conteniendo 2.000 voces de uso más corriente.

Se ha tomado como base el dialecto vizcaino, aunque figuran bastantes vocablos de otros dialectos, sinónimos a los de nuestro *euskalki*.

Autores consultados: Azkue, Zamarripa y Zabala-Arana» (Erkiaga, E., *Pequeño vocabulario castellano-vasco*, 35-36 or.).

Udazkena aurrera doa eta euskaltzainen lanak ere bai. Bilbon batzen dira, eskola orduetatik kanpo, Euskaltzaindiaren Erribera kalean, hainbat euskaltzain, ia-ia astero. Zurrumuruak ere badira han lehiaketari buruz. Gipuzkoarrak omen dira nagusi, bizkaitar gutxi aurkeztu dela...; ohiko kontuak. Erkiaga isilik dago, adi, nonzeberri askoren esamesetan ez baitu sinesten.

Gabonak bueltan, alabaina, prentsak egin du aldarri eta albiste:

«Urrengo sari-batzaldira ekarritako Gertitirudiak, Euskaltzainak ondo ta zeatz azterkaturik daukezan ezkeror, erabagi da: Lenengo saria *Joanak joan* deritzanarentzat.

Bigarren saria *Bide izkutua* deritzanarentzat.

Irugarren saria *Aspaldiko Maigret* deritzanarentzat.

Sari banatze au egin eta saritutako lanen egileak nortzuk diran ikusi da, onexek dira: 1.- Juan Aldamin; 2.- Sabino Berasaluze, prantziskotarra; 3.- Eusebio Erkiaga.

Ganera, aitaturgarriztat artu da *Amabost egun Urgainen* deritzain gertitirudia. Beronen egilea, Jose Antonio Loidi jauna da» (Euskaltzaindia, "Euskaltzaindiaren batzar-agiriak", *Euskera*, 1937-1953, 44 or.).

Erkiaga zoriontsu da. Prosaz badu zeregina. Laster izango du bere saria eta, batek daki, liburua argitaratzea ere bai... Halaxe lortuko du Loidik *Hamabost egun Urgainen* liburuarekin urtebete geroago, 1955ean. Erkiaga, aldiz, ahoa bete hortzekin geratuko da eta bere usteak ustel. Simenon, luze gabe, ez da jendaurrean euskaraz agertuko.

9. Galera eta aurkikuntzaren patua: azalaren enigma

1954. urtean jaio zen egun lerro hauek idazten diharduena. Ama zuen Erkiagaren maistra autukidea eta aspalditik ekin zion Erkiaga idazlearen prosa-lanak biltzeari. Erkiagarekin luze jardun ondoren, haren heriotza gogoratu nahi zuen eta Karmelo

Etxenagusia zenak behinola jaurtiriko erronkari men eginez, lekeitiarraren prosa-lanak argitaratzea ondu zuen, 2002. urtean, Labayru Ikastegiaren bidez. Bilduma haretan falta zen, oster, *Aspaldiko Maigret*, artean ostenduta zegoen testua.

Hementxe, beraz, kontakizunaren korapiloa nireganatu behar eta, zilegi bekit nire esperientzia berrestea, behinola *Karmel* aldizkarian, 2003an, azaldu nuen bezalaxe.

Hariari eutsiz, esan dezadan Erkiagaren testuak, saritua gertatu arren, inprentarako bidea ez zuela egundo ere hartu. Maigret-ek berak asmatuko ez lukeen misterio eta isilpeko baten barruan sartu zen aurrerantzean lekeitiarraren testu hau.

Erkiagak berak galdutzat jo zuen *Aspaldiko Maigret*. Hona hemen, horren erakusgarri, bi testu. Lehena, berak 1988. urtean atondu zuen *Opera omnia* delako horretatik aterea:

«1955. Euskaltzaindiak, cleder-batzaldia, nobela originalak edo itzuliak, 3gn SARIA. Euskeraturiko lana, Georges Simeononen *Aspaldiko Maigret*. Lan hau be, aldendu dabe Eibarren» (Erkiaga, E., *Berbalauaren kulunkan. Prosa lanak 1*, 78 or.).

Bigarrena, hur-hurrekoa, Roberto Mielgok egin zion elkarrizketa. Zehatz-mehatz azaldu zuen lekeitiarrak testu horrekin gertatu zena:

«Ta handik ta urtera, hemen Azkue hil zala, gero Jon Etxaide, Etxaide, aita zala, batzaldia, hor orijinalak edo itzuliak, ta orduan egin neban nik neronek *Aspaldiko Maigret* ta... Enrique, Enrique Ayerbe, hori da Eibarrekkoa, berari emon neutsan etxera eroateko, hau eta bestea be bai, ta orain galdu egin da... Esango deusut, orain urte bi galde egin eustan batek ea hori egin neban, ta nik "bai, baina Enrique Ayerbek daukaz hor, ezagutuko dozu". "Bai, csango diot", ta hor ez bata ez bestea, galdu egin da, zer egin da? Kopiatuta neukan ta berari emon, zertarako? Zorixarrean. Ta hori itzulpena izan zan» [Mielgo, R., *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*, 151 or.].

Erkiaga hil eta gero, haren berbalauzko lanak bildu eta argitaratzeko erabakia nireganatu eta berebiziko ahaleginak egin nituen testua berreskuratzeko. Lehen-lehenik, familiarekin gauzatu nituen harremanak. Ezin lagungarriago izan zitzaizkidan horiek, besteak beste, hamaikatxo antzerki, narrazio eta itzulpenlan argitara ekartzeko. Zer esanik ez, Erkiagak berak aldendutzat jotzen zuen Platonen *Parmenides* (1952) hura ere. Alfer-alferrik, oster, *Aspaldiko Maigret* aurkitzeko ahaleginak.

Hala ere, Erkiagaren liburuak plazaratu aurretik, azken ahalegina egiteko aukera izan nuen. Ikertzaile-piparik izan ez arren, ekinean jardun nuen testuaren atzetik. Gakoa, ustekabean bada ere, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekatik etorri zitzaidan. Hara zuzendu nituen nire urratsak, 1954. urteko lehiaketarako aleak, *Aspaldiko Maigret* barne, bertan izango zirelakoan.

Azkue Bibliotekako beharginekin batera, jo eta su ibili nintzen, hango paper eta abarrekoen artean, gure aurrean *Aspaldiko Maigret* hura agertu arte.

Agertu ere, paper-sail batean agertu zen, gainazal batzuen barruan egoki jarrita eta sailkatuta. Han ziren 1954. urtean lehiaketarako gaiak izan zirenak. Baina agertu bezain laster, horra etsipena! Xehetasun eta itxura guztiak Erkiagaren lorratzarekin batera etorri arren, testuaren gainazalean bazen bestelako esamoldea, hantxe bertan norbaitek eskuz idatzia baitzuen honako hau: «Estanislaio Uruzola *Uvolak* euskaratua». Testua, aldiz, gipuzkeraz idatzia zetorren, lantzean behin aditz, grafia eta esatera bizkaitarrak tartekatzen baziren ere.

Ez nuen orduan aintzakotzat hartu testu hura, *Uvola* tolosarrarena zelakoan, eta horrexegatik, nik neuk ere galdutzat jo nuen testua, eta nire bildumatik kanpo geratu zen.

Hala egin izana biziki damu dut, gaur egunean, hau da, urte batzuk geroago, testu hura berriro aintzat hartu eta erabat konbentziturik bainago testu hori dela Erkiagaren jatorrizko *Aspaldiko Maigret*, halako batean eta beste ale batez lekeitiarraren eskutik Eibar aldera joan eta bertan ostendu zena.

Non, beraz, nire okerreko bidea? Hastekoa, testuaren gainazaleko aipamenean, lehen adierazi dudan moduan; jarraitzekoa, *Uxola* tolosarraren biografian, itxura danez, behar bezala irakurri ez nuena. *Uxola* zenaren biografia hartan, bista-bistarako, bestela zetorren, hots, *Uxolak* Simenonen beste eleberrri bat itzuli zuela, hain zuzen ere, *Le dependu Saint-Pholis*, *Liejako urkatua* euskal izenburupean.

Zerk eraman nau bide berrira? Bitarikoak dira arrazoiak, aurrerago galdutzat jo nuena gure artean dagoela uste izateko: aurrena, testuaren hasieran dagoen hiztegitxoa, Erkiagaren estiloaren tankerakoa; hurrena, testuaren zati batzuk, hark idazteko eta itzultzeko zuen dohaina nabarmen erakusten dutenak.

Izatez, testu luzetxoa dugu itzulpen hau, berrehun eta hirurogeita hamaika orrialdekoa. Erkiagak 1954. urtean ondu zuen, nekez eta arineketan, lehiaketara aurkezteko asmotan. Noiz bukatu zuen ere jakina da, testutik bertatik erakartzen denez: «1954ko uztailak 22». Horiek horrela, irakur dezagun Erkiagaren aitortza, testuaren atarian:


«Georges Simenonen *La première enquête de Maigret*, euskeraz, 1954. Oarrak:

Leena.- Erabili dudan makiñaren letrak txikiak baitira, 271 orrialdetan sartu da lasai eleberrri onen edapena.

Bigarrena.- Idazlan au garbiago dedin, batez ere VI atalean lerrokada batzuk moztu izan ditut, iruzpalau aldiz, eta one-lan edonorentzat ere irakurgarri dela uste dut.

Irugarrena.- Arazopean lotua, eta epea bete-urren izaki, irakurri-ala euskeratu eta makiñaz idatzia izan da lanau, gure Euskaltzaindiaren deñari eder egin nairik».

Frogak frogatzen, egiazko azken lekukotasuna eta garrantzitsue-na gainera, Sarak, Erkiagaren alabak, eman zidan, eskuan jarri zidanean Eusebio Erkiagak Simenonen itzulpena egiteko erabili zuen gaztelaniazko testua. Hura zen lehendik nuen alearen pare-



F. Cañamerasen *La primera investigación de Maigret* itzulpenari R. Giralt Miraclele eginiko azal-irudia, 1951. urtekoa.

parekoa, desberdintasun nabarmen batez, alegia, han zirela Eusebio Erkiagaren esku prestuak kolore beltz eta urdineko arkatzez eginiko oharak.

Bazen, beraz, ukaezineko frogatzen eta argitua zen aldi berean, liburuaren azalean zetorren gizon kapeladunaren enigma. Hura ez zen hiltzailea edo polizia; Simenon zen hura, gaztelaniaz barik, oraingoan euskaraz jantzita zetorkiguna.

Enigmak enigma, lehenak bigarrena zekarren. Etorri ere, irudiaren aldamenen zetorren izen ezezaguma, M. Tlarig, hartan ere. Hura zen Giralt abizen katalana, atzekoz aurrera emana. Izen

osoa, ostera, Ricard Giralt Miracle zen, Simenonen gaztelaniazko eleberri askoren azal-egilea eta Cañameras itzultzailearen lankide prestua. Irudi bera ere, neurri batean behintzat, baliatu ahal izan da euskarazko argitalpen honetan.

10. Istorioaren azkena: argitalpena

Atal honetara bildu beharrekoak labur-labur esatekoak izaten ohi dira gehienetan, baina esku artean duzun *Aspaldiko Maigret* obraren edizioari buruzko azalpenak, ostera, arean luzeago joko du, egileak hura idazteko erabili zuen hizkuntza sistemak hamaitak txo buruhauste eman duelako.

Jakina da buruhausteok ez direla etorri testuaren transkripzioa egin orduan, *Aspaldiko Maigret*en jatorrizko testua ez baita eskuizkribua, idazmakinez idatzitako lana baino, Erkiagak Akademiaren 1954ko «Idazti-sariketa» izeneko literatur lehiaketan, eleberri arloan, aurkeztu zuen itzulpen-lana, gorago esanda dagoen moduan.

Arazoak bestelakoak izan dira, hizkuntzak berak ekarritakoak, edo hobeto esanda, egilearen erregistro «aldakorrak» eragindakoak. Erkiagak *Aspaldiko Maigreterako* atondu zuen euskara batuaren ereduak finkotasunik ez du. Lexiko mailan nabarmenagoa da hori, baina morfologia esparruan ere bada zer esan hari horretatik.

Hala, bada, Erkiagaren hizkuntz alternantzia horri gure edizio honek zer bide eman dion, hau da, nola lortu duen testua hizkuntz sistema bateratu edo berdindu batera bihurtzea azalduko da hurrengo ataltxoetan, adibide zenbait jarritz. Lehenago, baina, jatorrizko testuaren ezaugarriak ikus ditzagun.

10.1. Jatorrizko testuaren ezaugarriak

Aspaldiko Maigret alde batetik idazmakinez idatzitako 271 orriz osaturik dago, eta baditu hasieran beste lau orri, izenburuaz gainera, «Oharrak», «Hitz azalgarriak» eta «Edirengua» izeneko txatalak hartzen dituztenak.

Jatorrizko erredakzio horrek baditu gainean eskuz eginiko zenbait ohar –Erkiagak berak eginikoak seguru antzean–. Oharrak gehienak aldaketak, edo zuzenketak, egitera datoz, zerbait gehituz, kenduz edo aldatuz (*hartu* > *hartu du*, *gertatun* > *gertatu*, *tramankulo* > *tramankulu*, ez *egoan* > ez *zegoan*, *neskatza* > *neskatza...*); banakak dira lexiko ordezkapenak egitekoak (*hizpidea* > *izendegia*, *zinu* > *keinu*, *espetxea* > *bahitegi*, *jaunzki* > *soineko...*); bada inongo zehaztasunik egin barik azpimarraturik datorren hitz multzo bat, egileak zergatik edo huragatik bereiztu gura izan zituenak (*hezurretan*, *karioz*, *batez*, *ahakarrik...*); eta osterantzeko oharrak errakuntza tipografikoak zuzentzeko eginak dira (*egi* > *egin*, *polizigion* > *polizigizon*, *inzan* > *izan*, *horixebait* > *horixe bait...*).

Oraingoko transkripzioak jatorrizkoari berban-berban jarraitu dio, zehatz transkribatu dira orri guztiak. Egilearen azken zuzenketok ere aintzat hartu dira, lexiko ordezkapenatarako oharrak salbu, horien artean zalantzasak askotxo egon eta hastapeneko erredakzioan agertutako formak gordetzeari egokiago iritzi baitzaio.

Lehentxoago izentatu diren «Oharrak» eta «Hitz azalgarriak» txataletan, liburuari buruzko azaleko deskribaketa lehenengoan, eta bigarrenean, irakurketaren ulermena errazteko berba zerrenda jarri zituen Erkiagak. Informazio hori guztiori oin-oharretara bihurtu da edizio honetan eta kako karratuen artean zehaztu: hasierako azalpenok aurre-aurrean izenburuari loturik daude, eta hitz zerrenda horretako berbak bakoitza behar den tokira eramaten dira. Bestalde, «Edirengua» deritzana ez da inon ere transkribatu, edizio honetako aurkibide berriak ordetu egin duelako.

Erkiagak atonduriko hiztegitxoarekin batera, testuaren beste zenbait hitzi gehitutako baliokideak edo sinonimoak ere pilatu dira oin-oharretan, irakurleentzat mesedegarriak izan litezkeelako neologismo ahaztuak, forma lexikal ezezagunak, zein berak sortutako hitz bitxi askoren interpretaziorako. Berbarako, laugarren atalean, testuan ageri diren *jangu*, *zeia* eta *arrabita beheiti* hitzak oin-oharretan *jantoki*, *plaza* eta *kontrabaxu* berben bitartez argituak daude.

10.2. Gure transkripzioa

Transkripzio-lanerako lagungarri izan da halaber Erkiagaren familiak gure eskuan jarri zuen gaztelaniazko itzulpena, 1951. urtean Bartzelonan argitaratua izan zen hura. Han ere sarri-sarri ageri dira, lerro-bitarteetan zein orri-hegaletan, itzultzailearen eskuzko azpimarrak eta hitzen euskal ordainak. Ondorioa argi dago, beraz: lekeitiarrak gaztelaniatik bertatik egin zuen *Aspaldiko Maigret* bere itzulpen-lan hau, hain zuzen ere, Ferran Canyameresek espainieraturiko *La primera investigación de Maigret* liburutik.

a) Grafiak eta idaztemoduak gaurkoturik daude edizio honetan

- /h/ (zaar > zahar, iguin > higuin, lendabiziko > lehendabiziko)
- /ill/ > il (ikertzaile > ikertzaile; salbu: masilla, bonbilla)
- /iñ/ > in (baña > baina)
- /iy/ > /ij/ (ziyoan > zijoan)
- /y/ > /j/

-
- /ba + l-/ (ba letor > baletor)
 - /bai-/ (bai-zen > baitzen, bai-gara > baikara)
 - /bai + g-/ (bai genituan > baikenituan)
 - /bai + l-/ (bai litzan > bailitzan, bai-luan > bailuan)
 - /bai + z-/ (bai-zan > baitzan)
 - /bait + d-/ (bait-da > baita, bait-dit > baitit, bait-ditut > baititut)
 - /bait + n-/ (bait nau > bainau, bait naiz > bainai)
 - /bait + z-/ (bait-zeraman > baitzeraman, bait-zuan > baitzuan)
 - /ez + (z)- > ez + z-/ (ezuan > ez zuan)
 - /ez + d- > ez + t-/ (eztut > ez dut)
 - /ez + p- > ez + b-/ (ezpalira > ez balira)
 - /-ezkero > -ez gero/ (zagozanez gero, zarenez gero; baina: hasi ezkero, lagundu ezkero)

- /ezpai- > ez bait-/ (ezpaitzuan > ez baitzuan, ezpaitzegan > ez baitzegan, ezpaita > ez baita)

-
- /-(e)la-ta > -(e)la eta, -(e)la-eta/ (zuala eta, nengoala-eta)
 - /-kela > -kela/ (litekeela, litzakeela)
 - /-ken > -keen/ (zegokiokeen, litekeen)

-
- /partizipioa + ahala/ (irakurri-ahala > irakurri ahala, idiki-ahala > idiki ahala, egin-ahala > egin ahala)
 - /partizipioa + arazi/ (jatsi arazi > jatsiarazi, igorri arazi > igorriarazi, itxadon-arazi > itxadonarazi, igan-arazi > iganarazi)
 - /partizipioa + -berri/ (ikasi-berria > ikasi berria, jaiki-berria > jaiki berria)

-
- /gidoia + deklinabide marka/ (Maigret-i > Maigreti, Rikard-ek > Rikardek)
 - /-keri > -keria/ (harrokeriarik, koldarkeria, itxurakeria)
 - /-rarte > -ra arte/ (goizalderarte > goizaldera arte)
 - /ta/ > /eta/ (salbu: bada-ta, nahi-ta)

b) Edizio honek egin dituen berben banaketa motak

- agertuberri > agertu berri
- atxilotubeharrak > atxilotu beharrak
- behar bada > beharbada
- begiertz > begi-ertz
- beinepein > behinik behin
- bide aldi > bidealdi
- enetxo hori > enetxoori
- goizalderarte > goizaldera arte
- hotsegin > hots egin
- igorri arazi > igorriarazi
- ile horixka > ilehorixka

intxaurrol > *intxaur-ohol*
izatezkero > *izatez gero*
jakinezkero > *jakin ezkero*
jatsi arazi > *jatsiarazi*
lagunabar > *lagun abar*
larrisamar > *larri samar*
laztan hori > *laztanori*
leherregin > *leher egin*
lur gaina > *lurgaina*
mahaigainean > *mahai gainean*
ministerioetxe > *ministerio-etxe*
okertusamar > *okertu samar*
sar arazi > *sarrarazi*
urrekoloreko > *urre koloreko*
zenbat garrenez > *zenbatgarrenez*

c) *Gidoiaren auzia: gure edizioaren hautua adibide batzuen bidez*

alda-gelatxo > *aldagelatxo*
alderen-alde > *alderen alde*
ate-aurre aurrean > *ate aurre-aurrean*
atera-arazi > *aterarazi*
bata > *bada-ta*
bihotz-bera > *bihozbera*
bizkar-gainetik > *bizkar gainetik*
burni-ontzi > *burniontzi*
buru-muin > *burumuin*
buru-zapi > *buruzapi*
buztantxamarra > *buztan-txamarra*
dizdiz egin > *diz-diz egin*
dizdiz-era > *dizdizera*
edan-arazi > *edanarazi*
egin-ahala > *egin ahala*
ekarri-arazi > *ekarrarazi*

entzun-arazi > *entzunarazi*
esku-zapi > *eskuzapi*
eten-arazi > *etenarazi*
ez-ta > *ezta*
-gn > *garren*
gudari ibilketa > *gudari-ibilketa*
hartu-arazi > *hartuarazi*
hordimozkor > *hordi-mozkor*
idiki-ahala > *idiki ahala*
igan-arazi > *iganarazi*
ikasi-ta > *ikasita*
irakurri-ahala > *irakurri ahala*
itxadon-arazi > *itxadonarazi*
kalealbenian > *kale-albenian*
kalertz > *kale-ertz*
katehots > *kate-hots*
lan-etxe > *lanetxe*
magal-zapi > *magalzapi*
mahai-zapi > *mahaizapi*
nonnai > *non-nahi*
polizi-etxe > *polizietxe*
polizi-gizon > *polizigizon*
polizi-jokaera > *polizi jokaera*
polizi-lege > *polizi lege*
salakuntza lana > *salakuntza-lana*
unerik-une > *unerik une*
zaldigurdi > *zaldi-gurdi*

d) *Puntuazioaz eta tipografiaz, argibide batzuk*

- Puntuazio txukuna dakar jatorrizko testuak; banakak baino ez dira zuzendu behar izan, komak jarritz gehienbat.
- Letra larri eta xeheen erabilera ere arteza da; lantzean behineroa izan da letra larri desegokiren bat.

- Jatorrizko testuan mailegurik gehienak letra etzanez ageri badira ere, edizio honetan letra arruntez datoz, euskarak bereganaturik baititu egun: *metro*, (frac >) *frak*, *smoking*, (chofer >) *txofer*, *jaket*, (ballet >) *balet*, *masaje*, *erregaliz*. Badaude, halere, letra etzanez etorri behar dutenak oraindik ere: *bock*, *morgue*, *etab*.
- Kakotxoak, ohikoa denez, aipamen zuzenak adierazteko erabili dira.

10.3. Zuzendutako erratak: ageri-agerikoen zerrendatxoa

I ATALEAN

entzutzetsu > *entzutetsu*
 listua korka ostean > *listua korkatu ostean*
 nor egoten dan? > *nor egoten da?*
 lausotu gelditu > *lausotuta gelditu*
 gau on bat opa dizkizuet > *gau on bat opa dizuet*
 komisariegiko > *komisaritegiko*
 Balthazaren > *Balthazarren*
 1913 > *1913ko*
 15gn jazo zan > *15garrenean jazo zan*
 erditatik > *erdietatik*

II ATALEAN

utziko al didazu zu ikustera etortera? > *utziko al didazu zu ikustera etorten?*
 urritizkina > *urrutizkina*
 hain zuzen are > *hain zuzen ere*
 Invalidetan > *Invalideetan*
 urina > *urrina*

III ATALEAN

geroatxoago > *gerotxoago*
 urteen aztuna > *urteen aztura*

puskatez > *puska batez*
 ordaini > *ordain*

IV ATALEAN

malmutz kartxo bat > *gartxo malmutz bat*
 uzten al didazu? > *utziko al didazu?*
 aditu ezakezu > *aditu dezakezu*

V ATALEAN

telefonik > *telefonorik*

VI ATALEAN

zuta-zeharrak > *zut-zeharrak*
 Errusitar > *Errusiatar*

VII ATALEAN

gauz > *gauza*
 Belguera > *Belgikara*
 egun batzun beharrez > *egun batzuen beharrez*

VIII ATALEAN

ezker eskui > *ezker-eskuin*
 belerri > *belarri*
 zuk bazenekian nik nor nintzan, ezta? > *Zuk bazenekian ni nor nintzan, ezta?*

IX ATALEAN

gotik-erako > *gotiko erako*
 Gendreutarrak > *Gendrecutarrak*
 eta zer esango diot bada Justin? > *eta zer esango diot bada Justini?*
 lanegi > *lantegi*
 naskatzarentzat > *neskatxarentzat*

10.4. Erkiaga ahaleginetan: euskara batuaren eredu bila

a) Jatorrizko testuaren lexiko zein aditz-forma bikoitzaren aurrean, edizio honek maiztasunik handiena duenaren alde egin du.

abots / ahots > AHOTS
adierazi / adiarazi / adirazi > ADIRAZI
adina / aina > AINA
ageri / agiri > AGIRI
agertarazi / agertuarazi > ACERTARAZI
agudo / aguro > AGURO
aitzin / aintzin > AITZIN
alabaina / alabainan > ALABAINAN
antzina / aintzina > ANTZINA
ardo / ardao / ardau > ARDO
ardoztatu / ardauztatu > ARDOZTATU
argiontzi / argiuntzi > ARGIONTZI
arrantzu / arraintzu > ARRANTZU
asmo / asmu > ASMU
atorrutsean / atorra hutsean > ATORRUTSEAN
aulki / alki > ALKI
aurpegi / arpegi > AURPEGI
axolarik / axolik > AXOLARIK
azal / axal > AZAL
azio / azino > AZINO

ba = bada (*ba* testuinguru adierazkorretan)
baina / bainan > BAINAN
BAGE = GABE
bake / pake > BAKE
barkatu / parkatu > BARKATU
barreanean / berreanean > BARRENEAN
batzuk / batzu > BATZUK
BEGIRATU = BEHATU

beharrez / beharraz > BEHARREZ
behean / beian > BEHEAN
berehala / berala > BEREHALA
beribil / berebil > BERIBIL
bereizi / bereixi > BEREIZI ('desberdindu')
berezi / bereizi / bereixi > BEREZI ('aparteko')
besaulki / besalki > BESALKI
besoan / besuan > BESOAN
beste aldera / bestaldera > BESTE ALDERA
betetzen / beteten > BETETEN
betiere / beti ere > BETIERE
bezain / bezin > BEZIN
bezala / bezela > BEZELA
beldur / bildur > BILDUR
bezanbat / bezenbat > BEZENBAT
BIALI = BIALDU
bider / bidar > BIDER
bigar / bihar > BIHAR
bitxi / pitxi > PITXI ('purtzilkeria')
bonbila / boronbila > BONBILA
bultz egin / bultza egin > BULTZ EGIN
buztan / buzten > BUZTAN

dabiltza / dabiltz > DABILTZA
dagoala / dagola > DAGOLA
dagoan / dagon > DAGOAN
DAGOEN = DAGOAN
deitu / geitu > DEITU
DELA = DALA
DEN = DAN
denbora / denpora > DENPORA
duzu / dezu > DUZU
DUEN = DUAN

duzue / duzute > DUZUTE

edo eta / edota > EDOTA
eduki / euki / iduki > EDUKI
egonarri / egoarri > EGONARRI
egudo / eguno > EGUNDO
ehiza / ehize > EIIZE
ekarrarazi / ekarri-arazi > EKARRARAZI
eliza / eleiza > ELEIZA
erraz / errez > ERREZ
eztanda / iztanda > EZTANDA
ezbai / ezpai > EZBAI
ezkutu / izkutu > EZKUTU
ezagutu / ezautu > EZAGUTU

gain- / gan- > GAIN-
gaixo / gciso > GEISO
gar / kar > GAR
garratz / garratz > GARRATZ
gauez / gabaz > GAUEZ
gizagaixo / gizaizo / gizaixo > GIZAIXO
GOZO = GOXO (*goxo* testuinguru adierazkorretan)
gutxi / gitxi > GUTXI
guzti / guzi > GUZTI

HARK = HAREK
hala / halan > HALA
HANDI = HAUNDI
hantxe / hantxen > HANTXEN
hartu-eman / hartueman / hartu eman > HARTU-EMAN
haserre(tu) / hasarre(tu) > HASERRE(TU)
hauxe / hauxen > HAUXE
hiri / uri > URI

hilten / hiltzen > HILTEN
holaxe / holaxen > HOLAXEN
horixka / horiska > HORIXKA
horrelako / horlako > HORRELAKO
hots egin / hotsegin > HOTS EGIN

ibilera / ibilkera > IBILERA ('ibilaldi')
ibilera / ibilkera > IBILKERA ('pauso')
ibiltzeko / ibilteko > IBILTEKO
IGAN = ICON
inon / inun > INUN
irakurtzen / irakurten > IRAKURTEN
iritxi / iritxi > IRITXI
irriparre / irripar / irriparra > IRRIPARRA
irten / urten > IRTEN
isil / ixil > ISIL
itaun(a) / itaune > ITAUNE
itaundu / itandu > ITAUNDU
itsusi / itxusi > ITXUSI
itxadon / itxedon > ITXADON
itxaron / itxoin > ITXARON
ITXARON = ITXADON
iztil / istil > IZTIL ('orin')

jaiki / jeiki > JAIKI
jantzi / jauntzi > JANTZI
jatsi / jetsi / jetxi > JATSI
jantzi / jauntzi > JANTZI
jotzen / joten > JOTEN

kate / katae > KATE
kale-ertz / kalertz > KALE-ERTZ
kito / kitu > KITU
koltxoi / koltxoe > KOLTIXOE

kopeta / kopet > KOPET
KOSKOR = KOXKOR (*koakor* testuinguru adierazkorretan)
kuadro / kuadru > KUADRU

labana / labaina > LABANA
LASAI = LASA
laster / laister > LASTER
lezio / lezino > LEZINO
limurtu / linburtu > LINBURTU
litzateke / litzake > LITZAKE

MORROI = MORROE (*morroia*, baina *morroe bat*)
mota / mueta > MOTA

nagusi / nausi > NAGUSI
nahaspilatu / nahaspildu > NAHASPILATU
naiz / naz > NAIZ
negar / nigar > NEGAR
NESKA = NEXKA (*nexka* testuinguru adierazkorretan)
noiz / noz > NOIZ
non / nun > NUN
nonbait / nunbait > NUNBAIT
noski / naski > NOSKI
nuen / nuan > NUAN

ordu batean / ordu batetan > ORDU BATETAN
osatu / osotu > OSATU

parregarri / parragarri / barragarri > PARRAGARRI
parrez / parraz > PARRAZ
premia / premia > PREMIA

samar / xamar > SAMAR
SAMUR = XAMUR (*xamur* testuinguru adierazkorretan)
saso / sasoe > SASOE
sinestarazi / sinisterazi > SINISTARAZI
sinestu / sinistu > SINISTU
soingaineko / soinganeko > SOINGANEKO
sumatu / somatu > SUMATU

tiro-hots / tirots > TIROTS

ukitu / ikutu > UKITU
usain / usai > USAI

xaboi = xaboe (*xaboez*, baina *xaboe usain*)
XEHE = ZEHE
xirxikatu / txirtxikatu > XIRXIKATU

zain / zai > ZAI (-*zain* konposizioan, *atezaintza*, *ertzain*, *zal-dizain*, etab.)
zaizu / zaitzu > ZAITZU
zara / zera > ZARA
zegoala / zegola > ZEGOALA
zegoan / zegon > ZEGOAN
zeinu / sinu > SINU
zen / zan > ZAN
zenuen / zenuan > ZENUAN
ZER = ZE (*ze* + *ordu* izenarekin)
ziren / ziran > ZIRAN
zirulari / xirulari > ZIRULARI
zitekela / zitekeala > ZITEKEALA
zitezkeala / zitezkeala > ZITEZKEALA
ZURI = TXURI

b) Jatorrizko testuaren zenbait hitz aldatu behar izan du ezinbestez edizio honek, egungo eredu estandarren mesedetan.

aldeztzeko > <i>aldezteko</i>	hustucrazi > <i>hustuarazi</i>
antzia > <i>antsia</i>	iskanbil > <i>iskanbila</i>
ardaozun > <i>ardozun</i>	itzulten > <i>itzultzen</i>
ardurazgo(ra) > <i>ardurazko(ra)</i>	jaboe > <i>xaboe</i>
arnasik > <i>arnasarik</i>	kaixkar > <i>kaxkar</i>
axolik > <i>axolarik</i>	komeri > <i>komeria</i>
bapatean, batbatean > <i>bat-batean</i>	museu > <i>museo</i>
bereistu > <i>bereiztu</i>	nahaspil > <i>nahaspila</i>
beinikpein, beinipein > <i>behinik behin</i>	nahaspiltzale > <i>nahaspilazale</i>
beste alderatu > <i>bestalderatu</i>	noizpein, noizpeinka > <i>noizbehin, noizbehinka</i>
biotzbera > <i>bihozbera</i>	pixama > <i>pijama</i>
botella > <i>boteila</i>	polizi > <i>polizia</i>
burnizko > <i>burniazko</i>	(<i>poliz-</i> konposizioan, <i>polizikuntza, polizitegi, etab.</i>)
dardarez > <i>dardaraz</i>	sauketa > <i>xahuketa</i>
durduzagarri > <i>durduziagarri</i>	sinistzeko > <i>sinisteko</i>
egitan > <i>egiatan</i>	theatru > <i>teatru</i>
egurastzen > <i>egurasten</i>	tranbi > <i>tranbia</i>
ekalde > <i>ekialde</i>	zerzelada > <i>zertzelada</i>
ezeuki > <i>ezeduki</i>	zinu > <i>sinu</i>
gaztiapena > <i>gaztigapena</i>	

10.5. Euskalkiak aldarrikatuz: edizio honek utzi dituen lexiko aldaerak

adinide (ez <i>adinkide</i>)	ilunbe (ez <i>ilunpe</i>)
aina (ez <i>adina</i>)	ipui (ez <i>ipuin</i>)
arraultza (ez <i>arrautza</i>)	iseki (ez <i>eseki</i>)
atadi (ez <i>atari</i>)	itunben (ez <i>itunpen</i>)
axolakabe (ez <i>axola gabe</i>)	itzurpide (ez <i>itzurbide</i>)
haberrun (ez <i>babarrun</i>)	kaxkar (ez <i>kaskar</i>)
behatu (eta <i>begiratu</i>)	keixu (ez <i>kexu</i>)
beltzeran (ez <i>beltzaran</i>)	maixiatu (ez <i>maiseatu</i>)
bertze (eta <i>beste</i>)	menean (ez <i>mendean</i>)
bezanbat (ez <i>bezainbat</i>)	miriku (ez <i>mediku</i>)
bezeru (ez <i>bezero</i>)	ormain (ez <i>orbain</i>)
biali (ez <i>bidali</i>)	ospatsu (ez <i>ospetsu</i>)
biguin (ez <i>bigun</i> , baina <i>bigundu</i>)	paittar (ez <i>pattar</i>)
bihozkabetu (ez <i>bihozgabetu</i>)	pardel (ez <i>fardel</i>)
blei (ez <i>blai</i>)	parra (ez <i>barre</i>)
boteila (ez <i>botila</i>)	sapai (ez <i>sabai</i>)
bukata (ez <i>bokata</i>)	teatru (ez <i>teatro</i>)
dipon (ez <i>jipoi</i>)	txanpain (ez <i>xanpain</i>)
dizdizu (ez <i>dizditsu</i>)	txukatu (ez <i>xukatu</i>)
durduzia (ez <i>durduza</i>)	uharre (ez <i>uhar</i> edo <i>arre</i>)
edanontzi (ez <i>edalontzi</i>)	usai (ez <i>usain</i>)
eskalapoin (ez <i>eskalapoi</i>)	zai (ez <i>zain</i>)
eskeini (ez <i>eskaini</i>)	zailu (ez <i>zalu</i>)
haura (eta <i>hura</i>)	zapatilla (ez <i>zapatila</i>)
hertsi (ez <i>hetsi</i>)	zarpil (ez <i>zarpail</i> , baina <i>zarpaildu</i>)
hontan (ez <i>honetan</i>)	zerbel (ez <i>zarbel</i>)
hortan (ez <i>horretan</i>)	zizelu (ez <i>zizeilu</i>)
igan (ez <i>igo</i>)	ziztu (ez <i>txistu</i>)

10.6. Bizkaiera dariola: edizio honek utzi dituen bizkaierazko berbak

alper (ez <i>alfer</i>)	keia (ez <i>kea</i>)
andrazko	kisket (ez <i>kisketa</i>)
april (ez <i>apiril</i>)	klabelin (ez <i>krabelin</i>)
arbindu	kolorga (ez <i>kolorge</i>)
arkazi (ez <i>akazia</i>)	korbata (ez <i>gorbata</i>)
atxitu (ez <i>atzitu</i>)	kuadru (ez <i>koadro</i>)
berrogeta (ez <i>berrogeita</i>)	larogeta zortzi (ez <i>larogeita zortzi</i>)
bialdu (eta <i>bidali</i>)	lasa (ez <i>laxa</i>)
bizikera (ez <i>biziera</i>)	legor (ez <i>lehor</i>)
burukomin	legorpe (ez <i>lehorpe</i>)
demorrio (ez <i>demonio</i>)	legun (ez <i>lehun</i>)
eleiza (ez <i>eliza</i>)	lurrazpil
emaztegei (ez <i>emaztegai</i>)	mahaipuru (ez <i>mahaiburu</i>)
erloiu (< erloio; ez <i>erloju</i>)	malizia (ez <i>malezia</i>)
eskoi (ez <i>eskuin</i>)	meia (ez <i>mehea</i>)
etxaun (ez <i>etxagun</i>)	miesa (ez <i>mihise</i>)
etxekandre (ez <i>etxekoandre</i>)	minkats (ez <i>mikatx</i>)
euskeratu (ez <i>euskaratu</i>)	moltso (ez <i>multzo</i>)
garramaztu	onu
giltz (ez <i>giltza</i>)	sarpide (ez <i>sarbide</i>)
hogeta (ez <i>hogeita</i>)	satén (ez <i>satín</i>)
horraitio (ez <i>horratio</i>)	seda (ez <i>zeta</i>)
ibilpide (ez <i>ibilbide</i>)	sueta (ez <i>suete</i>)
iges (ez <i>ihes</i>)	suhin (ez <i>suhi</i>)
igon (ez <i>igo</i>)	taiu (ez <i>taxu</i>)
iragi (ez <i>ireki</i>)	txinurri (ez <i>txindurri</i>)
itaun(e)	ugal (ez <i>uhal</i>)
itaundu	uleguri (ez <i>ileguri</i>)
jake (ez <i>jaka</i>)	uribide (ez <i>hiribide</i>)
jatsi (ez <i>jaitxi</i>)	zaketz (ez <i>sakats</i>)
jaurtigi	zegaitia (ez <i>zergaitia</i>)
jazkera (ez <i>janzkera</i>)	zuleria (ez <i>zureria</i>)
kale-muna	

11. Eskerrak ematea

Hasteko, Eusebio Erkiaga zenaren etxekoei, alegia, Mertzxe Telleria Angulo alargunari eta Esther, Francisco Jabier, Eloisa eta Sara seme-alabei, eurei esker eskura izan dudalako behinola Eusebio Erkiagak erabili zuen gaztelaniazko testua.

Orobat Labayru Ikastegiari eta Igone Etxebarriari, sarrera idaztearren eta Eusebio Erkiagarengana bi-biok dugun miresmen erkidea sustatzearren. Hartara, lekeitiarraren testu argitaragabe hau, urte luzeen buruan, euskaltzale guztion eskuetan jarri da.

Hasian hasi, Euskaltzaindiari eta Azkue Bibliotekako langileei, bereziki Josune Olabarria eta Nere Altunari, eskerrak ez ezik, berebiziko aipamena ere, euren laguntasunari zor baitiot testua aurkitu eta argitaratu ahal izatea. Bide beretik, *Aspaldiko Maigret* Azkue Bibliotekan aurkitua izan dela eta, horrek erakusten duen berariazko lekukotza aitortu beharra dago, besteak beste, euskarentzako urterik gogorrenetan Euskaltzaindiak berak egin zuen lana balioesteko eta ikertzeko.

Ezin bazterrean utzi, bide beretik Euskaltzaindiak baimena eman duela argitalpen hau egiteko.

Azkenik, aipatzeko da liburu honetan izan ditudan laguntzailerik bikainak. Lehena Aitziber Urkiza, jatorrizko testuaren lehen transkripzioa egin zuena; eta bigarrena, Nagore Etxebarria. Egia esanda, azken hau gabe ezinezkoa izango zen liburu hau kalean egotea. Bere esku trebe eta zehatza erabakigarri gertatu da hainbat pasarte eta korapilo askatzeko, batez ere, testua finkatzeko orduan.

Etxekoak ere ezin ahaztu... Josefina, Itziar eta Ane zena, hor zaituztet, maite-maite.

12. Bibliografia

a) Edizioari dagokionez:

- ERKIAGA, E. *Aspaldiko Maigret*. Azkue Biblioteka, Euskaltzaindia, 1954. (Idazmakinezko testu argitaragabea.)
- SIMENON, G. *La primera investigación de Maigret*, Colección Albor bilduma (Maigret en acción saila), 18 zk. Bartzelona: Ayná, 1951. (Itzultzailea: F. Cañameras.)
- . *La primera investigación de Maigret*, Biblioteca Maigret bilduma, 30 zk. Bartzelona: Tusquets, 2004. (Itzultzailea: J. Albiñana.)
- . *La première enquête de Maigret*, Le Livre de Poche bilduma. Paris: Librairie Générale Française, 2004.

b) Sarrerari dagokionez:

- ABASOLO, J. «Relato: Maigret en Bilbao», *Especial: Centenario Georges Simenon*. Gijon: Zeki (Internet bidez), 2003.
- AGIRREAZKUENAGA, J. «Egunaren erronkak bizirik», in *Berria*, 2006ko abenduaren 31n.
- ANASAGASTI, P. «Fray Luis Villasante, académico», in *Arantzazu*, 1952-5, 236 or.
- ANTZERTI. «Urruzola eta Bitoria'tar Estanislao, *Uxola*. Askatasun garratza ('Libertad amarga')», in *Antzerti*, 56 zk., 1983, 5-11 or.
- ARANA MARTUA, J. A. «Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat», in *Euskera*, XXXV, 1990-1, 15-33 or.
- . «Luis Villasanteren bio-bibliografia», in *Iker*, 6 zk. Bilbo: Euskaltzaindia, 1992, 11-87 or.
- BIENZOBAS, E. «Un tal Maigret», *Especial: Centenario Georges Simenon*. Gijon: Zeki (Internet bidez), 2003.
- DÍAZ NOCI, J. «Egunaren eguna», in *Berria*, 2006ko abenduaren 31n.
- ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAIS VASCO. «Concursos y certámenes», *Arte, lengua y literatura*, III-Literatura. Donostia: Auñamendi, 1973, 139-149 or.

- . «Estanislao Urruzola Vitoria, *Uxola*», *Arte, lengua y literatura*, III-Literatura. Donostia: Auñamendi, 1974, 166-167 or.
- ERKIAGA, E. *Pequeño vocabulario castellano-vasco*. Azkue Biblioteka, Euskaltzaindia, 1953. (Idazmakinezko testu argitaragabea.)
- . *Berbalauaren kulunkan. Prosa lanak*, 1 eta 2, Sutondoan bilduma. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK, 2001. (Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia.)
- . *Goizean eta arratsean: eskubete neurtitz*, 1 eta 2, Sutondoan bilduma. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK, 2006. (Sarrera: Igone Etxebarria.)
- EUSKALTZAINDIA. «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak», in *Euskera*, 1937-1953. Donostia: Sendoa, 1982.
- GARATE, G. «Jon Andoni Irazusta eta Euskalerriko elaberri errealista», *Gerraosteko literatura*, Gauontza bilduma. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1989, 17-31 or.
- . «Euskal polizia eleberrien hasiera», in *Jakin*, 105 zk., 1998, 53-69 or.
- . *Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria*. Donostia: Elkarlanean, 2000.
- IBÁÑEZ, J. «Georges Simenon. Maigret. 1931», *Especial: Centenario Georges Simenon*. Gijon: Zeki (Internet bidez), 2003.
- IRIGOIEN, A. *Sorterriaren alde*. Donostia: Kriselu, 1976.
- . «Erantzumaren epistola-eraskina», *De re philologica linguae vasconicae*, III. Bilbo: Alfonso Irigoien, 1990, 251-256 or.
- . «Epístolas de Erkiaga y Eu-logos a Krutwig a París», *De re philologica linguae vasconicae*, IV. Bilbo: Alfonso Irigoien, 1992, 103-108 or.
- KOLDO MITXELENA KULTURUNEA. *Georges Simenon (1903-1989)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003.
- KRUTWIG, F. *Euskal kulturaren araudia*. Azkue Biblioteka, Euskaltzaindia, 1951. (Idazmakinezko testu argitaragabea.)
- . «Hirur hitzaldi eta izkribu bat», in *Egan*, 1986 (3-4), 9-50 or.

- «Hitzaldi bat eta bere aurre-historia», in *Egan*, 1986 (5-6), 11-36 or.
- *Bilbao de los años cuarenta en torno a Blas de Otero y Resurrección M.^a de Azkue*. Azkue Biblioteka, Euskaltzaindia, 1991. (Argitaragabea.)
- LA GACETA DEL NORTE. «Academia de la Lengua Vasca», in *La Gaceta del Norte*, 1951ko irailaren 28an.
- LEKUONA, J. M. «Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1933)», in *Euskera*, XXXVI zk., 1991-2, 491-500 or.
- LOIDI BIZKARRONDO, J. A. *Hamabost egun Urgainen*. Zarautz: Itxaropena, 1955.
- MIELCO MERINO, R. *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1954-1964)*, Aita Santi Onaindia Beka bilduma. Bilbo: Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, 1995.
- OLEAGA, N. «Osoko Bilkuraren agiria, 1951-XI-30», in *Euskera*, XVII zk., 1951, 22-23 or.
- PLA, X. *Simenon i la connexió catalana*. Valentzia: Tres i Quatre, 2007.
- SATRUSTEGI, J. M. «Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1959-1963)», in *Euskera*, XXXVII zk., 1992-2, 557-571 or.
- SIMENON, G. *Las memorias de Maigret*, Clásicos del Siglo XX bilduma, 36 zk. Madril: Diario El País, 2003.
- *Enigmak*, Irakurmendi bilduma, 24 zk. Donostia: Elkarlanean, 1998. (Itzultzailea: I. Mendiguren.)
- URRUTIA, A. «Simenon euskaraz edo Eusebio Erkiagaren *Aspaldiko Maigret*», in *Karmel*, 243 zk., 2003-3, 15-25 or.
- «*Eguna*, hirurogeita hamar urte geroago», in *Berria*, 2006ko abenduaren 31n.
- VILLASANTE, Fr. L. «Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain eratu», in *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* (RSBAP), VIII zk., 1952-1, 91-298 or.

Andres Urrutia

ASPALDIKO MAIGRET

I

ZIRULARIAREN AITORPENA

Gela hura zeharraga beltz batek bi aldetan bereizia zan. Alde bata, jendearentzako lekua zan: zizelu edo alkiluze bat, bizkarroholgabea –hau ere beltzez margoztatuta–, agindu-paperez betea zan horma zuria joten zegoan. Beste aldean, baziran mahai, tinteru eta apalak ugari liburuz beteak, beltzak hauek ere; eta honela, toki hartan beltz eta zuri beste kolorerik ez zegoan. Lurrean, letoizko maindire¹ baten gainean burniazko estufa zahar bat agiri zan nabarmen, orain herri koxkorretan bakarrik ikusten ditugun gisara; haren hodia zut zegoan lehenbizi zerurantz, gero okertu samar eta azkenez gela hura alderen alde zeharkatuz horman sartu eta bukatzen zan.

Polizigizona, haur-musuduna, abizenez Lecoeur, lo-nahien agiri zan, berc men-jantziaren² botoiak askaturik.

Orduari bat, hau ere beltzez inguratua, ordu batak eta hogeta bost parean zan. Noizik behin, gas-metxeru bakarrak putzaldi izaten zuan. Eta estufa ere, haura bezala, unerik une zurrungaka hasten zan, zergatik ez jakin.

¹ [Letoizko maindire: *plancha de latón*.]

² [Men-jantzi: *uniforme*.]

Kalean gaueko isiltasunaren kaltez, petardo bat edo besteren eztanda gero eta bakanago, mozkorraren abestiren bat edo kale-maldan zijoan zaldi-gurdiaren hotsa ohar zitekean.

Ezkerreko mahaiaren aurrean, Saint-Georges auzuneko komisaritegiko³ zadorlaria⁴ irakurten ari zan, ikasle bat bailitzan ezpainak erabiliz, agertu berri zan liburu bati begira: «Polizigizon eta ikerleentzat⁵ egindako gizakera-zehaztasunak⁶. (Mintzo bidez irudia ikusarazteko)».

Liburu-azalean, tinta ubelez, esku batek eginiko moldezko letrak zituan: «J. Maigret».

Gautu zanetik hiru aldiz jaikia zan komisaritegiko zadorlari gaztea, estufako sua suspertu asmoz. Estufa honen gomuta eta mina bere bizitza osoan izango zuan: berbera edo berdintsua izango zan gero egumen batean Quai des Orfèvresen aurkituko zuana, eta geroago Auzi-poliziategian berokin estekatuak ipintean, Maigret komisari⁷ nagusiak bere arazguan⁸ edukiko zuana, baimenez.

Gertakari hau 1913ko jorrailaren 15garrenean jazo zan. Auzi-poliziak ez zuan, anartean, izen hau; La Sûreté zan, soilik. Goiz hartan, kanpotar errege bat jatsi zan trenetik Longchampseko geltokian, Errepublikako lehendakariak ospe eta omen haundiz harturik.

Agintariaren gurdi apainak, nazinoko gudariz inguratuak, Boloniko Baso Uribidean zehar eta Eliseos Landetan barruna elkarren orpozka iragan ziran, jendeketa eta bandera-lerroen erdietatik.

Egundoko jaia ospatu zuten Operan, jolas-suak eta ibilketak kaleetan, eta herri-jaien zurrumbilo eta iskanbila, orduko, zertxobait makaltzen hasi zan.

³ [Komisaritegi: *comisaría*.]

⁴ [Zadorlari: *secretario*.]

⁵ [Ikerle: *inspector*.]

⁶ [Gizakera-zehaztasun: *filiación descriptiva*.]

⁷ [Komisari: *comisario*.]

⁸ Arazgu: *despatxu*.

Polizigizonek bazuten asko burukominik. Hartutako neurriak gorabehera, aldiz aurretiko atxilotu beharrak gorabehera, bildur-garri ziran zenbaitzuen ondorean zai eta begira ari izan arren, anarkistaren baten eztrandakiren batek leher egin ote zezakeaneko izu-ikaraz zebiltzan.

Maigret eta Lecoeur polizigizona zegozten soilik Saint-Georges auzoko komisaritegian, La Rochefoucauld kale baketsuan, goizaldeko ordu bat eta erdietan.

Kale-albenian⁹ oinots estuak entzunik, biok jaso zuten burua. Atea idiki eta gizon gazte bat, arnasarik ere bage, ingurura so egin eta gas-argiak lausotuta gelditu zan.

—Komisari jauna? —galdegin zuan, hatsanka.

—Ni naiz haren zadorlari —jardetsi zuan Maigretrek, alkitik zutitutzeke.

Ez zekian, alazaina¹⁰, bere lehendabiziko azterketaren hasiera zanik!

Gizon etorberria ilehorixka zan, erkina, aurpegi txuri-gorri eta begiak urdin. Bere jantzi beltzaren gainean soineko lodia zedukan, *masilla*-kolorea. Eskuan kapela gainborobila, eta beste eskuaz, noizik noizera bere sudur handitua igurtziten zuan.

—Gaizkileren batek kalte egin al dizu?

—Ez. Andre batek heldu-oihua egin du eta laguntzen ahalegin egin dut.

—Kalean?

—Chaptal kaleko etxe banatu¹¹ baten. Berehalakoan haraxe joatea litzake egokien, nik uste. Kalera egotzi naute.

—Nork?

—Otseina edo atezaiia zan, nunbait.

—Ez al derizkiozu lehenengotik hastera hobe litzakeela? Zertan ari ziran zu Chaptal kalean?

⁹ [Kale-albeni: *acera, trottoir*.]

¹⁰ Alazaina: alajainkoa.

¹¹ [Banatu: *particular, separado*.]

—Nire lanetik nentorren. Nire izena Justin Minard duzu. Lamoureux Erestaldietako bigarren zirularia¹² naiz, bainan gaucero Clichy Bulebarko Brasserie Clichyn joten dut. Enghien karrikan bizi naiz, hain zuzen ere Petit Parisienen aurrez aurre. Ballu kalean barna ninioan, gero Chaptaletik, gaucero bezala.

Zadorlari azkarra baitzan, Maigretek oharrok idazten zihardu.

—Kale erdian, betiere inorgabeko kale hartan, beribil bat zegoan geldu, Dion-Bouton markakoa, bainan haren motorra ekinen zebilen. Erabiltzailea, gizon bat ahuntz-larruzko soinekoz estalia eta aurpegia betaurreko edo gafa izugarri batzuekin ezkutatua. Hurbildu nintzakion, eta orduan bigarren bizitzako leiho bat ideki zuten.

—Etxe horren zenbakia hartu al duzu?

—Bai, 17, bikoitza. Hotel berezi bat da, eta gurdientzako atea du. Leiho guztiak ilun zegozen. Ezkerretik hasita bigarrena zegoan bakarrik argiz. Ideki zutena bera. Jaso nuan burua. Andre-irudia sumatu nuan leihora heldu nahika, eta oihu egin zuan: «Heldu! Lagun niri!».

—Eta zuk zer egin zenuan orduan?

—Itxadon ezazu. Gelan zegoan norbaitek atzerantz bultz eragin zion, agian. Orduantxe, tiro baten durbada entzun nuan. Nire gibelean gelditua zegoan automobilerantz egin nuan, bainan hau ordea, itsumustuan, bat-batean joan egin zan.

—Zuk entzun durbada, ez ote zan motorraren hotsen bat?

—Ez, alafede. Bertatik aterantz egin nuan eta hots egin.

—Bakarrik al zengozan?

—Bai.

—Zer egitea uste zenuan?

—Nik, ba...

¹² [Zirulari: *flautista*.]

Galdera honek nahasi zuan gure zirularia, eta zer erantzun jakin gabe lotu zan. Haren bibote gorrixka eta musuko bizar batzuk ez balira, hamasei bat urte jotea ez zan oker haundia.

—Eta auzoak ez al zuten ezertxo ere entzun?

—Ezetz dirudi.

—Atea ideki al zizuten?

—Ez berehalakoan. Hiru bider bai hots egin nuan gutxienez. Gero atcari ostikoka ekin nion. Azkenez, oinotsak aditu nituen, eta norbaitek kate bat kendu eta morroiloa alderatu zuan. Atad¹³ ez zegoan argirik, bai ordea gas-argiontzi bat etxearen aitxinean, pare-parean.

Ordu batak eta berrogeta zazpi. Noiztik noizera, begirakune larri samarra egiten zion zirulariak erloiuari.

—Etxezaiaren jantzi beltzez gizon luze batek zer nahi nuan galdegin zidan.

—Osoro jantzita al zegoan?

—Jakina, ba.

—Paparreko txuri eta txibistin-korbataz?

—Holaxen.

—Eta, ordea, etxean batere argirik ez?

—Bigarren oineko gela hortan, soil-soilik.

—Zuk zer esan zenion?

—Ez dut gogoratzen. Sartu nahi nuan nik...

—Zertarako?

—Ikusteko. Bidea ebaki zidan. Leihotik deiar egin zuan andreaz mintzatu nintzakion.

—Kezkatu ote zanik sumatu al zenion?

—Gogor begiratu zidan, txintik atera gabe, eta bere gorputz osoaz bultzarazi ninduan.

—Eta zer gehiago?

¹³ Atadi: arkupe.

—Erremuskaz, nik amets egin nuela esan zuan, hordi-mozkor nengoala. Ez dakit zehatz haren esana. Geroago, ilunbe hartan ahots bat aditu nuan, lehendabiziko etxoinean zirudian.

—Ahots horrek zer zinoan?

—«Zabiltz azkar, aguro, Luis!»

—Eta orduan...?

—Indartsuago bultz egin zidan, eta nik gogor egin bainion, musu-musuan ukabilkada gozoa eman zidan. Kale-munan¹⁴ aurkitu nuan nire burua, eta atea hertsita.

—Eta artean, bigarren oinean ba al zegoan argirik?

—Ez.

—Eta automobila itzuli al zan?

—Bai zera! Bertara joan behar genukeala uste dut.

—Behar genukeala? Niri laguntzeko ustea al duzu?

Parragarria eta gauza xamura zan batean, zirulariaren tankera emetsua¹⁵ eta bere kemen jatorra.

—Nik ez al det ukabilkada hori niregandu? Behinik behin, salakuntza agertuko dut.

—Baduzu eskubide, noski.

—Arazo hori uztea dugu orain hobe. Zer derizkiozu?

—Etxe horren zenbakia adirazi al didazu?

—Bai, 17garrena, bikoitza.

Maigretrek begiak kliskatu zituan, toki horrek zerbait oroitarazten zion eta. Bere artxiboko liburu bat atera zuan, ikertu eta orduan begiak keinu ugariago egin zioten.

Gau hartan txake edo buztan-txamarrak jantzia zegoan. Bere lehenengo txakea zan, alegia. Egun batzuek lehenago, errege-ageraldi hori zala-eta, polizia guztiak agindu hartu zuten jantzi apain hartaz baliatzeko, beharbada edozein ordutan agintari eta jarraigo lagunen artean nahasturik ibili beharrez.

¹⁴ [Kale-muna: *acera, trottoir.*]

¹⁵ Emetsu: emakumezkoen, femenino.

Haren jantzi lodia, esne-gainaren kolore, Justin Minardek zedukanaren anaia zan nunbait tankeraz.

—Zatoz! Nire galdez baletoz, Lecoœur; laster itzuliko naizela.

Zerbait bihotz-ikaraz zegoan. Liburuan ikusitako izenak ezin errez baretu! Hogeta sei urte zituan, bost hilabetez ezkonberri. Poliziakuntzan sartu zanetik, lau urte iraganak, zeregin apalena egin zituan: kaleko zaindaritza, geltokietan, denda haundietan, eta orain urtebete danik, Saint-Georgesko komisaritegiko zadorlaria genuan. Eta alderdi hartan guztian, izenik entzutetsuena nunbait, Chaptal kaleko 17garren etxe bikoitzekoena zan.

«Gendreau-Balthazar. Balthazar Kafe ospatsuak.» Izen hau, letra ilun haundiz, metroaren igarobideetan, kaleetan, Balthazar etxearen kamioetan agiri zan. Balthazarren gurdiak, lau zaldi apaindutakoek eramanak, Parisko tankeraren erakusgarri bezala ziran.

Gure Maigretrek ere, Balthazar kafea edaten zekian. Eta Opera Uribidean zehar zijoanetan, armeria baten ondora heltzean, Balthazarren tegietatik irten ohi zan urrin gozoa, kafe kizkortu berriarena, atseginez usai hartzen zuan.

Gau garbi eta hozkirria zan. Ez zegoan inguru hartan bizikiren¹⁶ aztarnarik, ezta gurdirik batera kale maldatsuan. Aldi hartan, Maigret, zirularia bezin meia¹⁷ zan eta kalcen gora zijoaztela mutiko erdi arlote biren antza zuten.

—Ez dut uste zuk ezer edan izango duzunik.

—Ez dut behin ere edaten. Galarazi egin dit osagileak.

—Hortaz, leiho bat idekitzen ikusi duzula egia-egia dugu?

—Bai, eiki¹⁸.

Maigret bere hegalez bakarrik zebilan lehenbiziko aldiz. Ordura arte, beti bere nagusiagoaren mende ibilia genuan. Hau, M. Le Bret jauna zan, Parisko komisarietarik gizartekoena, eta

¹⁶ Biziki: izaki bizidun, arima (adierazkorra).

¹⁷ Meia: mehe(a), argal.

¹⁸ Eiki: ziur-ziur, zalantzarik gabe.

honekin ari izaten zan gaizkinen bila eta beste arlo zikin batzuek azaldu beharrez.

Chaptal kalea La Rochefoucauld karrika bezin inorgabe zegoan. Gendreau-Balthazartarren etxalaia¹⁹, auzokoetarik bikainena agian, ilun zegoan, batere argirik gabe.

—Aurrean beribil bat zegoala geldi ez al didazu esan?

—Ikus ezazu. Hementxe zegoan, hementxe.

Horratio, ez zan ate aurre-aurrean, zerbait goratxoago baikik. Maigret —auzi-argibideak nola bilatzen diran ikasi berria zelarik— makurtu zan eta misto bat izetuz lurgaina aztertu zuan.

—Horra hor nun dagoan! —esan zion musikariak garaitzaile eta harro, olio beltzezko iztil zikina erakutsiaz.

—Zatoz. Zurekin batean joatea ez dut uste legezko eta bidezko danik.

—Nik jaso nuan muturretakoa, ordea...!

Zena zela, gertakaria izugarria zan. Txirrinaren burutxoa zapaldu zuanean, bihotza estura zuan Maigretrek, zein arau atarako zuan ez zekiela bere buruaren alde. Agindurik ez zedukan; gainera, gau erdia zan. Zirulariaren sudur haunditua, horixe zuan bakarrik erakusbide eta agergarri, gaizki izugarritzako hori salatu zeko.

Honek bezala, hiru bider jo behar izan zuan atea, bainan ostikoka ari gabe. Halakoren batean, barrutik erantzun zuten.

—Nor da?

—Polizia —azaldu zuen ahots makal samarrez.

—Unetxo baten, arren. Giltzaren bila noa.

Atadian kirrizkada baten hotsa izan zan. Argiz zegoan hoteltxoa. Unetxo bat itxaron behar atekoek.

—Bera da —zion musikariak, ahotsa ezagutuz.

Geroago, kate-hotsa, morroiloa, aurpegi erdiloa zirudiana eta Maigreti begiratu ondorean, Justin Minarderi so eta so egiten zion.

¹⁹ Etxalai: jauregitxo.

—Atxilotu duzute, ezta? —esan zuan gizon harek—. Beste nunbaiten ere, egin izango zuan horrek kilimiska²⁰ berdina.

—Utziko duzu gu hemen sartzen?

—Ezinbestekoa baldin bada... Bainan, otoi, ez ezazula zarata txikienik egin etxeko guztiak esnarazi ez ditzazun. Zatoz hemen barna...

Ezkerraldean, marmolezko hiru maila igonik, kristaleri bikoitza zegoan, eta aurrerantz ezkaratz edo etxari apaina zutarriz inguratua. Ministerio-etxe ederrak aina paupoxa eta ikusgarria zan haura; ez zuan Maigretrek, artean, halako gauza bikainik egundo ikusi.

—Luis da zure izena, agian?

—Nola dakizu zuk, ordea?

Orduan Luisek ate bateri bultz egin zion, ez bainan gizategira sartzeko, *office* delakora baizik. Ez zedukan une hartan etxegizon-jantzi dotorea. Ohetik jaiki berria zirudian, galtza batzuk zituan, itsumustuan soineratuak, eta alkandora txuria, iduna gorritz hegalundurik.

—Etxean al da Gendreau-Balthazar jauna?

—Zein? Aita ala semea?

—Aita.

—Oraindano ez da Felizian jauna itzuli. Eta haren semea, Rikard zalduna, aspaldi oheratua dela derizkiot. Ordu erdi bat izango da mozkor horrek...

Luze eta indartsua zan Luis. Berrogeta bost urte inguru zituan, antza; haren bizarra, moztua, dunduxka edo urdina zan; begiak beltzak, ilunak; eta bepuruak iletsuak oso.

Maigretrek listua kurkatu²¹ ostean, zetorkion nahaspila ohar-turik, esan zion:

—Rikard zaldunarekin hitz egin nahi nuke.

²⁰ [Kilimiska: *broma*.]

²¹ Kurkatu: irentsi.

—Haura iratzartzea nahi al duzu?

—Holaxen da.

—Zure agiri eta paperak erakutsiko al dizkidazu?

Poliziaren Prefekturako agiritxoak agertu zion Maigreték.

—Aspaldi al zagoz auzune hontan?

—Hamar hilabete.

—Saint-Georgesko komisaritegian?

—Zuzen diozu.

—Le Bret jauna ezagutzen?

—Bai, nire nagusia da.

Erdi axolabagez, erdi zemaiez esan zuan gero Luisek:

—Nik ere ezagutzen dut. Bazkaltzera edo afaltzera datorren bakoitzean nik izaten dut hauraren otsein egiteko omen eta atse-gina.

Eta gerotxoago, beste aldera behatuz:

—Rikard jauna esnaraziko ote dut zure aginduz?

—Bai.

—Auzitegiko agindurik al duzu?

—Ez.

—Ederki. Itxaron ezazu, mesedez.

Alde egin baino lehen, almidoidun paparrekoa hartu zuan apaltegi batetik, eta idunekoa eta korbata beltza. Ondorenean, han zintzilik zegoan morroe²²-jantziak apaindu zan. Alki bakar bat zegoan *office* hartan. Ez Maigret eta ez Minard eseri ziran. Inguru osoan isiltasuna besterik ez; etxea isilpe eta ilunbe zegoan. Haundikeru²³ eta hotzikarazkoa zan, bihotzean zimiko egiten zuan isil ilun hark...

Birritan atera zuan gure Maigreték bere orduaria. Hogei minutu bai iraganak ziran Luis berriro agertu zaneke, burutxut, mutur-erre...

²² [Morroe: *individuo, criado*.]

²³ [Haundikeru: *solemne*.]

—Nire jarraian etorri nahi baldin baduzu...

Maigreten ondoren joan nahi izan zuan Minardek ere, bainan morroiak:

—Zu ez... Poliziakoa ez baldin bazera...

Maigreték irri gaizto hori irentsi zuan. Zirulari zurbila beregain uzteari koldarkeria zerizkion. *Oficce* hura, bere ohol beltz eta guzti, ziega edo kartzela iruditu zitzaion, eta kokotz urdindun otseina, harengana hurbilduaz laido eta irain egiten hasten zela.

Luisen jarrai, zutarridun²⁴ ezkaratza zeharkatu eta gorri ilunez jantzitako mailadian gora abiatu zan.

Argi batzuek zegozten soilik izekiak, izpi horixkak, eta haien arteetan une zabalak itzalez. Lehenengo mailaburuko ate bat zabalik zegoan. Argi artean gizonezko bat agertu zan goitik behe-rako soinekoz.

—Nirekin mintza gogo duzula esan didate. Sartu zaite, arren. Zoaz, Luis.

Toki hura gizategi eta despatxu zan batean. Hormak, larruz-tatuak ziran eta habanu usai eta hurrin goxoak betea. Maigret, ordea, halakoen zale ez zan. Etzangua edo logela ikusten zan ertzede-²⁵gi zegoan ate batetik, zerudun ohea²⁶, erdi hala-hola.

Rikard Gendreau-Balthazarrek pijama zedukan bere batapean, eta oinak ortoz Errusiako larruz egindako oinzorroetan sartu-rik. Hogeta hamar bat urte; beltzerana, eta aurpegi arruntekoa, sudur oker samarra izan ezik.

—Auzo hontako komisaritegikoa zarela esan dit Luisek.

Kutxa landu bat idiki zuan, zigarrotxoz hornitua, eta agerral-dian zetorkionari eskeini. Honek ez zion bat ere hartu.

—Ez al duzu erreten?

—Pipa hartzen dut soilik.

²⁴ Zutarridun: zutabedun.

²⁵ Ertzedegi: erdi irekita.

²⁶ Zerudun ohe: errezeldun ohe, *cama con dosel*.

—Hortaz, ez dizut pipa hemen isiotzerik esango, pipa-sundak nazka ematen dit eta. Honera baino lehen, nire adiskide Le Breti hitz egingo zenion telefonoz, ezta?

—Ez ba.

—A! Zuen lanbideko ohiturak ez badakizkit, barka ezadazu. Le Bret maiz etorri ohi da etxe hontara, bainan jakin ezazu lehen-bailchen, ez poliziako komisari denez. Ez du hortarik ezertxo ere! Gizon mazala²⁷ eta bidetsua da egiatan, eta haren emaztea andre atsegina. Goazen harira, ordea. Ze ordu da?

Erloiuaren bila hasi zan, itxurakeriaz, eta orduan Maigretrek berea atera zuan zilarrezkoa, borobil-borobila.

—Ordu biak eta hogeta bost.

—Eta urtaro hontan ez du bostak arte argitzen. Ez al da horrela? Bai, badakit. Basoan goizean goiz sarritan ibiltzen naiz eta. Eguzkia joaten denetik berriro agertu arte, gizajende eratsuen bizilekua gauza hertsia eta begiragarria zela uste nuan.

—Bai, egia da, bainan...

Hizketa ebaki zion Maigreti bertatik.

—Oroitarazteko bakarrik hitz egin dudala jakin behar zenuke. Zu gaztea zara, eta lanbide hortan ere horrela dirudi. Zure nagusiaren adiskide batekin topo egin duzu, zorionez. Dena dela, zio handiren batzuk izango dituzu era hortan etxe hontaratzeko.

Bi hitz bakarrik esan dizkit Luisek. Kalera egotzi duan morroe hori, noski, bildurgarria da. Honela ere, bihar arte itxadon zenezakean, ene adiskideorrek. Ez al derizkiozu? Bainan eseri zaitte, arren.

Rikard zutik zegoan, ordea, eta batera eta bestera zebilen, urre-koloreko muturdun zigarrotxoagandik ateratzen zuan keari putz eginaz.

—Merezi izan duzun lezinotxo zuri agertu ondorean, esaidazu orain zer jakin nahi duzun.

²⁷ Mazal: adeitsu, atsegin.

—Goiko oinean, ezkerretik bigarren leihoari dagokion gela norena da?

—Nola diozu?

—Barka ezadazu. Une hontan bertan, behintzat, badakit erantzutera behartua ez zagozana.

—Behartua? —jardetsi zuan Rikardek, harritua oso.

Eta Maigretrek, belarriak gorri-gorri zituala, gehitu zion:

—Gela hortan arma batek dumpada egin du gau hontan.

—Barkatu... Barkatu... Zure senean zagozala uste dut, ezta? Herri-jaiez beteriko gau hontan ere, ez dut sinisten gehitxo edango zenuanik...

Mailadian oinotsak sumatu ziran... Atea idikirik zegoan. Mailadiburuan beste irudi bat ikusi zuan Maigretrek, *La Vie Parisiennere*n azaletik ateratako irudia, nunbait. Kapela luze, frak eta kapaduna. Zaharra zan eta zimela, eta haren bibotea, punta kiribildua, margoztatua zan igarri-igarrian.

Atalasean²⁸ zutik lotu zan, ezbaian, harrituta, eta agian bildur samar.

—Sar zaite, aita... Gogoz egingo duzula parra uste dut. Hemen duzun jaun hau Le Breten otsein bat da...

Gertakari bakana huraxe! Felizian Gendreau-Balthazar ez zegoan, aurki, mozkortua; alabainan, harengan halako erdi loantxa, ezbaieko ganora ohar zitekean.

—Luis ikusi al duzu? —zion semeak.

—Behean dago, ez dakit norekin.

—Hain zuzen ere. Lehentxeago... hordi bat, Villejuifetik iges egindako eroren bat ez baldin bada, gurdi-atca eratsi beharrez hor ari izan da... Luis jatsi da eta leherrenak egin²⁹ ditu hari sarrera eragozten. Eta orain, jaun hau, delako...

Eta galdeginaz bezala, isildu zan.

²⁸ Atalase: erlaitz, atari, *umbral*.

²⁹ Leherrenak egin: ahalegin handiak egin.

—Maigret.

—Maigret jaun hau, gure adiskide Le Breten zadorlaria, niri galdetzeko dago hemen... Baina, zer jakin nahi duzu zuk azkenen buruan?

—Goiko etxoinean, ezkerretatik bigarren leihoa duan gelan nor egoten da...?

Aita artegatu egin zala iruditu zitzaion, eta kezka bakanez gainera. Esaterako, heldu zanetik aita zan semeari bildur antzean edo menpetasunez begiratzen ziona. Ez zuan kopetik ahoa idekitzeko. Rikarden baimen eske zegoala zirudian.

—Nire arreba —esan zuan honek guenean³⁰—. Badakizu, bada, orain.

—Une hontan hemen al dago?

Eta Maigretrek ez zion semeari begiratzen, aitari baizik. Baina oraingoan ere, semea izan zan erantzule.

—Ez. Ansevalen dago.

—Nola diozu?

—Gure gazteluan, Anseval gazteluan, Pouilly-sur-Loiretik hurbil, Nièvren.

—Horrela, ba, gela hori hutsik dago, ezta?

—Bai, horrela dirudi...

Eta irri gaiztoz, jarraitu zuan:

—Hori horrela dala jakin gura izango duzu, nik uste. Zure lagun nauzu. Honela, bihar, gure adiskide Le Bret zorionka agurtu nezake, bere mendekoen arreba dela-eta. Arren, bada, jarraitu zakidaz.

Maigret harrituta zegoan aita ere atzetik zetorrela ikusiaz, hau beti herabetsu, izuti.

—Hauxe duzu zuk izendatutako gela. Aukera ona izan dugu, ez du bada nire arreba giltzez hertsu.

³⁰ Guenean: atzenean, azkenez.

Argiaren giltzari egin zion. Logelako altzariak zur eder zuriz eginak ziran, eta hormak seda urdinez jantziak. Alboko atepak apaintokira jotzen zuan, eta gauza guztiak behar bezala zegozen, zer bakoitza bere lekuan.

—Egin ezazu zure azterketa, egin ezazu, otoi. Beraren gauzetan poliziaren eskua ibili dala jakitean, atsegin izango du nire arreba.

Durduziatu gabe eta patxadaz joan zan leihorantz Maigret. Kortinak sedazkoak ziran, beste oihalak baino urdin ilunagoak. Alde batera egin zituan, eta tulezko miesañoa³¹, argia zehetuzeko zegoan miesañoa mutur batetik atxikia zegoala ikusi zuan leihoaren zur artean.

—Gau hontan —esan zuan— ez dut uste hemen inor sartu izango zanik...

—Neskameren bat izan ezik...

—Bat baino gehiago al da etxe hontan?

—Jakina, ba! —jardetsi zuan Rikardek hitz erreaz—. Bi dagoz: Germane eta Mari. Gainera, Luisen emaztea, gure sukaldekoa, eta joskile bat ere bai, baina hau, ezkondua baita, goizean etorri eta gauean joan egiten da.

Felizian Gendreau, aita, batari eta besteari begiraka ari zan.

—Zer da ordea, hemen gertatzen dena? —galdegin zuan, azkenez, eztarrian garramatzu egin ostean.

—Ez dakit egia esateko. Galdetu egiozu Maigret jaunari.

—Ordu batak aurretxoan etxe honen aitzinean zehar zijoan norbaitek leiho hauxe zaparradan idekia izan dela entzun eta ikusi du. Burua jaso du eta andre bat, zoraturik, laguntza eske ohar-tu du...

Aitaren eskua beraren makilaren kirten urezkoa estutzen ikusi zuan ederki asko Maigretrek.

³¹ Miesano: errezel, visillo.

—Eta gero? —Rikarden itaunea.

—Andre hura etxebarnerantz indarrez sartu zuten, eta une hartan bertan tiroa entzun zan.

—Egiatan?

Gendreau gazteak ingurura begiratu zuan gezurezko arretaren itxura eginaz, hormako seda artean balaren aztarna bilatu nahi bailuan.

—Bainan ni gauza honek harritzen nau, Maigret jauna, —Maigret da zure izena, ezta?—, salakuntza gogor hori egin baino lehen, ez diezula zure nagusiagocri ohi dan bezalako adierazpen egokia igorri. Zu lehenbailehen, itsunustuan, arinkeriaz beharbada etorri zara honera. Horrelako buru zoroa duen gizon hortaz egin al duzu, behintzat, argitasun batzuen bilaketa?

—Behean dago.

—Atsegin haundia dut nire etxapean dagola jakinaz. Erabat esateko, ez bakarrik zu sartu zara hemen, gau minean, herritarren legeak duen askatasuna baztertuaz; gainera zurekin ekarri duzu behinik behin badaezpadakoa den gizon bat. Halarik ere, hemen zagozanez gero, eta bihar txosten³² oso eta egokia egin dezaiozun Le Bret gure adiskideari, ohi diran ikusketa-araketak egiteko eskatzen dizut. Ohe hau gau hontan inorgabea izan dala jakin dezazun, aztertu ezazu zure eskuz eta begiz.

Teinkada bat egin eta satenezko ohe-estalkia alderatu zuan. Han zegoan agiri buruko zorroa, garbi-garbi, eta maindireak ezer-tariko izurrik gabe.

—Bila ezazu, bila ezazu, arren. Zoko guztiak ikertu. Lupa edo ikusgailu hoietakoren bat ere ekarri izango zenuan, nunbait.

—Ez, ez da beharreko.

—Barkatu arren. Le Bret izan ezik, ez dut poliziakoekin hartu-emanik izan tamalez, nobeletan bakarrik baizik. Tiro egin dutela diozu? Orduan, baliteke nunbaiten hilotzen bat egotea.

Jarraitu, bada. Elkarrekin bilatuko dugu. Apaltegi hontan, agian? Nork daki hori?

Ideki zuan, eta han ez zegoan besterik soinekoak zintzilika baizik.

—Hemen, apika? Lisaren zapatak dira hauek. Bere oinetakotaz liluratua dago oso, ikus dezakezue. Goazen haren aldagelatxora...

Cogor zegoan, odolgaitz. Haren ahotsaren doinua gero eta iskiriotsuago³³ zan.

—Ate hau, ote? Ama hil zanik itsurik dago. Bainan iragangutik³⁴ sar gintekez. Zatoz. Bai, bai, etorri zaite...

Ordu erdi luze eta artegatsua. Maigretrek ez zuan besterik egiten besteen esana baino. Rikarden hitzak benetako aginduak baitziran! Eta zomorro arteko itxuraketak gehiagotzeko, Gendreau zaharraren ibilketak ziran, beti haien jarrai, buruan kapela erpina, bizkar gainetik kapa luzea eta urrezko kirtendun makila eskuetan.

—Jatsi? Ez, oraindino ez. Jakin ezazu goian beste bizitza bat dena, ganbara antzekoa, otseinak-eta lo egiten dutena...

Iragangan —*pasillo*an, alegia— argi-bonbillak estalkirik gabe zegozten. Beheak malda samarra zuan. Rikardek atean hots egin zuan.

—Ideki ezazu, Germane. Bai, ideki. Ez da axola erdi jantzi gabe egon arren. Poliziakoak dituzu hemen eta.

Gazte bat, neska lodikotea, begiak loguraz, eta usai ez atsegin ez agertu zan atea idekitean. Ohea izerdiz nahaspila; orrazi bat ilez betea mahaitxoaren gainean...

—Entzun al duzu tiro-danbada?

—Zer, gero?

—Ze ordutan ohera zinan?

³³ Iskiriotsu: isekari, sarkastiko.

³⁴ [Iragangu: *pasillo*.]

³² [Txosten: *información*.]

—Hamarretan igon nuan.

—Eta ezertxo ere ez al duzu aditu?

Galdera hauek Rikardek egin zizkion.

—Tira. Beste aldera goazen orain... Mari, ideki ezazu! Ez, ez, txiki, ez du horrek axolarik...

Hamasei urteko nexka bati buruz ari zan. Bere atorraren gainetik soineko lodi berde bat ezarri zuan, eta ikaraka zegoan.

—Entzun al duzu tirotsik?

Neskatoa Maigreti eta Rikardi begira zegoan izu antzean.

—Aspaldi al zagoz lo?

—Ez dakit.

—Ezer entzun al duzu?

—Ez ba. Zergatik? Zer gertatu da?

—Ezer galdetu nahi al duzu, Maigret jaunorrek?

—Nundik etorri dan galdegin nahi nioke. Nungoa zara, zu, Mari?

—Ansevalekoa.

—Eta Germane?

—Ansevalekoa hura ere.

—Eta Luis?

—Ansevalekoa, Maigret jauna —zion irri gaiztoz Rikardek—. Gaztelu bat dutenak beren otseinak inguru hartatik ekarten dituztela ez dakizu, alazaina!

—Beste ate hori?

—Gela hori Luisen emaztearena da.

—Luisek ere hor lo egiten al du?

—Ez, atezaitegian egiten du.

Luisen emaztea ez zan berehalakoan agertu. Andre tipia zan, txit beltzerana, gizen eta mardul, begirakune idurikorduna eta bildur-antxa.

—Zer darabiltzute horrenbeste istiluz? Nun dago Luis?

—Hor behean. Esan egidazu... Tirots bat entzun al duzu?

Amorruzko hitz-jarioz, aterantz bultzarazi zituan. Jarraian, gela hutsetako atea idiki eta gauza zaharren tegiak, ganbara-

zokoak ikustatu zituzten. Mandiora³⁵ ere eraman zuan Maigret, eta ondorean lehendabiziko oinera jetsiarazi zuan, aitaren eta semearen loguak³⁶ ikertzeko.

—Oraindino gizategiak edo saloiak ditugu ikustekotz. Bai, bai...! Hortan, gurari bizi-bizia dut, zinez.

Eta kristal dardaratidun argi-mutil bikaina isioturik:

—Hilotzik batere ez? Eta zauriturik ere ez? Bazterrak oro ikusi al dituzu? Beheko zotarrainera jatsiko? Ohartu ezazu, ordea, hiru eta erdiak dirala.

Office delakoaren atea zabaldu zuan, eta han zegoan Minard alki baten eserita, eta hura zaitzen zoko batean Luis, atxilotu baten begira bailegoan.

—Hau al da tirotsaren berri duana? Lehendik ere ezagutzen dudala esango nuke aurpegi ikusgarri hori. Orain, Maigret jauna, gezur-salakuntza horregatik eta nire etxea bortxatu nahi izan dutelako espe-auzi³⁷ bat ipinteko eskubidea dudala uste dut.

—Holaxen da; baduzu hortarako eskubide.

—Eta gau on bat opa dizuet. Luis, lagundu jaun hoiek.

Gendreau zaharrak ideki zuan bai ahoa, ideki, baina ez zuan txintik atera. Eta Maigretek ere hitz bakar bat oguzi³⁸ zuan:

—Eskerrik asko!

Luisek atadiraino bidea egin eta haiek irtenik, ate astuna hertsi zuan.

Biak soilik, zirri-mirri³⁹, nahasiak, urduri samar zegozten Chaptal kaleko ezker aldeko bazterrean, eta Maigret, bere senez, lurrean zegoan olio zikin moltsoagana joan zan berriro, guztia gezurra ez zala-eta, zerbait ziurra atzeman nahirik.

³⁵ Mandio: aletegi, bihitegi.

³⁶ Logu: logela.

³⁷ [Espe-auzi: *querella*.]

³⁸ Oguzi: esan, ahoskatu.

³⁹ [Zirri-mirri: *desconcertado*.]

—Zin egiten dizut ez dudala edan, ba al dakizu?
—Sinisten dizut.
—Eta ez nagola erotuta.
—Ez, horraitio.
—Egin dugunak kalte egingo dizula uste al duzu? Nola hala ulertu dut...

Gau hartan jantzi zuan Maigretek lehendabizi bere lehenengo jake buztanduna —txake, alegia—, besapean zabal samar zuan jake haura...

II

RIKARDEK GEZURRA ESAN DU

Bederatziak hamar gutxiagotan, Maigreten emaztea, hozki-ritsu eta xaboe usaiez, logelako errezelak⁴⁰ alde batera biltzen ari zan, eguzkiaren izpieri bide egiteko. Ez zan denpora luzea ezkondu zana, eta gizon erdiloa ikusten gutxi ohitua zan, artean. Gizon erdiloa, bibote gorritaren muturrak dardaraz, ileak irauliak, eta bere kopet-azala ikaraka euliren bat bertaratzen zanean... Parra egiten zuan. Parra beti goizetan eskuan kafe katiluska zuala senaraganatzen zanean. Hau bitartean begiak ez so bai so, haur antzean hari begira...

Neskatxa mardula zan, guri-guria, gozotegietan eta esne-dendetan agiri izaten diran bezalakoxea. Eta osasunez betea izan arren, Richard-Lenoir bulbarreko bere etxebizitzatxoan egumetan eta egumetan egoten zekiana, batere aspertu gabe.

—Zer dabiltzu buruan, Juli?

Aldi hartan ez zion Maigret deitzen, bainan hartaz itzal apurra sortzen hasi zitzaion, bere aitaz izan zuana bezalakoa, bere semearentzat izango zukeana egunen batez, semerik izatez gero.

—Badut buruan...

⁴⁰ [Errezel: *cortina*.]

Eta ordutxo bi lo egin ostean behingo baten gomutara heldu zitzaion honako hau adirazi zion. Polizien agindu isilekoen esanaldia zan: «Nahitaezkeoa da polizigizon eta nagusiak beuren ordu guztietan ekinean aritzea. Behinenik, bilaketa edo zaitzapen bat hasi ezker, etenik gabe jarraitu behar da, eta aurretiaz izendatutako egunetan ez orduetan ez dute atsenaldirik iritxi behar».

Goizaldeko seiretan irten zan komisaritegitik, bere zadorlari-kidea ordezkotzat heldu zitzaionean. Albert Luce zan hau. Kanpoan haize atsegina zegoan, eta Parisko kaleak duten goxo dastatu nahirik, ibiltari eman eta *Hallesetatik* zehar joateko gogoaz zegoan, udaberriko ortuarien eta igalien⁴¹ usaia jasoaz.

Egun haietan Parisen gure gizonaren antzera lo asko egin gabe egon ziranak ehundak ez ezik, milak ere izango ziran, noski. Hiru egunerako soilik etorria zan kanpotar erregea, bainan polizitaldeak beti ziharduten begiraketan, eta batzuek aspaldiko astectan ari izan ziran hortan, batez ere geltokietan, lo-etxectan eta kaleetan.

Taldeak elkarri laguntzen gizonak ordezkatuaz eta komisaritegiak ere berdintsu ari ziran. Erregeren joan-etorriak aldiz aurretik erloiu neurtuak ziran, bainan axola hori gabe zegozten Saint-Georgesko auzunekoak, eta gertu zegoztenak, beraz, Operako komisaritegira bialti zituzten.

Ez ziran, ordea, anarkistak soilik polizien loaren galarazleak; baita eroak ere, horrelako gertakarietan etetean jarten diralako; eta lapurrak eta emakume lokak⁴², herrietako arloteen lepotik txanponik aski eskuetaratzeko gertu eta zoli ibiltan dakitelako.

—Balthazar kafea al da hau? —galdetu zuan.

—Zergatik diozu? Ona ez al da?

—Kafe hau zergatik hautetsi duzun jakin nahi dut, eta ez bes-teren bat. Hobe da dalako ote?

—Txarrago ez da behintzat, eta gainera kromoak ematen dituzte.

Kafe-zorrotxoak edukiten zituzten lore mota guztien irudiak gorde eta album batean ipinten zituana bere emazteak ahazturik zedukan.

—Hiru sorta edo kolezino osok, intxaur-oholez egindako loaltzarien eskubidea ematen du.

Lurrazpil⁴³ batean ura egotzi eta garbitu zan, etxe hartan ez baitzegoan, artean, bustialdirako gelarik. Zopa edo zukua jan zuan, landaldean edo basoan beti egin ohi zuanez.

—Noiz itzuliko zaren ez dakizu, noski...

Eta Maigretek, irriparrak, jardetsi zion:

—«... eta aurretiaz izendatutako egunetan ez orduetan ere, ez dute atsenaldirik iritxi behar...»

Buruz zekian emazteak ere. Kapelatxo jantzi zuan eta semea eskolara baitzeraman, bere senarraren lagun joaten zan bidealdi luzean; bainan ez komisaritegiraino, bere kideren batekin topo egitea Maigreti atsegin ez zitzaion eta.

Hamar-hamarretan, komisari jaunaren gurdia La Rochefoucauld karrikan gelditu izango zan, bere zaldi azkarrak eramana, eta orduan ugalka otseinak hartuko zituan ugazabaren orde. Agian, Parisko komisari bakarra izango zan M. Le Bret gurdi-jaberik. Plaine Monceau auzoan bizi ere, Courcelles bulebarreko etxe berrietan.

Komisaritegira honela heltzen zanean, Hoche Bileratik etorri ohi zan, eta han ezpataketa⁴⁴ ari, urmaelean⁴⁵ igeri egin eta igiturtialdi edo masaje horiek jasan ondorean.

Maigreten txosten edo iritzia haren mahai gainean zegoan. Hau zan Maigretek egiten zuan lehendabiziko lan arduratsu edo

⁴¹ Igali: fruta.

⁴² Loka: txolin, kaskarin.

⁴³ [Lurrazpil: *palangana*.]

⁴⁴ [Ezpataketa: *esgrima*.]

⁴⁵ Urmael: istil, *piscina*.

garrantziduna, eta horregatik haren egileak bazuan barruan halako estura motel kilikaria. Goizaldera arte ekin zion lanari, zehatz eta tiletez tilet⁴⁶ egin beharrez, ikasi berri zituan polizi lege eta gorabehera guztiak bere buruan irabiatuz eta irauliaz.

Justin Minard, zirularia, harekin batean itzuli zan Chaptal karrikatik. Ate aitzinean gelditu ziran biok.

—Ezkondata al zagoz?

—Bai, bada.

—Zure emaztea artegatuko denik ez al duzu uste?

—Ez dio axolarik!

Justin ere sartu zan. Honen azalpenak paper batean idatzi zituzten, eta zirulariak bere eskuz izenpetu zituan. Bainan ez zijoan, hantxen zegoan geldi.

—Emaztea haserretuko zaitzunik ez derizkiozu?

Biguin bainan setatsu erantzun zuan berriz ere Justinek:

—Ez dio axolarik!

Zer dala-eta zebilen hori pentsatzen gure Maigret? Argitu zuanean indar antzean bota behar izan zuan kalera. Eta orduan ere, zirulariak, lotsati eta sotil⁴⁷, galdetu zion:

—Utziko al didazu zu ikustera etorten?

Luisen kontra salakuntza ezarri zuan, eta hortan buru-belarri zegoan. Paper guzti haiek behar bezala zegozten komisari jaunaren mahaiean, arreta gutxiko eguneroko lantxoan gainean.

Le Breten helduera ez zuten besteak behin ere ikusten, atzeko iraganguan zehar bere despatxura zuzen sartzen baitzan; bainan entzun bai eta sumatu ere haren etorrera, eta oraingoan Maigret-ek bere bihotza taupaka ari zala nabari zuan.

Zizeluan eserita betikoak zegozten, jende beharra gehienez, zirpiltua, eta banan-banan deituaz bizilekuetako agiriak edota landerrenak⁴⁸ egin, gauza galduen eta aurkituen zertzeladak ida-

⁴⁶ [Tiletez tilet: *minuciosamente, punto por punto.*]

⁴⁷ [Sotil: *discreto.*]

⁴⁸ Landerren: txiroen, *de pobreza.*

tzi, bulebarretan edirentako⁴⁹ eskaleak espexera igorriarazi zituan, eta orobat baimen gabeko kale-saltzaileak.

Hain zuzen ere, laurka⁵⁰ beltzeko orduariaren gaine-gainean txirrin elektrikoa zegoan, eta harek hots egin zezanean...

Hamabiren bat minutu behar izango zituala uste zuan Maigret-ek, beraren txostena eta Minarden aitorenak irakurteko. Hogei minutu ere igaziak ziran deia jaso gabe, bainan zaratatxo batek zerbait adirazi zion; nagusiak telefono-hizpidea⁵¹ eskatu zuela, alegia.

Komisaritegiko etxariaren eta nagusiaren despatxu bitartean ate bat zegoan. Ate honek lastaira edo bigungarria zuen isilgarritzat. Ate koltxoedun horregatik hitzen orde zurumuru bat baik ez zuan entzun. Rikard Gendreaurekin hizketan ari ote zan, hainbeste aldiz egondako etxe ezagun hartakoekin?

Txirrinak ez zuan hots egin, ordea. Alabainan ate hura pizka bat ideki zan.

—Maigret!!

Zantzu⁵² ona ote zan? Ezaugarri okerra, agian?

—Sar zaitte, laztanori.

Eseri aurretik, bere zigarrotxoari teingaka, batera-bestera ibili zan komisari jauna. Espedientearen gainean bere eskua ezarri, eta hitzak aukeratuaz bezala, arnasa handi egin zuan:

—Irakurri dut hau.

—Bai, komisari jauna.

—Zure eginbeharra zala uste zenduana bete duzu. Zure txosten hau argi eta zehatz dago.

—Eskerrik asko, komisari jauna.

—Nitaz ere jardun duzu bertan.

⁴⁹ Ediren: idoro, aurkitu.

⁵⁰ [Laurka: *cuadro.*]

⁵¹ [Telefono-hizpide: *comunicación telefónica.*]

⁵² Zantzu: aztarna.

Maigret ahoa idekitekoko zegoala, zinu batez geldiarazi zuan.

—Ez dizut nik ezertariko ahakarririk⁵³ egingo; eta bai bestera.

—Esandako hitz guztiak artez idazten ahalegindu naiz.

—Dena dela, etxe hori ikusteko beta izan duzu.

—Lagundu naute, gelarik gela.

—Eta ez duzu deus ere goganbehartsu denik aurkitu.

—Justin Minardek izendatuko gelan, tulezko errezela leihohezurretan atzemanik zegoan, leiho hura gogor eta bortxaz hertsia izan bailitzan.

—Hori, ordea, edonoiz gerta liteke, ez ote? Ez dakigu zinez aspaldiko egunetan horrela egon ez den.

—Gendreau-Balthazar aita, zimikoz eta esturaz ohartu nuan ni etxean ikusirik.

—Zuk «izutua» idatzi duzu.

—Horixe da nire iritzia izan ere.

—Ongi ezagutzen dut nik Gendreau, nire gizarte-bilkuran astero hiruzpalau aldiz izaten baita.

—Badakit, komisari jauna.

Komisari hau gizon ederra zan, handiki tankerakoa, gizarte goenengo⁵⁴ bilkuretara zalea, Parisko alaba aberats batez ezkondua zan eta. Horregatik, beharbada, bere bizitza oparotsu zera-malarik ere, bere lan-arloa ez zuan baztertzen. Bere begi-ertzetan ohi diran oilar-izurrak zituan eta betazalak zimur biguinak, eta gau hartan ere, agian, beste gauetan bezala, ez zuan Maigretrek baino lo asko gehiago egin izango.

—Bessoni dei egiozute.

Hau ikerle edo inspektore zan, erregeren agerraldi hortan komisaritegian zaiketan ari⁵⁵ zan bakarra.

—Lan tipi bat duzu zuretzat, Besson adiskide.

⁵³ Ahakar: gaitzespen, kexa, *reproche*.

⁵⁴ Goen(en): altuen.

⁵⁵ [Zaiketan ari: *estar de guardia, de servicio*.]

Orritxo batean Justin Minard, zirulariaren izena eta bizitokia idatzi zituan.

—Jaun honi buruz, azalpen gurbil⁵⁶ eta sotila egingo duzu. Zenbait eta lehenago, hobe.

Bessonek bizitokia nun zan irakurri ostean, poza agertu zuan, arazo hura Parisen zela jakitean.

—Banoa, ene nagusi.

Eta Maigretekin bakarrik gelditu zanean, irriño bat ezpaineratatuaz, jalki zuen:

—Bai, bada. Oraingoz egin dezakeguna horixe besterik ez da.

Mahai beltzaren aurrean eserita, bere bizitzako ordurik amorruzkoenak eman zituan Maigretrek paper zikinak aztertzen, atezaitza⁵⁷ berritsuen ezpa eta aiunak⁵⁸ entzuten eta kaleetako saltzaileen azalpenak jasaten.

Zirt edo zarteko asmo zorrotza zerabilkian burumuinetan, bere kargu hura uzteko asmoa, alegia. Egin behar zan guztia, komisari jaunaren iritziz, zirulariazko azalpen bat egitea baizik ez zela? Zergatik ez arrestatu eta zartakoak eman?

Buruzagi gorengoari hots egin zezakion telefonoz Maigretrek, edota hura ikustera joan, Sûreté-buruori, Xabier Guichard, ongi ezagutzen baitzuan. Allieren, haren etxearen burbil egon ohi zan buruzagia udaldietan, eta aitzina, bere aitaren adiskide izan zan. Ez zion, numbait, bere laguntasunpean bultz eragiten Maigreti, bainan honen ibilerak urrutitik edo hobeki esan goi-goitik jarraitzen zituan, eta beharbada, iraganiko lau urteetan gure gizonak egindako aldaketak hark araziak zitezkean, lehenbailehen polizi jokaera eta egipideak ikas zitzakean.

—Minard ez da eroa, inundik ere. Mozkor ere ez zegoan. Leiho bat ideki zutela, hark ikusia. Tirotsa entzun zuan, gainera. Eta kaleko olioaren zikina neuk ikusi dut, arranopola!

⁵⁶ [Gurbil: *discreto*.]

⁵⁷ [Atezaitza: *portera*.]

⁵⁸ [Ezpa, aiuna: *queja*.]

Guzti hau esango zukean, eta sumindurik esan ere. Eta eskatuko zuan...

Asmo bat burura zitzaion. Gelatik irten zan, hiru maila jatsi eta zaitzaileen⁵⁹ etxarian sartu zan. Polizigizon batzuek, agindujantziz, kartetan ziharduten.

—Esan egidazu, brigadorrek, bart begirariak agertu al dute bakoitzaren txostena?

—Guztiak ez oraindino.

—Galdera bat haiei egitea nahi nuke, bada. Auzune hontan, bart, hamabiak eta ordu biak bitartean, Dion-Bouton bat ikusi ote duten batek edo batek. Beribila zeramanak abrigu bat zuan, ahuntz-larru arrea eta betaurreko haundi batzuk. Ez dakit barruan inor ote zegoanetz.

—Komisari jauna nazkaz bete dedila! «Bilaketa edo zaitzapenen bat hasi ezker, etenik gabe jarraitu behar da...».

Bazekian haren gogoeta. Bainan, zuzenez, agerpena⁶⁰ berari zegokion, Balthazar ziranei buruzkoa izan arren.

Eguerdi aldera, logura astunak jo zuan, bainan artean ez zitzaion txanda heldu bazkaltzera irteteko. Betazalak erremi zeduzkan. Aurreko jende haietakoei galderak bi aldiz ere egin zizkien-eta...!

Besson heldu zan, bere biboteetan bermut usaiez, ardandegiren bateko edo bulebarretako edaritegien giro hozkirri goxoa gogoraziaz.

—Hemen al da oraindino gure nagusia?

Ez, ez zegoan, eta bere txostena egiten hasi zan Besson, lehenbizi eseriaz.

—Gizon gizaixoa! —hasperenka esan zuan.

—Nor, ordea?

—Zirularia.

⁵⁹ [Zaitzaile: *agente*.]

⁶⁰ [Agerpen: *información*.]

Eta Besson, osasunez betea zegoan gizon gizona, larrua mardul eta guiri-guria, honela mintzatu zan:

—Lehenengo eta behin, bularretik dago, gaitzepelez⁶¹, eta hori ez da ezer pozgarria. Bi urte dira mendi aldera biala nahi dutela, bainan berak ez du jaramonik ere egin nahi.

Zaldi batzuk igaro ziran Saint-Georgesko plazaren aldetik. Cudari-ibilketa handi bat egin zuten goiz hartan Invalideetan, eta gudalsailak haien egonguetarantz⁶² zijoazten. Uri handia artean, jaiez zegoan, lauburu, jantzi apain, musika-taldeak kalez kale, gizon ospatsuak agergarriz eta omenez beterik Eliseosetarantz zijoazten, han bertan bazkari izugarrizkoa baitzegoan agintarien goran.

—Boskarren etxoinean bizi dira, gelatxo bi soilik eta ez kale aldera; eta igokinik⁶³ gabe.

—Haren etxera igan al zara?

—Ikazkinarekin hitz egin dut, etxean bertan bizi baita, eta gero atezaitsarekin, nire herrikidea dut eta. Hilero-hilero honek beste auzokoen keixu eta zeresanak jasoten ditu, txirula dela eta ez dela, egunik gehienean jo eta jo ari baita leihoak zabalik dituala. Ikazkin honek maite du, bizpahiru hilabetez ikatza zor izan arren. Porterak ere bai. Haren emaztea ordea...

—Ikusi al duzu?

—Ni atezaitegian nengoala nire aurretik joaten ikusi dut. Beltzerana duzu, sendoa, zaintsua, eta begiak txinpartaka. Karmen bat dirudi. Etxeko soinganekoz eta zapatilak oinetan ibiltzen omen da dendarik denda herritsukerietan. Karten zoriona ezagutzeara ere atsegin omen zaio. Istilurik izaten omen da etxe hartan...! Senarra jo ere egiten duala sinistarazi nahi izan dit atezaiak. Gizaixoa...!

⁶¹ Gaitzepel: tuberkulosi.

⁶² [Egongu: *residencia*.]

⁶³ Igokin: igogailu.

Bessonek idatzi zituan zenbait lerro bainan ez errez, txostenak egiteko ez baitzuan ez buru ez esku azkarrik.

—Metroa hartu dut eta haren nagusia ikustera joan natzaizu, Clichy Garagardotegira. Ez du haren kaltez zeresanik. Ez du batera edaten. Ordua baino minutu batzuk lehenago heldu ohi da lanera. Mazala eta atsegina da edonorekin eta diruzaiak, —andrea bera—, maite-maite du.

—Goiz hontan nun zegoan?

—Ez dakit. Bere etxean ez, behintzat. Esango zidan bestela atezai-andreak...

Maigret bere lanetxetik irten zan, arraultza pare bat jan eta garagardo ontzi handi bat edateko, Saint-Georgesko plazan zegoan *bar* txiki batean. Itzuli zanean, bere mahai gainean brigadak utzitako papertxoak ikusi zuan: «Julen txinelak⁶⁴ ohartu du Dion-Bouton beribil bat ordu bat eta erdiak aldean, Mansart kalean geldi zegoala, 28 zenbakiaren aurrean. Barruan notin bakar bat zuan, eta azaldutako agerbideduna⁶⁵. Mansart kale hortan hamar bat minutuan egon zan eta gero Blanche karrigarantz joan zan».

Erloiuaren gaineko txirrinak hots egin zuan, eta Maigretrek, jaiki bezin laster koltxoedun atea idilki zuan. Han zegoan orduko komisari jauna, eta mahai gainean berehala begiz jo zuan Maigretrek bere txostena, orri batzuetan lerroak gorritz zegoztela.

—Sar zaite, enetxoori, eta eseri.

Berarizko txera zan harrera hori, bere mendekoak beti zutik edukiarazten baitzituan.

—Goiz osoan ni gaitzesten ari izan zarela esango nuke...

Hura ere jaketez jantzia zegoan, bainan hau Vendôme larraineko jostunik onenak egina zan, eta haren koratiloa⁶⁶, beti bezala, kolore politezkoa zan.

⁶⁴ [Txinel: *guardia*.]

⁶⁵ [Agerbide: *descripción*.]

⁶⁶ [Koratilo: *chaleco*.]

—Berriz ere, arreta berarizkoz irakurri dut zure txostena. Egia-tan ere, lan bikaina duzu, lehen ere esan dudanez, uste dut. Zure adiskide zirulariari buruz ere, izan dut hizketa bat Bessonekin.

Maigret suspertu zan eta ausardiz:

—Gendreau-Balthazartarrak ez al dizute telefonoz hitz egin? —galdetu zion.

—Bai, zinez, bainan ez ordea zuk uste duzunari buruz. Rikard Gendreau gizabidetsu ari izan da. Zure lepo eta zure zintzotasu-naren lepo parra egin dualarik ere! Harenganik haserre eta aha-karrrik jasotea uste al zenuan? Bai zera! Gazte eta gartsu iritzi izan badiozu, ez da harritzekoa. Horrexegatik, hain zuzen ere, ate guz-tiak idekiteko zain gaiztoa izan zuan.

Maigret ilun zegoan eta nagusiak ezpainetan parra emea zuela begiraten zion, munduko gauzetaz asperturik dagozanen parra biguin emez, *viveurs* direlakoan irriño malguz.

—Orain, esaidazu, adiskide: nire lekuan zuk zer egingo?

Eta Maigret isilik zegoan eta, jarraitu zuan hark:

—Etxe-bilaketa egiteko agindua eskatu? Lehenengo eta behin, zer karioz? Ba al da salakuntzarik? Bainan Gendreautarren aurka ez behintzat. Agiriko gaizkia al dago? Ez, inolaz ere. Zauriturik, edota hilotzik? Ezta, guk dakigunez behinik behin. Eta zuk bart, etxe osoa arakatu zenuan, eta etxeko batzuk erdi biluzik ikusi zenituan, besteak jantzita. Ongi aditu ezadazu. Goiz hontan zure buruak izan dituan oldozketak ezagutzen ditut, noski. Gendreautarren adiskide natzaizu. Haien etxera maiz joaten naiz. Beraien bilkurako ere banaiz. Nitaz gaizki esaka ari izan zarela badakit, ezta?

—Badugu Minarden azalpena eta salakuntza ere bai.

—Zirularia? Hortara nijoan. Laguntasun-oihu bat entzun zuela-eta, goizaldeko ordu bat eta erdietan, inoren etxean, erdi indarrez sartu nahi izan du.

—Hark ikusi ere egin zuan...

—Ez ahaztu berak bakarrik ikusi zuela gertakari hori, eta beste auzoak lasai geratu zirala. Jarri zaite orain zu atezaiaren lekuan, gurdi-atean eman dituzten ostikadak esnatua...

—Barkatu, baiman Luis delako hori osoro jantzirik zegoan, korbata eta guzti, goizaldeko ordu bat eta erdietan, eta Maigretrek dei egitean etxea ilun zegoan, batere argirik gabe.

—Tira, ba. Halarik ere, zure zirulari hori duzu soilik otseina jantzita zegoala aitor dezakeana. Ontzat hartu dezagun, bederik. Ezer gaizkia al da hori? Minard bortxaz egotzia izateko duin egin zan. Zure emaztea hilten ari zarela-eta, gauez inor zure etxera indarrez baletorkizu, zer egingo zenuke zuk, ordea?

Maigreti urrezko toxa⁶⁷ eskeini zion zigarrotxo bat har zezan, baiman harek zigarrotxorik ez zuela erreten berriz ere adirazi zion, nik dakit zenbatgarrenez. Haundiaren baimen antzeko zan Le Breten egikera hau...

—Orain, ikus dezagun gauza bere jokeraz edo ibilpidez. Zuk atestadu hori egin duzu, eta orain honek bere bide jakina egin beharko du, esan nahi dut Poliziaren prefektoagana eramango dutela, eta honek esango du gero epaikariari jaso ala ez. Zirulariaren salakuntza ere, —otseinaren kaltezkua, alegia— dagokion bidez joango da.

Maigret, ordea, begi makur samarrez hari soka zegokion, eta berriz ere bere leku-uzteaz zebilen buru barnean. Hurrengo entzungo zukeana bazekian, noski.

—Gendreau-Balthazar sendia Parisko ezagunenetarikoa duzu. Eta badakizu, *chantage* bila ari diran egunkaritzo hauetarikoren batek pozik jasoko luke berri tipiena ere, guk arinkeriaz ezer zabalduko bagenu.

Maigretrek garratz eta labor erantzun zion:

—Ulertzen dut hori.

—Eta zuk ezesten nuzu, ez ote? Jende hau, handiki delako edota nire adiskide mami⁶⁸ delako, laguntzen eta estaltzen dudala uste duzu.

⁶⁷ Toxa: tabako-ontzi.

⁶⁸ Mami: min, kutun.

Mahai gainean zegozten paper haiek hartu eta berehala puskatzeko sinu egin zuan Maigretrek, horixe baitzan nagusiaren hitzen asmoa... Eta gero, bere lantokira joan, eta ahal zukeanik zuzenen bere zer hura idatziko zuan; bere kargu-uztea, alegia.

—Orain, Maigret enetxoori, berri bat jakin beharrean zagoz.

Gertakari parragarria zan haura: zirikadaz hasitako hizketa, maitagarri itzuliko al zan...?

—Goiz hontan, zure salakuntza-lana irakurri ahala, eta geroago zurekin hartaz mintzatzean, gauza bat nuan aspergarri edo nardagarri, halako oroipen lainotsu bat bezala. Zuri ere hori gertatu zaitzun ez dakit. Hartan pentsatu nahiago, eta usteak igesago egiten dit. Halarik ere, ongi dakit, gauzok aldatzeko zio izan litekeela, eta hortaz, ez da axolagabekoa. Jatera joan naizenean izan dut halako argitasun bat. Bestetan ezta, gaur gurean bazkaldu dut, adiskide batzuk baikenituan guk deituak alegia. Nire emazteari begira egin dut katearen obo⁶⁹ bat. Honek esandako zerbaitek zirikatu nau goizeon. Zer zan, ordea? Eta jaten ari ginalla, zart!, bururatu egin zait. Atzo, etxetik irten baino lehentxeago, ohi bezala galdetu nion:

»—Gaur arratsaldean, zer egingen duzu?

»Eta emazteak erantzun zidan:

»—*The* hartuko dut, Faubourg Saint-Honorén, Lisa eta Bernadetterekin.

»—Bernadette hori Estireauko kondesa da, eta Lisa, ordea, ez duzu besterik Lisa Gendreau-Balthazar baizik.

Isildu zan, eta Maigreti begirakume bat egin zion, lotsagabe samar.

—Eta besterik ezer ez, adiskide. Atzo, arratsaldeko bostetan Lisak nire emaztearekin *the* hartzen ekin zion, horixe jakitea beharreko zitzaidan. Eta bai, jauna; Pihan etxean elkarrekin egon

⁶⁹ Obo: zirkulu.

ziran, alegia, emazteak esan baitit. Eta berriro honera naizenean arreta bizi ari izan naiz zure txostena ikasten.

Maigreten aurpegia argitu egin zan, eta garaitzaile bezala mintzatzeko ahoa idekitzen hasi zaneko...

—Itxaron apur baten! Ez, gero, lasterregi joan. Lisaren logua hutsik ikusi zenuan zerorrek, ordea, gau hartan bertan. Haren anaiak hura Nièvren zegoala adirazi zizun.

—Orduan...

—Bainan hitz haiek ez dute ezer argitzen. Rikardek ez zuan zinik egin egia-egia aitortuko zuala-eta. Zuk ez zeneraman bate-re agindurik, eta hari galdeak egiteko eskubiderik ere ez, beraz.

—Bainan orain...

—Orain, are gutxiago. Horregatixe eman nahi nizun nire aholkua...

Ez zuan Maigretek ezertxo ere aditzen. Korapiloa begi aurrean ezarri zioten eta ez zekian nundik jo. Bero larri zuan gorputz osoa. Haur bat bezala hartu baitzuan, bere burua apal-apalik ikusten zuan.

—Zure oporraldirako asmoren bat eginik al duzu?

Badaezpadako erantzuna ematea otu zitzaion.

—Badakit gure gizonok ohi duzuten ohitura: oporraldiaz aurretik zeuen ibilketa eta joan-etorrien gorabeherak antolatzea, ordurako. Alabainan, nahi baldin baduzu, gaurtik, oraindik hasi zenezake zure atsedenaldira. Horrela, nire barrua artetu ere egingo dela uste baitut. Batez ere, Paristik alde egiteko asmotan ez bazagoz. Oporretan dabilen polizia bat ez da polizia; eta hortara atzera-aurrera eta lanen batzuk egitea errez zaio, Agintaritzak bere mende hartzea zail samar litezkeen arazoak.

Artean, itxaron eta itxaron zegoan, bainan bildurti itzulirik, beste aldaketaren bat izango ote zuan, zerabilen gauzak.

—Zure aurkako ezpa-hitzik ez dudala izango uste dut, alafede. Zerbait niri adirazi beharrik bazenu, edota nire iritziren bat jakiteko gogorik, dei egikedazu Courcelles bulebarrera. Urrutizkineko izen-lerroan idoroko duzu nirea ere.

Maigretek berriz ere ahoa ideki zuan, oraingoan eskerrak emateko, alegia, bainan komisari jaunak ate aldera biguin-biguin bultzaraziaz, zerbait burura baitzitzaion, honela hitz egin zuan:

—Egitez, bada sei-zazpiren bat urte Felizian Gendreau, aita, sendi-esanaren mende dagola, burutik ondo ez dabilen gazte zoroaren idurira. Ama zendu zanetik, Rikard duzu garatzen⁷⁰ gorabehera guztiak zuzentzen dituana, gehienbat. Eta, zure emaztea nola da? Parisko bizimoduak ongi hartu al du, eta bere etxe berriak ere, agian?

Eta Maigret, esku idor baten hertsialdi-agurra sumatu ondo-rean, harako ate koltxoedunaren beste aldean zegoan. Harrituta eta konkortuta zegoan, artean, eta berak ez zekiala lan-mahaierantz zihoan; hontan, zeharragaren handik, zizeluan eserita agiri ziranetatik gizon bat jo zuan begiz.

Justin zan, alazaina, gure zirularia, beltzez jantzita, ez ordea laneko jantziak, eta soineko lodi esne-gain koloreko hura gabe. Arlote zikin eta andre gizen baten erdian zegoan. Andrea, *echarpe* berdea sorbaldagainetan, haur bati bular ematen ari zan.

Zirulariak sinu egin zion begia kliskatuz, langa hartarantz hurbiltzea bidezko ote zuan galdetuaz bezala. Maigretek ere buruaz itxurapen bat egin zion, hartu zituan bere paperak eta bere lagun bati esku arteko arloen azalpenak eman zizkion.

—Oporraldi dut! —esan zion.

—Jorrailean opor, eta errege arrotz bat hemen dugularik?

—Oporraldi.

Besteak, Maigret ezkonberria zela baitzekian, galdetu zion:

—Zer, haur berria, ote?

—Zer haur eta haurrondo!

—Gaixo, agian?

—Ez gaixo, eta ez maixo.

⁷⁰ Garatz: negozio, salerosi.

Zer ilun samarra iruditu zitzaion eta, haren lagunak bizkarra jaso zuan.

—Hor konpon! Hori zuri dagokizuna da, noski. Eta dena dela, oporraldi on! Badira izan ere, bidea harira dutenak.

Maigretek hartu zuan bere kapela, eskuturrekoak poliki ezarri zituan —lantokian gorderik edukitzen zituanak—, eta poliziakoen eta beste lagun abarren arteko atehoa idikiaz alde egin zuan. Minard bare-bare jaiki, eta haren ondoren zijoan, isilik.

Emazteagandik astinaldiren bat jasan izango ote zuan, Bessonek adirazi gogo zuanez. Han zegoan, behintzat, ile kirruz, erkin, masailak txuri-gorri, begiak urdin, eta Maigreten ibilkerari zegoan, zakur galdua aldameneko lehenengo bidaztiarenari bezala.

Kalea eguzkitsu agiri zan, eta leihoak oro lauburuz eta ikurri-nez. Tuntuntzar eta turutaren durundiaz beterik haizeunea. Hainbeste eta hainbeste soldadu-ibilketa ikusi ostean, kaleko jendea ere gudari-oinketaz zebilela zirudian.

Justin Minard halakoren batean Maigreten ezker aldean jarri zanean, galdegitera ausartu zitzaion, eta halako samurtasunez egin ere:

—Egotzi egin al zaituzte?

Orkestako zirulari bat bezala uste zuan harek egotzi litekeela agindaripeko⁷¹ gizon bat, eta zorigaitzak joa zegoan, bera zela eta bera ez zela gertatu baitzan ezbehar hori.

—Ez, ez naute egotzi. Oporraldi dut orain.

—Tira, ba...!

Bainan hitz hoiak urdurikoi ziran, bazuten esangura haserrekorrik.

—Oraingo hontan zu hor egoterik ez dute nahi, ez ote? Eta arazo hori oinperatuko dute, noski. Eta nire salakuntza?

Orduan haren mintzoa garratz eta ozen bihurtu zan.

⁷¹ [Agindaripeko: *funcionario*.]

—Ez al dute nire salakuntza bertan behera bazterreratuko? Bainan, ez; oraindik diot ez dudala inoren isekarik eramango.

—Zure salakuntzak bere bidez ekingo dio.

—Hobe horrelanik. Batez ere, orain, zuretzat berri batzuk baititut. Hobeki esan, albiste bat...

Saint-Georges plazara heldu ziran, plaza bare eta alderatua, ardo zuri usaia duen ardandegitxo bat bertan... Maigretek bultz egin zion bigunki ateari. Benetan ere egun hartako haize-giroan atsedenaldirik arnasa zebilen. Erakusmahaiaren gaineko zink-orria garbitu berria zegoan eta Vouvrayko ardoa, edontziak betean, bere dizdizera haiez, egarri sortzaile zan.

—Zuk etxe hartan neskame bi ikusi zenituan, ezta? Horrela esan zenidan egiatan?

—Bai, Gemane eta Mari —jardetsi zuan Maigretek hitz-erdika—. Eta gainera Luisen emaztea, sukaldaria baita.

—Bada, entzun ezazu. Bat bakarrik zegoan neskamerik.

Zirulariaren begietan poz garbia ikus zezakean, haur batena bezalakoa, eta une hartan nagusiari zotz bat zeramakion zakur jostaria zirudian.

—Fontaine kaleko esnedunaz hitz egin dut, estanku aldame-nekoa, Gendreautarrena, alegia.

Maigret begira zegokion, harrিতuta bainan zerbait musinez, eta harako Karmen antzeko haren zalaparta eta ahakarrak gogorra zetozkion.

—Neskametarik zaharrena, Germane izenez, iragan larunbatetik Oisen dago, haren ahizpa seinaren begira dago eta. Egun osoan ez dut zereginik izaten, ulertzen?

—Bai, bainan, eta zure emaztea!

—Ez dio axolarik! —erantzun zuan lasai asko—. Bilaketa hortan jarraitzea baduzu, noizik behinean zure laguntzaile izan nitekeela pentsatu dut. Jendea nirekin maitagarria da gehienez, ez dakit zergatik bainan...

Eta Maigret bere kolkorako honela mintzatu zan: «Ez ordea harako Karmen!».

—Oraingo zurrutaldi hau neurea da. Horixe bai! Marrubiu-urrina besterik hartzen ez badut ere, zurrutaldi bat eskeintzea ez da deus okerra. Zure oporraldiaren kontu hori kilimiska edo jostaketa bat izango da, noski...

Begiaz keinu egitea bere eginbeharreko arauen kaltezko gauza ote zan?

—Bestera izatez gero, zuregan zer ez egokitzen hartu izango nukean. Ez ditut nik etxe hartakoak ezagutzen eta haien kontra ere ez dut ezer. Bainan hori ez da eragozpen Luis harek gaizkinarren itxura duela esateko, eta beraiek ere gezurrez ari dirala ulertzeko.

Nizatik etorri berria zan neskatxa bat, soineko gorritz jantzia, mimosa hezeak saltzen zegoan eta Maigretrek sorta bat erosi zion bere emaztearentzat, honek ez baitzuan Itsasegi Urdina ezagutzen, kolorezko postal batez izan ezik.

—Nik zer egin behar dudan, niri esatea besterik ez duzu. Ez ezazula uste nigandik okerrrik etorriko zaitzunik. Isilik egoten ohi-tua bainago!

Haren begirakunea eskariduna zan. Beste Vouvray bat eskei-niko zion Maigreti bere gogara linburtzeko, bainan ausartzen ez, bada.

—Etxe hoietan beti dagoz zikinkeria ugari ongi estalita. Bainan edonorentzat ez dagoz estalirik. Otseinak, morroiak eta neskameak gehienez hitz larregi egiten dute eta etxea gaiez hornitzen dutenak ere gorabehera eta zehaztasun anitz jakin ohi dute.

Zer egiten zuan ere ez zekiala, eta honela zirulariaz itunben⁷² edo egune bat bezala lotutzen zuala ohartzeko, Maigretrek isilka jalki zion:

—Gendreau andereñoa ez dago Ansevalen, haren anaiak ziri hori sartu nahi izan du bainan.

—Orduan, nun dago?

—Germane delakoa etxean ez zegoan eta, neskamearen gelan atorra-has ikusi nuan emakumea Lisa Gendreau zan, numbait.

Eta hori ez zitzaion batere atsegin izan. Bere aita gaztelu bateko arduraduna izan baitzan, eta haren itzalpean eman zuan gaztaroa, eta ordutik, gogoaz kontra ere, handikientzat eta aberatsentzat halako lotsa eta begirunea zedukan; eta gauza bakana, zirulariak ere sentimendu berdinean zegoela zirudian, isil-isilik, marrubi-hozkirria zurga eta zurga.

—Horrela uste al duzu? —itaundu zion geroenean, durduziaz.

—Dena dela, emakume bat zegoan neskamearen logelan, eta atorrutsik. Emazteki lodi bat, usai sakatsez, halere.

Eta hori ere atsegin ez zitzaion, haundiki-alabak landaldeko neskatxak bezala usai neketsua izatea bidegabea bailitzan.

Loxusta izan zuten bi gizonok, basoak aurrean, eguzki-izpia lepatxokoan, ardo zuriaren eta marrubi-zukuaren urrina mimosa-renaz batean nahasirik zegoan giropean; eta bere lagunak hitzok esatean, Maigretrek, iratzartuaz, inarrospen bat nabaritu zuan gorputzean:

—Eta orain, zer dugu egin behar?

⁷² Itunben: hitzarmen, aliantza.

III

PAUMELLEREN ZURRUTALDIAK

«Egoki da inspektoreak frak, smoking eta jaket edukitzea, gizarte nagusietara heltzea ezina baita jaunzki bereziok eduki ezik.»

Agindu hauek argi zituan buruan, ongi ikasiak alegia, ume-
txoak Lehendabiziko Jaunartzean ohi dituanetz. Agindu hoiek
ordea, irudimen naroz idatziak izan ziran, noski.

Aitzineko gauetz ikusi zuan soinean bere frak apaina, Gen-
dreautarren gizarte-sailcan sartu asmoz, Hoche Bileran edota
Haussman Bileran, bainan emaztearen hitz zentzun betezko batek
bere hartara itzularazi zuan errez asko.

—Lekutako txairo zagoz gero, Juli! —ziotsan, hura ispiluan
begiraka zebilela.

Eta ez zan inakaz⁷³ ari, alegia. Egiatia zan, zinez ere. Haren
mintzoan, eta irri gozoan halako zerbait aditu baitzuan, *clubman*
izateko ametsa bertan behera utzi zuan.

Bastilla enparantzan gaueko isilaldi-soinuaren durundia en-
tzun zitekean. Leihoratuak zegozten, eta gaueko hozkirriak ziri-
katurik, bere poza eta barreneko uzia⁷⁴ gorderik edukiteko inda-
rrik ez zuan, alegia.

⁷³ Inaka: iseka, ironia.

⁷⁴ Uzi: irrika, gogo bizi.

—Ulertu duzu, nurbait, arlo hontan errekesta⁷⁵ izan baneza, Quai des Orfèvresera ni heltzea gertakari eginxea litzakeela; eta behin hara ezkerro...

Zer gehiago eska zezakean, zer gehiagoren kutizi ukan? Sûretékoa izan, nagusiaren talde edo brigadakoa izan, aldi hartan esaten zuten bezala...

Hortarako aski zuan orain hasitako bilaketa hori zorionez burututzea; inork sumatu gabe Chaptal kaleko etxe bakan bateko gorabehera eta gertariak ezagutzea, alegia!

Haren loa ez zan barea eta lasaia izan, eta goizeko seiretan esnatu zanetik, berriz ere gogoeta eta oldozpenetan ekiditeko aukera izan zuan, eta harako polizi agindueri buruz izan ere: «Txapel bat, lepo-mantar bat, jake zahar bat, nahikoa dira, atun⁷⁶ edo ohiturak irakatsi digunez, gezur-jantzi bat antolatzenko».

Eta une hartan, ispilura begira ziharduala, ez zuan emazteak inundiko parre-iririk agertu. Bai ordea, bihozberaz adirazi:

—Hurrengo hilean beharreko duzu soineko berriak erostea...!

Erran honek bazuan zorrotza bere esanahia. Aldean zedukan soinekoa ez zela berri arean ere⁷⁷, alegia, eta gezur-jantzi zarpilik aurkitzen ibili beharrik ez zuala...

Horregatik, beti bezala, idunekoa jarri zuan eta korbata eta kokoma-kapela⁷⁸.

Eguraldia egundokoa zan, laster Versaillesera helduko zan errege kanpotar hari txera egiteko hauta eta berezia. Errege-urri hartarantz berrehun milaren bat paristar zijoazten, eta gero arratsa ondorengo iluma hurbiltzean, paper zikinez eta bonbila puskatuz beterik utziko zituzten baratz eder haiek...

⁷⁵ Errekesta: zorte.

⁷⁶ [Atun: *experiencia*.]

⁷⁷ Arean ere: hain zuzen ere.

⁷⁸ [Kokoma-kapela: *sombrero hongo*.]

Conflans alderako trenerakotan zegoan Justin Minard, han Gendreautarren neskame Germane ikusteko asmoz.

—Atzeman badezaket —zinoan bere esakera biguinez— dakian guztia esango didala uste dut bete-betean. Ez dakit nik zergatik den, bainan guztiak beren gorabehera eta isil-ezkutuak adirazi behar niri...!

Zazpirak aldean gure Maigret Chaptal kalearen jabe egin zan, eta hain zuzen ere ez zuan damurik izan harako txapel zahar eta lepo-mantarra ez eramatea, etxetik hara komisaritegiko bat aurkitu eta bere izenez deiturik egun onak eman baitzizkion!

Badira kale batzuek, haruntz-honuntza dela-eta, dendak dirala-eta, kafetxeak dirala-eta, inork sumatu gabe, han geldi eta lasa⁷⁹ egon litekeenak: Chaptal kalea, horraitio, ez zan inolaz ere egokia hortarako. Kale zabala eta motza, saltokirik gabea, eta ibilpide urrikoa.

Gendreau-Balthazartarren jauregitxoan errezel edo kortinak oro hedaturik zegozten eta orobat kale aldera zituan leiho-estalkiak. Maigret, orain kale-ertz batean, hurrengoan beste muturrean, ez zegoan bere gogara; eta hontan etxe batetik irten zan lehen-dabiziko neskamea Fontaine kalerantz esne bila, estanku ondora, eta pekuz⁸⁰ begiraka hasi ote zan eta ibilkera bizkortu ote zuan...

Egunaren ordurik maskarrena⁸¹ izan zan huraxe. Eguzkia agertu arren, haizea hotz samarra zan eta berehala berotuko zuanez, ez zuan gaineko jantzi lodirik hartu. Kale-alboak arimarik gabe zegozten. Mutur hartako denda ez zuten goizeko zazpi eta erdiak arte ideki, eta hantxen kafe oso zakarra hartu zuan Maigretrek, goragaleak emateraino.

Beste neskame bat esne pitxarra eskuan, eta beste bat geroago. Ohetik jaiki berriak ziran, nurbait, eta musua garbitzeke irten

⁷⁹ Lasa: nasai, trankil.

⁸⁰ [Peku: *sospecha, recelo*.]

⁸¹ Maskar: kaskar, txar.

beharrak. Handik geroetan, leiho bat, beste bat, apurka-apurka zabaltzen zituzten eta emakumeak ile-sortak erdi loturik kalera begira eta begira, betiere susmo txarrez begi zoli, geldi zegoana ikuskatuaz.

Gendreautarrenean ordea bakea zan nagusi. Zortzirak eta laurenak inguruan, horraitio, txofer bat heldu zan Loretoko Amaren kale aldetik, soineko beltzez, eta atea jo zuan.

Zorionez, Vieux Calvados ideki zuten une hartan. Huraxe zan kale osoan legorpe eta egontoki berarizkoa, Henner karrikaren muturrean, Gendreautarrena baino zerbait alderago. Idiki ahala han sartu zan buruz aurrera gure gizona.

Koratilo lerroduna soinean, gurdi-atea zabaldu zuan Luisek, eta beribilzaleaz mintzatu zan laburki. Atea, zana zan zabal gel-ditu zan, eta gaueraino, ausaz. Atadiaren zolan, barla⁸² edo patioa agiri zan, belar puska batez jantzia eta garaje bat. Zaldi-oinotsak ere entzunarazi baitzituzten, hauen ikuluak ere izango ziran, nimbait.

—Gosaldu nahi al duzu?

Gizon lodi-lodi bat, koloregorri gorri bat, begitipi bat, Maigreti so eta so ari zan, bakez eta manaz; eta honek ikara egin zuan.

—Zer diozu, gizon, saltxitxoe-tato⁸³ batzuk sagardo pitxar beteaz? Barruko harra hiltzeko ez da horrelakorik...

Bere lanaroan hainbat bider izango zituan egunetarik lehen-dabizikoa era hortan hasi zan; orduan, bainan, loaren antzeko izan zitzaion.

Toki hura, ere, gauza bakana zan. Etxe berezi eta hoteltxoen artean, Vieux Calvados kale hartan landako etxe baten gisakoa zan, Paris handi egin baino lehenagokoa. Etxe hura tipia eta medarra⁸⁴ zan. Harmaila bat jatsi eta leku itzaltsu hozkirria; era-

⁸² [Barla: *patio*.]

⁸³ [Tato: *pedazo (de carne, pescado, pan, etc.)*.]

⁸⁴ Medar: estu.

kusmahai⁸⁵ hark zink-jantzia zuan, diz-diz egiten zuana, eta hango boteilak noizdanik ote zegozten apal haietan?

Hango usaia ere, bakana zan. Barlan zegoan zulotik ote zetorren, sotarrainetik apika... Tarte hartatik sagardo eta *calvados* hats garratza zetorren, kupel zaharretatik eta urdin usaia zabalduaz, eta sukaldeko beste hurin batzuekin nahastuz horra... Leku hartako sakonaldean, zolan, mailadi edo zurubi⁸⁶ bat zegoan, biribilkia, apain samarra egiatan. Etxeko jauna, zangoak motx, gerruntze zabal, kopeta estu eta begiak tipi bezin dirdiratsuak, bazetorren eta bazijoan teatru-jardulea iduri.

Zer egingo zuan Maigretek, eskeintzen ziotena oniritzi baizik? Gosalduteko ez zuan behin ere sagardorik edan. Lehenengo saioa izan zuan, beraz, eta uste izan ez arren, halako berotasun bat nabari zuan bere bular barrenean.

—Norbaiti itxadoten nago! —aitortu behar izan zuan.

—Niri host axola!

Edota bizkarzabal haren zirkinak beste honako hau esan nahi ez bazuan:

—Ez da hori egia.

Haren begirakera irri antzekoa baitzan, luzaro egon zan Maigret kezka samar. Etxeko jaunak ere saltxitxoe-begi gizenak jaten zituan eta ordu laurden baino lehen pitxerkada sagardoa, behetik jaso, hondarretan zegoan.

Gendreautarren etxeko barlan noizik behinka txofer hura agiri izaten zan, gaineko jantzia kenduta, beribilaren garbiketan, honen aurreko gurpilak bakarrik ikusten ziran, bainan. Ez zan Dion-Bouton, ordea. Limosin beltza zan, kobrezko argiontzi haundiduna.

Anartean, karrikan, lagun gutxi zebilen. Metrorantz zijoazten langileak, Fontaine kalerantz dendetara abiatutako neskame eta sukaldariak, soilik.

⁸⁵ [Erakusmahai: *mostrador*.]

⁸⁶ Zurubi: eskaiera.

Inortxo ere ez zan Vieux Calvados hartan sartu. Bainan han barruan, zurubi borobilki hartan andre bat agertu zan, zapatilla gorriz, eta txintik atera gabe, suetara joan zan.

«Bilaketa edo zaiketa baten ari diran polizigizonak ez dira beren buruen jabe. Zaitu behar dutenaren ibilerak erágingo die lan eta egonaldi.»

Lehenbiziko etxoinean errezelak bildu zituzten; Rikard Gendreauren gelakoak ziran.

Vieux Calvadoseko jabea astiro zebilen batera eta bestera, eskuetan oihal bat zuelarik. Solas-asmorik ez zuala zirudian.

—Niri itxadonarazten dute gogoa, nunbait —zion Maigretrek, bere artegatasuna estali eta zuritu nahirik.

Jatetxe hura ez zan, agian, edaritegi nolabaiteko bat, bezeru jakinak zituana baizik. Laukitxo gorriz beteak ziran mahaietako zamauak⁸⁷, kortinak bezenbat. Zolako atea barna zetozten sukaldeko usai gozoak; eta norbaitek patata-zuriketean ziharduala esan zitekean, egin ahala burniontziratzean, aldiz-aldiz tun!, tun!, hotsa entzunarazten baitzuan.

—Eta etxeko jauna eta bere emaztea zergatik ez ziran elkarrekin mintzatzen? Emaztea agertu zanetik, biak, edota hobeki esan hirurok halako pantomima bakan bat antolatzen ari zirala zirudian eta.

Basoak eta bonbilak garbitu, mahai gaineko zink-orria ureztatu eta ezbai antzeko baten ondoren, lurrezko ontzitxo talde hartatik bat hautetsi zuan Paumellek. Orduan, agindari uziaz, baso bi bete zituan, eta horman, iragarkidun egutegi baten ondoan zegoan erloiua behatuz, zehatz eta murri⁸⁸, hitzok esan zituan:

—Ordua da.

Maigreten sinueri adi-adi egon zan bere begitxoez, hark *calvados* edatean (sagardo-paitarra, alegia); zarata xehe bat eragin

⁸⁷ Zamau: mahaizapi.

⁸⁸ Murri: mehatz, labur.

zion mihingainari, eta galtza-lokarrietan zedukan mahaizapitxo eskuetara zuan berriz ere.

Bederatzi eta erdietan aurreko txofer harek bere soinekoa jantzi zuan eta beribilaren bultzikina ligika jarri. Harako gorapearen⁸⁹ azpian ipini zuan gurdia, eta minutu batzuk geroago Rikard Gendreau, jaunzki arre kolorez eta klabelin bat paparrean, gurdiratu zan.

Jatetxeko jauna ergel edo ertzo maltzurren bat ote zan, argi eta garbi?

Edota, sumatu egin ote zuan gertatzen zana? Iragan zan gurdia behatu, gero Maigreti soaldi egin, hasperen xume bat jaurtiki eta bere lanera zan.

Berriz ere crakusmahai gibelera zan, eta bederatzi eta erdietan beste ontziska bat hartu, txolet⁹⁰ bi bete eta haietarik bata bere bezeruaren aurrean ezarri zuan, murtik atera gabe. Geroago jakin zuan Maigretrek jokera hori ohikumeren bat zela edota kas-ketaldiren bat. Ordu erditik ordu erdira, han agertzen zuan *calvados* txolkada⁹¹, gure gizona kolore gorriz apaintzen zuan zer hura, eta begietan sortzen zitzaion hezetasun edo bustiaren zio eta erroa.

—Eskerrik asko, bainan...

Hainbat okerrago! Eskeinitakoari uko egitea ez zan errez; ematen zionak halako agintari-itzala baitzuan, kalte eginik zerbel⁹² samar jarten zuan alkohola edan nahiago izan zuan...

Hamarretan, ordea, galde hau egin zion:

—Telefonorik ba al duzu?

—Bai, alazaina, garbiontziairen aitzinean, lehenengo oinean.

⁸⁹ Gorape: arkupe.

⁹⁰ Txolet: kopatxo.

⁹¹ Txolkada: kopatxokada.

⁹² Zerbel: txolin, panporo.

Maigret zailu⁹³ abiatu zan zurubi kiribilean gora, eta han gelatxo batean lau mahai beren zamau laukitxodunetaz zegozten. Sapaia oso apal zegoan eta solairuaren pare ziran leihoak.

Balthazar Kafeak, Operako Uribidea, Tegia, Quai de Valmy, Artezkaritza, Auber kalea...

Auber kalera hots egin zuan.

—Rikard Gendreau jaunarekin hitz egin nahi nuke.

—Norketz⁹⁴?

—Luisketz dela esan egiozu.

Berehalakoan Gendreauren ahotsa sumatu zuan hariaren beste muturrean.

—Esan egidazu, Luis.

Ahots hura urduri eta artega nabari zion. Orduan Maigretrek entzun-kakotxa zintzilik ezarri zuan bere tokian. Leihotik begiratu, han ikusi zuan etxegizona⁹⁵ bere koratilo marradunaz, kalean lasai asko zigarrotxoa erreten. Ez zan, alabainan, luzaro egon. Urrutizkinaren txirrina aditu zuan, nunbait.

Haren ugazabak, izutua, dei egiten zion.

Tira, ba! Rikard Gendreau bere despatxuan zegoan, eta egongo ere bai egunik gehienean. Ez zuan harrezkero Luisek karrikara irtenaldirik egin, bainan gurdi-ateak idikirik zirauan.

Bigarren etxoinean, errezelak bildu berri zituzten leihoan aurrepegi gazte bat agiri zan. Mari zan, neskame gaztea, bere sudur zorrotz, lumatutako txoriaren lepo eta ile nahaspilaz; neskameak ohi duten xingolatzar zuria buruan. Beltzez jantzia, otseinen aurreko magalzapia zuan, Maigretrek teatruetan soilik ikusi ohi zuana.

Areto hartan luzaroegei egoteko bildurrez zegoan, etxanarentzat⁹⁶ susmo txarreko izango ote zan. Sagardo-païttarraren

⁹³ Zailu: bizkor, arin.

⁹⁴ Norketz: noreu partez.

⁹⁵ [Etxegizon: *mayordomo*.]

⁹⁶ Etxaun: ugazaba, jabe.

hirugarren txandarako betaz jatsi zan, alegia, eta zurrutaldi hura ere, besteak bezala gizatsu eta benaz eskeinia izan zitzaion. Eta plater txiki batean saltxitxoe-zati batzuk emanaz, jaulki zion deplauki:

—Pontfarcykoa naiz ni!!

Hitzok halako itzal eta lotsaz ebaki baitzitian, zerbait misteriozko gauza zegoan, nunbait, hitz haietan. Lukainka beltz haren gorabehera azaltzen al zuan? Ala, Pontfarcykoak ordu erdiro *calvados* edaria barreneratzen zaleak ote ziran? Eta geroago:

—Viretik hurbil duzu!

—Berriz ere urrutizkinez hitz egin al dezaket?

Anartean, hamar eta erdiak ez ziran, bainan alderdi haiek ezagunak zituan. Bere hartan zegoan, ordea, gero eta lasaiago eta baita alai ere. Ikusgarria benetan leiho hura, goitik beherainokoa, han jaten ari ziranak kaletik errez eta argi ikusteko!

—Entzun! Gendreau-Balthazartarren etxeaz al dut hizketa?

Eta oraingoan Luis gaiztoak entzumarazi zuan bere mintzoa.

—Gendreau andereñoaz solas gogo dut, arren.

—Andereñoa ez dago. Nor da hitz egiten ari dana?

Lehenago bezala, iseki egin zuan urrutizkin-muturra, eta beheko aretora jatsi. Ugazaba, arbel beltzean egun hartako janari-arloa idazten ari zan, mintzo bakoitzean gogoeta eginaz.

Orduan, karrika aldean, leiho asko zegozten zabalik, oinzi-riak⁹⁷ astinketan.

Atso bat, guztia beltzez estalia, ubel kolorezko buruzapi batez, zakurtxo bat zaituaz, hara eta hona zebilen, ate bakoitzean geldialdi eginaz, bainan beti idor...

—Nire adiskideak gure elkar-jokera ahaztu egin duela uste dut —zion berekiko Maigretrek, irriparra egin nahirik—. Besteak sinistu egin ote zuan? Poliziakoa zanentz buruketan ote zebilen?

⁹⁷ [Oinzi-ri: *alfombra*.]

Hamaiketan, Gendreautarren barlan, gurdiska bati lotu zion zaldi uharre⁹⁸ bat gurdizaiak. Gizon hura, ordea, kaleko ate hartatik ez zan sartu. Etxe hartan lo egin ere ez zuan egiten nunbait, eta beraz, beste aterean bat zeukan etxeak.

Hamaika eta laurdenetan, Felizian Gendreau jatsi zan atera. Jaket apaina, eskandel edo guante horiak eta kapela buztin-kolora zeramazkian; biboteak, ezpain-bizarrak dirdiz egiten zioten. Gizon hark lagundu zuan gurdiskara igoten eta Blanche kalean zehar joan zan. Basoaldean ibilketa egingo zuan noski agure hark, gero bere bilera edo *club* ohituan bazkaltzeko.

«Frak, smoking eta jaket etxean edukitzea egoki izango dute inspektore direlakoak...»

Zurru eta zurru bitartean ispilura behatzen zan Maigret, eta hori oroituaz parra mingotsak irten zion. Eta eskandel horiak ere bai, ezta? Eta makila bat, muturburu urrezkoa, ez ote? Eta txarolezko zapaten gainetik halako azpantar⁹⁹ argi txairiak!

Lekutako zoria zuan bere lehenbiziko bilaketan, izan ere! Beste edozein toki eta bazterretan izan balitz...! Salerosleen artean, zerbait dirudumen artean, zirpil-biltzaileen artean, alper eta arloen inguruan... Hori, oso errez eta eskurakoia izango, egiatan! Baina hotel berezi hau, eleizako ateak baino hitzak handiago ematen zion gurdi-ate hartaz, eta gainerako marmolezko irudi haiek eta gurdiak ikuzten zituzten barla hura zala-eta... Ene, ene!

Eta sagardo-paitarrak...! Zer egin behar zuala, ordea! Eutsi zulo hartan azkeneraino. Vieux Calvados ezagun berri hartan zegoekan, premiak beste erabaki bat eskatu arteraino.

Luisen emaztea ez zuan ikusi, horraitio. Beharbada, ez zuan egunero gauzen erosketan jardungo, etxean aurrez izango zituelako. Etxeko nagusiak auzoan izango zuten noski, bazkari-legea!

⁹⁸ Uharre: arre.

⁹⁹ Azpantar: zangozorro, polaina, *botines*.

Justin Minardek adu ona aurkitu zuan laguntzat. Landan, basoaldean zebilen orduan. Esnedumagandik izena ikasi eta, Germane Babocuf neskamearen bila ari zan bere ahizparen etxean baitzegoan, oilo artean eta baratz atseginen baten, apika...

—«Eta zure emazteak...?»

—«Ez dio axolarik!»

Eta Maigreten emaztea? Etxebizitza tutarrez¹⁰⁰ irauli eta txukundu behar zuela-eta, egun hartan bertan hain zuzen ere!

—Zertarako hori egin, maite? —esan zion Maigreték—. Hain laburra izango baita hemengo gure egoera! Beste auzume atseginare baten aurkituko al dugu etxetxo bat!

Ez zuan hark asko uste izango hogeta hamar urte geroago ere, Richard Lenoir bulebar hartako etxe-puxka hartan bizi izango zela, aldameneko gela bat gehituaz.

Hamaikak eta erdiak... Halakoren batean baztozten bezeruak Vieux Calvadosera. Txartes zuridun margolariak ziran, etxe-koak noski, senide antzo agurtu baitzuan nagusia haietariko batek:

—Agur zuri, Paumelle!

Zutik zegoztela piztugarri bat edan zuten, eta eseri baino lehen arbelean idatzirikoa irakurten ari ziran.

Eguerdi aldean, mahai guztiak beterik zegozten, eta Paumelle anderea noiztik noizera sukaldetik ateratzen zan, plater moltsua eskuetan, eta haren senarra edariaz ari zan, behetik zotarrainera jatsiaz eta geroago lehendabiziko oinera iganaz. Bazkaltzen ari ziran gehienak inguru haietako etxeberrigileak ziran, baina langile haien artean gurdizai bi ere agiri ziran, karrikan gurdi apainak utzita barrenera ziranak.

Onu¹⁰¹ eta aholku eskatzeko, Le Bret jaunari galdegiteko asmoa izan zuan Maigreték. Larregi jana eta edana zegoan, ordea,

¹⁰⁰ Tutarrez: osoan, erabat.

¹⁰¹ Onu: aholku, burubide.

eta lozorroa zuan gorputzean. Zirulariaren orde, Oise aldean egon izan balitz..., belar gainean luze eta zabal, zuhaizpe baten, musuan¹⁰² egunkariren bat hedatuta ezarririk, bestelako loxusta egingo zukean!

Bere buruaz zalantza izan zuan, eta aukeratutako bizibidea hutsa beste zala zirudion. Gizon baten lana al zan, arranopola, egun osoan tabernazuloan sartuta egotea, ezertxo ere gertatzen ez zan etxe bateko gorabeherak zelatatuaz? Paris guztian jendea haruntz-honuntza zebilen, txinurriak iduri, bainan bazekiten, alegia, zer nahi zuten eta nora zijoazten...!

Bainan, batez ere, hura gauza jasanezina: ordu erdirik ordu erdira *calvados* txolkada bat zanga-zanga edan beharra, begiak gero eta ilunago eta irriparra gero eta mukerrago zuan gizontxo harek esaten zuala-eta: «Ez, jauna, ez». Paumelle adarra jotzen ari zitzaion ederki asko; bai, enura¹⁰³ gabe. Zer egingo zuan, ordea? Kalera irten, eta han eguzki-galdatan erdi-erdian txorimalo antzean lotu, karrikan ziran leihotako begi guztien ikusgarri?

Eta hori gogoratuaz, oroipen minkats bat burura zitzaion. Polizia sartu berri zanekoa, bi urte aurretik, eta orduan lanbide hori uzteko asmotan egon zanekoa. Kanean ibilteko agindua eman zioten, eta batez ere, metro-lapur eta -ohoinak zaitzekoa.

«Txapel erabili bat, lepo-mantar bat, jake zahar bat asko dira gezur-jazkera antolatzeke...»

Egun haietan oso sinisten zuan erranaldi hori. *Samaritaine* aurrean zan. Metroko zurubian gora zijoala, atso zahar baten zisku¹⁰⁴-lolkaria, zart!, ebaki zuan morroe batek eta orduan Maigret lapurrarengana abiatu zan, oratu zion eta baita zisku beltz hura kendu ere. Bainan lapurrak iges egin nahi zion, eta baita egin ere, oihuka gainera:

—Lapur horri!

¹⁰² Musu: aurpegi, begitarte.

¹⁰³ Enura: duda, zalantza.

¹⁰⁴ Zisku: poltsa, zorro.

Eta jende guztia Maigretengana joan zan, haserre, zalapartaka, eskuak errez eta bizi erabiliz; eta bitartean, gaizkinak isil-isil alde egin zuan inor ohartzeko.

Eta une hontan, Justin Minard adiskideaz zalantza eta ezbaian zegoan, Maigret. Egiatan ere, bigarren oineko leiho hura ideki egin al zuten gau hartan? Eta zer, bada? Ez al du edonork eskubide, gau erdian leihoa idekitzeko? Eta gainera badira ametsetan ari direlarik, jaiki, ibili eta oihu egiten dutenak ere...

Vieux Calvados herriz ere, inor gabe geratu zan. Etxeko nagusia eta bere emaztea goizean hasi eta ordura arte, elkarri mintzatu gabe ari ziran, balet batean bezala, batbederaren lanak isil eta egoki eginaz.

Eta hontan, egundoko gertakaria jazo zan.

Ordu biak eta hoge ziran.

Kanean behera astiro eta baratze zetorren beribil bat; Dion-Bouton bat zan, kolore arrea, eta haren txofer ahuntz-laruzko soinekoduna, betaurreko haundiekin. Ez zan gelditu gurdi hori Gendreautarren etxe-aurrean, bainan emekiro zijoan, eta Maigret-ek haren barruan inor ez zijoala ikusi ahal izan zuan. Baita haren zenbakia ere, ikasi zuan, leihorantz hurbilduaz: «B-780».

Ez zitekean haren ondoren joan, Fontaine karrikan barna ezkutatu baitzan. Han gelditu zan gure gizona, bihotz pil-pil, eta bost minutu baino lehen, berriren berri iragan zan gurdi berbera, astiro orduan ere.

Erakusmahaiera zanean, Paumelle begira-begira zegokion, haren pentsamentuak sumatu ezinik, numbait. Berriro bi ontziak bete, eta bere bezeruari eskeini...

Gurdia gehiagorik ez zan agertu. Operako dantzariak orduan ziharduten Versaillesko lorategietan ninfa zoragarrien jardukizunetan, etiketaz zegozten gizon-eli¹⁰⁵ haien aurrean, inguruan estu-estuka ehun mila lagun, haurrak bizkarretaratuaz, haizezko

¹⁰⁵ Eli: talde, koadrila.

maskuriak airean, erregaliz-saltzaileak eta paperezko ikurraz non-nahi...

Chaptal kalea, ordea, lozorrotik hurbil zegoan. Noizbehinka zalpurdiren bat edo beste iragan ohi zan, zaldi-apatxen hotsa isil samar, lur-arras zegoan zuleria zela-eta.

Laurak hamar gutiagotan agertu zan Luis. Barneko diponaren¹⁰⁶ gainean jake beltza jantzi zuan eta kurinto-kapela¹⁰⁷ buruan. Ate haundiaren parean geldi jarri zan lipar batez¹⁰⁸, eta zigarrotxoa izetuz haren keiari¹⁰⁹ putz egin zion lotsagabekiro; Fontaine kalearen muturrerantz joan zan geroago geldi-geldika, eta Maigretek ikusi zuan dendatxo hartan sartzen.

Handik lasterrera irten eta lehengo bideak egin zituan. Une batez Vieux Calvados horma-izena irakurten hasi zan. Kanpoan argi zegoan oso, eta barruan itzal larregi Saint-Georgesko komisaritegiko zadorlaria ezagutu zezan...

Norbaiti itxadoten ote zegoan? Erabakiren bat hartu baino lehen, ezbaian al zebilen? Blanche karrika-ertzera joan zan, eta handik norbait begiztatu zuela zirudian, Maigretek nabari ez arren, eta oinak bizkortuaz usu alde egin zuan.

Maigret haren jarraian joatekotan egon zan, baiman halako giza lotsa edo itzalak esti eragin¹¹⁰ zion. Nagusiaren begirakune lausoa bere gain zedukala ohartu zuan. Azalpen bat noraezekoa zan, zer zuan zer galdetu eta ordain-beharra eta Blanche kalera heldu orduko, agian, otseina nun egongo ote zan...

Beste zer bat bururatu zitzaion. Bere zorra lasai asko garbitu eta Luis etxean ez baitzegoan, joan aurreko jauregitxora eta Gendreau andereñoaz edota Mari gazteñoaz mintzatu...

Ez zuan, ordea, ez asmo bata ez bestea bete.

¹⁰⁶ Dipon: txaleko, koratilo.

¹⁰⁷ [Kurinto-kapela: *sombrero hongo*.]

¹⁰⁸ Lipar bat: apur bat, pixka bat.

¹⁰⁹ Keia: ke(a).

¹¹⁰ Esti eragin: eurt eragin, atzera eragin.

Buruketan ziharduan artean, eraen-gurdi¹¹¹ bat -normahik eska dezakeana, alegia- heldu zan Blanche kalean zehar. Zaldizaia, etxean zenbakieri beha eta beha ari zan, eta azkenez Gendreautarren aitzinean zuzen geratu zan. Bere tokitik ez zuan zirkinik egin, ordea. Aginduren batzuk bete beharrez zegoan, nunbait, eta bere gurdi-ikurra eratsita zedukan.

Bizpahiru minutu eman ondorean, Mariren sagu-muturra azaldu zan atadian, bere magalzapi eta burukosare hegalmduaz, lehen bezala. Barrenera zan, eta eskuan pardel bat zuala agertu berriz, kaleari soaldi egin eta gurdirantz joan zan.

Maigretek kristal ostean zegoalarik, ezin izan zuan ezertxo ere entzun neskamearen hitzik. Zaldizaia, beti geldi bere lekuan, zorroaren jabe egin zan eta laster ezarri zuan ondotoxan, astuna ere ez baitzan, nunbait.

Saltoka bezala itzuli zan Mari etxera. Polairek aina meia zuan gerria eta buruko ileak hain luze moltsoak eta haren gorputza hain txikia, dendua galdu eta eroriko ote zan esan zitekean.

Aienatu zan. Eta gerotxoago, beste irudi bat zedukan Maigretek begien aurrean. Emakume bat, gaztea, luzea, gizona, urdin ilun koloreko soinuekoa giza tankeraz¹¹² egina, kapela bat buruan, urdina hau ere, eta errezel zuria iztil haundiz betea, zintzilik.

Maigretek berotasuna nabari izan zuan musuan. Zergatik gorritu zan? Neskamearen logelan, gauzak erdi nahaspilaturik, atorrutsik ikusi zuelako, agian?

Ez zan neskamea, ez, inola ere. Ez zitekean besterik Lisa Gendreau baizik, eta arinak arin zijoala ere, bazuan halako haunditasun eta prestutasun egokia. Gurdiratu zan eta barruan eseri ere bai.

Gure Maigret bihotz-ikaratua zegoan eta gurdiaren zenbakia hartzea ere, ahaztuxe egin zitzaion: 48. Idatzi zuan bere liburuskian eta Paumelle begira ari zitzaiola, berriz ere gorritu zan.

¹¹¹ Eraen-gurdi: alokatzeko auto.

¹¹² [Giza tankerazko: *corte sastre*.]

—Horra, bada! —hasperen egin zuan, beste ontzitxo bat auke-
ratzen zualarik.

—Zer horra, bada?

—Horra bada sendirik onenetan gertatu ohi danaz, esaten
dutenez.

Atseginez zegoala zirudian, bainan irriparrarik erakutsi gabe,
horraitio.

—Horixe zan zuk itxaroten zenuana, ezta?

—Zer esan nahi duzu?

Haren ibilkera haserre antzeko bihurtu zan, eta beste kopa
bat ipini zion Maigreti aurreko aldean. Aurpegia ilun samar jarri
zuan, honako hau esango bailion:

—Zu misterioz beterik ari zarenez gero...!

Eta orduan, Maigretek, sinu haura kitatu nahirik edota etxe-
ko nagusia linburtu ustez, jalki zion:

—Hori, Gendreau andereñoa da, ez ote?

—Balthazar Kafetakoa, bai, jauna. Eta luzaz ez dugula kale
hontan ikusiko uste dut.

—Ibiltaldiren batera doala derizkiozu?

Gizonaren bekurunde¹¹³ nekez agiri zan. Bezeru gazteari
bere urteen aztura agertu nahi zion, bere jende arteko ohitura,
gizaki berdinezekin¹¹⁴ edaniko zurrutaldiak, auzo hartako gora-
beheren jakituria...

—Norentzat lan egiten duzu? —esan zion bat-batean, pekuz,
susmo gaiztoz.

—Bada nik..., inorentzat ere ez.

Begirakune garratz bat egin zion, hizkera baino garratzagoa,
zinez:

—Gezurra da hitz hori!

Eta gero, sorbaldak jasoaz:

—Hor konpon!

¹¹³ Bekurunde: begitarte, aurpegiera.

¹¹⁴ Berdinez: desberdin, bestelako.

—Zer uste izan duzu zuk, ordea?

—Lehenago ere auzune hontan inguruka ibili zarela aitor eza-
zu, gizon.

—Ni? Aitortuko dizut...

Halaxe zan. Bere gogo ona erakusteko beta idoro nahi zuan.
Bertzea, begiraka zegokion, lasa, patxadaz, bainan zalantzaz edo
jarri, eta hats handi eginaz:

—Kondearen adiskidea zinala uste izan dut.

—Zein konde, gero?

—Berdin da, horrela ez baita. Ibilkera berdina duzu, eta ba-
tuetan bizkarra jaso ere, hark bezala egiten duzu.

—Konderen bat ikustera joan dala Gendreau andereñoa, hori
uste al duzu?

Ez zion Paumellek jardetsi, Fontaine kaletik agertu zan Luisi
begira zegoalako. Blanche aldetik etorri baitzan, etxetaldeari itzu-
linguru egin zion, numbait. Lehen baino argiago zedukan begitarte,
eta eguzkiaren epelaz gozartzea beste kezkarik ez zuan, antza. Inor
gabe zegoan kaleari so egin zion, eta ongi irabazitako basokada
ardo zuria hartzekotan-edo, karrika-ertzeko dendara sartu zan.

—Etorten al da inoiz honera?

Ezetz borobila jaurtiki zion.

—Itxura txarra du, noski!

—Bai, asko dira itxura badaezpadakoa dutenak, bainan ez da
errez aldatzea.

Maigreti ukitu al zion hori esateaz? Eta bere kolkorako beza-
la, sukaldeko hotsak entzuten ziran bitartean, jarraiki zuan:

—Badira jende zabal eta adirazaleak, eta ez diranak ere bai.

Egundoko agerketak azalduko ote ziran zegoan Maigret, gau-
za asko jakin hurren zegoala, agian; bainan «hurren» hori *calva-*
dos beterik zegoan gizon gizenaren gibel-bildurra¹¹⁵ zan, horren-
baten¹¹⁶.

¹¹⁵ [Gibel-bildur: *desconfianza*.]

¹¹⁶ Horrenbaten: antza, aurki.

Irabaziko ote zuan berriz ere, gizon haren uste ona, haren elkar-esanahia? Kondearen adiskidea ez zala adiraztean, orduan-txe galdu zuan, beharbada, haren uste ona. Elkar ulertu ezik eman zuten, alper-alperrik goiz osoa. Bai, argi zegoan gertatutakoa.

—Aztarna bila ari diren etxe berezietakoa naiz —esan zuan arrisku samarrez.

—O! Bai...?

Bere nagusiak arlo hontan polizia hauturik ez aipatzeko ez omen zion agertu?

Horra, ba, esan. Egia jakitekotz gezurrera jo zuan. Emango zukean bai zer bait une hartan hogeitaz urte gehiago eta gizon haren soin beteak edukitzearen.

—Banuan nik, bai, susmoa zer bait gertatuko zala-eta...

—Eta gertatu da, ikusi duzuez.

—Beraz, zure ustez, ez da hura itzuliko?

Orduan ere ez zuan nunbait zera zertu, Paumelle errukitsu antzean, sorbaldak goratzen hasi baitzan. Beste era batez jokatzeara otu zitzaion gure gizonari.

—Orain, zurrutaldi hau nire lepo da! —esan zion, ontziak erakutsiaz.

Nola ukatuko etxeko jauna, besteren zurrutaldia edatera? Berriz ere bizkarra alderatu zuan, eta esan ere bai:

—Garai hontan hobe dukegu markako ardoren bati erasotea.

Eta sotora¹¹⁷ joan zan, ardozun. Egun hartako *calvados* sailaren ondoren Maigretrek halako astuntasuna leporatu zualarik ere, Paumellek ezer aldatzeke zuan bere ibilera trinkoa, eta esku-zal gabeko mailadian behera han zijoan, zurubi eskasa zan, bainan.

—Gezurra esateko azeri zaharra behar da izan, gazte!

—Zuk uste al duzu...

¹¹⁷ Soto: upeltegi.

Txiriboginak bete zituan txolak¹¹⁸, ongi bete ere.

—Aztarnakerien etxe bereziari norik aginduko horrelako lanik, ordea? Kondeak, ez behintzat, ezta? Gendreautarrak, ez aitak ez semek, alegia. Eta Humberto jaunak...

—Zein Humberto...?

—Ikusten al duzu? Sendi hori ezagutu ere egiten ezta...

—Bigarren semeren bat, ote?

—Kale hontan zenbat etxe dira?

—Nik al dakit! Berrogei? Berrogeta hamar-edo...?

—Tira, ba, kontatu itzazu... Eta gero, ate bakoitzean hots egin ezazu. Norbaitek esango al dizu, agian... Bainan barkatu, arren, niri! Ez zaitut jaurtigiko; geldi zaite hor nahi baldin baduzu. Bainan loxusta-ordua dut, eta hori niretzat utziezina da...

Erakusmahaiaren gibelcan, alki bat zegoan, eserlekua lastozkoa zuena, eta Paumelle hantxen eseri zan, etxe-aitzindari bizkarra emanaz. Eskuak eta besoak sabelaren gainean gurutzatu zituan, begiak hertsu eta bet-betan lozrorrik mamitsunean murgildu zela esan zitekean.

Isilaldi hartaz oharturik, haren emazteak musturra agertu zuan sukaldeko atean, esku batean plater bat, bestean mantar bat. Eta ikusi zuana ikusita, lasa eta bare bere lanera itzuli zan, Maigreti behatu ere gabe, hau, bada, erdi nahasia, leiho ondoko alki baten eseri baitzan.

¹¹⁸ Txol: kopa.

IV

OIHANERA BIDEKO ZALDUN ZAHARRA

Minardekin erabaki hau hartu zuan lehen: hura Conflansetik itzul zedinean, Richard-Lenoir bulebarrean lerro batzuk uztea, egindakoaren berri ukan zezan.

—Bainan hori ez duzu zure bidea —azaldu zion Maigretrek.

—Ez dio axolarik!

Maigretrek itaune bat egin zion joan aurretik, lotsati, bildur antzean, zirularia atzekatu ez zedin, alegia.

—Eta zer apuko¹¹⁹ edo aitzaki agertuko duzu han? Zer esanen diezu?

Egun astun hura iragan ostean, neka samar, bulebar handietan barna etxerantz zijoala, zirulariaren erantzunak izu-zarrada eragin zion bat-batean.

—Asmatuko dut. Ez zaite kezka, hortaz.

Alabainan, arratsaldean, zerbait lur jota egon ondorean —Vieux Calvadosetako nagusi nekagarria zela-eta, edo goizean goiztik irentsitsako zurrutak egosketa larria izan zutelako—, Maigret berriz ere kemenez eta zut zegoan.

Bere barnean halako ezin csaneko zera ohartzen zuan, artean nabarigabea, eta ez zuan batere susmorik geroz maiz eta sarri

¹¹⁹ Apuko: desenkusa, estakuru.

izango zukean susperraldia taitu hartakoa zitekeanik. Maigreten susperraldiak, Quai des Orfèvresen ospatsu baino ospatsuago izango ziran susperraldiak!

Artean, gorputz osoan berotasun atsegina senti izan zuan, ibilkeran ere sotiltasun berezia, laguneri, argi eta gerizpeeri, inguru eta inguruko gurdi eta tranbieri so egiteko kera aparteko bat.

Arestian, Chaptal kalean zegoalarik, bere nagusi Le Bretenztat beltzuri¹²⁰-grina bat zuan bilaketa hartara zirikatu zuelako, eta harek, ongi zekiala gainera, gibel-joko nardagarrian sarrarazi zuelako. Balthazartarren etxe bat asaldatzeko eta esetsaldipean ezarteko, nolatan izango zan aski gizon bat bakarra? Nagusiaren brigadako buruzagiak horrela ari al ziran, alazaina? Bai zera! Bazuten arteko eta lagungarririk ugari: araketa, aztarna, fitxa direlako agiriak, bitartekoak, lupukiak¹²¹, salatariak... Hamar lagun saiatu behar baziran, hamar gizon ipiniko zituzten, noski, bakoitzaren arrastu eta aztarnak bilatzeko...

Bainan bat-batean, Maigret laketez zegoan bazterrik bazter ere bera bakarrik joateko. Ez zuan asko uste geroago betikotz izango zela horixe bere bilaketa-bide eta era jatorra! Brigada berezi bateko buru izatera heltzean, polizi sailtxo bat bere menezan zuala ere, han ari izango zan bakar-bakarrik geldialdi ospatsuak egiten, kalerik kale badaezpadakoren bat jarraika, tabernaren batean egon eta egon norbaiti itxadoten...

Paumelle aiherge¹²², jaramon egiteke zegokion Vieux Calvados hartatik atera orduko, beste bi aldiz ere urrutizkinez hitz egin zuan. Batean L'Urbaine zalpurdien etxera, Lisa joan zan gurdiak hango koloreak baitzitian. Luzaro itxaron beharra izan zuan.

—La Villeteko tegiari dagokio 48 gurdia. Haren zaina, Eugeni Cornille duzu. Gaur eguerdian hasi du bere lanaldia. Eta gau erdia baino lehen ez da, nurbait, bere Tegira itzuliko.

¹²⁰ [Beltzuri: *animadversión*.]

¹²¹ Lupuki: salatari; nonzeberri.

¹²² Aiherge: axolagabe, interes barik.

—Eta ordu hori aurretik, ba al dakizu nun aurki nezakean?

—Saint-Augustin enparantzan egoteko ohitura du, bainan jakina, egin behar dituan ibilerak dute hortan esku. Bada inguru hartan jatetxe txiki bat, Au Rendez-vous du Massif Central deritzona. Han hartzen omen du, ahal duenean, puska legorra¹²³ eta...

Beste deia, Prefektura delakora egin zuan, beribilen ardurazkora. Automobilaren zenbakia aurkitutea ez zan lan erreza izan, arraiopola. Maigretek komisaritegirik hitz egiten zuela esan zien, eta besteak geroago berriz deituzteko ustea agertu zionean, Maigretek gauzak okertu zitezkeala oharturik:

—Nahiago dut nik itxadon urrutizkinaren ondoan —esan zien.

Halakoren batean eman zioten izen bat eta toki bat: Bazancourteko Markes jauna, Gabriel Uribidea, 23.

Beste auzune aberatsen bat, apika, eta han etxe berezia, Eli-seos Zelaietara leiho ederrak zituala... Jas! Han berrito ate-joka hasi beharra; nor ausartu, ordea. Denda baten sartu zan, bertatik telefonoz hitz egitekotan.

—Bazancourt Markes jaunarekin hitz egin nahi nuke, mesedez?

Hizkera harroz, hariaren beste muturretik erantzuna:

—Berarekin hain zuzen ere? Orain hiru hilabete zendu zan...

Eta orduan Maigretek hitz bakun eta umekoia esan zituan.

—Eta nor utzi du oinordeko?

—Zer? Nola? Ez dut ulertzen. Haren ondasun guztiak saldu egin dituzte, eta etxea dago soilik saltzeke, eroslerik ez dalako, alegia...

—Dion-Bouton nori erosi zuan ba al dakizu?

—Arkazi¹²⁴ kaleko mekaniku batek, Grande-Armée Uribidetik bertan. Haren izena ahaztua dut, bainan ez dut uste han beste garajerik dagoanik; kale hartan alegia.

¹²³ Puska legor: ogitarteko, *bocadillo*.

¹²⁴ [Arkazia: *acacia*.]

Bostak aldean, Maigret metro delakoan sartu zan l'Etoilera joateko, eta arean ere, aurkitu zuan esan zioten kalean eta lekuan harako garajea; hertsita zegoan, ordea, eta papertxo bat zegoan horman ezarria: «Aldamenera jo ezazu».

Zapatari-langilea zegoan han alde batean, eta ardandegia bestean. Ardandegian eman ohi zuten argitasuna, bainan txiribogin hark ez zekian tutik ere.

—Ez da gaur Dedé etorri honera. Gertatzen denean ari da, gaur hau, bihar hori... Batzuetan bezeruak izaten, eta orduan kanpora ere joaten zaigu.

—Eta haren etxearen berri ez al dakizu, bada?

—Ez dakit ziur ere, bainan han Ternes aldean bizi omen da, ostaturen batean...

—Ezkondua, ote?

Haren erantzuna ez zuan ongi aditu Maigret, alabainan nahikotzat eman zuan. Dedé hura hala-holako zaldunen bat izango zala antzeman zion, eta Ternes eta l'Etoile inguru izan zitekeala hark lagunen bat edukitzea.

Cornille zaldizaia aurkitu ezinik eman zuan ilunabarrera artekoa. Aurkitu zuan halaz ere Rendez-vous du Massif Central...

—Egunik gehienetan hemen izaten dugu, bada...

Zorigaitzez egun hartan huts egin zuan; beharrez. Lasterketak zirala-eta, ohi zuan lekutik alde egingo zuan, noski.

Azkenik, itzuli zan bere etxera gure Maigret. Atadian sartu bezin azkar, atezai-andreak hots eginaz geldiarazi zuan.

—Maigret jauna! Maigret jauna! Zuretzat gauza handi eta premiazkoa dut...

Papertxo bat eman zion, eta bisitokira igan aurretik irakurteko eskatu: «Ez zaite orain zure etxera igan. Lehenago hitz egin behar dizut. Ahal izan dudan bezin luzaz zuri itxaron dizut, Clichy Garagardotegira zoaz nirekin mintzatzera. Neskatxa hor dago, goian, zure emaztearekin. Zure adiskide, Justin Minard».

Gautuik zegoan. Kale-ertzean Maigretrek gora behatu zuan, eta zulerrezelak¹²⁵ jatsita ikusirik, jangu¹²⁶ txiki hartan ikusi zituan, ustez, bere emaztea eta neskamea. Zertaz mintzatu ote ziran? Maigreten emaztea —ziur asko, ongi ezagutzen baitzuan—, han ari izango zan mahaia adelatzen¹²⁷, eta agian afaria eskeintzen...

Berriz ere metrora jatsi eta Blanche zearaino¹²⁸ heldu zan. Gero, esandako garagardotegira jo zuan. Hango garagardo usaia, eta *choucroute* urrina...! Une hartan bost joaleko orkestak baziharduan. Ez zuan orduan Justinek zirula jotzen, arrabita beheitia¹²⁹ edo *contrebasse* delakoa baizik. Eta jakina, traman-kulu izugarri haren atzean, lehen baino ere txikiago ematen zuan...

Han ziran marmolezko mahai baten inguruan jazarri zan Maigret; dudaz ari ondoren *choucroute* eskatu zuan eta baso handi bete garagardo. Jotaldia atertu ondoren, harengana zan Minard.

—Barka eskatzen dizut honeraino etortea agindu dizudalako. Zurekin lehenbizi hitz egitea nahitaezkoa nuan.

Kilimakor¹³⁰ eta kezkatu zegoan Minard, eta orduan Maigret ere urduri jarri zan.

—Haren ahizpa ezkondu zanez, beste abizeneko izan, eta niri bururatu ez holakorik. Horregatik, zerbait eragozpen izan nuan hura aurkitzeko. Ahizparen senarrak trenetan lan egiten du. Txartel-ikertzaile¹³¹ da, eta hiruzpalau egunez etxetik landa egon ohi da, noizbehinka. Etxetxo batean bizi dira, landan, muinoaren

¹²⁵ Zulerrezel: pertsiana, leiho-sareta.

¹²⁶ Jangu: jantoki.

¹²⁷ Adelatatu: prestatu, atondu.

¹²⁸ Zeia: plaza.

¹²⁹ Arrabita beheiti: kontrabaxu.

¹³⁰ Kilimakor: asaldaturik.

¹³¹ [Ikertzaile: *inspector*.]

behekaldean, ahuntz zuri bat dute han zuhaitz bati lotua eta hesi-barruan baratzetxo bat ere bai, ortuariak hartzeko.

—Han al zegoan Germane?

—Ni hara heltzean, han zegozten ahizpa biak, tipula usai izugarria zuan odolostez heteriko ontzi bat aurrean zutela.

—Haren ahizpa ere bai, esan al duzu?

—Bai; artean zai baitzegoan. Eta oraindano ere egunen batzuk itxaron beharko, nik uste. Ni seguruetako gizona nintzala esan nien, eta gorabehera haiek jakin nituelako, itunbena¹³² egiteko aukera oso egokia zalako ninioala hara.

Arrabita jotzen zuana, hura zan artezkaria ere, eta paper berri bat agerturik, bere uztaiaren gainaz atrilari hots eragin zion. Orduan, Justin, barka eskeka, laster joan zan toki iragi hartara.

Berriz itzultzean, honela hasi zan:

—Ez ezereen bildur, gero! Guzti-guztia ongi bukatuko dala uste baitut.

Eta jarraian, honela ekin zion:

»Seguru-arlo hontan badakit nik aski, nire emaztearen kas-ketaldiak hortik baitira. Hiru bat urte baino gehiago ez naizela biziko...! Bainan... ez dio axolarik! Germane hori neskatxa ederra da, bete-betea, txistan¹³³ haundia du, ordea, eta une oro hor ari da bere sorta apaintzen. Begietan halako zera du, so egiten duan... Ikusiko duzu! Atergabe niri begira eta begira... Itsumus-tuan galdegin zidan, zein seguru-etxeaz lan egiten nuan nik. Izen bat esan nion, edozein izen, buruak eman zidana, eta orduan nire nagusi hurrena nor zan jakin nahi izan zuan. Eta beste galdera anitz egin ondorean, hauxe esan zidan:

»—Etxe hortan bertan lan egiten zuen adiskide bat ukan dut hiru hilabetez.

»Eta hurrenik, itaundu zidan hau ere:

¹³² Itunben: poliza.

¹³³ Txistan: motots.

»—Luisek biali al zaitu?

Berriz ere solasa eten behar izan zuan Minardek, musika-jotaldiari ekiteko, eta bals atsegin bat entzunarazi bitartean, begi samurez zegoan Maigreti soka, lasaitu zedila esan nahirik: «Zau-de lasa! Iguriki¹³⁴ ekurutsu¹³⁵ azkenera arte!».

Eta jarraipena ario hontaz izan zan:

—Luisen alde ez ninioala aitortu nion.

»—Kondea ez ote? —erantzun zidan.

»—Ezta.

»—Eta Rikard zaldumari buruz...! Adi ezazu! Ez al zara zu Rikard zaldumaren menpekoren bat izango?

»Ulertzen al didazu nolako emakumea dan hori? Eta erabaki-ren bat hartzea nahitaezkoa nuan. Haren ahizpa, gazteagoa da. Orain urtebete ezkondua. Saint-Lazaren zegoan neska eta han ezagutu zuan bere senarra. Germane honek bere ahizpa harrituta utzi zuan, eta horixe bilatzen duala uste dut. Jendea harrituta uztea, horra neskatxa honen seta eta grina. Hau eta hori dela, hau eta hori ez dela, bere burua harroa eta burgoi erakustea... Ulertzen?

»Teatruko edo zineko neskatxa izatea izango zan, nunbait, honen ametsa. Bazkaldu ondorean, zigarrotxo bat erreten hasi zan, eta erreten ez jakin, arranotan...!

»—Egia ote da, gero, Rikard zaldumaren otsein-mandatarari bat ez zarena?

»Begi irtenak ditu, eta norbaiti hitz egitean begiok geldi, tin-ko, begira-begira jarten dizkio. Aspergarria da. Orduan, bere senean ez dagola ematen du, bainan ez da itxurakeria baizik, bere izakera jatorraz irauten baitu betiere.

»—Han Paris aldean, bizimodua nolatan dagoan kilimakor eta urduria, ikusten, Olga? —zion bere ahizpari, artega, egon ezinez-. Aldiz aurretik iragarri nizun bai hura gaizki bukatuko zala.

¹³⁴ Iguriki: itxaron.

¹³⁵ Ekurutsu: soseguz, trankil.

»Bere neskame lanera noiz itzuliko zan galdetu nion.

»—Zer, gero? Ez ezazula sinistra nik kartzela hartan berriro oinik ipinterik!

»Gehiago eta gehiago jakin nahi nuan... Eta orduan...

Musika jotera berriz ere. Zirulariak, begi-keimuz, egonarriz¹³⁶ itxaroteko ziotsan Maigreti, arbindu¹³⁷ gabe, estututasunik hartzeke.

—Ikus ezazu, bada! Ez dakit ongi egin nuan ala ez, bainan egia azaldu nion.

—Zein egia, ordea?

—Andereñoa hel-oihuz, laguntza eske ari izan zela, nik Luis-gandik masailekoa edo muturrekoa hartu nuela; eta gero zu joan zinala eta emakume bat erakutsi zizutela atorrutsean gainera, Germane zela esanaz... Ona jarri zan! Agindarien erabakiz ez zarela zu ari, behin eta berriro iragarri nion, bestela gauza bereizi bezala baizik, eta hura ikusteko pozik zengozala, eta nire hitzok amaitu orduko, han hasi zan jazten. Bere bat-bateko joakeraz ahizpa zuritu nahirik zebilen, eta behingoan ekin zion soineko apaintzen, pardela azpikoz gainera irauliaz.

»—Aditu dezakezu, maite —ziotsan ahizpari—, haurra helduko da besteak ohi diran bezala, bainan arazo hau niretzat gorabehera larrikoa duzu.

»Ni artega nengoan, zuretzat egokia izan arren, haren aitortpena. Ez nekian nora eramán. Eta zure etxera dut. Zurubi-guenean¹³⁸ ahal izan dut zure emazteaz mintza. Jaungoiko maite! Hura bai emakume atsegina! Iges egiten ez uzteko agindu diot. Ba al duzu herrarik edo gorrotorik niretzat?

Nola gorroto izan? Maigret, alabainan, ez egoan batere lasai. Halarik ere, hasperenak irten zion.

¹³⁶ Egonarri: pazientzia.

¹³⁷ Arbindu: larritu, kezkatu.

¹³⁸ Zurubi-guen: eskailera-buru, *rellano*.

—Baliteke zuk egina ongi egina izatea.

—Noiz ikusiko dut?

Cornille zaldizaia ikusi behar zuan, ordea, gaueko hamabietan...

—Beharbada, gau hontan.

—Eta bestela, bihar goizean zure etxera joateko eskubidea hartuko dut, badakit orain nun dagoan-eta... A! Gorabehera baten hutsa dugu...

Durdurikatu zan, eta zalantzaz bezala:

—Xahuketak inork ordainduko dituan galdetu dit, eta nik orduan esan diot... Ez nekian zer erantzun... Hortaz axolarik ez izateko, alegia. Bainan, badakizu, hori gaitz baduzu, nik i...

Orkesta berriro jotén hastean Maigreték bizkor alde egin zuan eta metrorantz abiatu. Atepetik agiri zan argia ikusirik, halako zarrada izan zuan, eta etxeko giltzik aterateko astirik ez zuan iritxi, haren emazteak oinotsak ondo baino hobeto ezagutzen zitua-lako.

Elkar-ulertuzko begirakunea eginaz, arraiki¹³⁹ jalki zion emazteak:

—Neskatila zoragarri bat duzu hemen zure begira.

Maigreten emazte zintzoa! Ez zion adar-joka esan, alegia. Amultsu eta xalo agertu nahi zuan bere burua. Han zegoan ikusteko hura, ukondoak mahaiean, txalin¹⁴⁰ zikindua aurrean, eta zigarrotxo bat ezpainetan. Begi haundi haiek zorrozkiro zeduzkan Maigreti buruz buru, irentsi beharrez-edo. Halarik ere, ezbai antzean esan zion:

—Egiatan al zara zu poliziakoa?

Bere karneta erakustea hobe zala-eta, horixe egin zuan Maigreték. Harrezkero emazteki hura so eta so ari zitzaion. Txola zedukan aitzinean. Jaiegunetako *kirsch* atera baitzion etxekandreak...

¹³⁹ Arraiki: pozik, bozkarioz.

¹⁴⁰ Txalin: plater, *cubierto*.

—Ez zenuan afalduko, ezta?

—Bai, bada, afaldu dut.

—Hortara ezkerro, zagozte biok. Tresnak garbitu behar ditut-eta...

Mahaia txukundu zuan, eta sukaldera zan, atea hertsiko ote zuanentz dudan egon ostean.

—Zure adiskidea ere, poliziakoa ote da?

—Ez osoro; halabeharrez baizik.

—Ezkondua al da?

—Bai. Baietz uste dut...

Ez zegoan Maigret bere gogara etxe-txokoan halako gazte jakingura eta ergelaz. Honek ordea, berbere etxean zegoala uste zuan, noski, kebide aurreko ispiluan ileak orraztu eta emaztearen besalkian eseriaz, esan zuanean:

—Zure baimena badut, ezta?

Orduan, Maigret hasi zan galdera hauek egiten:

—Gendreau andereñoa aspaldi ezagutzen al duzu?

—Eskolara elkarrekin joan ginan.

—Zu, Ansevalekoa omen zara, ezta? Beraz, Ansevaleko eskolan izan zinaten kide?

Konkortu zan, alabainan, Maigret, Balthazar Kafcetako neskatxa arrandia¹⁴¹ herriska bateko eskolan ibilteaz.

—Adinideak¹⁴² garela esan nahi nuan, hilabete batzuen aldea, soilik. Hurrengo hilean hogeta bat urte beteko ditu harek, eta nik hamabost egun duela bete nituan.

—Eta Ansevalen, elkarrekin eskolara, ez ote? —berriz ere poli-ziak.

—Ez, hura ez. Hura Neversen, komentu batean zegoan. Bainan aldi hartan zan.

¹⁴¹ Arrandia: harro.

¹⁴² Adinide: adin bereko.

Ongi ulertu zuan gure gizonak. Geroztik ez zuan haren esana ondo haztatu gabe jasoko. Ongi bereiztuko zuan bai egia gczurre-tarik, eta egia iseka-antxa zuenatarik eta asmakizunetarik.

—Chaptal kale hartako etxeon zerbait gertatuko ote zan-eta al zengozan?

—Beti uste izan dut nik han azken txarren bat izango zana.

—Zergatik?

—Elkar nardaz bizi direlako.

—Nortzuk, ordea?

—Andereñoa eta bere neba. Lau urtetan nauzu etxeon. Ande-re zaharra hil zanean sartu nintzan ni. Zuk beharbada, jakin ere jakingo duzu trenko ezbehar batean zendu zana. Vittelera zijoan, hango urak edatera. Halako izugarrikeriarik!

Tren-orga artetik atera zituzten ehun eta gehiago hilotzak ikusi bailituan ari zan Germane.

—Anderea bizi zeino ez zedukan, dakizumez, hilburukoak inorentzat burukominik.

—Ongi ezagutzen al zenuan zuk sendi hori?

—Ansevalen jaio nintzan. Nire aita ere bai. Nire aitona, —kon-dearen landetxeetako otsein bat, alegia— jaun zaharrarekin bolaka jokoan ibilia duzu.

—Zein jaun zahar, ordea?

—Orain ere alderdi hartan, horrelaxen izendatzen dute. Ez al dakizu zuk? Poliziakoak denaren berria badutela uste nuan-eta...

—Zu agian, Balthazar agure jaunaz mintzo zara.

—Bai, bada; Hektor jaunaz, bai. Honen aita herriko larrugi-na zan. Eleizako kanpaiak ere hark joten zituan. Hamabi urte zituaneko, pitxi-saltzaile bihurtu zan, eta landetxerik landetxe joan ohi zan, otarra bat bizkarrean.

—Balthazar Kafekak horrek sortu al zituan?

—Bai. Bainan hori ez zan eragozpide nire aitak azkeneraino ere hika jarduteko harekin. Alde hartara itzuli gabe luzaro egon zan. Berriz guk ikustean, aberats zan eta gaztelua erosi zuala zabal, inguru haictan.

—Norena zan?

—Ansevaleko kondearena, apoa!!

—Eta Ansevaltar konderik ez al da orain?

—Bada oraindino bat. Andereñoaren adiskide hori. Beste kopatxo bat ez al didazu eskeiniko? Zure eskualdekoa otè?

—Nire emaztearen herrialdekoa, zinez.

—Andre zirin hori —ez diot zure emazteaz, jakina, ba— neu dala esaten azartu dala eta nire ohean lo egin duela pentsatu ere... Egia al da atorra—has ikusi zenuana? Ni baino gizenagoa duzu, arranotan! Haren gorputzaz zerbait erran nezake...!

—Honela, bada, Balthazar zaharrak, Kafeen jaubeak Anseval gaztelua erosi zuan, ez al duzu horixe esan? Ezkonduta al zegoan?

—Bai ezkondua zen, bainan aldi hartan alarguna ere bai, emaztea hil baitzizaion. Alaba bat zuan, emazteki ederra; harro hanpurusa ordea. Seme bat ere bazuan, Humbert jauna, behin ere gauza onik egin ez duana. Arreba gogor eta zitala bezenbat onbera zan zaldun hau. Atzerri aldean batera—bestera zebilen maiz.

—Zu jaio baino lehen al ziran gauzok?

—Bai, nunbait ere. Halarik ere, badiraue oraindaino...

Berehalakoan eta berez bezala Maigretrek liburuska bat atera zuan sakaletik, eta bertan izen batzuek idatzi zituan, eta jatorri-zuhaitza delakoa nola hala antolatu zuan. Germane bezalakoekin behar-beharrekoa zan zehetasunak estu-estu eta zuzen hartzea.

—Ikus dezagun. Lehendabizi Hektor Balthazar, zuk jaun zaharra deritzozuna. Hura hil zala zenbat denpora da?

—Bost urte. Bere alaba baino urtebete lehenago, doi-doia.

Orduan, Maigretrek, Felizian Gendreau gogoan zuela —hau ere zaldun asko zaharra baitzan—, harriduraz ziotsan:

—Oso zaharra beharko, alafede!

—Larogeta zortzi urte zituan. Bakarrik bizi zan, Boloniko Oihanera Bidean, hotel bereizi eta haundi—haundi batean. Alabaren laguntasunaz, berberak zeraman, artean, garatzen artezkari-tza, eta azkenraino eraman ere.

—Eta semearen laguntasunik gabe diozu?

—Semeak ezer ez. Honek ez zuan baimenik ere despatxura sartzeko. Honenbesteko bat ematen zion, eta kitu. Ibai ondoan bizi da, Pont Neufetik ez urrun. Artista antzekoa duzu hori.

—Itxaron egizu lipar batez. Oihanerako Bideca... Haren alaba, Felizian Gendreaurekin ezkondua...

—Bai, bai, horrelaxe da. Bainan Felizian jaunak ere ez du eskurik garatz eta horrelakoetan aritzeko.

—Zergatik, ordea?

—Aspaldi erabili zuten zaiketak egiten, uste dut, eta... Jokalaria ere bazan... Eta orain ere, arratsaldeetan, hor ibiltzen da lasterkarien artean. Zerbait gauza itxusia egin zuela—edo harako ordain—eske edo letrak aldatuaz... Haren aitaginarrak ez zion harrezkero hitzik ere egiten.

Egunak joan egunak etorri, Maigretrek ezagutuko zuan bai Oihanerako Bideko etxalditzarra, Parisko etxetarik motzena, agian, baitezpadakoa, Aro Erdiko dorreak zituana, eta kristaleria handiak. Ikusiko zituan orobat agure zaldun haren irudiak ere, bekurunde gogor zorrotz, azal beltzeran, belarrondoko bizar¹⁴³ luze zuriak eta jake luzea. Jake haundi honek estaltzen zuan osoki, korbata beltzaren inguru, lits¹⁴⁴ zuritto bi besterik ez baitzitezkean haren jazkeran ikusi eta.

Gure Maigret Parisko bizimoduaren jakitun izan balitz, Balthazar zaharrak bere etxe hura Laterriari¹⁴⁵ eman ziola jakin izango zukean, laurka edo kuadruz bete—betea, urtez urte bilduriko kuadru edertzakoak, museo egiteko baldintzaz, alegia. Hura zendu zanean, esames ugari izan zan eskeintza hortaz. Han zebiltzan urtebetean—edo, ikerle azkarrak ikus eta mikus, bainan azkenean Gobernu edo Jaurgoak bertan behera utzi zuan asmo hori, oihal haiek... gezurezkoak edo itxura emanak soil—soilik ziran eta!

¹⁴³ [Belarrondoko bizar: *patillas*.]

¹⁴⁴ Lits: altsi, hari—zati.

¹⁴⁵ Laterri: Estatu.

Eta egunen batean areago ere ikusiko zuan. Alabaren irudia, ileak lepatxokoan bildurik, Eugene erreginarene taiuz, eta aurpegiz bere aita bezin hotz, zorrotz, eta gogor.

Felizian Gendreau ezagutzen zuan orduko. Ezpain gaineko koloreztatuaz, zapatatxo argiak, eta makila bat eskuan, kirtena urrez jantzia.

—Dirudianez, zaldun zaharrenak guztiak ezetsi eta bazterre-
ra zituan, bere semea ere bai, eta geroago, suhina, eta azkenez
Rikard zalduna orobat, hau ere ezagutu baitzuan. Lagun bi baka-
rrik bereizi zituan: bere alaba, eta honen alaba, Lisa andereñoa,
alegia. Hauetxek omen ziran bere enda edo arrazako, eta hortik-
hemetik sekulako nahastez betea utzi zuan bere hilburukoa. Bra-
quement jaunak hamaika argitasun emango lizuke.

—Nor da gero Braquement delako hori?

—Haren baratari edo notarioa. Honek ere baditu bere larogei
urte eder. Guztiak dira bildur honekin, berak bakarrik dakiela-
ko...

—Zer dakielako...?

—Ez didate horixe esan, ordea. Bainan dena jakingo dugu
bai, Lisa andereñoak hogeta bat urte betetean; eta hori dela-eta,
hor dabilta orain estu, larri eta haserre. Ni ez naiz ez bateren
aldeko eta ez besteren; ni neu ez... Nahi izan banu, ordea...

Berbertan otu zitzaion eta:

—Rikard zalduna, agian? —itaundu zion zirika nahiez.

—Luzaroan ibili zan nire atzean. Argi eta garbi egundo bada
esan nion: «Oker zagoz, adiskide»; eta Mariren galdez hasi ziteala
adirazi ere bai. «Hau nahikoa zozo eta ergel duzu zuk atzipetze-
ko», esan nion lotsagabekiro.

—Eta zure aholku hori aintzat hartu al zuan?

—Ez dakit horren berri. Jende hoietaz ez duzu inoiz ezer
jakingo. Nire iritzia entzun nahi baduzu, ordea, eta ongi baino
ongiago ezagutzen ditut, guztiak dagoz zer bait zoro.

Eta honela mintza bitartean, Germaneren begiak inoiz baino
irtenago eta biziago eta zorrotzago zegozten begiraka, bildurrara-

ziaz. Maigreten ondora makurtu zan. Honen belaunei helduko
ziola zirudian.

—Luis ere Ansevaltarra al da?

—Antzinako maisuaren seme duzu.

—Rikard zaldunarentargokoa ote da?

—Zer diozu, gero? Bai zera! Andereñoaren atzean ematen du
hark bere astia. Heriotzara arte, zaharraren aldamenean egon zan.
Hori duzu azkenera arte zaitu zuana haren erialdi osoan, eta
horrek omen daki beste guztiak baino gehiago, baita Braquemen-
tek berak baino ere.

—Horrek ez al dizu behin ere maitekeriarik egin?

—Nork eta horrek?

Egundoko irri-karkara¹⁴⁶ atera zuan neskameak.

—Ez dakit, alazaina, nondik hasi ere jakingo lukean. Gizon
zentzuzkoa eta egina dirudi, bere ile beltz eta guzti. Bainan, lehe-
nengo eta bat, guk uste dugun baino zaharrago da. Baditu gutxie-
naz berrogeta hamabost urte inguru. Eta zaharkindua da. Uler-
tzen? Horregatik, Albert ere...

—Barka egidazu. Nor da Albert hori?

—Rikard zaldunaren morroia. Hau ere Ansevalekoa da.
Hogeta bat urtera arte, zaldigainkari edo jockey izan zan.

—Barka; nik, etxea erakutsi zidatenean ez nuan horren gela-
rik...

—Ez, honek ukiilu gainean lo egiten du, Jeronimekin batean.

—Nor da hori ere?

—Jaunaren zaldizaia. Etxetik kanpora Arsenik bakarrik lo
egiten du; txofer delakoa alegia, hau ezkondu baita, eta semetxo
bat ere badu.

Anartean, Maigretrek, eskuan zedukan liburuska edo kuader-
nu hura izenez bete zuan, lerroa gora, lerroa behera.

¹⁴⁶ Irri-karkara: barre-algara.

—Andereñoaren kontra inork tirorik egin baldin badu, eta ni harritu ere ez horregatik, e!, ziur-ziur Rikard zalduna izan izango zan, haien eztabaidaren baten.

—Maiz izaten al dute eztabaida eta sesio?

—Egunero, esan liteke. Behinola, eskubitorretik heldu zion, bai?, gogor halere, eta astebetean ubel inguru bi agiri zituan. Baina neska ere bada izatekoa, eta jarki eta oilar eginaz ostiko ederrak hartuarazi dizkio sarri askotan bere nebari. Halarik ere, ez dut uste nik behintzat andereñoarentzat egingo zutenik erauzi edo tiro hori.

—Noren kaltez, orduan?

—Kondeari, nimbait, egingo zioten.

—Zein konde, ordea?

—Bainan zuk ez al duzu ezer ulertzen? Ansevaleko kondeari, tiro hori.

—Egia diozu eta! Ansevaleko konde bat bada oraindaino eta...!

—Balthazar zaharrari gaztelua saldu zionaren biloba. Gure andereñoak aurkitu zuan hori, ez dakit noiz.

—Aberatsa al da?

—Aberatsa! Tokitan zegok! Horrek ez du zurikorik ere.

—Maiz etxe hortaritzen al da?

—Maiz, anderañoarengana esango bazenu...

—Eta konde horrek... esan nahi nuke...

—Andereñoaz kutundua ote dagoen? Ez dut uste hori duenik. Orain aditzen al didazu errezago? Erdi zororik dagoz guztiak eta zakurrak bezala ari dira amorruez haginka. Humbert jauna, horixe ez da ezertan sartzen, eta beste biak, neba-arrebak hor dabil-tza bakoitzaren aldera linburto nahirik.

—Humbert Balthazarri buruz diharduzu, ezta? Hau zaharren seme dugu, alegia. Zeinbat urte ditu?

—Baliteke berrogeta hamarren bat urte izatea. Agian, zerbait gehiago. Hau gizon fina da, gizabidetsua, adeibera. Etxera datorennetan, nirekin beti hitz egiten du. Bainan, aizazu, honezkero

Conflanserako trenik ez al da izango, eta nik nimbaiten lo egin behar dut. Ba al duzu hemen niretzat oherik?

Neskaren begietan zipoa¹⁴⁷ ikusten zuan Maigretrek hori esatean eta ez-tul-antxa eginaz sukalde aterantz so egin zuan.

—Ondikoz, ez dugu arrotzentzat gelarik. Ezkondu berriak gaituzu, bainan auzune hontako ostaturen batean kausituko dizut logua.

—Orain oherako al zara?

—Ez, bada. Urian dut zeregina, eta joan beharra.

—Polizi jendeak ez omen du maizki¹⁴⁸ bere oherik berotzen. Bainan, harrigarria; zuk ez duzu batere polizia antzik. Nik ezagutu nuan bat, gure auzoko zaitzalea bera, luzea, beltz-beltza, Leonard...

Ez zuan Maigretrek zehetasun gehiago jakiteko betarik. Nahikoa gizon ezagutu zituan, arraiopola, seguruetakoa gizon hura-eta...

—Agian, oraindaino nire beharra izango duzu... Eta horrela ezkerro, hauxe egin genezake: ni zaldumen etxera itzuli, ezer gertatu ez bailitzan, eta gaucro esango nizuke egumeko gorabehera...

Ontzi-zaparrada izan zan sukaldean, bainan ez zuan horregatik, ez, aintzat hartu Germaneren eskeintza. Latzikara ematen zion neskame hark!

—Bihar ikusiko zaitut. Eta orain, nirekin etorri nahi baldin baduzu...

Soinganekoa eta kapelatxoa ezarri baino lehen, herriz ere ileadatsari ziri batzuk egin zizkion, eta kirsch bonbila¹⁴⁹ eskuratuaz:

—Utziko al didazu? Honenbeste hitz eta honenbeste pentsa beharrez...! Bainan, zuk ez al duzu edaten?

¹⁴⁷ [Zipa: *provocación*.]

¹⁴⁸ Maizki: sarritan.

¹⁴⁹ Bonbila: botila.

Ez zan, horraitio, garai egokia *calvados* ontzikadatxoak zeinbat izan ziran aitortzeko; guraz ala bortxaz irentsitako zurrutadak... goiz hartan eta geroago ere.

—Badut nik zuri zer esan! Badira nobelak egiten ari diranak eta ez dute agian nik ikusi izan dudan beste ikusi; ezta hurrik eman ere. Idazten jarriko banintz ni!

Maigret sukaldera zan, eta emazteari musu egin zion bekokian. Hark irriz begiratzen zuan, gartxo malmutz¹⁵⁰ bat begietan.

—Baliteke berandu etxeratzea!

Eta hark hista antzean jardetsi zion:

—Egin behar duzuna egin ezazu, Juli!

Voltaire bulebarrera heldu baino lehen bazegoan ostatuetxe bat. Kalera ziran, eta Germanek beraizik¹⁵¹ besotik oratu zion lagunari.

—Luis XVgarrenaren zurruma hoiek...

Holakorik! Eskalapoinez ibilten ohituago genuan gure neska motza!

—Emazte atsegina eta xaloa duzu, benetan. Ongi maneaten du harek jatekoa, horixe bai.

Ostatukoa ordaintzeko dirurik ematen ez zan ausartu... Sartu ziran behingoan ostatu-zuzendaritzan.

—Gela bat? Bai, bada, 18garrena. Bigarren oincan, ezkerraldera. Itxaron ezazu, eskuzapiak emango dizkizut eta.

Maigretrek ozta gogoratzen zuan azkenengo solasa. Mailadian zirri edo oin-oihal luzea zegoan, gorrista. Neskak, esku batean eskuzapiak zituan eta bestean giltza burniazko azaltxo bati lotua. Etxeko otseinak irakurri eta irakurri ziharduan.

—Ez al duzu beste ezer niri galdegai? Deus ere ez, ziur-ziur?

Lehenbiziko mailan zegoan, eta haren begiak inoiz baino irte-nago eta tinkoago zegozkion so eta so.

¹⁵⁰ Malmutz: faltso, engainagarri.

¹⁵¹ Beraizik: nahita, apropos.

—Ez, gaur ez —erantzun zion isil-misil.

—Ahazturik nuan joan beharra zendula.

Haren ezpain ezoak irrizko izur bat agertu zuan.

—Beraz, bihar ezta?

—Bai, bihar...

Besterik ez zuan gogoan gure gizonak. Gero, metroaren goñubera¹⁵², lurpera zijoala, halako lixiba edo bukata usai erre sarkorra, ate zailuen¹⁵³ zirta, lurpean ibiltaldi luze samarra, orgaren zanbuluak barrukoeri zanbulu eraginez, aurpegi nekatuak eta begiak naretuta edo erdi lo, eta abar.

Inorgabe ziran kaleak zehar zijoan, ilunbezu¹⁵⁴, isil: eta La Vilette plazara baino lehen orube hedatsua ikusi zuan, gurdiz betea, pertikak¹⁵⁵ gorantz zutik gelditako zegoztela, eta gibelerago, ukuitutiko beroa nabaria zezakean, eta zaldi-sunda.

—Cornille? Ez, bada, ez da oraindano itzuli. Hemen itxandongo al diozu?

Gaueko hamabi eta erdietan zaldizai bat, mozkorra arras, begira zegokion harritu antzean.

—Chaptal kaleko andereñoa? Itxadon ezazu... Franku bat eman didana saritzat. Eta gizonezko beltz luze hura...

—Zein gizon beltz eta luze diozu zuk?

—Blanche karrikan geldiarazi ninduana. Horraitio! Eta hark esan zidan Chaptal kalera joateko, eta zein zenbaki... zein zenbaki... Parragarria da gero behin ere zenbakiak oroitu ezin hau! Alabainan, nire ogipide hontan...

—Celtokira eraman al zituen?

—Celtokira? Zein geltokitara...?

¹⁵² Goñube: eskailerapeko, soto; upeltegi.

¹⁵³ Ate zailu: ate automatiko.

¹⁵⁴ Ilunbezu: itzaltsu, beltz.

¹⁵⁵ Pertika: endaitz, zurrun.

Haren begiak urez blei zegozten eta apur bategatik ez zuan Maigretrek bere galtza barrenean hartu zaldizaiak egotzi zuan tabako-zikina, ahoan mamurtutako tabako-ziztuz betea.

—Ez, ez zan estaziora joan. Hura joan zan... joan...

Orduan Maigretrek beste libera bat eman zion eskupe.

—Tullerias aurrez aurre dagoan hotelera joan zan, enparantzaz edo zabalune batean... Nola da? Irudi-izen bat da, baina... Irudi-izen hoiak beti nahasten ditut, ordea! Louvreko ostatua, alegia. Tira, ba, Cocotte!

Eta honenbestez Maigretrek ez zuan ordu hartan ez metrorik, ez beribil handirik, eta ez tranbiarik, eta oinen gainean joan beharra izan zuan, Flandes karrika amaitu ezin hartan barna, auzunc alai eta argiago batera heldu orduko.

Clichy Caragardotegia hertsita zegoan eta Justin Minard agian bere etxera heldua izango zan, Enghien kalean, eta emazte-ari azalpenak azalpen emateko premia gorrian...

V

MAIGREten LEHENDABIZIKO IRRITSA

Jantokiaren leiho-kisketean ispilua zintzilik, bizarra mozten ari zan Maigret bere etxe maitean. Goizetan bazuan seta gure gizonak emaztearen atzetik ibiltea etxebizitzako gela guztietatik, hemen apaindu, hor jantzi, han orrazteko, agian orduan izaten baitzuan beta egokiena harekin laztan-lasztan egoteko. Egia da arranotan, haren emazteak zuan egokitasuna: arratsalde erdian bezin mardul eta bizi eta atsegingarri zan ohetik jaikieran ere. Eta leihoak idekirik ziran ginoan halere, haize berria gorputzeratzen zuten. Errementari baten dangadak, kamioen hotsak eta zaldien irrintziak zetozan belarrietara, eta auzoko etxe aldaketarien ukuitutiko sats usai epel-antxa ere sumatzen zan haien garbiketa-aldietan.

—Burutik dagola benetan ere, uste al duzu?

—Bere herritik zotirik egin ez balu, ezkondu izan balitz eta hamar bat seme ukan balitu, ez zan, noski horren nabarmenkiro ikusarazten ari izango.

—Ene, Maigret. Hor kale-albenuan batera-bestera dabilen hori zure adiskidea al da?

Eta masailak xaboi ez beterik leihora zan eta bai laster ezagutu ere Justin Minard, beti bezala lasa, urduritasun gabe.

—Igoteko ez al diozu esango?

—Zertarako, ordea? Bego, bego... Bost minutu orduko gertu nagoke. Gaur ba al duzu irteteko asmorik?

Bakan-bakan galdetu ohi zion Maigretek emazteari egun bakoitzeko asmocn berri eta hark berehalakoan antzeman zion.

—Neskatxa horri lagun egitea nahi al zenuan?

—Harek eskatuko dizu horrelakoren bat, ziur asko. Parisen bakarrik utzi baldin baneza, Jainkoak daki nora joan eta zer esango lukean, haren mingainak atsedena ezagutu ere egiten ez baitu.

—Orain joango al zara haura ikustera?

—Bai, behingo batean.

—Oraindaino ohean egongo da.

—Nunbait hor.

—Hartaz jaregin edo askatzeko nahikoa lan izango duzula apustu egingo nizuke.

Kalera irten zaneko, han etorri zitzaion aldamenera Minard, eta ohitua baitzegoan, Maigreten ondoan zihoan ibiliz-ibiliz, eta bertatik galdetu ere bai:

—Zer egingo dugu gaur, nagusi?

Handik geroetan ongi gomutatuko zuan bai Maigretek: lehendabizikoz «nagusi» esan ziona nor izan zan; zirulari hura, alegia.

—Ikusi al zenuan neska? Eta ezeren aztarnarik ba al duzu? Lorik ere ez dut egin, esatekorik behintzat. Loa niganatzear zelarik, gauza bat sartu zitzaidan buru-buruan.

Richard-Lenoir bulbar zehar zihoazten, eta urruncan Voltairre bulbarretiko hitz-susmura¹⁵⁶ entzun zitekean.

—Danba egin baldin bazuten, danba edo tiro hori norbaiten kaltez izango zan, eta horrezkeroz, inori ukitu edo min egin zioten jakin beharko. Aspertuarazten al dizut?

¹⁵⁶ Susmur: zurrumurru.

Ez zuan aspertzen, ez. Bai zera aspertu, berak ere buru eta adimenean asko berdinak zituan-eta...

—Beraz, egin dezagun tiro harek ez ziola inori minik egin. Eiki, jende mota hoiere artean ez dakigu zer ari diran. Dena dela, inor hil ez balitz eta zauritu ere ez, zer arraio dela-eta antolatatu zuten komeria hura? Ulertzen? Ni kalera jaurtiki ninduenetik hasi ziran haiek estu eta larri gela hura harik lasterren aldatu eta itxuratzten, inortxo ere han ez zala egon erakutsi nahirik... Eta beste zer hau ere: oroitu behar zuk, etxegizon zakar harek ni kalera egotzi ninduanean, norbait mintzatu zela goitik honela: «Bizkor, Luis, bizkor!».

»Han goi hartan zerbait itxusi edo ezbeharreko arloren bat bailegoan, ez derizkiozu? Eta andereñoa neskamearen gelan sartu zutenean, berari zegokiona egiteko edo esateko gai ez zelako izango zan, jakina, ba!

»Ez dut zereginik egun osoan. Nahi duzun tokira bialdi naiketzu.

Germanek lo egin zuan ostatuaren hurbil, kafetxe bat zegoan. Egutera¹⁵⁷ zituan marmol zurizko mahaiak, eta otsein batek kristalak garbitzen ziharduan, belarrondoko bizarduna, egutegi zaharretan agiri ohi danetakoa.

—Itxaron ezadazu hemen.

Zalantzas zegoan, bera joan ala Minard bialdu. Neskame hura berriz ere zergatik ikusi nahi zuan inork galdetu izan balio, ez zuan noski zarta-zarta erantzun ahal izango.

Alde guztietan egoteko gogoia zuan goiz hartan, izan ere. Vieux Calvados hartan egonminez ere bazuan, bai, barrenaldea, han kristalen atzean ostendua ez egotea, Chaptal kaleko etxe hartakoen joan-etorri eta atzera-aurrerak ikertu eta ohartzeko. Hango notinak orain askotaz hobeki ezagutzen baitzitian: harako

¹⁵⁷ Egutera: terraza.

Rikard Gendreau beribilera igoten; aita zaharra zaldi-gurdirantz zijoala-eta Luis haize hozkirritan egurasten, guzti hoién ibilerak eta zioak erdi ikusten zituán.

Louvreko hotelean ere egon nahi izango zuan; Oihanera Bidean ere bai, eta baita Ansevalen ere.

Bainan lagun hoitarik bat bakarra zuen eskumende eta hau ez zuan bertan behera utzi behar.

Eta gauza bakana, benetan. Gogo hori edo gurari hori umetandik, gaztetandik zuan barnean errotua. Osagile edo miriku ikasten hasi zan, bainan aitaren heriotza zela bide, utzi behar izan zuan bigarren ikastaroan. Ez zuan, ordea, behin ere asmo sendorik izan eriak edo gaisoak osatzen aritzeko. Maigreték nahi zuan ogibide edo lanaririk egon ere ez zegoan, alegia!

Gaztetto zelarik argi-argiro hark ikasia: mundu hontan lagun askok ez dutela dagokien bidea hartzen, dagokien lana hautatzen, dagokien eginkizuna onesten, eta hortaz, okerbidea, bizitza-zidor ez dagokiéna zehar joaten zirala. Bere herritxoan ere horixe sumatu zuan eta haur bat besterik ez zan anartean. Eta zergatik? Ez jakinez, munduko bideen berri ez zekitelako, argi esan.

Eta bere burua toki hontan ipintzen zuan. Gizon argia, azkarrá, bainan batez ere bihozbera, ongilea, apaiz eta miriku batean bailitzan, eta oso adikorra izaki guztien helburu eta joera egokia berehalakoan, bertatik ezagutu zezakeana. Amets ederra!

Germaneri buruz bere emazteari esandakoa ere, arau edo gurari hortan sartzen zan: «Ansevaletik alde egin ez balu...».

Osagile batengana bezala joango zirakean gizon eta emaztekiak gure gizonagana, aholku eske, esanaren galde, bide egokiaren bila...

Bakoitzaren bide-erakusle edo -zuzentzaile izango zan. Eta ez soilik argi eta adimen zorrotzekoa izango zelako -ausaz, ez zuan horrenbesteren beharrik-, gizon guztien eta bakoitzaren bizitzaz betea izango zelako baizik, batbederaren barnean sartzeko gai, alegia.

Asmo eta burutasun hortaz ez zion behin ere inori azalpenik egin. Bainan larregi ere ez zuan hortaz gogoetan jarduten, bere

buruari adarrik ez jotearren-edo. Eta honelatan, osakuntza-ikasketak jarraiki ezinik polizi arlora zan, ustekabean; halarik ere, ustekabe hori zer bait susmatua ez ote zan? Izan ere, poliziak zer dira besterik beste gizakien bide-zuzentzaileak baizik...?

Lehengo gauean, bai ametsetan bai esnaturik ere, ozta ezagutzen zituán jendeki haietaz buruketan ari izan zan; ezagun berri haiek irudimeneratuaz: Balthazar zaharra lehenbizi, bost urte zendua, eta gero sendi osoa zeraman gogoan Germaneren gelako atean hots egin zuanean.

—Aurrera! -jardetsi zion ahots motel batek.

Eta jarraitu zuan honela:

—Itxadon ezazu! Atea giltzape nuanik oroitu ere ez...

Ortozik, oinziñri gainerik zebilen, jantzi arinez eta ile luzeak nahaspila eta zintzilik gerriraino. Jaiki berri ez zan, horraitio, gau-mahaitxoan txokolate-hondarrak eta ogi-apurrak zituán eta.

—Irten beharra al dugu? Jantziko al naiz osoro?

—Nahi baldin baduzu ohera zintezkez berriro edota gainerik beste soineko bat ezarri. Zurekin solas labur bat besterik ez dut nahi orain.

—Zure emaztea ez al da jeloskorra?

—Batare ez. Anseval kondeaz mintza bazaite nahiago nuke... Edota... Aizu: zuk ongi ezagutzen duzu etxea, etxeoak eta hartaraten direnak ere bai. Emagun goizaldeko ordu batak direla... Ordu batak... Hontan Gendreau andereñoaren gelan bertan liskar edo lipizta¹⁵⁸ sortzen da... Adi ezazu ongi, arren. Zure iritziz, nor legoke gela hartan?

Germane ispilu aurrean hasi zan buruko ileak orraztuten. Ahalegin egiten zuan gogoetaz bailegoan.

—Luis, agian? -Maigreték lagundu nahirik.

—Ez, Luis ez litzake horren belu joango hara gora.

¹⁵⁸ Lipizta: ika-mika.

—Eta beste gauzatxo bat ere bai. Luis osoro jantzirik zegoan, jake buztandun, paparreko zuri eta korbata beltzaz. Berandu al du oheratzeko ohitura?

—Noiz edo behin, bainan hortara ezkerero, gaineko jantzi apain gabe egonen litzake. Kanpoko norbait egon izango zan etxean.

—Adibidez, Humbert Balthazar, Gendreau andereñoaren osaba izango ote zan haren gelan zegoana ordu hartan?

—Ez dut batere uste goizaldeko ordu batetan hara joango zanik.

—Eta joan izan balitz, num egingo zioten harrera? Beheko gizategian, apika?

—Nik ez uste. Chaptaleko hoiek bakoitzak bere erara dute bizikera. Aretoak abetalpen¹⁵⁹ haundietarako ohi dira soilik. Hortaz landa, bakoitza bere tegian ibili ohi dira.

—Rikard Gendreau igongo ote zan bere arrebaren logelara?

—Baliteke. Maiz joaten zan eta. Batez ere, haserre zegoanetan.

—Eta inoiz pistolarik eroaten al zuan? Ikusi al duzu behin ere pistola eskuan duela?

—Ez.

—Eta Gendreau andereñoa?

—Adi ezazu: Rikard zaldunak baditu bi pistola, handia bata eta bestea txikia, bainan bere lantokian ditu. Andereñoak ere badu bat, gaueko mahaitxoaren kutxan, nakarrezko kirtenduna. Oheratzean, ordea, gainean uzten du.

—Bildur al da?

—Ez. Bainan ez da fidatzen. Emazteki nahaspilazaleen antzera, besteak gorroto diotela uste du. Hain gazte eta dagoaneko zikoitz eta zekena dela esango banizu! Lehenik kontatutako dirua, han bertan behera uzten du, ostuko dioten ala ez ikustekotz. Mari baino lehen egon zan neskamea harrapatu zuten lakioan, eta bertatik egotzi zuten.

—Eta kondea inoiz joan ote da haren gelara?

¹⁵⁹ Abetalpen: harrera.

—Haren gelan ez zuan noski inoiz hartuko, bainan alboko aretotxoan, bai.

—Goizaldeko ordu batetan?

—Eiki. Liburu bat irakurri dut nik, harako Ingalaterrako Elisabet erreginarena. Ezagutzen al duzu? Eleberria duzu, nobela alegia. Bainan egia ote dan-edo, andre hotza omen zan hura, maitatzeko gai ez zana. Gure andereñoa ere horrelakoxea dela esango nuke...

—Bigarren oinean iskanbilarik entzun ezkerero, Rikard zalduna igongo al litzake, eskuetan pistola?

Germanek sorbaldak jaso zituan.

—Zertarako?

—Bere arrebaren alde irtetzeko...

—Horren axolarik ez dute-edo... Hoiek dirua beste gauzarik ez dute aintzat hartzen.

Maigret, egotez, Germaneren aurrean zegoan, bainan haren burua Chaptal aldean zebilen bakoitza bere lekuan jarri nahirik, teatruan bezala.

—Anseval kondea inoiz joan ote zan hara, adiskideren batekin?

—Baliteke, bainan hortara ezkerero, behean hartu izango zuten, eta ni behera gutxitan joaten naiz.

—Lisa andereñoak urrutizkinez dei egiten al zion?

—Ez dut uste harek telefonorik duenik. Neskak ez zion deitzen. Hark bai, noizbehiuka, agian kafetxeren batetik.

—Eta zein izenez erizten zion andereñoak?

—Jackes, alegia.

—Zenbat urte ote ditu?

—Hogeta bost bat urte. Mutil ederra da hura, galuts¹⁶⁰ samarra ordea, baldana¹⁶¹, arnesa¹⁶². Edonori burlaz ari dala dirudi.

¹⁶⁰ Galuts: barraban, *golfo*.

¹⁶¹ Baldan: baldar, baldres.

¹⁶² Arnes: kokin, pikaro.

—Eta horrek aldean izango al luke pistolarik?

—Agian, bai.

—Zergatik baietz uste duzu?

—Horrelakoxe morroe baitezpadakoa delako. Fantomas irakurri al duzu?

—Eta aita, Felizian jauna, noren alde zegoan, alabaren alde ala semearen alde?

—Hura ez zegoan ez bataren aldera ez bestera. Hobeki esan, hura nire aldera zegoan. Sarrri askotan sartzen zan nire gelara, goizko zortziretan, botoiren bat josteko-edo esanaz.

»Beste guztiak ez zioten jaramonik egiten. Otseinak, «agure itxurakeriazkoa» erizten zioten, eta «Ezpain-bizar» ere bai. Haren gelako morroe Albert izan ezik, beste guztiak, denik ere ez... Haren esanak atadiko haizea aina baitira! Behin esan nion lotsagabeki: «Horrela estutzen baldin bazara, aldi gaiztoa izango duzu, eta orduan, kitu!».

»Eta hurrengoan ere, berdin dabil agurea. Orain Marirekin du seta, eta ez dakit honek zer esango dion...

Maigret jaiki zan, eta kapela hartu zuan.

—Nora zoaz orain? Ez al nauzu bakarrik utziko?

—Heldei¹⁶³ garrantzi handikoak ditut. Laster, ordea, honera zinduzan nire adiskidea etorriko zaitzu lagun egitera.

—Nun dago?

—Hor behean.

—Berriz ikusiko zaitut gaur, noski —ziotsan, atea idikiatz.

Eta han zegoan Justin Minard kafetxeko eguteraan, eguzki-izpi okertupean, kafesnea edaten. Eta Maigret ikusirik, esan zion:

—Zure emaztea etorri da lehentxeago.

—Zer, nola?

—Zuk etxetik alde egin zenduaneko, karta bat ekarri zutela eta zure atzetik omen zetorren. Laster asko igarri nion.

¹⁶³ [Heldei: *cita.*]

Maigret eseri zan eta *bock* bat eskatu ondorean urratu zuan behingoan karta-azaltxoak. Barruko ingitxoak izenpe hau zedukan: «Maxim Le Bret. Goiz hontan bertan nire lantokira zu heltzea nahi nuke. Bihotzez...».

Paper hori, nunbait ere, Courcelles bulebarrean egina izango zan, komisaritegian idatzi izan balu, hango paper irarkunduna bialiko zion eta. Gauzen tankera politzalea¹⁶⁴ genuan, eta gutxienez lau motako agiritxoak zituan, bakoitzaren joeraz.

«Le Bret de Plouhinec jauna eta andera.»

«Maxim Le Bret de Plouhinec.»

«Maxim Le Bret, Ohorezko Saileko izarduna¹⁶⁵.»

«Maxim Le Bret, ertzaineko komisari.»

Karta hau idatzi zuanean dudaz egongo zan, agian, buruan edo goanean zelan ezarriko: «Enc Maigret maitetori», edota «Jaun maitetori» edota «Jaunori»... Karta horren bidez bere zadorlariatz hartu-eman barnekoagoa hasten baitzuan! Azkenez ere, ez zuan ordea ezertxo ipini.

—Esaidazu, Minard, ba al duzu orain astirik?

—Zuk nahi bezenbat.

—Badakizu, neskamea hor goian dago. Ez dakit berriro noiz egongo naizen betaz. Uzten baldin badugu, bildur naiz Chaptal kale aldera joango ez ote dan eta han berriketan hasi.

—Ulertzen dizut.

—Zu harekin ateratzen bazara, utzi egidazu papertxo idatzi bat nora zareten jakiteko nik. Eta zereginik bazenu, nire emazte-agana eramanazi ezazu.

Ordu laurden geroago komisaritegian sartu zan gure Maigret, eta haren lagunak bekaitzez eta damuz zegozkion, oporretan edota lan bereziren baten ari diraneri behatu ohi zaion bekaitzez;

¹⁶⁴ Politzale: edertzale.

¹⁶⁵ [Ohorezko Saileko izardun: *oficial de la Legión de Honor.*]

zoriontsuak, orduaren zai egon beharrik ez dutenak, eta egunero berdin-berdin ari ez diran halakoak...

—Hemen al da komisari jauna?

—Bai, aspaldidanik arean ere.

Eta Maigreti harrera egitean, papertxoaren egilca berdin zegoan atsegin, berdin amultsu, eta eskua ere luzatu zion, bestetan ez bezala.

—Ez dizut zure bilaketa nola dijoan galdetuko, oraino goizegi baita. Honeratzeko eskatu badizut, honako zeragatik duzu... Zuk ongi eta zuzen aditzea nahi nuke, arazo hau gupera edo minbera delako. Courcelles bulebarrean ikasi zenuanak ez du, zinez, polizia zerikusirik. Gainera...

Haron-honon¹⁶⁶ zebilen hizketan, aurpegia guri eta bare, eta ahoko urreztatudun zigarroari teingadak egiaz.

—Tamalgarri zait zuri hor batera eta bestera ibiltzen utzi beharra, ezertariko argitasunik gabe. Bart, Gendreau andereñoak telefonoz hots egin zion nire emazteari.

—Louvreko hoteletik.

—Ba al dakizu?

—Gurdi batean joan zan hara, arratsaldean.

—Orduan... Besterik ezertxo ere ez... Zenbait etxetan gertatzen dena jakitea, badakit zer gaiztoa dena.

Hitzok esatean Maigretek zer berri gehiago jakin ote zuan ezagutzeko itxura ematen zuan besteak.

—Ez du hark Chaptal kalera bihurtzeko asmorik. Bere aitonaren etxe haundi hura gertatzeko ustea du.

—Boloniko Oihanera Bidekoa.

—Bai.

—Dagoeneko gorabehera asko dakizula ikusten dut.

Hori entzutean Maigret poztu eta suspertu zan.

¹⁶⁶ Haron-honon: hara-hona, atzera eta aurrera.

—Laketuko al didazu galdera bat egiten: Anseval kondea ezagutzen al duzu?

Harritu zan zeharo Le Bret, eta bepuruak zimurtu zituan, zerbait ulertuaz bezala. Gogaketan ziharduan, nunbait.

—A, bai, bai! Balthazartarrok Ansevaleko gaztelua erosi zuten bai, ezta? Bainan hartu-emanik ez dut ikusten hoietan.

—Hartu-emanak Gendreau andereñoak eta Anseval kondeak dituzte.

—Ziur al zaude? Bai gauza bakana...!

—Kondea ezagutzen al duzu?

—Aurpegiz, ez; eta hainbat hobe. Bainan badut haren entzutea. Harritzen nauana... Txikitandik ezagutu ez badute elkar... edota neskak ez daki... Bob Anseval hori bide okerre, biziera txarrez omen dabil. Inork ez du etxean hartzen, bilera baten ere ez da kidea, eta gure brigada bereziak izan du, agian, horrek emandako lanik.

—Ba al dakizu haren zuzenbidea?

—Diotenez, Wagram Uribideko edatetxe izen txarrekoen batzuetan ibiltzen omen da, eta Ternes auzoan ere bai. Brigada hortan jakingo dituzte beste zertzeladak zuzen asko.

—Aztarnak hartzea nahi al duzu?

—Bai egin ezazu, bainan Gendreau Balthazartarrok ez aipatzen zekotan, entzun?

Buruhausteetan jarri zan bai komisari jauna, ezagun zuan, alafede. Eta behin eta berriro ere, bere kolkorako honela zion: «Bai gauza bakana!».

Eta Maigretek, orduan, gero eta ausartago eta kementsuago:

—Gendreau andereño hori, zentzun edo burubetetzat al dadukazu?

Oraingoan, izutu zan Le Bret jauna, eta nahi ala nahi ez, begirakune garratza egin zion bere zadorlariari.

—Zer, nola?

—Barka egidazu galdera ez egokia egin baldin badut. Ni neu, ziur-ziur nago hontaz: gau hartan nik neskamearen logelan ikusi

muana Lisa Gendreau izan zela. Honen logelan, zerbait gertatu zan, jazoera aski latza itzurpide¹⁶⁷ haura asmatu eta egiteko, eta kalean zehar zijoan musikariaren aitorpena ez sinisteko ez dut batere ziorik, eta danba edo tirotsa ere entzun zuala, alegia.

—Ekin aurrera.

—Baliteke, agian, Gendreau andereñoa eta bere neba baka-rrik ez egotea haren gelan gau hartan.

—Zer esan nahi duzu, ordea?

—Antza dagoanez, eta gauzak ondo haztatuaz, hirugarrena Anseval kondea izan izango zela. Tirorik egin baldin bazuten, egon ere hiru lagun bazegozten gela hartan, eta haietarik baten bat zauritua izan...

Maigret harro-harro zegoan barnealdean, bere nagusia, aho zabalik, konkortuta begira zedukalako...

—Beste argitasunik bildu al duzu?

—Askorik ez.

—Etxe guztia erakutsi zizutela uste nuan.

—Bai, baina ukuiluaren eta garajearen gaineko gelak ez.

Unetxo batez, eta lehenbiziko aldiz, gertakari larri edo drama hura begi-aurre zedukaten biak. Le Bretek sinistu zuan, noski, eraiketa edo odol-isurtzeren bat izan zitekeala. Eta hori nun jazo zan? Bere munduko jende artean, adiskide artean, bilera-lagumen artean, bere emaztearen adiskide kutun zan neskatxa gaztearen logelan bertan, alegia.

Eta halako ikusgarririk! Bere nagusia larri, ilun oharturik, Maigretrek ere gertakari larriaren mina eta tamala sentitzen zuan.

Ez zan, beraz, askatu behar zan korapilo hutsa bakarrik. Norbaiten bizitza edo norbaitzuen bizitza ere arriskuan edo horrenbaten zegoan, agian...

¹⁶⁷ Itzurpide: ihesbide, *subterfugio*.

—Gendreau andereñoa oso aberatsa da, —zion, gerocean, eta gogo txarrez komisari jaunak, isil-misil—. Horixe da, beharbada, Parisko bost edo sei aberatsenen arteko ondasun handiaren oinordeko eta jabegai.

—Beharbada, diozu?

Nagusiak bazekian hori eta gehiago ere, baina beragan ziran bi gizonen arteko burrukan, ez zuan mundu garaiko gizona zanez polizigizona ere zanagana lagun egiten jeistea onirizten.

—Jakin ezazu, Maigret, axola haundiko zerak ditugula arazo hontan. Haur zanetik daki ondotoxo halere Lisa Gendreauk, ondasun hoien ardatz eta jabegai dena. Ez da beste neskatxak bezalako behin ere izan. Balthazar Kafeen buru bera izango zela uste izan du betiere; are gehiago, Hektor Balthazarren asmo eta gogoren jarraitzaile bakar dela sinisturik du.

Eta nahi ez zuela, beste hitzok esan zituan:

—Neskatxa errukigarri bat da, zinez!

Eta berehalakoan, jakingura biziz:

—Anseval hortaz esan didazuna egia al da zure aburuz?

Jende haundiki arteko gizona zan, nurbait, orduan galdetzen zuana, eta halarik ere sinisgogor zegoan, leraz¹⁶⁸ betea egon arren.

—Gau beranduskan maiz joan omen da Gendreau andereñoa ikustera, bigarren oineko etxari hartan elkarrekin egonaz...

—Hori beste gauzarik duzu.

Aski ote zan, bada, gelan ez baina aldameneko aretoan elkar-ikustea egin zutela agertzea, gaiaren izakera aldatzeko?

—Beste itaune bat ere laketuko¹⁶⁹ al didazu zuri egitea, ene komisari jauna. Gendreau andereñoak izan ote du behin ere ezkontzeko asmorik? Gizonzalea ba al da, zinez? Emazteki hotza deritzan hoietakoa dela uste al duzu zuk?

¹⁶⁸ Lera: irrika, grina.

¹⁶⁹ Laketu: utzi, baimendu.

Harritua zegoan hagitz, Le Bret jauna. Konkortuta, izu-antxa, bere zadorlariari begira, honek inoiz hartu-emanik izan gabe-ko pertsona haietaz ematen zituan gorabehera eta zehetasunak entzuten. Nahitaez, handiesten eta goratzen zuan Maigreten jakituria eta zentzuna, bainan bildurak ere jo zuan, bat-batean azti edo sorginaren aurrean ote zegoan...

—Neskatxa hortaz, esanak esan dituzte. Halaz ere, ondasun handikoen eskeintza anitz ez ditu aintzat hartu, egia da.

—Eta arlote edo arrisku-ibilketarik egin ote du?

Eta komisari jaunak, egia esaten ez zualarik, jardetsi zuan:

—Ez dakit horrelakorik ezer.

Ondoren, eta hizkera latzagoz jarraitu zuan:

—Nire emaztearen adiskideetaz ez dut ohitura horrelako galderarik egiteko. Jakin ezazu, ene adiskide gazteorrek...

Zirt edo zarteko mintzoa aterateko zorian zegoan une hartan, Courcelles bulebarrean atera izango zuana, noski, bainan garaiz zentzutu, eta jalki zion:

—«Gure» lanbide honek zuluertasun eta arreta handia eskatzen digu. Nire buruari hau ere esan diot nik...

Maigretek hotzikara nabaitu zuan bizkarrean. Bere bilaketa lana etenaraziko zioten, lehengo lantokira itzularazi, mahai beltz hartara, eta berriren berri liburutzarretan garbiketak aldatu eta txiro eta ezedukieri agiriak egiten egunak eta egunak emateko...

Unetxo batean, haren solasa atertu egin zan. Bainan zorionez herri-begiraleak¹⁷⁰ garai egin zion aberats arteko gizon soila izateari.

—Sinista egidazu, zuhurra izan zaite, txit zuhurra. Eta beharrezana baldin baduzu, hau dela edo hori dela, nire etxera hots egidazu telefonoz. Lehen ere esana dizut, nik uste. Ba al duzu nire zenbakia?

Paper-txatal batean idatzi zuan.

¹⁷⁰ [Herri-begirale: *funcionario público*.]

—Goiz hontan eratorri baldin bazaitut, irristadaren bat egin ez dezazun izan da. Buruak eman ere ez niri hain urrun zenbiltzanik...

Bainan esanak esan, ez zion eskurik estutu irtetzerakoan. Maigret berriz ere polizia soil bihurtu zan; polizigizon bakar, harako haundikien gizartean inoren laguntza gabe ausardiz eta arriskuz sartu nahi zuana.

Eguerdi aurretxoan zan. Quai des Orfèvres delako sarrera atean zehar joan zan Maigret. Barnean, ezkeraldean, bazegoan han ostatueteen agiritxoa baino ez zana...! Mailadi zabal eta hautsez betean gora igon zan, ez bestetan bezala, komisari jaunaren gartzigapenen bat eramatera, bere kabuz eta erabakiz baizik.

Han zegozten bideska zehar ateak ate, komisarien izenez burutuak; itxadon-aretoa ere bai, eta noizbehin eskumutur loturik bazeramaten gizonen bat edo beste.

Gela batean sartu zan. Leiho idekietatik Sena ibaia ikusten zuan. Ez zuan, alegia, alderdi bateko komisari-tokiaren antzik. Gizon batzuek zegozten han, telefonoa aurrean edo garbiketa liburueri begiraka; inspektore bat ordea, zango bat mahai gainean luze zuela, lasai-lasai pipa hartzen... Elkar-lagun nahasi eta zabar samarrak ziran hango gizonak.

—Nahi baldin baduzu, gazte, «Aztarnak» dagozan gelara zoazteke, bainan ez dut uste han ezer aurkitu dezakezumik, nik dakidanez ez baita behin ere zigorpetua izan.

Biguin eta gozara hartu zuan bai berrogei urte inguruko brigada batek, une baten antzera. Sail Berezikoa zan, Sail Berezikoa... Ongi zekizkiten haiek Anseval kondearen joan-etorriak! Bai, alazaina!

—Esaidazu, Vanel, aspaldi al da kondea ikusi duzuma?

—Nor, Bob?

—Bai.

—Azkenengoz lasterketa haietan ikusi nuan. Dedé zuan aldameneko.

Eta gero azalpen hau egin zioten:

—Arkazi kalean garaje bat daduka Dedé delako horrek. Toki hartan ez duzu behin ere beribil bat ala bi baino gehiago idoroko. Ulertzen, gazte?

—Kokainaz ari ote?

—Eiki, horixe liteke. Eta, gero, badakizu, beste gorabehera-ren batzuk ere bai eta... Konde hori —horrela deritzate— lepora arte hondatua omen da. Bizpahiru gauzatxogatik heltzeko egon ginan, bainan hobe da egunen batean zera, arrain lodiren bat alegia atze-mateko beta izatea...

—Ba al du haren azken bizitzaleku-argitasunik?

—Zer uste duzu, ordea, zure komisari horrek gure zehetasunetaz baliatzeko asmoa duela? Kontuz, gazte; kontuz, mutil. Ez da egoki Bob hori izutzea. Ez da berbera, alegia, guk atzi¹⁷¹ nahi duguna, bainan horrelako morroc baten bidez beste zer asko eta handiak eskuratzea baliteke... Zure arazo hori gora haundikoa edo garrantzizkoa al da?

—Behar-beharrekoa dut haren aztarnak hartzea.

—Vanel, ba al duzu haren zuzenbidea?

Eta honek, marmarioz, Quai des Orfèvresekoek komisarite-gietako «gizaixoentzat» ohi zuten ezespren edo erdeinuz, ziotsan:

—Brey kalean, Erdiko Hotel hartan. L'Etoilerin gibelaldean, hain zuzen ere.

—Azkenaldiz noiz egon zan han?

—Orain lau egun ikusi nuan Brey karrika-ertzeko edaritegian bere emazteki adiskide harekin.

—Neskatxa horren izena jakin al dezaket?

—Luzile duzu. Errez ezagutuko duzu, gainera. Ezkerreko masailean ormain edo zauri zaharren xakia¹⁷² du.

Komisari bat sartu zan toki hartan, arazopetua¹⁷³, paperak eskuak betean...

¹⁷¹ Atzi: atzitu, atzeman.

¹⁷² Xaki: seinale, marka.

¹⁷³ Arazopetu: lanpetu.

—Aizazute, mutilok...

Ezezagun bat ikusirik bertan geldi egin zuan eta begietaz gal-detu ere bai.

—Saint-Georgesko komisaritegiko zadorlaria da.

—Tira, ba.

Eta «tira, ba» hori entzunaz, bera ere «etxe» hartakoa izatera heltzeko irrika bizian jarri zan. Han hutsa aima baitzan... Inork ere ez baitzuan aintzat ere hartzen... Han ari ziran komisari bat eta mailadun polizia bat, hurrengo gauaz La Roquette aldean egingo zuten «arrantzua» antolatzen.

Errepublikan enparantzatik urrun ez zegoala-eta, bazkaltzera etxera joango zala otu zitzaion, eta gero joan zitekean l'Etoile auzora, kondearen edo Luzileren bila.

Richard-Leimor bulebar zehar zijoala, garagardotegi batean gizonetzko bat eta andrazko bat zegozten, mahai aurrean.

Justin Minard eta Germane ziran.

Iraduz zegoalako haiei jaramon egiteke aurrera joateko asmoa izan zuan, bainan neskame hark kristala jo zuan eta gure gizonak ezin, bada, igesik egin...

—Hotelean nengoala-eta hara joango ote zinan bildur nintzan. Lan asko egin al duzu?

Minard zerbait lotsati zegoan, bazkari-janarien lerrokada irakurten baitziharduan. Neska, ordea, pozkidaz betea... Haren begiak dizdikariago ziran eta musua ere argiago, numbait.

—Behar al gaituzu arratsalde hontan? Bestelan, badakit tea-tru-aldi ederrik dagoana gaur.

Bi gizonak elkarri behatu zioten, eta zirulariak, agarbitz¹⁷⁴ edo apukoz bezala begiez hitz egin zion:

—Ezin, bada, besterik ezer egin...!

Eta Maignet joan zan bere emazte maitearekin, etxetxo kutu-nean bazkaltzera.

¹⁷⁴ Agarbitz: estakuru, aitzakia.

VI

SENIDE ARTEKO JAITXOA

Gaueko zortzirak inguru hurbildu zan Maigret, hainbeste irrikitzen zuan tegira. Gas-argimutilek Garaitza Uztaia ilumbetik erakusarazten zuten, txirlarri¹⁷⁵ antzo dirdizka. Ez zuan, ordea, gure gizonak itxaropen haundirik bihozpean.

Arratsalde hartaz oroipen gozoa izango zuan, nunbait. Parisko udaberri-egun arrai¹⁷⁶, haize biguin eme lurrintsuzkoa, gozartzeko¹⁷⁷ eskariz eta deiez zegoan arratsalde atsegina. Orduko, emakumeak, gaineko lodiak kendurik, aisa-aisa zebiltzan egunez, epel-giroz. Bainan aldi hartara arte ez baitzan konturatu, andre-loraketa zoragarri bat ikusten ziharduala uste zuan: txingi¹⁷⁸, zorgoin¹⁷⁹ eta ubeliliak¹⁸⁰ zintzilik zituzten emakumeak buruko txapeltxoetan, eta gizonezkoak ere lastozko ginbailez¹⁸¹ agiri ziran kaleetan.

Hiruzpalau orduz, batera-bestera ibili zan l'Etoile, Ternes larraina eta Maillot atea bitartean. Brey kalean, heldu zaneko hiru

¹⁷⁵ Txirlarri: perla.

¹⁷⁶ Arrai: argitsu.

¹⁷⁷ Gozartu: gozatu, atsegin hartu.

¹⁷⁸ [Txingi: *margarita*.]

¹⁷⁹ [Zorgoin: *amapola*.]

¹⁸⁰ [Ubelili: *violeta*.]

¹⁸¹ Ginbail: kapela.

neskatxa ikusi zituan, zurruma luze, gerruntze estu, kondea bizi zan ostatu hartatik irtenak.

—Kondea goian al dago? —galdetu zuan zuzendaritzan.

Burutik behatsetara begirakunea egiten zioten.

Egun hontan aurkituko zituan notin guztiak berdintu hartuko zuten, astiro eta luzakor goitik behera so eginaz, eta muker¹⁸² baino ere sepaz¹⁸³ edo suminez jaramon eginaz, eta murrunga¹⁸⁴ samar crantzunaz.

—Goian galde ezazu!

—Haren gela zenbakia zein da, ordea?

Besteak orduan ere pekuz, zalantzaz. Hori esatean, kondearen adiskide barruko ez zela agertu baitzuan.

—Hogeta hamabigarrena.

Hots egin zuan, ate-joka ari bainan alperrik, ostera.

—Noren galde ari zara? —esan zion neskame batek.

—Kondea nun da?

—Ez dago hor. Inor gabe dago gela hori.

—Ba al dakizu nun ediren nukcan?

Galdera hori larregizkoa zan nunbait, emazteki hark erantzun ere ez baitzion egin.

—Eta Luzile?

—Le Coq kafetxean itaundu ezazu, nahi baldin baduzu...

Wagram alderdi hartako bi kafetxeetarik bata zan Le Coq. Eguteran toki zabala zuan, mahaiez beterik. Emakume batzuk ikusi zituan han, mahai inguru eserita. Karrikan ere ibilketa antzean, beste andre batzuk agiri ziran. Aurpegian ormain edo ebakiondoa zedukan neskatxa ezagutu nahi zuan. Eta kafetxeko otseinari galdegin zion:

—Luzile hemen al dago?

—Ez, bada, ez dut gaur hemen gaindi ikusi.

¹⁸² Muker: muzin, *desdeñoso*.

¹⁸³ Sepaz: haserre.

¹⁸⁴ Murrunga: gogoz bestera, *a regañadientes*.

—Eta etorriko dala uste al duzu? Kondea ere ez al duzu ikusi?

—Iragan hiru egunotan ez diot nik hari ezer egin ez eman.

Arkazi kalera jo zuan. Han zegoan garaje hura, beti bezala hertsita. Aldameneko zapataria tabako-izpiak mamurtu eta mamurtu ari zan aho betean, eta erantzuteko nagi eta muker zegoan.

—Haren gurdia gaur goizean irtetzen ikusi dudala-eta nago.

—Gurdi arrea? Dion-Bouton bat?

Hagin artean tabakoa mamartuaz ari zan langile hark ez zekian, ordea, beribilen izenik ez izenondorik; gurdi bat soilik, eta kitu.

—Eta, nun aurkituko ote nuke?

Dendari hark kupida samarrez behatu zion:

—Nik ez dakit zapaten berri baizik, adiskide.

Berriz ere Brey kalera itzuli eta 32garrenean hots egin zuan: eta alperrik lichen bezala. Le Coq eta Ternes enparantza bitartean ikusi zituen emazteki guztiei musura begiratzen zien, ebakiondoa sumatu nahirik.

Noizik behinean, kezka beteten zitzaion barrena. Toki hartan denpora ematen ez bestetan ari zela uste zuan, eta agian beste lekuren batean gauza handiagoak bilatu zitzakeala. Balthazar kafetegi inguru ibiltari egokiago zeritzan, Lisa Gendreau anartean Louvreko ostatuan zegoala ziur jakiteko, eta batez ere, Chaptal karrikako jendearen joan-etorriak zelatatzeari.

Zer kasketaldi zuala, ordea, alde hartatik ez joateko?

Edaritegi guztietan sartu zan. Zirulariaz oroituki, marrubihozkirriak eskatu zituan; bainan edari hark higuin eta narda sortu baitzion, arratsaldeko bostak aldean garagardo edateari eman zion.

—Ez, bada, ez dugu guk Dedérik ikusi gaur. Hemen al duzute elkar-ikustea?

Eta auzune osoan galdezka ari eta betiere isil edo misterio berbera. Zazpirak aldean norbaitek agertu zion:

—Lasterkariak ikusten ez ote?

Eta Luzileren aztarnarik ere batere ez.

Hiruzpalau aldiz etsita zegoan, arlo hura bertan behera uzteko. Zalantzak ere jo zuan, metro-mailadian behera hasi eta gero...

Eta halakoren batean, zazpi eta erdiak jo eta gero, han zehar agiri ziran emazteki guztien aurpegiak ongi ikuskatu ondorean, nola ez ekiela Presbourg kale baketsuan barna zijoan.

Beribil batzuk han zegozten, kale-ertzean lerro-lerro, eta haien artean bat, arre kolorea, izenez eta zenbakiz oso ezaguna Maigretentzat.

—Ene, ba! Hor dut hor, Dedéren gurdia!

Hutsik zegoan, inor gabe. Kale-muturrean polizia bat zegoan, geldi, tinko.

—Adi ezazu. Saint-Georges alderdiko komisaritegikoa nauzu. Eta zure beharra dut, agian. Beribil honen jabea baletor eta alde egiteko asmoz etorri ere, edozein apuko edo aitzakiz geldiaraziko zenuke?

—Ba al duzu zure karneta?

Horraitio, halako konturik! Kale-jagolak ere pekuz zegozten gure gizonaz.

Edaritegi guztiak bete zegozten ordu hartan. Le Coq edaritegi hartan ez egoan Dedé, berriz ere galdetu eta ezetza eman baitzioten, eta horregatik inguruko beste jatetxeren batean egongo zan, noski. Denda ezagum haietan ez zekiten nor zenik ere. Wagram areto ondoko garagardotegian ere ez zuan batere argitasunik jaso.

Bi bider joan zan, artean, beribila lehengo tokian lotua ote zegoan jakin beharrez. Haren gurpiletako goma bat zulatzeko irrikia izan zuan, zer gertatuko, aiztoa erruki gabe sartuaz. Alabainan, polizia hura ikusirik, lotsa-bildur zegoan, eta zaharragoaren zeresanik ez zuan nahi.

Eta italiar jatetxe tipi bateko ateari bultz egin eta sartu zan. Eta han ere, ezpain-jario zuan galdera jalki zuan:

—Kondea ikusi al duzu?

—Bob? Ez... Ez gaur, ez atzo ere ez.

—Eta Dedé?

Toki hura tipia zan, bainan asko apaina orde. Alkiak uleguri¹⁸⁵ gorritz azalkatuak¹⁸⁶ agiri ziran hor-hemen. Zola barnean, ohol-horma bat zegoan. Horrela, alde batetik areto nagusia zegoan eta bestetik leku bereiztua. Hemen, ate aurrean, Maigreték gizon bat ikusi zuan. Soinekoak lerro zut-zeharrak zituan, laurkaz¹⁸⁷ beteak, beraz. Musugorria, ileak arrasoil¹⁸⁸ edo kirru eta erretenez orrazturik.

—Zer diozu? —galdetu zuan hark, tegiko jabeari hitz eginaz.

Hau bere lekuan zegoan, erakusmahaiaren ostean, alegia.

—Kondea nun dan edota Dedé dio honek —erantzun besteak.

Lurka-jantziz zegoana aurreratu zan, ahoa betean jaten eta eskuetan zamautxoa. Maigretengana hurbildurik, lasa-lasa¹⁸⁹, begi zorrotz eta tinki¹⁹⁰ zegokion.

—Zer nahi duzu?

Maigret isilik, zer esan ez zekiala... Orduan besteak:

—Neu naiz Dedé...

Gizon hori aurkitzen bazuan, bazekian Maigreték zer esan eta erantzun, bainan bat-batean beste zerbait otu zitzaion, burura zitziaion.

—Atzo heldu nintzan —esan zuan baldar antzean.

—Nondik?

—Lyondik. Lyonen bizi naiz

—Gauza jakingarria, alafede.

—Nire adiskide baten bila nabil, haztetxeko lagun bat, alegia...

¹⁸⁵ [Uleguri: *terciopelo*.]

¹⁸⁶ Azalkatu: azala edo estalkia jarri.

¹⁸⁷ Laurka: lauki.

¹⁸⁸ Arrasoil: ilehori, gorri.

¹⁸⁹ Lasa-lasa: patxadaz, bare-bare.

¹⁹⁰ Tinki: estu, zorrotz.

—Ikastetxeko lagun bat baldin bada, ez naiz ni, alazaina!

—Anseval kondea da... Bob.

—Tira, ba, tira!!

Ez zuan irriparrarik egiten eta mingain-muturra hagin artean dantzari zerabilen, buruketan edo pentsatzen, noski.

—Eta nora joan zara Bob horren bila?

—Alderdi guztietan ibili natzaizu. Ez dut zioten ostatuan aurkitu.

—Bai, haztetxean zengoztenean emango zizun nurbait hark ostatuaren zuzenbidea, ez ote?

Txiriboginari¹⁹¹ sinu estali bat egin zion Dedék.

—Ongi da. Boben adiskide zaitugunez geroz, gurekin edango duzu zuk ere. Hain zuzen ere, gau hontan sendi arteko jaitxo bat dugu hemen.

Leku bereizi hartaratzeko agindu zion. Mahaia ederki zegoan, hornitua eta apain. Zilarrezko ontziska batean txanpaina, kopa egokiak ere bai. Emazteki bat beltzez jantzia, ukondoak mahai gainean zituala, eta beste gizon bat, surmotza oso, ukabilkari hoietakoa, begi haundi eta zabaldua —behiaren iduri— han zegozen. Hau jaiki zan, nagi eta astiro, burruka hastean ohi duten bezala.

—Honako hau, Albert duzu, lagun bat...

Eta Alberti begirakune bat egin zion, nekez, gogo gabe bezala, lehentxego etxe-jabeari egin zionez. Isilki mintzatzen zan, behin ere irriparrarik erakutsi gabe, bainan isekaz ari zela ematen zuan.

—Hona, Luzile, Boben emaztegeia...

Aurpegi atsegin eta polita zuan, ormain edo ebakiondoa agiri-agirian, eta Maigret hari agur egiteko zertxobait okertu zanean, negar-malkoak isuri zituan eta zapiatz berehalakoan txukatu.

¹⁹¹ Txiribogin: tabernari, *barman*.

—Ez jaramonik honi! Aita hil berri du, eta horregatik negar-malkoak eta txanpaina nahasten ditu. Angelino!!! Txola eta txalin bat ekar itzazu!

Gauza bakan, jakingarria eta batcan kezkarazlea zan egoera haura; adiskidetasuna zegoan han, bainan hotza; hitzak onak ziran, bainan zemaia itzalgaizka¹⁹², ezkutaturik zegoan mintzopean. Maigretek itzuri gogoa sentitu zuan. Jantzi lurkadunaren baimen gabe handik ateratzea gaitz izango zela sumatu zuan, ordea.

—Beraz, Lyondik heldu zara zure antzinako adiskide Bob ikustera?

—Berariz ez naiz etorri. Parisen baditut garatz edo diru-ara-zoak. Beste adiskide batek esan zidan Bob uri hontan bizi zana. Aspaldi baita azkenengoz ikusi nuela!

—Aspaldi, e? Tira, ba! Zure osasun alde. Gure adiskideen adiskideak geure adiskide dira, zinez. Esan ezazu, Luzile!

Honek haren esana egin zuan, eta cdaten eskua ikaraka baitzuebiltzion, edanontziak talka egin zuan haginekin.

—Gaur arratsaldeon hartu du urrutidatz¹⁹³ bat, aita hil zaio-la adiraziaz. Eta badakizu, gauza hoiek beti egiten dute zarrada. Erakuts zaiozu telegrama, Luzile...

Honek harrirituta so egin zion.

—Erakutsi, bada, jaun honi...

Zisku barruan bilaka hasi zan.

—Nire gelan utzi dut, nurbait.

—Atsegin al zaitzu *ravioli* delakoa? Hor ari da nagusia guretzat bereziki maneatzan. Eta, hortara ezkeroz, nola duzu izena?

—Juli.

—Begiko zait Juli hori. Mintzo gozoa du. Tira, ba, Juli adiskide, zer berri duzu?

¹⁹² Itzalgaizka: mesfidantzaz.

¹⁹³ Urrutidatz: telegrama.

—Joan baino lehen Bob ikustea nuan gogo.

—Bordaletera itzuliko al zara?

—Ez, Lyon esan dizut.

—Egia, bai, Lyon! Uri ederra benetan! Bob tamalez jarriko da ziur asko zu ez ikustez. Batez ere, haztetzeko lagunak maite ditualako. Jarri zaitte haren lekuan. Ikastetzeko lagunak ez dira edonor, horixe ez! Zu ere ez zara nornahi izango, jakina, ba! Aizu, Luzile: jaun honek zer egiten duala uste duzu bere bizibidean?

—Ez jakin, ba!

—Bilatu. Piperminak landatu eta bildu ari dela esango nuke.

Zirikada eta zipla ote zan hitz hori? Hain zuzen ere, «pipermin» hitz hori polizia adirazteko erabiltzen baitute jende batzuek. Besteentzat agerpen-deia ote zan?

—Ez, bada, seguruen arazo hortan ari naiz, esan zuan, marmarioz, Maigretrek, hasitako josta edo komeria jarraitu beharrez baitzegoan.

Eskatutako jaki¹⁹⁴ haura mahaieratu zion. Beste botela bat ere ekarri zion, Dedék sinuz agindutakoa, nunbait...

—Horraio, gauza parragarria da izan, gero! Eta nola elkar-tzen diran adiskideak...! Norbait Parisa heldu, ikastetzeko adiskide baten oroipena bat-batean bainan doi-doi bururatu, eta horra, ba! Haren berri duen batekin hain zuzen ere topo egin... Besteren batek, ordea, hamar bat urte behar izango zitukean, Anseval izena dakien inor ez baita auzune hontan. Eta nire izenaz ere, berdin. Galde ezaiozu nagusiari, Angelino horri alegia, aspaldi eza gutzen bainau. Dedé naizela esango dizute. «Dedé» bakar-bakarrik...! Ez gehiago zinkuririk, Luzile! Zer esango du jaun honek? Mahaiean bezala egoten ez dakizula...

Bestea, sudurzanpatua, isil zegoan. Jan eta edan ari zan, hisituki, ekin ahalean, bainan noizbehinka irriparra egiten zuan, aho-pe, beribilzalearen jostaketaz pozartzen baitzuan, noski.

¹⁹⁴ Jaki: jateko.

Lepotik zintzilik zedukan erloiutxoan begira ari zala-eta, Dedék honela lasarazten¹⁹⁵ zuan Luzile:

—Helduko zara trenera; ez bildur izan...!

Eta Maigreti azaldu nahirik, esan zion:

—Treneratuko dut, ehorzketarako garaiz heldu dedin, bai, noski. Nola izango da bada! Honen aita gaur beste mundura joan da, eta nik ordea nire tema irabazi dut Longchamp-en. Garaitzaille nauzu, beraz, eta hori dala-eta egiten dugu jaitxo hau. Bainan Bob ez dago hemen gurekin edari-topa egiteko.

—Ibiltaldiren batean al da?

—Bai, ene Juli, holaxen da; ibiltaldian dugu. Ahalegin egingo dugu, ordea, gero zuri erakusteko.

Berriz ere negarrari eman zion Luzilek.

—Edaizu, alaba maite, edaizu; minak ahaztutzeko ezer hobetik ez baituzu. Nork esango zukean neska horren minbera zela! Iragan bi orduz hemen ari natzaizu adoretu nahirik. Egumen batean joan behar dute bai gurasoak, ez al da egia? Aspaldi al da haiek ikusi zenituana?

—Zagoz isilik!

—Beste bonbila bat, Angelino, eta oregozoa¹⁹⁶ ere bai. Zure osasunerako, Juli!

Edan eta edan ari izan arren, Maigreten basoa beti zegoan beterik, eta Dedék era berezia zuan ontzia beteteko, eta ontzi-topa egiteko, zemaiz eta mehatxuz noski.

—Eta nola deritza zuri argitasunak eman dizkizunari?

—Bertrand.

—Oso argia da hori, arraioa. Bob zaharraren aztarnak emanaz gainera, garajera bertara ere bialti egin baitzaitu.

Eta hori entzunik, agertu zuan belarria; bazekian, bai, Arkazi kalean norbait galdezka ibili zana. Arratsalde beranduan joan izango zan nunbait, bere tegi hartara.

¹⁹⁵ Lasarazi: sosegatu.

¹⁹⁶ [Oregozo: *pastel*.]

—Zein garaje, ordea? —marmaraz esan zuan Maigretek, burua ezjakin eginaz.

—Garajeren bat aipatu zenuala uste nuan. Hona heldukeran ez al duzu nizaz galdegin?

—Bob eta zu adiskide zinala bainekian...

—Bai argiak direla Lyongoak! Zure osasumerako, Juli! Erru-siatarrak bezala: zangada batez!! Zer, gero? Ez al zaitzu atsegin?

Ukabilkari antzekoa pozkidaz zegoan bere bazterrean. Luzile, ordea, min-atsekabeak arinduxe, kezka beteten zijoan. Hiru edo lau aldiz, neska Dedéri keinuz zerbait esaka ari zela sumatu zuan Maigretek.

Zer egingo ote zuten honekin? Beribilzaiak bazuan buruan asmoren bat, ezin uka. Gero eta pozago agiri zan, iritxorik gabe ordea, begietan halako pingar¹⁹⁷ gaizto azaltzen zitzaizolarik.

Bazirudian Dedék bere kabuz ziharduan jardule edo komerigilea, eta beste bien onespén eta txaloak iritxi gogoz zebilela.

«Batez ere, ez gaitzean berotu!», ziotsan Maigretek bere buruari, txanpaina nahitaez edan eta edan baitzerabilten.

Ez zedukan batere arma edo iskilurik. Kementsua zan hori bai, baina zer egingo halako bi gizonen aurka? Haien burubihotzetan odolotz hartutako erabakia bazala, antzeman zion.

Sumatu al zuten poliziakoa zela? Baietz zirudian... Agian, Luzile Brey kaletik iragan, eta bilakari setatiaren berri orduan jakin...

Edota, nork daki haren zai ote zegozten? Dena dela, jai harek bazuan bere zio eta zegaitia. Dedék diruz betea zegoala adirazi zuan, eta egia zan alafede: haren erako gizonak diru-mordoaren jabe egiten diranean ohi duten erabateko kilika zerion gorputzetik; bat-bateko txanpon-sailak ematen duen poz egonezina.

Lasterkariak, lasterketak? Bai, hartaratzen zan maiz nunbait; egun hartan, ordea, horrelakorik ez zela gertatu izan errez apostu

¹⁹⁷ Pindar: txinparta.

egingo zukean Maigretek. Ez zan, ziur asko, egun hartan Longchamp izan.

Eta Luzileren negar-malkoak ere, ez ziran aldi neurtuetan bezala, aitagatik isurtzen, ez. Bob izena aipatzen zan bakoitzean, zergatik hasten ziran malko-jario haren begiak?

Gaueko hamarrak ziran, eta mahai inguru zegozten, eta betiere txanpaina ugari. Maigret, zorbelduxe eta mozkor-zantzua sumatzen hasi zan, baina ez zuan etsi nahi egoera hartan.

—Laketuko al didazu telefonoz hitz egiten, Juli?

Areto hartan, ezker aldean zegoan urrutizkina, eta Maigretek ikus zezakean bere lekutik. Dedék bizpahiru zenbaki eskatu behar izan zituan nahi zuanarekin mintzatu orduko. Ikusten zuan bai ezpaineri eragiten, ez ordea entzun zer esaten zuan. Luzile gero eta urduriago, gero eta estuago zegoan. Eta beste sudurzapala, egundoko txokorra¹⁹⁸ izetu ondorean, irriparrak zegoan, noizik noizera Maigreti keinu eginaz.

Urrutizkin-leiarrak¹⁹⁹ zehar ikusten zuan Dedé mintzatzen, astiro, geldika, zenbait hitz behin eta berriro esanaz-edo... Une hartan ez zedukan batere pozkario-izpirik aurpegian.

—Barka egidazu, adiskide, baina ez nuan inolaz ere nahi zu Bob ikusi gabe joatea.

Luzile, artega inoiz ez hainbatean, zipoka eta inkesaka hasi zan, zapiak musua estalirik.

—Hari hitz egin al diozu?

—Berari hain zuzen ere, ez; baina egin dezagun horrela dela. Biok elkarganatzeko bidea egin dut... Berdin da, ez ote? Zuk hura ikusi nahi duzu, ezta?

Esakera hori burutsua eta zorrotza zan nunbait, ukabilkaria aho-zabal gelditu baitzan, eta azkenez harrituta bailegoan hitzen bat ebaki zualako.

¹⁹⁸ Txokor: zigarro, puru.

¹⁹⁹ Lciar: kristal, beira.

Zer uste zuten, Maigretek ez zuala beraien hizkera ulertzen, lo zegoala? Ez. Kondea, isilik zegoan, edota hil hurren. Eta biak elkartzeko bidea aipatu zuanean...

—Nik ere, hots egin behar dut telefonoz —esan zuan bestelabaitakoan²⁰⁰, ezarian-ezarian, Maigretek.

Maxime Le Bretek behin eta berriz agindu zionaren kontra, bere komisaritegira abijeik hots egitea²⁰¹ erabaki zuan. Beste auzumeren batekoaz ez zuan mintzatu nahi. Ordu hartan, agian, Besson egongo zan zelatari Colombanin, Duffieu brigadierrarekin, karta-jokoan... Etor zitezela lehenbailehen, eta beribil ondoan zai egon, eta hortarako, bitartean egon eta egon egin estutu gabe.

Ez zioten nunbait ezer egingo han barruan, beste lagun gehiago ere baitzegoan hitz-zurrumuruak zionez, eta Dedé bezalakoan artean, jende zintzoa ere bazegoan.

—Nori hots egin, ordea?

—Nire emazteari.

—Zure emaztea ere zurekin etorri al da? A, burges ez bestena! Entzun al duzu, Luzile? Juli hau gizon zuzena duzu. Ez da zuretzat, arranopola! Alperrik ari zara hor mahaiplean haren oinerriri ziri eginaz. Zure osasun alde, Juli!! Ez duzu zertan nekatu. Hara, Angelinok hitz egingo du zure orde. Zein ostatutan dago zure emaztea?

Mahai-otseina²⁰² zai zegoan, eta hura ere poztu antzean hango egoera nahastua ikusirik.

—Ez da ordea, laster beharreko.

—Ez gero? Ez al da urdurituko? Beharbada estutuko da, zerbait txarra irudituko zaio, eta hor jarriko ditu poliziak zure galdez... Bonbila bat, Angelino! Ez, ez, hobe da paitarra. Ordua da, horren ordua. Eta edontzi haundietan. Juli gure adiskide honi atsegin zaio, nik uste, paittar ona.

²⁰⁰ Bestelabaitakoan: ezer ez den moduan, disimuluan.

²⁰¹ Abijeik hots egin: alerta jo.

²⁰² Mahai-otsein: zerbitzari, kamarero.

Bat-batean, bere lekutik jaiki eta itsumustuan kaupora iges egitea otu zitzaion Maigreti; bainan atera ere heltzen ez ziotela utziko sinistu zuan. Bazitekean bi gizon haiek arma edukitzea. Eta garaitiko haiek ere, batzuek behintzat lagun izango zituzten eta Angelino ere, oztopo egiteko gertu zegoan, agian...

Eta orduan, Maigret baretu zan; oso bare eta nare eta lasa eta argi zegoan, edanarazi zioten txanpain eta paittar ontzikada gora-behera. Batean-bestean, bere orduari ere begi ematen zion. Oraintsura arte, geltokietako polizia izana genuan, eta tren nagusien joan-heldu orduak buruz zekizkian.

Dedék trenaz mintzatu zan eta ez zan, noski, asmakizun hutsa. Norbait bazijoan, bai, trenean; agian hiru lagunak. Eta txartelak ere hartuak zituzten-edo... Eta honelatan, ordu erdi bakoitza iragan ezker, nun joan gutxiago izango zuten, noski. Havreko trena, ontziren batera joan nahi baldin bazuten, Saint-Lazaretik hamar minutu lehenago irtena zan. Ekialdeko geltokian, Estrasburgorakoa, hogeitun minutu barru ateratzekoa zan...

Ez zan nunbait Dedé landaldean edo basoan ezkutatu, laster atzemango zuten eta. Kanpoan zedukan gurdia, Presbourg kale ertzean. Eta pardelik gabe zijoazten. Agian, beribila bertan behera utziko zuten bazterren batean...

—Ez ezazula gehiago edan, Luzile. Ongi ezagutzen zaitut eta badakit azkenean ere zer egingo duzun, goitika egingo duzu, eta zamaua zikindu, eta hori ez da egokitasuna... Angelino, kontua ekartzazu!!

Eta Maigretek ordaintzera egin zuala-eta, ez ziola uzten adiraziko bailuan:

—Ez horixe, inolaz ere ez! Eşan dizut bada, senide arteko jaitxo zela...

Mila liberako txartelez beterik zegoan sakela zabaltzeko harro eta pozez zegoan. Kontuari begiratu ere ez zion egin, eta Angelinoren eskuetan bi txartel utzirik, ziotsan:

—To, gainetiko dena zuretzat bedi!

Maigretek gauza bat bakarra zuan gogoan, bere buruaren jabe izatea.

—Eta orain, gurea egin dezagun —zion Dedék—. Luzile gelto-kira eramango dugu eta gero Boben bila hasiko gara. Zer derizkiozu, Juli? Zutik egon zenezake? Albert gure adiskideak laguntzaile izan nahi du. Bai, gizona! Oratu egiozu, Albert. Nik egingo dut neskaren alde.

Hamaika eta erdiak ziran. Wagram alderdi hura argi motelez zegoan eta Ternes zelai aldean, ordea, argitasun gehiago zegoan. Nagusiak ikusmiran ziharduan haiek atera ziranean, eta kalean ziranekeo bat-batean jatsi zituan, itsumustuka, tegiko atea, barrenean beste hiru edo lau lagun zegozten bainan.

—Heldu egiozu, Albert. Ez dezala bere aurpegia itxusitu, bes-tela ez baitu ezagutuko Bob adiskideak. Alde hontara, jaun eta andreak!

Kale-ertzean poliziaren bat egon balitz, laguntasuna eskatuko zuan Maigretek, bai, bazekian ziur asko arriskuan zegoana. Argi-argiro esan zioten, arranopola!

Italiar jatetxe hartan sartu zaneko igarri zion gauzaren jokeri, arrisku handian sartu izana, eta atzerarik ezin egin.

Ez zan han inun agiri batere ertzainik. Beste aldean, norbaitzuen itzala ikusten zan. Han goian tranbia bat zegoan, bere bide azkenean, hutsik ordea, argi itun²⁰³ horixka zuela barrenean.

Laguntzaileak ez zutela tirorik egingo han, horixe zan Maigreten itxaropen urri bainan ez ziurra. Gurdiratu eta handik alde egiteko astia behar zuten ezertariko zarata edo iskanbilarik atera orduko.

Aiztoa edo labana sartuko ote? Bazitekean. Orduan asko ohitua zan era hori. Eta Albert zelako hark, behintzat ongi estutzen zion besoa, laguntzeko aitzakia aipatuaz. Eskoiko²⁰⁴ besoa, hale-re...

²⁰³ Itun: triste, goibel.

²⁰⁴ Eskoi: eskuma, eskuin.

Orduan, damu zuan hagitx, lehen, gurdiaren gurgipen bateko goma ziztatu eta zulatuta ez utzia. Polizia hura joan arte, pizka batean itxadon izan balu, gauza ederki erabakiko zan, noski.

Gauerdia hurbil zan. Tren bi ziran irtetekoak: Belgikarakoak Iparraldeko geltokitik, eta bestea Ventimiglia, Lyongotik. Bainan hau urruti samar zegoan.

Bere emaztea, han egongo zan nunbait zai eta zai, bitartean josten ekinaz. Justin Minard Clichyko Garagardotegian egongo zan, noski, arrabita beheitia joten, jotaldiaren izena agertu ostean. Germane haizatutzca iritxi ote zuan? Ez zuan hori uste Maigretek, garagardotegian bertan egongo zala baizik, eta zirularia ere hartaz nola askatuko bere buruari galdezka iruditzen zitzaion.

Presbourg kalean ez zegoan arinarik; ezta batere beribilik ere. Bai bat ordea, kolore arrea, ertzean gelditua, eta bertaratu eta laster jarri zuan bulzkina²⁰⁵ ibiltzen haren jabe Dedék, Luzile ere barrenean sartu eta gero.

Beste toki inorgabeagora eramane nahi al zuten, Sena ondora edo Saint-Martin erretenaren ertzera, gero bere gorpu hilotza uretara murgilarazteko...?

Ez zuan horraitio Maigretek hiltzeko gogorik, bainan etsita zegoan. Egingo zuan bai ahal zuana bere burua zaitutzeko eta aldezteko²⁰⁶; agian alperrik izango bazan ere, ezer gutxi zezakean-eta... Ezkerreko eskuaz giltz-mordoari heltzen zion sakel barruan.

Aurrera egin ezinik balebil gurdia, bederik! Zorigaitzez, zarraparra batzuen ondorean, gertu zegoan eta gurgipen gainean dardar zegian beribilak.

Harako ahuntz-larruzko soineko lodia esertoki gainean zegoan, eta Dedék ez zuan jantzi.

²⁰⁵ Bulzkin: motor.

²⁰⁶ Aldezku: babestu, defendatu.

Honek joko ote zuan goitik behera? Edota, ukabilkariak agian, Maigreten atzean baitzegoan, betiere eskumako besotik gogor helduaz?

Heldu zan bada, une latza, eta Maigretek otoi bat hasi zuan barnean:

—Ene Jaungoiko maite! Egizu...

Hitzotsa nabari zan, zorionez. Bi gizon, zerbel edo txolin samar zetozten Wagram karrikan behera, soineko lodi beltzez, makila-kirtenak sakelean hartuta eta aldi hartako kantu haietako doinu erdi isilez emanaz.

—Igan, Juli adiskide! —esan zion Dedék, itsumustu antzean esan ere, bainan Maigretek igarri zion bai esturasun hori.

Eta eskumako zangoa jasoaz batera, gurdira sartzeko asmoz, egundoko takarrekoa hartu zuan buru-buruan. Alabainan, burua uzkurtu zuan zertxobait, bere senak aginduta, zartakoa ez zan bete-betekoa izan. Norbaitzuen oinotsak entzun zituan, gero eta hurbilago, mintzoa ere bai, eta motor zakar haren zaratak... konorta galdu baino lehen.

Begiak ideki zituanean, lehendabizi zangoak eta zangoak ikusi zituan, oinetako beltzak, eta aurpegiak ere bai, ilunpe hartan kolorga eta itxuragabeak.

Lagun asko zegoala iruditu zitzaion, jendeketa gaitza, eta halarik ere, gerotxoago harriturik zegoan ingurukoak bost lagun baino ez zirala oharturik.

Haietarik bata, neskatxa bat zan gizen eta barea, arratsaldean hiru edo lau bider ere ikusi zuana. Beste biak, gautxoriak alazaina, eta haietarik bata galde eta galde ari zitzaion, zerbel-egoe-rak haizatua:

—Aizu, adiskide, hobeki al zagoz? Esaidazu, laguntzarra, hobeki, hobeki ote?

Morelili usaia ere sumatu zuan; nundik nora ordea zegoala usai hori? Ahalegin ere zuan ukondoaz zerbait jaiki nahirik. Gautxoriak ere lagun egiten zion. Orduan, lore-saltzaile zan atso bat ikusi zuan, honela ziola penaz eta hiletaz:

—Oraindaino ere, baditugu apatxe hoiek! Horrela jarraitzen badute...!

Ostatu bateko mutiko-mandataria, bere jantzi gorriaz, arineketan joan zan, ziola:

—Poli delakoaren bila noa.

—Hobeki al zagoz, adiskide?

Eta Maigretek lo eta esna batean, galdetu zion:

—Ze ordu da?

—Hamabiak eta bost.

—Telefonoz hitz egin behar dut.

—Bai, adiskide, bai. Berehalaxen. Oraintxe ekarriko dizugu urrutizkina. Hain zuzen ere bila joan dira.

Kapela gabe zegoan. Ileak kaskoari atxikiak zegozen. Albert gaizkin harek inolaz ere amerikar zartakoaz eman zion. Eta gautxori bi haiek etorri izan ez balira, ziur asko azkena ere hantxen emango zioten, eta Maigret uzkurtu eta makurtu ez balitz...

Berriz ere esan zuan:

—Beharreko dut telefonoz mintzatzea.

Nola hala hurean lau oinean jarri zan; burutik odol-tantak isuri zitzaizkion lurreraino, eta erdi mozkor haietako batek argiro zion:

—Mozkortuta dago hori, ordea! Bai parragarria ere! Oraindino mozkorrik...!

—Egiatan diotsut, behar-beharreko dudala...

—Telefonoz mintzatzea... Bai, bai, maite, bai. Entzun al duzu, Armand? Zoaz urrutizkinaren bila...

Neskatxa hura haserretu zan.

—Ez al duzute ikusten zartakoak tutuluturik²⁰⁷ utzi duana? Osatzaileren bat deitaraztea izango zenukete lan hobea...

—Ezagutzen al duzu bada, auzune hontan?

—Bai, bada bat hor l'Etoile kalean.

²⁰⁷ Tutulutu: durduzatu, tontotu.

Bazetorren ordea, ostatuko mutiko haura, bi ertzain txirringutulari lagun zituela. Besteak leku egin zuten. Eta ertzainak makurtu ziran Maigreten alboan.

—Nahitaez, telefonoz hitz egin behar dut.

Gauza bakana, benetan. Gau osoan mozkor usairik ez zuan izan, eta orduantxe hain zuzen ere, burua nahasi samar zedukan eta mingaina motel eta oztopoz bezala. Bainan asmo bakar bat bai, argi eta indartsu eta zorrotz zedukan...

—Poliziakoa naiz. Ikus ezazute nire sakela... Saint-Georges auzuneko. Premia bizi-bizikoa dugu Iparraldeko geltokira hots egitea, telefonoz alegia... Bruxellesko trenan, minutu gutxi barru... Gurdi batean joan dira...

Gas-argiongizaren hurbil, ertzain bat paperak ikusten ari zan.

—Bai, German, egia dugu.

—Adi ezazute: azkar ibili beharra dugu... Badituzte txartelak ere. Emazteki bat, beltzez jantzia, masailean zauriondoa du... Gizonezkoa, bata, laurkadun soinekoz. Bestea, sudurzanpatua da...

—Zeu al zoaz, German?

Polizietxe tipia ez zegoan urruti, l'Etoile kalean baizik. Erztzainetarik bat txirringutsean²⁰⁸ joan zan bizkor.

Eta ostatuko mandatari koskor hark, ez baitzekian osoro han gertatua, galdetu zuan:

—Gizon hau *bofiakoa* al da?

Maigret berriro ere korde gabe geratu zan, eta gautxoriak hitz-erdi totelez zion lehen bezala:

—Hori mozkortua dagola arras, horixe diot nik!

²⁰⁸ Txirringuts: bizikleta.

VII

MAIGRET ANDEREAREN IRRIPARRA

Ingurukoak esti jaurtiki, atzerantz itzuli nahi zituan, bainan ez zuan batere indarrrik bere besoetan. Bakarrrik eta bakean uzteko eskatuko zien. Esan al zien, esan? Ez zekian. Hainbat eta hainbat gauza zituan buruan, eta horregatik min ere sentitzen zuan.

Bere asmoa zut eta indartsu zegoan ordea; berak hasi bilaketa, berberak amaitu behar zuala...! Utziko al zioten azkeneraino heltzen? Azkeneraino, zeren azkeneraino, ordea? Jainko lastan, jendea burugogorra da, eta ez daki behingoan deus ere ulertzen.

Azkeneraino, bai!

Halarik ere une bezala, haur txiki antzean hartzen dute, edo eri bat bezala. Ez diote bere asmo eta iritzirik eskatzen. Eta gainera gauzarik apalgarriena, hitz goraz eta mintzo ozenez ari dira beraren gertakariaz hitz eta pitz, gorra edo burumotela bailitzan. Zergatik gelditu dala, baiman, lurrean luze, zanpatutako har edo mamorro kaxkarraren antzera? Eta zeinbat zango beraren inguru...! Eta zer, gero? Handik lasterrera, eritegiko beribila ekarrazite dute. Sumatu du zer gurdi dan, eta asaldatu ez du han sartu nahi. Buruan kankarrekoa²⁰⁹ hartu duala-eta, nahitaez eritegira eramane behar dutela, zer dala-eta?

²⁰⁹ Kankarreko: kaskarreko, kolpe.

Beaujoneko atadi ilunbezua ezagutu du bai aguro, eta barre-neko argi dizdizuak²¹⁰ min egiten diote begietan; lagunak batera-bestera dabiltz, eta gazte bat, luzca goitik beherako soineko edo txirikonaz²¹¹, iseka antzean, lasai.

Han egon beharra zuan egun hartako ikasle edo ikasia zan gazte hura, numbait. Emazteki geisozai batek ilea ebaki zion borobilkiro buru gainean, eta gazte hark arinkeria goxoak esaten zizkion. Jantzi txuri hartaz oso polita zegoan neskatxa...

Ez zuan gure gizonak goitikarik egin, bainan egin zuan, eter delakoaren indarrez.

Eta gazte hark esan zuan bere artean: «Ongi dagokio ikasbi-de hau».

Zer da ordea, edaten eman nahi dioten edari hori? Uko egin du, ez duela horrelako edaririk ez nahi ez behar. Bere gogoeta egin behar du, hori bai. Ertzain txirindulari hark ez die agian esan hura ere isileko polizia zanik, hain zuzen ere gora haundiko bilaketa batean ari dena, ezkutuko bilaketa batean...

Inork ere ez dio jaramonik egiten. Ai, komisari jaunak du crru osoa; bidea erakutsi eta hark ez nahi jarraitu. Eta Maigret anderea, beraren emazte maitea, zergatik ari izan da irriparras...?

Bai, ziur dago bai parra egin duana, parra berezi bat, artean ezagutzen ez zuana, alegia. Geroago luzaroan hara eta hona ibili da gela hartan, isilka, zaratarik tipiena ere egin nahi ezta.

Ongi jokatu al du! Eta nola bestela egingo zuan? Utzi, utzi gizonari bere buruko asmoak zabaldu nahi ditu eta. Eta eman papertxo bat, baita arkatz bat ere. Edozein paper berdin dio. Aski baitu buruketaren haria hedatzeko, asmoaren muina agertzeko.

Eman dezagun lerro hauxe Chaptal kalea dela. Laburra oso, bai... Ongi da. Gaueko ordu batak jo berri ditugu, kalean ez dago munduko arimarik.

²¹⁰ Dizdizu: distiratsu, dirdiratsu.

²¹¹ Txirikon: tunika.

Barka, ordea. Norbait dago bai. Dedé, bere gurdian sartua, zai. Ohar ezazu: ez du honek gurdiaren bultzakina lotu, ez. Hortarako bi zio izanen ditu: edota puska batean gelditu izan da, edo laster eta usu alde egin beharra jakin du. Eta izan ere, eguraldia hotz samarra denean, gurdiak –aprileko gauak hozkirriak dira oso egiatan– hasi nahi ezta egon ohi dira.

Isilik zagozte, eta ez eten gizonaren asmoa! Lerroa hor dugu, beraz. Orain laurka edo kuadru tipi bat Balthazartarren etxea erakusteko. Balthazar diot, Gendreautarrak baino beste izen aipaturik baita lehenbiziko hori. Bai, guzti hau Balthazar baizik ez da: Balthazar sendia, Balthazar dirua, Balthazar drama...

Dedéren gurdia han egoteko, badu zergatik han egon. Noski. Agian, kondea eraman du hara eta kanporakoan ere hartu behar du.

Cauza hau latza da, kontuzkoa. Ez eten bada, etorria. Zertarako zapiak-eta buruan ipini, eta ura irakin sukaldean? Hortan ari baitira, ura irakiten. Eta irakin eta irakin, aspertu eragin arte, eta pentsatzea eragotzi...

Beste batzuetan, kondea Lisagana joaten zanetan, Dedérekin joaten ote zan?

Horixe jakitea oso egoki litzake, benetan. Eta horrela ez balitz, agerraldi haura, goizaldeko ordu batetan gauza berezia zan eta asmo bedegarren²¹² batez egina.

Zergatik, ordea, parras ari izan zan beraren emaztea? Ezer parragarririk al dago gertaera gogor hontan? Gautxoriekin batean ibili izan dela uste izan al du? Eta gonadumekin ere?

Justin Minard bai egon da Germanerekin. Ez du honek numbait behingoan utziko gizon gaiso hura; arbinduko du, atsekabetuko du zati batean. Eta Karmen hura? Behin ere ez du ikusi bada-ta... Eta zeinbat eta zeinbat lagun ez ditu behin ere ikusi?

²¹² Bedegar: berezi, aparteko.

Ez, ez da bidezko gauza. Isileko eta ezkutuko bilaketa bat egin behar denean, edonor eta edonun ibilteko baimena eta eskua behar da; edonor ezagutu, edozer ikusi...

Itzuli, arren, lapiztxoa. Laurka hau gela da. Lisaren logela, jakina, ba. Hango errediza²¹³ eta altzariak ez dute zerikusirik. Alperrik da zerok marraz iruditutzea, nahasiago egingo luke eta. Soil-soilik gaueko mahaitxoa hemen, eta barruan edo haren gainean pistola ipini behar dugu.

Eta orain, beste zertxo bat: Lisa ohean zegoan ala oheratu gabe? Kondearen zai zegoan ala ez zegoan? Ohean egon balitz, mahaitxoaren kutxatik atera izango zuan pistolatxoa.

Ai, bainan zergatik estutzen diote burua? Ezin liteke inolaz ere ezer pentsatu buru gainean gauza astuna ezarten baldin badiote!

Nolatan, ordea? Eguna al da dagoeneko? Nor da hor dagoen gizon hori?

Gela hartan gizon bat dago, gizon errokitza²¹⁴, tipia, burusoi-la, ezagutzen du, eta halarik ere izena ezin oroit. Maigreten emazteak isilka hitz egiten du, ahopeka. Hotza dan zerbait jarri dio ahoan.

Arren, bada, jaunok! Laster joan beharko du auzitegira aitorpena egitera eta orduan totel-motel ari izatez gero, Lisa Gendreauk parra egingo du lasai, adarra joko dio, eta ezjakin bat dela esango dio, ez baita Hoche Bilerakoa ere...

Berriz ere, puska hartara jo beharra dugu. Hemen, tilet²¹⁵ bat: Lisa da horixe. Honen sendian emakumeak bakarrik hartu dute Balthazar zaharraren aiurri²¹⁶ eta mendua, Oihaneko agure bakartiaren alabak eta haren alabak. Berberak esan zuen, eta bazekian, alafede!

²¹³ Errediza: tresna.

²¹⁴ Errokitz: baxuto, zaparrote.

²¹⁵ Tilet: puntu.

²¹⁶ Aiurri: izacra.

Eta hontan, zer dala-eta doa leihorantz, errezelak bildu eta hel-oihuz eta laguntza-deidarrez hasteko?

—Itxaron ezazu, komisari jauna. Ez dezazula ahantz gure Minard, zirularia, honek aldatu eta haizatu baitu gertakaria osoro...

Anartean, ez zuan inork ere etxetik alde egin, Minardek atea jo zuaneko. Eta Luis delakoaz hizketan ari delarik, gizonezko batek hots egin dio mailadi goitik:

—Aguro, ba, Luis!

Dedéren gurdi-antsiak...! Bai, bainan ez. Ez zuan osoro alde egin. Etxe-mordoari ingurubira egin zion. Eta horrek zer dio? Dedé norbait zai zegoala.

Berriz kalera zanean Dedé, handik iragan egin zan, ala gelditu ere bai? Eta zai zegoanez, heldu ote zitzaion beste nor haura?

Bainan, bainan! Utzi gizonari baketan, arren!! Ez du gehiago ezertxo ere edan nahi. Aski du lehengoaz ere. Lanean ari da eta. Entzuten? «La-ne-an» ari da.

Osatu dezagun harila, berrosatu alegia.

Bero da, sukar-antxa nurbait. Eta ezinegona. Ez du inoren isekarik eramango, ez eta emaztearenik ere. Negargarri ere bada, egiatan! Ederki apaldu eta beheratu dute, bai egundo bada! Kaleertzean lurrean eserita egon dala-eta, honenbeste iseka eta erdeinu gizonari! Horraitio...!

Ez diote sekulan emango beste bilaketarik. Hau egiteko esaten ere, bazuten, bai, nahikoa ezbai eta zalantza. Bere errua al da, gero, norbaitzuen berri jakiteko haiekin noiz edo behin zurrut eta zurrut ari behar izatea?

—Juli!!

Hori entzunik buruaz ezezkoa egin du.

—Juli! Esna zaitte...

Haiek zigortu nahi ditu eta, begirik idiki ere. Matelezurrak estutu egin ditu. Haren aurpegiak izu-ikara emango du, noski.

—Juli, zera da-eta...

Eta beste mintzo batek honela dio:

—Ene Maigret maiteori!

Asmo bertan behera utzi du. Eta jauzi bat eginik, ijutiz²¹⁷ goratuaz sapaia jo bailuan, eskuak burura daramazki, eta orduan mantar eta zapiz betea dagola jakin du.

—Barka, komisari jaunorrek.

—Zuk barkatu baldin iratzarri bazaitut.

—Ez, bada, ez naiz lo egon...

Han zegoan bere emaztea, irriñoa ezpainetan orain ere, eta Le Bretek ikusten ez zuela, keinu batzuk egiten dizkio senarrari, honek ulertu ez arren.

—Ze ordu dugu?

—Hamar eta erdiak. Nire lekura heldu bezin laster jakin dut gertatua.

—Egin al dute agiri edo parteren bat?

Holakorik, agiri bat bere buruatzaz! Hori apalgarria da benetan. Berberak egiten baitzitian agiri horiek, eta nork ez zekian hobeki nola egin eta zer esan...! Adibidez: «Bart, hamaikak eta berrogeta bostean, Wagram alderdian ari ginalarik gure ikusketak egiten, dei egin digute...».

Eta gero honako hitzok: «... gizon bat luze zegoan lurcan, kale-albenian, eta izenez Maigret, Juli, Amadeo, François».

Komisari jauna zaloi²¹⁸, lerdan, burgoi dago, soineko arrea eta lore bat paparrean. Haren arnasak Porto usai goiztarra du.

—Iparraldeko geltokiko polizigizonek atxitu dituzte gaizkinak.

Apoxar²¹⁹! Haietaz erdi ahazturik baitzegoan! Harako zirulariak bezala, bazuan barruko zirrikada honela esateko:

—Ez dio axolarik!

²¹⁷ Ijuti: salto, jauzi.

²¹⁸ Zaloi: artez, *rozagante*.

²¹⁹ Apoxar!: arraiol!, arraiopola!

Eta egia zan. Ez Dedé, ez Luzile eta ez ukabilkari hura, burua zaupatu nahi izan zion gaizkin hura, hoiak ez ziran inortxo ere.

Bere nagusiaren aurrean ohean sartuta egoteak narda ematen zion eta zango bat kanpora atera zuan.

—Ez zaitte batere higitu.

—Ongi nagola sinista ezadazu.

—Osatzaileak ere horrela uste du. Bainan, nolana ere, atsenden-egun batzuen beharrez zagoz.

—Bai zera! Ez horrelakorik!

Ai, berak astirik galtzeke hasitako bilaketa esku artetik ostu nahi diote. Ulertu du bai, arranotan. Bainan ez du horrelakorik laketuko, ez horixe.

—Zagoz baketsu, Maigret.

—Bai, baketsu nago. Bainan badakit nik zer diodan. Ez dut ezertariko oztoporik ibilteko, hemendik kanporatzeko.

—Ez da, ordea, arineko gauza. Bai, badakit zure aguro egin beharreko gogoia, bainan egingo dugu bai zuk nahi duzun ahalegina zure bilaketa lan horri buruz.

«Zure» bilaketa esan du, horraitio, nagusia munduko gizon garaitua baita. Eta zigarrotxo bat isiotuaz, Maigreten emazteari begirakune bat egin zion, zerbait lotsaz edo nahasmenduz.

—Ez hortaz arduratu. Nire senarrak goizetik gaueraino ekiten dio pipa hartzen, baita ohean dagoelarik ere.

—Emaidazu pipa bat, beraz.

—Bainan zuk uste al duzu...?

—Ez erretekorik esan al du osatzaileak?

—Ez du hortaz inkik atera.

—Horrela izaki...

Eta senarraren sakeletan aurkitu izan dituen zer guztiak mahaitxoaren gainean ipini ditu lerro-lerro, eta pipa bat hartuaz eman dio eta baita misto bat ere.

—Hor uzten zaituztet —esanaz, sukaldera joan da emazte maratza.

Maigret hor duzu gau hartan buruan erabili dituan gorabehera guztiak oroimenera eratorri nahirik. Halako gomuta ilun, ziur eza besterik ez du, eta halarik ere egiaren hurbil-hurbila egon dala sinisturik dago. Maxim Le Bret alkian eseria dugu, eta buruhaustez betea dirudi. Eta batez ere, bere zadorlariak, zinkurin artean geldi-geldiro esan dionean:

—Anseval kondea hil da.

—Ziur al zagoz?

—Ez dut argibiderik eta ezaugarririk, baina zin egingo nuke, zin.

—Hila... Eta nola, bada?

—Pistola haren danbada hark hartu zuan, hark, bala hura.

—Chaptal kalean, noski?

Baietz esan zuan Maigretek buruaz.

—Eta Rikard Gendreau uste al duzu...

Bainan galdera hori zehatzegia zan, alazaina. Maigret ez da horren uruti heldu, oraindaino. Gogoan du harako laurkatxoa, puntu eta xakiz hornitua.

—Gaueko mahaitxoaren kutxan edota mahai gainean pistola bat zegoan. Lisa Gendreaux laguntza-deiadarra egin zuan leihoa idekiaz. Gero, etxe barruratz egotzi zuten. Eta, azkenez, tirotsa izan zan.

—Eta Dedék zer du zerikusi istorio hontan?

—A!, hura kalean zegoan, Dion-Bouton gurdia erabiltzaila, zai eta gertu egon ere.

—Aitortu al du?

—Ez da haren aitorkuntza beharrik.

—Eta andre hori?

—Kondearen adiskidea edo emaztegia duzu. Bob, izen hortaz zeritzaten kondeari. Bainan gauza hoiak nik bezin ongi dakizkizu...

Buruan zedukan sorki edo moltso hura kentzeko gogo bizia zuan behintzat Maigretek, parragarri zegoala uste baitzuan.

—Eta nun dagoz hoiak? —galdegin du.

—Hor dagoz, atxiloturik, eta laster...

—Laster, zer?

—Oraingoan, kalean eta iskiluz zauriketa egin dutela-eta, horren errudun dira. Eta gero, beharbada, lapurreta egin dutelako-edo, salakuntza egin genezaioke.

—Zergatik, ordea? —deitu zion Maigretek.

—Dedé deritzan horrek mila liberako berrogeta bederatzi txartel zeduzkan bere sakelean.

—Ez ziran ostuak, ordea.

Eta komisari jaunak asmatu du nunbait haren buruera, aurpegia lehen baino ilunago jarri du eta.

—Eman egin zizkiotela uste al duzu?

—Bai.

—Isil zedin, agian?

—Bai. Atzo arratsalde osoan alperrik ibili nintzan haren bila; ezin inun ere idoro.

Azalera zanean, era hortan zegoan: pozik, oso pozik, bere sakelak gainezka jarri zituan diru-mordoaren zati bat xahutu arte, urduri eta geraka. Eta Luzile, bere senartzakoaren heriotzaz negar eta negar ari zan bitartean, Dedé atseginez zebilen ondasun-sortaren jabetasuna ospatu beharrez. Neu nengoan haiekin...!

Le Bret gaisoa! Maigreten aldakuntzaz ezin zuan etsi, inola ere. Honela gertatzen zaie maiz gurasoei ere; semeak haur direla, beti ume izango dirala uste izan, eta horra, ba!, bat-batean gizontxo edo anderetxo eginik, beraien hizketari jarraituaz eta egiak zirti-zarta esanaz...

Nork daki? Hari begira, Maigretek badu halako goganbeharra bere barnean. Eta peku hori, ezarian-ezarian, egia bihurtzen ikusten du.

Ez du zalantzarik, ez. Bilaketa hori egiteko agindu bazioten, ezer gauza garbirik ez zuala aterako eta, agindu zioten, nunbait.

Horrela gertatu izan dira bai gertakariak. Le Bret jauna, gizarte haundiko gizon izanik, ez da batere zale beste bere mailako norbaiti ezertariko kalterik edo gaitz tipienik egin dezaioten,

bilerako adiskide eta laguneri, alegia, eta batez ere, emaztearen adiskide mamiari, Balthazartarren oinordeko andereño gazteari.

Zorigaitzeko zirulari zikina ez bestena! Zer zuan hark zer sartu muturrik batere axola ez zion arazo hartan...!

Eta gizarte-maila gorenetan gertatzen denaz, Chaptal kaleko etxe eder berezi baten gertatuaz, zer dute zerikusi egunkariak, herri-jendeak, ez epaizaritzako gizonak (hauek herri-gizon apalak gehienak, dendari tipiak edota bankuetxeko gizonak)?

Bainan, dena dela, Le Bret, komisari izanik, ezin inolaz ere bideak hausten ari bere zadorlariak egindako salakuntzari.

—«Ongi ulertu ezazu, Maigret maiteorrek...»

Zuhur-zuhurki jokatu beharra, alegia. Iskanbila eta zalaparrta gabe, gurbilki²²⁰, isilka. Gauzarik onena horixe baitzan: Maigretrek ez zezala ezcren aztarnarik atera. Eta gero, egun batzuen buruan, irriparra gozo eta barkatzailez hartu izango zukean komisaritegian: «Hemen ez da ezertxo ere gertatu, adiskide. Bainan, ez zaiteala horregatik uzkuritu eta mukurtu. Zuk egin duzu ahal izan duzuna, bai? Ez duzu zuk batere errurik halako zirulari hark, ilargiak jotako hark, ametsen bat izan duala-eta egiaztat hartu izana. Tira, ba, zoaz orain berriro zure lekura. Hurren bilaketa zuretzat izango dela jakin ezazu, ordea...».

Bainan... Orain artega eta arbindurik dago, bai arraioak ez badu...! Eta une larri hartan Maigretrek burua uzkuritu zuanean egin ez balu, nahiago ez ote zukean haren nagusiak, kankarrekoa izugarriago izan zedin. Hala izanik, egunetan edota asteetan ere egon behar izango zukean Maigretrek, ezertarako ez zala...

Nola demorrio²²¹ agertarazi duela gizontxo honek honako nahaspila ikaragarri hau?

Eta isil-misil, estul xumea egin ondorean ekin dio:

—Labur esan, Rikard Gendreau crailea dela salatu nahi duzu zuk.

²²⁰ Gurbilki: txukun, garbi.

²²¹ Demorrio: arraio.

—Ez diot nik hain zuzen, bera izan danik. Baliteke haren arreba izatea tiro egin zuana. Eta baliteke Luis izatea ere. Ez ezazula ahaztu: zirulariak atean hots egin zuan, eta gero luzaroan ate-joka ari izan zan, harik eta ideki arte, eta etxegizona osoro jantzita agertu izan zitzaion, gaineko apainez.

Ene!, nolabaiteko itxaropen-izpia zetorkion. Eta tiro-egilea etxeko gizona edo morroia izan balitz...?

—Eta azkenengo uste hauxe balitz egiazkoa? Ez al da hauxe egoki edo ziurrena, buruko argiz iritziaz?

Gorri-gorri egin zan, ordea, Maigret akio-makio²²² begira baitzegokion... Eta solasa arinkeriaz nahastu nahi zuan, harrezkero.

—Nire aldetik, gorabehera hau honela ikusi nahi nuke nik.

Eta nagusiaren «nahi» hori ohartu du Maigretrek, eta hizketa aurrera darama.

—Ez dakit kondeak zer egin zuan etxe hartan.

—Ez zi Joan hara lehenbiziko aldiz, noski.

—Esan didazu, eta orain ez naiz harritzen. Zoroa zan hura, buruarina. Haren aita, dirubagetua zan bainan halako lotsa eta begirapenez bizi zan. Latino Auzoan etxe apalean bizi zan, eta gaztaroan ezagututako adiskideen iges ibiltan zan, ezikusit eginaz.

—Lanik egiten al zuan?

—Ez, hori ez.

—Nola bizi zan, ba?

—Gelditu zitzaizkion gauzak apurka-apurka salduaz: laurka eta kuadrak, sendikoen bitxiak eta gauza ederrak, toxaren bat... Baliteke haren aitaren adiskide izandakoren batek, harekin chizean eta gazteluan ibilitakoren batek zerbaiska diru biali izatea, isil-isilpean. Hau ordea, Bob delako hori, anarkista antzeko eginik zebilen. Tokirik gaiztoenetan eta badaezpadakoetan zebilen. Aldi batean, Voisin delako jatetxean zegoan morroe egon ere, eta etxe-

²²² Akio-makio: etengabe.

koen adiskide ziranei kezka eta nahasbide ematearren, alegia, eskupekoen zai. Gero eta beherago zijoan, azkenez horra, Luzile eta Dedéren sailean sartu dan arte. Bainan, zer esaten ari nintzan?

Eta Maigret, isil dago, ez dio lagunik egin nahi haren solasa zuzentzeko.

—A, bai, bai! Eta gau hartan, nunbait, Gendreautarren etxera asmo onez ez zan joan izango.

—Zergatik?

—Dedé hori lagun zuela joan zalako, kalean zai baitzegoan, eta gurdia bultzakina geratu ere egin gabe.

—Halarik ere, etxean haren zai zegozten.

—Nola dakizu hori?

—Bestela, zer dala-eta utziko zioten andereñoaren gelara joaten gauzez, eta Luis zergatik zegoan anartean oso jantzirik gaueko ordu batetan?

—Eman dezagun haren zai zegoztela, eta bazutela hortarako gogo ona; edota harek gaztigatu edo iragarri ziela agerraldi egitea.

—Nun baina? Coian, logelan ordea?

—Horra, ba! Lisa arinkeriaz ari izan dala ere, emagun bada.

—Tira, ba, tira! Biok ere zorakeriaz ibili al dira! Dena dela, hura ere Anseval izenaren jabea duzu, alegia, eta Balthazartarrok crosi duten gazteluaren jabea haren aitona zan, hauek haren maizter baserritarrak besterik ez ziranean...

—Eta pitxi-saltzailearen biloba, horrek bigunduko al zuan?

—Zergatik ez, bada? Baliteke beste gauzarik ere: harek hartutako galbidetik ateratzca nahi izatea.

Zer dala-eta dago gero eta haserretuago gure Maigret? Berak egindako bilaketa hura aldatuxe, itxurakatu utzi nahi dutela sumatzen du. Komisari jaunaren hizkera ez zaio batere gogoko, maisu bezala ari baita gauzak zuzendu beharrez.

—Beste izan-antzik²²³ ere badugu hemen.

²²³ Izan-antz: aukera, posibilitate.

—Zer, gero?

—Ondasunari, izen haundi edo titulu bat eman nahi izatea Lisak. Ansevalgo gaztelua crosi, lehendabizikoz, bainan han kanpotar bezala uste izatea, bere burua arrotz bezala edukitzea bazitekean... Nik ere, badakit zer dan horrelako aldaketa. Gaztelu baten itzalpean bizi izana nauzu nire haurtzaroan, ene aita arduraduna baitzan gaztelu hartan. Aberats egin berri ziran batzuen lorrak²²⁴, ehizera-eta joateko hitza noiz entzungo zebiltzanak...!

—Orduan, zuk uste-edo duzu honek nahi zuala ezkondu...

—Ansevaltar Bobekin? Zergatik ez, ba?

—Ez dut hontaz eztabaika hasi nahi. Bainan iritzi larregizkoa dela uste dut, noski...

—Neskameak ez du, ordea, zure uste hori.

—Neskameari galdetu al diozu, nik zuri...

Esan hurren isildu zan, honelatsu edo:

—Nik zuri holakorik ez egiteko agindu arren.

Eta hori esan balu, badakigu esanahia:

—Nire aginduak bazterreratuaz...!

Bainan, ez zuan batere hitzik egin, eta orduan Maigretrek jarraitu zuan:

—Atxiloturik bezala dagola esan liteke. Hemendik berbertan dago neskame hori.

—Barruko gauza asko azaldu al dizkizu?

—Honek ez daki gauza ziurrik, bainan andereñoa kondesa bihurtzeko gogo dagola.

Le Bret jaunak etsiaren sinua egin du; bere mailakoak beti garbi haundikiro ari dirala sinistu nahi du eta ez beste gauzarik.

—Tira, ba, ontzat hartu dezagun hori ere. Bainan horrek ez du ezer aldatzen. Zuk, ordea, esan ezazu nirekin batean Bob hori ez dala gizon jatorra bezala ari izan, apika...

²²⁴ Lor: neke, esfortzu.

—Ez dakigu zer gertatu izan zan etxean; tiro egin zutela bai, alegia.

—Zure burueraren azkena, nirearen pare da. Gizon hura ez zan ongi portatu, agian. Neskaren neba etxean dago, morroia ere bai. Neskak dei egin du, laguntza eskatu du. Biotarik batek entzun du, itsunustuan igon da, eta esturatsun hartan, pistola hartu du, zuk esan duzunez, mahaitxo gainean zegoalako.

Oraingoan Maigret batera dator, dirudianez. Bainan ememeki galdetzen dio, pipari teinkada gozo luze eginaz:

—Zuk zer egingo gizon haren lekuan? Hor duzu oraindio pistola eskuan, iskilua ke-jario, egunkariak agertzen duten araura. Lurrean gizon bat, hilik edo zaurihandi²²⁵.

—Gizon bat zauriturik dagola jakin ezker, mirikua deitara-zi, alegia.

—Ez zuten, bada, horrelakorik egin.

—Beraz, hilik zegoala uste duzu egiatan ere?

Maigret bere buruketari arnasa eginaz zegoan, lasa, egonarriz, eta zion:

—Hontan, beheko atean hots egin dute. Hel-oihua entzun duan gizon bat da, bere bidean zijoan bat.

—Tira, ba, Maigret laztanori, jakin ezazu horraitio ez dela gauza egokia bakoitzaren arloetan sartzea ezagun ez dan norbait.

—Eta mailadi goitik, hots egiten dute berehalakoan estu eta larri: «Bizkor Luis, aguro!». Zer esan nahi du horrek?

Elkarrizketa horren buruzagi eginik zegoan, eta bakoitzaren sailak aldatuak, gainera. Nagusia gero eta kezkatuago zegoan.

—Gizon hura ez zegoan, agian, oso hila. Eta Lisa, nork daki?, halako larrialdiak jota, egon ezinik, estu, artega. Ez dakit nik behintzat. Horrelako une batean, zorabiatu egotea ez da harritzeko.

²²⁵ Zaurihandi: zauritu larri.

—Luisek kalera egotzi zuan halako zirularia, musu-musuan ukabilkada gozoa emanaz.

—Gaizki egin zuan.

—Eta ez zegozten zorabiatu, ez. Harako masailekoa edo muturrekoa hartu zuana polizia bila joango zala sumatu zuten, nunbait, eta laster azalduko zirala guretakoak.

—Zuk egin zenuan horixe, hain zuzen.

—Minutu gutxi izan zuten ezertarako. Agintarieri dei egin bazioten, honclatsu esanaz: «Hauxe eta hauxe gertatu izan da. Hau ez da erailketa inolaz ere, gertatu dan ezbehar bat baizik. Gu zemaituaz ari izan dan gizon oker hau ezertarako ez dela uztea behin-behingo, horixe baizik ez zan gure asmoa...».

—Zuk horrela egingo zenuala uste dut nik, ene komisari jauna.

Eta gauza nola aldatu dan, lantokian egon orde bere gelan eta bere ohean dagolako! Komisaritegiko ate biguinaren atzean nork esan halakorik? Ezta laurdenik ere, zinez. Buruan sekulako min haundia zuan, bainan orduan ez zuen horren ardurarik. Agian, haren emaztea bildurtuta egon izango zan sukaldean, horren bare eta nare mintzatzen baitzan bere senarra. Bare, bainan batzuetan zorrotz eta zirikalari ere bai.

—Beraz, komisari jauna, hauxe egin zuten haiek: lehendabizi, hila edo zaurihaundia norabaitera sartu zuten. Ukuiluaren gain dagozan gelaren batera, nunbait, hoiek izan baitziran soilik niri erakutsi ez zizkidaten lekuak.

—Hori zure uste bat besterik ez da.

—Ustea bai, bainan oinarria hau da: hilotza ez zegoala han ni heldu nintzanean.

—Eta Bob, inoren laguntza gabe joan balitz etxe hartatik?

—Haren adiskide Dedék ez zituan atzo berrogeta hamar mila liberarik edukiko, eta ezta Luzilerekin Belgikara joateko asmorik ere.

—Baliteke zu zuzen egotea.

—Horrela, ba, Chaptal kaleko sendi horrek ordu erdi bat besterik ez du izan gorabeherak antolatzeko. Gauzak egoki jarri ditu

eta ezeren aztamarik ez du inun agirian behintzat utzi. Eta asmo berebizikoa eta burutsua ere izan dute. Zirulariaren aitordpena ezeretutzeko egoki asmatu dute: hark esandako gela hura hutsik dago, han ez dago inor, harek esan duana asmakizun bat baizik ez da, egon ere mozkorrik baitago, gautxori bat bezala... Bazuan beste alde onik ere. Lisa Gendreau artega, bere senetik irtenda zegoan, nunbait, esan ohi dugunez. Ohean zegoala-eta, horrela erakutsi poliziakoari, eta lo arean ere? Jaikita agertarazi, eta ezertxo ere entzun ez zuela aitortu eragin?

»Han sartu zuten gela batean, neskamearen gelan, alegia, hutsik zegoan eta. Komisaritegitik zetorren gizarajoak zer ezagutu ez igarri behar zuan etxe hartakoen berririk? Aski zan kanpoan zela esatea, Nièvre gazteluan zegoala, alazaina: ezer entzun ez ikusi! Tirotsak, nondik ordea? Gaueko ordu batetan kalez kale dabiltzanak ez dagoz bare eta lasa, buruzoratuak edo kezka izutuak baizik...

»Bihar, egunez, nork esango du ezer Gendreau-Balthazartarren aurka?

—Bai gogor zaudela, Maigret.

Hasperen bat egin zuan eta jaiki zan nagusi jauna.

—Bainan, baliteke zu zuzen egotea. Orain, behinik behin, Poliziako buruzagiaz mintzatzeren noa.

—Nahitaezkoa dela uste al duzu?

—Heriotza bat izan baldin bada, zuk sinistarazi didazunez...

—Ene komisari jauna! —oihu egin zion Maigretrek, ahots marrantatuz²²⁶, eskariz.

—Esaidazu, ba...

—Hogeta lau ordu ez al nahi duzu itxadon?

—Lehentxeago erdi haserrez egon zara, ba, ni astiro nebilela-eta...

—Jaiki neitekeela sinista ezadazu, arren. Ikus ezazu.

²²⁶ Marrantatu: zakar, *rouco*.

Eta Le Bretek ezezkoa adirazi ziolarik ere, maindireak alde batera egin, eta burua zerbait astundua zuela, zutik jarri zan, nahasi samar nagusiaren aurrean oheko jaunzki luzeaz zegoalako.

—Nire lehendabiziko bilaketa baita...!

—Eta nik, nire zorion-agurra agertzen dizut erakutsi duzun gogo eta garra dela-eta.

—Eta Sûreté delakoaren gain uzten baldin baduzu, nagusiaren sailak bukatuko nahaspila hau.

—Bai noski. Batez ere, Bob hori hila baldin bada, haren gorpua aurkitu beharra dugu eta lehenbailehen.

—Hila denez geroz, itxadon dezake, ez al da egia?

Bakoitzaren arloak aldatuak ditugu berriz ere, eta orain komisari jaunak irriparra agertzen du, beste aldera begiratuaz.

Eta Maigret, lehentxeago zorrotz eta gogor, lotarako soineko luzeaz jantzia agiri da, idunekoa hari gorritz josia, eskeini izan diotena lortu hurren zegoala esku-hutsik gelditu dan une handi baten antzera...

—Ez dut behar buruan honelako mantar edo oihaltzarrik.

Eta buruan dituan lotura eta lokarriak kendu eta jaurti nahi ditu.

—Etxetik irten eta nik bakarrik buka dezaket bilaketa hau. Dedé eta Luzileri galdetzea aski dut. Honi batez ere. Zer esan dute hoiek?

—Goizeon, tegiko komisari zegoanak itaundu dioncan, Dedék esan omen du: «Juli hil al da?». Zu izango noski, Juli hori...

—Bihar, sasoe hontarako garaitza iritxi ezik, Sûretéren eskuetan utzi dezakezu gertakari hau, komisari jauna.

Maigreten emazteak atea idiki zuan, eta txunditurik lotu zan senarra zutik ikusirik.

Une hartan, atean hots egin zuten. Emaztea joan zan nor ote zan, eta berehala itzuli zan, bakarrik ordea. Eta orduan senarrak ziotsan:

—Nor izan da?

Emazteak sinu bat egin zion, eta hark aditu ez baitzion, eta berriz galdetu, etsi-etsian esan zuan:

—Musikari duzu.

—Banoa —esan zuan Le Bretek—. Egiatan ere ez dezakezut uka eskatzen didazuna.

—Barkatu, komisari jaunorrek. Baita hau ere nahi nuke: gauza honela jarri baita, eta Sûretékoek egingo baitute, utziko al didazu beharrizanik balitz Cendreau andereñoari ere galde egingen?

—Arreta haundiz egingo duzula uste dut. Batez ere, zaite zuhur, zaite arduratsu:

Maigreten aurpegiak diz-diz egiten du pozaren pozez. Kanpoko atcaren hotsa entzun bezin laster, galtzen bila ari dan artean, Justin Minard sartu da haren gelan, Maigreten emaztea ondorik duela.

Taiu negargarrian agertu da gure zirularia, urduri, kezkaz.

—Zauriturik al zagoz?

—Ez-edo...

—Berri txarra eman behar dizut.

—Esan ezazu.

—Joan dala!

Maigretek irri-karkaxari eutsi nahi dio. Parragarria ere baita gizonaren itxura.

—Noiz, ordea?

—Bart. Clichy Garagardotegira joan nahi zuela, ba, musikazale itsua zela, eta ni soinua joten ikusteko amorratzen zegoala...

Maigreten emaztea ere hantxen aurrean gerta, eta ezin, ba, musikariak nahi zuana argi eta garbi esan. Eta orduan, gure andre maratza berriz ere sukalderatu da.

—Zu nire galdez etorri zinanean egon zinan esertokian zegoan. Ni larri eta estu nengoan. Egun hartan ni etxera joan ez bazkaltzera, eta gero ere ez, eta bildurretan, ba, nire emaztearen irudia noiz ikusiko...

—Eta hara joan al zau?

—Bai.

—Eta biek elkarri azalpenak eman?

—Gure crespunko²²⁷ jotaldi biren bitartean. Ni ere mahai inguru eseria negoan. Nire emazteak lehendabizi kapelatik oratu zion Germaneri, eta gero ile-sortatik tiraka hasi zitzaion...

—Eta kalera egotzi zituzten, noski?

—Bai, biak. Ni orduko berriro ere nire tokian nengoan soinua joteko gertu. Eta orkesta hasi zan soinua jotenean, iskanbila hura isilarazteko; ontzia itsasoan ondora dijoanean bezala, ezta? Gure jotaldia bukatzerakoan, hango ugazaba etorri zitzaidan nire... emaztekiak ikustera, esan zidan: «Zoaz, hor baitaude».

—Kalcan al zegozten zure begira?

—Bat bakarra, nire emaztea, alegia. Etxera eramanez ninduan, eta nire oinetakoak nunbaiten ezkutatu eta atea giltzez hertsitu. Hala eta guztiz ere, atera naiz, ordubete dela, beheko atezaiari zapata batzuek eskatu dizkiot eta. Germane ez dago ostatuan. Bere pardela antolatu eta alde egin du...

Eta azkenez esan zion:

—Zer eginen dugu orain?

²²⁷ Ereskune: kontzertu.

VIII

BATA ISILA ETA BESTEA BERRITSUA

—Soinganeko lodia jantzi ezazu, behintzat —esan dio emazteak Maigreti, behin eta beriz.

Gaineko jaunzki lodi bi ditu, izan ere: bata, beltza iduncan uleguria duena, iragan hiru urtetik honanzkoa, eta bestea oraintsu eresia, laburtzua, esne-gainaren kolorekoa, gazte zanikan eduki gogoa zuena.

Etzetik irteeran, Minard albotiko zuela, goganbeharturik doa emazteak honi belarri ondora honako hau esan ote dion:

—Batez ere, ez dezazula utzi bakarrik nire senar hau!

Zirulariaz irri eta parra zertxobait egiten zuan Maigreten emazteak; baina halaz ere, begiko zitzaion, mazal eta gurbil eta gizabidetsua baitzan.

Zeru aldean odei arin eta arolak²²⁸ agertu dira, arre kolore hitsak, zurbilak. Euri-antza du eguraldiak, aspaldi hontan —hamar bat egunez— ez bezala. Egin ere egingo du euria geroago eta gure Maigret blei-blei eginda utziko du bere soineko lodipean, abere busti batek ohi duan usaia sortaraziaz.

Buruko kapela zizaren tankerakoa, eskuan darama horrenbeste zapiez estalia baitu burua, jantzi ezina duelako. Osatzailea-

²²⁸ Arol: astin, apatz.

ren etxeraino joan da, Voltaire bulebar aldera, Minard lagun due-
la, eta mirikuak lotuketa tipiagoa, zeheagoa egitea iritxi du.

—Bainan nahitaezkoa duzu gaur irten beharra?

Eta osatzaileak kutxatxo bat eman dio, hauts horixka artean
aletxo edo pildora batzuez betea.

—Buruko zorabioa egiten baldin batzaizu...

—Zeinbat hartuko?

—Oraindik gauera, lau edo bost, gehienez jota. Aski ditu-
zu. Bainan ohean bazengoz, hobe.

Ez zekian Maigretrek musikariaz zer egin. Eta berehalakoan
etxera bialtzcaz tamala eta pena zuan, geroztik ezertarako behar
ez zuanez geroz.

Eta egin behar zuana gauza handitzat joaz, Chaptal karrika-
ra igorri zuan.

—Zuk ongi dakizun etxe haren parcan gutxi gorabehera,
aurrez aurre, jatetxe apal bat dago, izenez Vieux Calvados. Zoaz
hara, eta Gendreautarren etxe hartan zer gertatzen dan zelatatu-
ko duzu.

—Eta zu gaizki jarri bazaite?

—Ez naiz bakarrik egongo.

Ziega edo espetxeraino lagundu zion Minardek, Quai de
l'Horloge delakoraino. Une hartan, Maigretrek bazuan oraindio
ere, uste osoa bere buruagan. Atadi ilun hartako lurrats²²⁹ edo
lurrin usai nardatsua ere gogara arnastu zuan. Guztia zan zikina
eta zekena. Haraxe eramaten zituzten gaucro-edo, bilakariak
kalean aurkitzen zituzten badaezpadako lagunak eta haraxe noiz-
behinka egiten zituzten atzemanketetan hartutako gizaixoak ere.

Zai-gelan sartu zan, han ere gudaletxeko usai higuinaz, eta
komisari jaunak hartua izan ote zitekean, galdetu zien hangoeri.
Hauek begiratu zioten, bainan halako gauza bakana ohartu zuan
so egikera hartan. Ez zuan aintzat hartu oharpen hori, ordea, han-

goentzat ezer gutxi izango baitzan auzune bateko komisaritegiko
zadorlaritxo bat. Horixe uste zuan...

—Eseri zaitte —ziotsaten.

Hiru polizigizon zegozten han. Batak idazten ziharduan, bes-
te biak ordea alperrarian zegozten. Komisari-despatxua ondoan
zegoan egon; ez zuan ordea inork zirkinik egiten Maigreten alde.
Edozein bailitzan hartu zuten nunbait, kaleko edozein gizon beza-
la. Aspertua zegoan oso, eta ez zekian zer egin, pipa izetu ala ez.

Ordu laurden geroago, ausartu zan eta baita galdetu ere.

—Ez al dago komisari jauna?

—Orain lanpetua dago.

—Nun dagoz bart atxilotu zituztenak?

«Ehizean» hartutakoak egon ohi ziran aretoa hutsik ikusi
zualako itaundu zien.

—Goian.

Eta igoteko baimena eskatzen ez zan ausartu. Bazekian goian
zer zegoan. Giza neurri eta zehetasunak hartzeko gela, antropo-
metri aretoa, alegia. Banan-banan, lerro antzean eramaten zituz-
ten mailadian gora. Eta bata besteren ondorik soinekoak erantzi,
eta banan ikertu eta arakatzen zituzten, azaleko orbanak eta
apaingarriak eta orinak ikuskatuaz, eta gero jantzita pisuratzen
ziran, hurrena argazki edo fotografia ateratzera eta azkenez ha-
tzetako marrak eta aztarrenak paper gainean lohitutuzera.

Han ibili ote zan Dedé ere ausardi eta zangar, lapur, ohoin eta
alper artean?

Geroagotan, Maigret, nagusiaren saileko izatera heltzean, han
ibiliko zan bai nahi zuan bezala etxe hartan, batera nahi beste-
ra...!

Emakumeak beste gela batzuetan sartzan zituzten mirikuek
ikusteko, eta eri eta geiso zegoztenak, Saint-Lazare eritegira era-
man.

—Komisari jauna orain ere arazope dagola uste al duzute?

Ordu erdi iragana zan, zai eta zai. Hiru gizon haiek elkarri
behatus, izekaz-edo ari zirala iruditu zitzaion.

²²⁹ Lurrats: gandu, lurrin.

—Hark dei egin arte, itxadon egin behar, ba.

—Bainan hark ez daki ni hemen nagonik. Zeregin haundia dut nik, bada. Arren, esaiozute hemen nagola.

—Zu Saint-Georges barrutikoa zara, ezta?

Eta polizigizon haietako batek, idazten zihardunak hain zuzen, so egin zuan mahai gaineko paper bati buruz.

—Juli Maigret, agian?

—Bai.

—Ezinbestekoa duzu itxadotea. Nik ezin dut ezertxo ere egin.

Alboko txakian²³⁰ komisaria zegoala, bainan han ez zan eze-
ren zarata txikienik ere. Arte eta egonarriz ordubete jasan onda-
rean, agertu zan noizbait komisari jauna; ez ordea bere tegitik,
kaletik baizik.

—Zu al zara Le Breten zadorlaria?

Noizbait ere oroitu ziran berarekin, hainbeste denporau han
ganora gabe itxadoten eduki ostean.

—Dirudianez zauritua izan zara?

—Ezer gutxi da. Nik nahi nuke bada...

—Badakit, bai. Dedé delako horri galdegin nahi diozu, ezta?
Jatsiarazi dutela uste dut. Gerard, ikus ezazu. Hor baldin badago,
nire despatxura eramanez.

Eta gero, Maigreti ere esan zion:

—Sar zaite, arren. Nire arazgu edo despatxu hauze utziko
dizut une batez.

—Emazteki horri ere galdetu beharko zaio.

—Ongi da. Aski duzu brigadari agintzea, eta ekarraraziko du.

Gertaera hortan halako gauza bakana ohartu zuan berriro
ere, zerbait antolapen-edo; gauza ez zan berezkoa. Hango gorabe-
herak beste era batera gertatuko zirala uste izan zuan Maigret,
bainan ez zuan batere kezkarik izan. Etxe hartako ohituren berri
ez zuan, eta bihotz-ukiturik zegoan, anartean.

Bilakari batek ekarrarazi zuan Dedé, eta gero atera zan han-
dik, eta komisaria ere bai. Hontan, hertsu zuten atea.

—Nola zabiltz, Juli?

Arkazi kaleko garaje-jabeak aitzineguneko soinekoa zuan.
Hango araudiak eskatzen zuanez, oinetakoen lokarria eta iduneko
korbata gabe zegoan, eta horregatik zarpil-antxa zedu-
kan. Zalantzaz bezala, komisari jaunaren altxan eseri zan Mai-
gret.

—Min haundirik egin ez zizutelako pozkidaz nagokizu —azal-
du zion Dedék—. Hemengo jaun hoiei galdetu nahi baldin baduzu,
bainan ni honera heldu bezin laster zure galdez ari nintzan, nola
ote zengozan...

—Zuk bazenekian ni nor nintzan, ezta?

—Jakina, ba!

—Eta nik ere —esan zion apal-apalki Maigreték— banekian
zuk zenekiana...

—Orduan, zure aurpegia edo burua maskilduko genizuna
bazenekian! Eta zartada izugarriagoa izan balitz...?

—Eseri hadi!

—Tira, ba. Hika jardutea atsegin zait.

Maigreték ez zuan anartean gaizkinekin hika jarduteko ohitu-
rarik, bainan ongi zekian bai polizietxe hartako ohitura eta ekan-
du horrela zela.

—Beste zer asko ere badakizkit eta elkar ulertuko dugula uste
dut.

—Harritzeko gauza litzakit ordea...

—Kondea hil da.

—Horrela uste al duzu?

—Jorrailaren 15-16 bitarteko gaueaz zuk eraman zenuan
kondea, Chaptal kalera, zeure beribilean, eta han egon zinan
haren zai bultzakina gelditu ere gabe.

—Ez dut gomutan.

—Leiho bat ideki zuten, andre batek laguntza-oihua egin
zuan eta gero tirotsa izan zan. Orduan, zuk, alde egin zenuan zure

²³⁰ Txaki: gela, ganbera.

gurdiaz Fontaine kalera. Etxe-mordoari ingurubira egin ere bai. Victor Massé kalean geldialdia egin ondorean, berriro ere Chaptal kalean zehar joan zinan, Bob handik agiri zan ikustekotz.

Dedé irriparra bigúnez zegokion, begira-begira.

—Jarrai ezazu —esan zion—. Ez al duzu zigarrotxo bat? Zikin hoiek sakelean nuan guztia kendu zidaten.

—Pipa hartzen dut nik, soil-soilik. Zuk bazenekian kondeak zer egin behar zuan etxe hartan.

—Ekiozu, aurrera jarrai.

—Eta zuk orduan ulertu zenuan zerbait nardagarria jazo zela. Biharamonean, ez zenuan egunkarictan batere berririk aurkitu. Artean, kondea ez zan inun azaldu. Eta beste egun bat ere argitu, eta ez konderik agertu ez berririk jakin.

—Zurekin zaletua nauzu.

—Orduan ere, han ibili zinan kale-inguruka. Geroago, gerta-
turikoa sumatu nurbait, eta Rikard Gendreau ikustera joan zinan. Ez ordea bizilekura, haren lantokira edo despatxura baizik.

—Eta, zer esan nion jaun hari?

—Diru-mordoskaren truke, berrogeta hamar mila libera-edo, isilik lotuko zinala. Bob, Chaptal kale hartara zegatik joan zan zenekialako, zergatik hil zuten ere bazenekian-eta...

—Hori al da guztia?

—Horixe da guztia.

—Eta zuk, zer eskabide egiten didazu?

—Nik? Ba, hitz egin dezadazula.

—Eta zer nahi duzu nik esatea?

—Kondeak Gendreautarrak ezagutzen zituan. Hango neska-
txa gazteari agerraldirik asko egin omen zion. Elkar-maite al ziran?

—Inoiz ikusi al zenuan kondea?

—Ez nik.

—Ezagutu izan bazenu, ez zenidan galdekizun hori egingo. Aukera bat galtzekoa ez zan hura, ez noski.

—Ezkontza-asmoren bat izan al zan, ez ote egia?

—Badakizu begiko zarela niretzat zu? Esan nion nik, esan Luzileri ere: «Bai tamalgarria gizon hau *bofiako* izatea! Zer buru-
tasun izan duela, bainan, polizigizon egitea, horren mutil eder eta bildurgabea izanik...!».

—Espetxea nahiago al duzu?

—Nahiago, zer baino?

—Hitz egin baldin bazeneza, baliteke Rikard Gendreauri egin diozun izu-lapurketa hori ahaztutzat uztea.

—Eta hark salakuntzaren bat agertuko duala uste al duzu?

—Eta gizon-hilteko²³¹ ahalegina ere —ni izan nintzan gizon zauritu hori—, bertan behera utziko genuke.

—Entzun ezadazu, Juli. Geroko jazoerak, orain gertakizun dagozanak, ez dira berdinak. Ez ezazula alperrik jardun, barrene-
an min ematen didazu eta. Zu gizon atsegina zara, egiatan. Egu-
nen batean, baliteke elkar ikustea eta biok bonbila bat edari zurrutatzea. Bainan hemen ez dugu berdintasunik. Zu ume haun-
di bakun bat zara! Zurekin, nahi dutena egingo dute.

—Nork ordea?

—Hortaz ez da axolarik. Nik gauzatxo bat esango dizut. Bob gizon berezia zan, ez zan besteen antzekoa. Bizitza hontan nola jokatu behar zaneko asmo eta buruera berekiak zituan. Ezin zituan norbaitzuen irudiak ikusi, ezta urrutitik ere. Bainan ez zan gai hura zirtzilukeria²³² zakarrrik egiteko, ez horixe. Oroitu zaite beti egia hontaz.

—Hilik datza.

—Baliteke. Nik ez dakit jakin. Eta baneki ere, ez du inork zetan jakin. Eta orain, adiskide bezala dirautsut: utz ezazu gau-
za berez doan. Ulertzen? Utziozu, Juli! Eta nik ez dut ezer esa-
teko. Nik ez dut beraz ezertxo ere esango. Itxuraketa-joko horiek ez dira zuretzat, noski. Egin dezagun gauza hoiek gure jakitu-

²³¹ Gizon-hilte: homizidio, gizahilketa.

²³² Zirtzilukeria: txakurkeria, *canallada*.

riaren gain dagozala. Ez dakit nik ezer, ez dut ezer ikusi, ezer ez dut entzun. Berrogeta hamar mila liberak? Behar ainean behin eta berriz esango dut nik argi eta garbi Longchampen irabazi nituela... Eta hemendik irtetea ere, nola hala ikusiko dugu, ez al da egia?

—Eta hori esaten, halako parre-irri gaizto egiten zuan.

—Orain, nahi baldin baduzu, beratza eta bihotz onekoa izan zaite eta ez larregi mindu eta nekarazi Luzile. Horrek maite bai maite zuan bere Bob. Aditzen al didazu? Ez egizu, bada, atsekabetu eta egunen batean on izango zaitzu. Eta besterik ezer ez.

Dedé jaiki zan eta aterantz hasi.

—Dedé! —hots egin zion Maigreték, bestea bezala jaikiaz.

—Amaitu da guztia. Nire ahoa itxi dut. Ez duzu nigandik txintik ere gehiago entzungo.

Eta orduan, Maigreték bilakarieri dei eginaz, esan zien, ate ondotik:

—Bukatu dugu —ezpainetan halako irriño bihurria erakutsiaz.

Ceroagoxe, brigadak galdetu zion honela:

—Ekarraraziko al dut emakume hura?

Luzile heldu zan eta ez zuan eseri nahi. Zutik zegoan mahai aurrean.

—Ba al dakizu nola eta noiz hil zan Bob?

Luzilek hasperen sakon bat atera zuan barrendik, zinkurin triste bat.

—Ez dakit ezertxo ere.

—Chaptal kaleko etxe batean hil zuten.

—Hori uste al duzu zuk?

—Andereño aberats batekin hartu-cmana zuan.

—Ez naiz jeloskorra.

—Zergatik ez duzu hitz egin nahi?

—Esatekorik ezer ez dudalako.

—Bob bizirik zegoala jakin izan bazenu, ez zinan Belgikara joateko asmotan egongo, egun hartan zengozanez.

Isildu egin zan neskaxa.

—Zergatik ez duzu nahi Boben heriotzaz, zuzentasunez zigorra eskatzerik?

Orduan, neskak, ezpainak hagin artean estutu zituan, eta burua bestalderatu.

—Nahiago al dituzu bankuetzeko txartel batzuk, erailea zigortatzea baino?

—Ez duzu eskubiderik hitzok esateko.

—Horrela bada, mintza zaite.

—Ez dakit nik ezertxo ere.

—Eta nik lagundu ezkerro?

—Ez dut nik ezer azalduko.

—Honera heldu zinanetik, nor ikusi duzu zuk?

Azkenean ere, ulertu zuan bai ongi, gertatutakoa. Lehen itxandonarazi zioten, ez ordea komisari jauna lanpetuta zegoalako. Argibide-gela harek bazuan bidea ondoko lekurako, eta leku hura ez zan besterik Quai des Orfèvres baizik.

Giza neurri eta abarreko gela hartan egon ere egon ote zan Dedé? Eta Luzilek ere, izan ote zuan mirikuak ikusi beharrik? Ez zirudian, behintzat...

Beste gauzarik bai, ziur asko. Norbait ari izan zela haici galdezka, agian Sûretékoren bat.

Maigret heldu baino ordubete-edo lehenago, Le Bretek alde egin zuan Richard-Lenoir bulebarretik.

Sinistagarria ez zan, nurbait, bainan ez al zion Dedék berak nahikoa argiro esan Maigreti? To, hire lepotik parra eginen norbaitek...

Eta despatxu hartatik atera zanean, irri eta keinu malmutzak nabari izan zituan inguruko gizon haien aurpegieta.

Ustekabean bezala, han agertu zan egun hartan zai zegoan komisari jaun bat.

—Eta zer, adiskide, errekesta izan al duzu? Mintza al dira?

—Zer egin behar duzu hoietaz?

—Ez dakit. Aginduen zai nago.

—Noren agindua, ordea?

—Goikoen, beti bezala.

—Eskerrik asko.

Kalera zanean, euria bota ahala zelarik, Maigret bihozkabeta, kemenik gabe zegoan. Bere kargua bertan behera uzteko gogoia izan zuan, komisaritegira behingoan agertuaz.

—Zu ume haundi eta bakuna besterik ez zara eta! —horixe esan zion garaje-jabeak eta erruki eta kupidaz esan ere; hitz gogoangarria, noski!

Etxe hartako izatea zuan ametsik biziena, eta horra hor etxe hartatik nola atera dan, burua makur, barrena mingots!

Dauphine Garagardotegian sartu zan; han egon ohi ziran maiz eta sarritan Quai des Orfèvreseko ikerlari batzuek. Ezagutzen zituan aurpegiz, baina haien zat ez zan gure gizona inortxo ere, hutsa aina, alegia.

Osatzaileak eman zizkion pildora haietarik bat irentsi zuan, halarik gogoia suspertuko ote zitzaion, eta geroago ontzikada edaria barreneratu zuan.

Han zegozten bai, lasa-lasa, mahaiaren baranoan, oso ongi jantzi gabe, ezeren axolakabe. Edonora sartzeko eskubidea zuten, edozer zekiten, esku arteko nahaspilen alde eta gorabehera elkarri agertzen zieten.

Eta orduan ere, gure Maigret etxe hartakoen arteko izateko gogoz ote zegoan? Beraq polizi bizitzaz asmatutako buruera, gezur borobil bihurtzeko zorian zegoala, nunbait? Bigarren edanaldia egin ostean, bere laguntzaileagana, harako «nagusi» goren zan Xabier Guichardengana joateko erabakia hartu zuan, eta atsekabez eta unatua zegoala adirazi...

Ederki atzipetu zuten bai! Le Bretek, malmuzkeriaz, bere barnean zegozten isileko guztiak atera zizkion etxean zegoalarik. Eta gero Quai des Orfèvresera joan izango zan, eta han, aurrera eta barrura, itxadoten egon gabe.

—«Nire zadorlaria oso haserre dago. Honek gauzak behar ez bezala agertuko ditu, eta nahigabeak guri sortuko.»

Eta nork daki gorago ere ez ote zan joan? Adibidez, Polizi buruzagiarengana, edota Herri-zaiketa otsein gorenagana²³³?

Agian, Herri-zaiketako ministro hori ere, ez ote Chaptal kalera joaten diranen artekoa, bazkaltzen-eta, afaltzen-eta...?

Ai, bai, bai! Arazo hori Maigreten eskuetan utzi bazuten —eta hamaika aholku eta kontu haundiz ibilteko esanak esan ondorean, hain zuzen—, ezertxo ere ez zuala agertuko uste izan zutelako zan. Bai, arraioak ez baituk!

—«Dedéri galdetu nahi al diozu? Zergatik ez, bada? Zoaz, zoaz, ene adiskideori.»

Bainan, orduko, ederki irakatsi zioten bai lezinoa garaje-jabeari...! Batek bazekian zer agindu ote zioten isilik egotearren. Eta hori gauza erreza zan. Lehen ere zigorrik hartu zuan. Eta Luzile, isilik egon ezik, eritegi hartan sartu zezaketan luzarorako.

—«Haur malizigabea zara, ume haundi bat.»

Guztia ezereztu zioten, bere polizi lan-egikera batez ere. Errekesta txiki bat hutsean gelditzeak ez zuan nahigabetzen. Beste zerbait sakonagoa, minagoa zuan barruan, maitale batek ohi duan etsipenaren antzekoa.

—Zu, mahaizaia, zatoz!

Hirugarren edanontzikada eskatzeko zegoan. Bainan ez. Buruera aldatu zuan behingoan, eta ordaindu eta kalera irten zan, beste haiek burula-keimuz zegoztela uste izanik.

Aurrerantzean gertakari hura iraulia eta aldatua izango zala, ziur zegoan. Eta zer egingo? Tira, zirulariagana joatea otu zitzaion. Hau zuan garaitza bakarra, zirulari bat! Eta hain zuzen, honezako txostena edo argibidea egiteko agindu zuan, lehenbiziko zeregina bezala, bere nagusi zan Le Bretek!

Maigret haserretu dedila! Kaskoan hartu zuan zartakoak buru nahasi diola esan, eta kitu!!

²³³ Otsein goren: ministro.

Autobus batean sartu zan, eta kanpoaldean gelditu zan, soinekoaren busti usaia hartuaz, zakur ureztatuaren antzean. Bero zan, bero. Sukarra ote zuan?

Chaptal kalera zanean, esti egiteko zirikaldua izan zuan, Vieux Calvados hartako Paumelle gogoratzean, honek ere harro antzean eta laguntzaile bezala behatzen ziola uste izanik.

Eta hoiiek beharbada, zuzen zegozten, eta ez berbera. Eta nor daki? Agian, bizibide okerrekoa hartu zuan, eta ez zuan batere gaitasunik polizi lan hoietan ibilteko.

Halarik ere, bazekian, bai, zer egin, bere eskuan utziko bazuten nahaspila hura!

Kalearen beste aldetik ikusi zuan etxe hura, goi eta behe, ezker-eskuin ikertuko zukean, bertan bizi ziran guztiak ezagutu, Balthazar zaharrenetik hasi eta Lisa Gendreau eta Luis arterainoko guztiak, ezkutu eta isileko arazoak oro.

Izan ere, hilaren 15-16 bitarteko gauean gertatu zana, ez zan nahaspilaren amaiera antzekoa baizik, ez zan gertakari bat gehiago baizik. Gauza, lehendik zetorren. Horregatik nahi zuan gauza zaharrak jakitea, bakoitzaren asmo eta usteak, guztien joan-etorri eta ibilerak jakin ezkeroz, azkeneko jazoera errez agertaraztekoa baitzan.

Bainan etxe hura, Oihanera Bideko gaztelua bezala, etxe gotorrak ziran Maigretentzat; ez zuan haietan sarpiderik, ez zuan sartzeko baimenik...!

Eta haiek, besteren asaldan²³⁴ usaia senti orduko, non-nahitik izaten dute laguntasuna. Eta Dédé ere bat-batean isildu egin da, ezertxo ere ez duala adiraziko esanaz, eta orobat Luzilek ez du batere asperkunderik eskatzen bere Bob maitea hil-edo egin dutelako...

Bidean dijoala eta hutsari hizketan ari dela oharturik, sorbaldak jaso ditu eta geroago, bultz eginaz, jatetxe tipi hartako atea idikiarazi du.

²³⁴ Asalda: aztoramen, nahasmendu.

Han dago Justin, erakusmahaiaren aurrean, zutik, basoa eskuan. Lehengoan Maigret bezala, orain Minard ari da Paumellekin hizketan. Honek haura agertzean ez du batere harritu aurpegirik jarri.

—Honek bezala —esan du Maigretrek.

Zaldi-gurdientzako atea dena den zabal dago Gendreautarrean. Euria atertu da eta eguzkia ur-tantoetan barna sartzen da. Behea dizdizez dago, eta laster legortuko da, nunbait.

—Banekian itzuliko zinana —esan dio Paumellek—. Bainan hor ari diran jaun hoiekin zu ez etorria, hortaz harritua nago.

Maigretrek tximista bezala behatu dio Minardi, eta honek zalantza-aldi laburraren ondoren, diotsa:

—Etxe hortan lagun asko dabil. Orain ordu erdi bat heldu dira lagunok.

Kalean ez dago gurdirik, eta agian eraendua²³⁵ edo alkilatuak izan dituzte.

—Nortzuk dira, bada?

—Ez ditut ezagutzen. Bainan antza dancz, auzitegikoak dira. Hor dabil jaun bat, bizarzuria, eta beste gazteago bat, beharbada salatarioa, eta hirugarrena idazkaria-edo...

Atzaparrak gogorturik heltzen dio Maigretrek edontziari, eta galdetu du:

—Eta zer gehiago?

—Beste batzuek ere bai, nik behin ere ikusi ez ditudanak.

Justinek, abegiz edo adiguriz²³⁶, ez zuan esan mingaiean gertu zedukana. Eta Paumellek deitu du:

—Zure kideak. Bainan ez komisaritegikoak. *Quaikoak* baizik... Bat ezagutu dut nik.

Minard gaisoa! Ez daki nora behatu. Maigretrek ere poliki adarra jo diola uste du. Hau zala uste baitzuan bilaketa hartako

²³⁵ Eraendu: alokatu, errentan hartu.

²³⁶ Adiguriz: samurtasunez, finitasunez.

buru eta zuzendari, eta horregatik zirulari amultsuak bihotz-bihotzez lagundu izan dio.

Eta orain, zer dela kontu, eta Maigretrek inortxo ere ez dela auzi hortan, zer egingo ez noiz egingo ere ez dakiala arazo horri buruz.

Bai, nahitaezekoa zan oraingoan etxera joan, kargua uzteko karta egin haserre-haserre, eta gero ohean sartzea. Burua su eta gar daduka, egundoko mina sumatzen du.

Ostatukoak *calvados* bonbila dauka eskuetan erdi zintzilik, eta baietz esan dio.

Holakorik! Ziri ederra sartu diote, bai alena ez bestena! Arrazoa zuten. Ume bat zan...!

—Germane etxeon dago —diotsa Minardek—. Hantxen leihoan ikusi dut.

Nola ordea! Hura ere bai! Horrela da kontua. Ez da agian buruz bizkorra, bainan andre guztiak bezala badu sena, badu usaimena... Ahul eta makalenen aldetik zegoala ulertu du, Maigret eta zirularia arlote ezerez batzuk dirala!

—Bertara noa! —esanaz, alde egin du, edontzia mahai gainean utzirik.

Berehalakoan bildu duan kemen hori galtzeko bildurrez, ari-nak arin doa kalean batetik bestera.

Atadira heltzean, gizon bi ikusi ditu han loretegi edo baratzean lurrean zuloa egiten.

Ezkerraldean, ezkaratz edo etxarian, ikertzaile edo inspektore bat dago atezai.

—Auzo hontako komisaritegikoa naiz —esan dio Maigrettek.

—Itxadon egin beharko duzu.

—Itxadon nori edo zeri?

—Jaun hoiiek bukatzen duteino.

—Bainan ni izan bainaiz bilaketa hori egin duana...

—Baliteke; nik ordea, agindu horixe dut, ene adiskide.

Hau ere Quai des Orfèvresekoa!

—«Inoiz edo behin Sûreté hortakoa izan baldin banadi —Maigretrek bere buruari, arestian egindako poliziatza uzteko asmoa ahaztuaz—, zin egiten dut ez dudala behin ere erdeinurik egingo komisaritegietako langile apaleri.»

—Salataria, nun?

—Jaun hoiiek guztiok.

—Hoiien artean al dago nire komisari jauna?

—Ez dut ezagutzen. Nolakoa da?

—Jaket arrea du soinekoz. Luzea, lerdena, bibotetxo gorrista du.

—Ez dut nik hori ikusi.

—Nor etorri da *Quai*korik?

—Barodet komisari jauna.

Egunkarietan maizenik irakurrarazten zuten izen ospatsu hori. Maigreten iritziz agian, horixe zan munduko gizonik entzuetetsucna, bere aurpegi legun betiere bizar moztu berri, morroeantza zuelarik, eta begi tipi bezin zorrotzak, urrutira galdezka ari ziranak.

—Zer bilatzen dute baratzean?

—Hilotza.

Polizigizonak zalantzaz bezala erantzuten zion, eta gizabidez gchienbat.

—Etxean al da Rikard Gendreau?

—Nolakoa da?

—Beltzerana, sudur luze kakoa du.

—Bai, etxean da.

Horrela bada, Gendreau edota ez da oraindaino etxetik atera edota itsumustuan itzuli beharra izan du.

Une hontan gurdi bat gelditu da ate aurrean. Neskatxa gazte bat jatsi da eta zailu eta bizkor heldu da gizon biok dagozan ate ondora. Ez du, agidanez, ezagutu Maigret.

—Gendreau andereñoa —esan du hark isil-isil.

Ikertzaileak atea ideki dio, eta gero bere kideaz mintzatu da honela:

—Agindua dut eta.

—Horren zai egon al zara?

—Baldin badator, sartzen uzteko agindu didate.

—Etxeko otseina ikusi al duzu?

—Han dago une hontan jaun haiekin, hantxen dagoana da. Zuk ba al dakizu arazo honen berri?

—Zertxobait —erantzun dio Maigreték, apaltasun mingotsez betea.

—Ezetsigarria omen zan.

—Nor?

—Otseinak hil egin behar izan duan gizon hori.

Maigret aho-zabal dagokio.

—Ziur al zagoz?

—Zertaz ordea?

—Luisék egin duana...

—Aizazu, laguntzarra. Nik ez dakit nor dan ere Luis hori. Nik, hizketaldi batzuk entzun besterik ez dut egin. Bainan batez ere, agindu hauxe dut: hemen ez dedila jende-mordorik bildu.

Lurrean zuloginen ari izan danetariko bat —polizia hau ere, noski— ezkaratzera heldu da. Bestea, etxeko beste otsein bat da, zinez. Heldu dan honek basa eta lokatza du eskuetan eta oinetakoetan, eta aurpegian narda eta higuin-antxa du.

—Ez da egiatan gauza atsegina hori ikustea! —esan du.

Atea ideki eta etxera da. Atea zabalik egon dan bitarte laburrean, han agiri izan dira Lisa eta bere neba Rikard, zutunik hizketan, eta Maigreték ikusi ditu, bai.

Besteak, auzitegiak, aretoen batek ditu barnean, ateak ondo hertsirik.

—Zu ere deitua al zara? —diotsa poliziak Maigreti, hau artega baitago.

—Ez dakit.

Begietan ezotasuna sentitzen du, eta une hontan bezin apaldua eta beheratua ez du inoiz ikusi bere burua.

—Berrizaleen bildur direla gehienbat, nik uste. Horregatik hartu dituzte neurri eta erabakiok. Eta gauzaren parragarria, guk etxean Balthazar kafea edaten dugu beti. Ez nuan uste nik egunen batean...

Barrenetik telefonoari larrua kentzen zioten nurbait, txirri-notsa eta klik eta klak besterik entzuten ez zan, behinik behin.

—Zure komisari jaunak biali baldin bazaitu, zai zagozala esango diet.

—Bai zera! Zertako ordea!

Besteak bizkarra gora jaso zuan. Ez zuan geroztik tutik ere ulertzen eta geroago Maigret ikusi zuan aletxo edo pildora hartzen.

—Gaizki al zagoz?

—Zuk ez al dakizu nola hasi dan arazo hau?

—Nola hasi dan?

—Quai des Orfèvresen egon al zara?

—Bai. La Villete auzoan egotaldia egitekotan nengoan. Barodet komisari jauna han ari izan zan halako morroe bati hitz egi-ten erakusteko asmoz...

—Gizon tipi bat, soinekoa laurkaz zuana?

—Bai, kontuzko gizontxo, egiatan.

—Eta gure komisariari dei egin al zioten?

—Ez. Burunagusiak agindu zuan deituzeko. Gizontxo zai-tzen nengoan. Alaia duzu, benetan. Zigarro bat eskatu zidan eta nik eduki ez.

—Eta gero?

—Barodet itzuli zanean, laurkadun gizon horrekin egon zan gelan sartua, eta guri gertu egoteko agindu zigun lehendabizi.

—Nortzuri?

—Sailekoeri. Hiru etorri gara, eta komisaria laugarrentzat. Beste biak barruan dagoz. Hor zuloginen ari izan dana Barrère duzu, orain hilabete Caulaincourt kaleko poloniatar haura atxilotutzean bala bat hartu zuana, bere larruan noski.

Entzuten zuan hitz bakoitzak bihotzean ukitzen zion Maigreti. Ikertzaileen tokia ikusten zuan, eta han Barodet jauna bere

mendekoeri agindari bezala bainan adiskide antzo zietsatela: «Ene semeok...».

Bainan... Zer dala-eta egin diote egin diotena? Hutsen bat, edo okerren bat egin al du? Bere lanean ez al du craz eta ganoraz jokatu? Isilean, inor ohartzeko ez al da ari izan, bada?

Richard-Lenoir bulebar hartan, bazirudian Le Bretek esku eta agindu eman ziola nahi zuana egiteko. Bainan Le Bret arinak arin joan zan Quai des Orfèvresera, beste inor baino lehen. Eta gero, agian, honera ere etorri izango zan...

—Dena dela, etxeko otseinak aitortu al du ezer?

—Horixe dirudit. Eta esanak esan, gaizkin-antza badu behintzat.

—Ez dut ezer ere ulertzen.

—Ezer ulertzeko uzia edo irritsa al duzu, bada?

Hauxe izan da egiatan Maigretrek hartu duan lehendabiziko irakaspena, harrokeriarik egundo izan ez dezan. Ikertzaile hura, bera baino zaharragoa da, hogeta hamarren bat urte ditu. Asko entzun eta asko ikusia dirudi, eta horregatik du baretasun eta lasatasun²³⁷ berezia. Pipa hartzen ari da, baketsu, ekuru²³⁸, han barrenean esaten dutena jakiteko urduritasun bage.

—Betiere, hobe da noski lan hau, La Villete hartako kaletxoan egon-egon egitea baizik, azken ordua noiz izango dan jakin gabe.

Beste gurdi bat ere heldu da kalera, ate aitzinera. Miriku gazte bat, bizarbeltza, jatsi da bizkor eta aguro, eskuan pardeltxoa. Ezagutu du laster arin Maigretrek, egunkarietan sarri bai sarri ikusi duelako.

Paul osatzailea da, auzitegiko miriku erdi ospatsua.

—Num dira jaun horiek? —galdetu du.

—Hemen barna, miriku jauna. Baratzean dago hilotza, bainan lehenbizi, salataria ikusi nahi izango duzu.

Guztiak zekiten arazoaren berri, guztiak barrenera bidea hartzen zuten. Han bakarrik zegoana Maigret zan; kanpoan egon beharreko bakarra, alazaina!

—Bai, ikusiko duzu; gorabehera honek ez du hiruzpalau lerro baino gehiagorik izango egunkarietan.

—Zergatik?

—Zeragatik.

Eta izan ere, gaueko egunkarietan lerro hauek agertu zituzten: «Gendreau-Balthazarrenean, Chaptal kalean, lapur bat sartu zan hila honen 15etik 16ra bitarteko gauean. Hango morroiak —izenez Luis Viaud, 56 urtekoa, Ansevaltarra jaiotzez—, bala bat sartu zion bularrean eta hil egin zuan».

Maigret, une hartan, ohean zegoan, sukarrez, 39 mailaz, eta haren emazteak ez zekian zer egin harako zirularia gelatik aterarazteko, honek jabebageko zakur errukarria baitzirudian...

²³⁷ Lasatasun: sosegu, patxada.

²³⁸ Ekuru: sosegu, frankil.

IX

BASOALDEKO BAZKARI GOZOA

Hiru egun iraun du egoera hark. Lehenbizikoan, egiatan ere geiso edo cri zegoala uste izan du eta horrek besteri amorru emango diela.

Bainan lehenengo goizean begiak idekitean egundoko marranta²³⁹ duela ikasi du.

Eta orduan, amarrukeria eta tranpa egin du. Parragarria baitzan, emaztearen iritzirako ere, hotzikara bat besterik ez izatea, hasperenka, eta eztulka eta aieneka hasi da, bularrean mina bai mina duela-eta.

—Txaplata bat ezarriko dizut bularrean, Juli. Honela, birikabideak ez zaizkitzu haundituko eta.

Emaztea alai eta argi dago, beti bezala. Samurkiro zaitzen du, horixe bai. Palaguz ere bai, egundo bada. Halarik ere, Maigret etsita dago bere emazteari adarra jotea ez dala gauza erreza.

—Sartu zaite, Minard jauna -esan du han ate aurrean-. Ez, bada, ez dago gaizkiago. Bainan, arren, ez dezazula nekarazi...

Eta hori esateak zer erakusten zuan? Emaztea ere komeria hartan arteko zela.

—Zer bero-maila du, bada? -galdegin du zirulariak larri antzean.

²³⁹ Marranta: katarro, hotzeria.

—Ez oso goitia.

Ez zion zenbatik esan, ez. Bai zera esan, 37 xakiz goitik orde, behetik baitzegoan!

Atsegin zaio emazte maratz hari osagarriak, txaplatak, salda garbiak eta arraultzak esnetan irabiatuak gertutzea. Bainan batez ere leihoetako errezelak zabaltzea, hedatzea, eta oinen puntan isil-isilik gelatik ateratzea, noizik behinean atea ertzidikiatz, bere senarra lo dagoanentz jakiteko.

Minard gaisoa! Gauza ezereztat eta aspergarrizat bezala zegoan. Bainan Maigretak nahigabea du horrela izateaz, maite baitu. Eta hari atsegingarri izatea nahi luke.

Goizeko bederatzzi-hamarrak bitartean heltzen da Justin; eta ez du ate-joka erasoten, ateari erpeka bezala arrast egin²⁴⁰ baizik. Lo ote zegoaneko bildurrez, noski. Gero, mintzo apalez zerbait esan ohi du, eta horma ondoaren arras ohe alboraino heltzen daki.

—Ez, ez ezazula zirkinik egin. Zerbait jakitera etorri naiz soil-soilik. Ez al duzu aginduren bat niretzat? Zereginen bat zuri egitea pozgarri izango litzakit eta!

Edozein lan egitea berdin zaio, «detektibeka» ibili ez arren. Eta Maigreten emazteari ere eskeini ohi dio laguntza.

—Zerbait erostera joan nadin ez al nahi duzu? Ni ohitua bainago horrelako lanak egiten...

Eta azkenez, leiho ondoan eseri eta hantxen egon eta egon daki egiten. Eta inoiz, bere emazteaz galde egiten badiote, berehalakoan jardesten du:

—Ez dio axolarik!

Gero arratsalde beranduan itzultzen da berriro ere, frak jantziatz, bere lanera baino lehen. Orain dantza-areto baten jotzen du soinua, Saint-Michel bulebarrean. Ez ordea lehen bezala arrabita larria²⁴¹, pistoidun turuta baizik. Lan hau ez zaio oso atsegina

²⁴⁰ Arrast egin: harraskatu.

²⁴¹ Arrabita larri: kontrabaxu.

izango, nekagarria baizik. Gero, ezpain bietan ingurubil kolore gorrista uzten dio.

Le Bret jaunak ere egunero bialtzen du komisaritegiko norbait, eria nola dagoan galdetzera. Eta jazoera horrek, huts eman zion atezai-emeari. Bazekian hark Maigret Laterriko otseinen bat zana, bainan ez poliziakoa zenik...

—Komisari jaunak haxe esan dit: zaitzeko, eta ezeren kezkarik ez izateko, arlo guztiak ongi dagozala-eta.

Eta hori entzunik, ohe biguin hartan murgiltzen zan, izerdi-usaipean. Horrela bere baitaratzenago²⁴² zan. Aldiak aldi, detu²⁴³ edo seta hori izango zuan betiereko. Nahasia, buruhaustez betea edo kemen gabe zegoanetan, maiz egingo zuan horixe.

Loa berez-berez zetorkion. Eta haren asmoak, zuzendu, argitu eta zorroztu beharrean, nahastekatu eta matazatu egiten ziran, sukarra bailuan. Eta erdi lo egokera hartan, ametsa eta beneta nahaspilaturik, lehenagoko gertaerak datorzkio gogora. Oraingo jazoerak, umezarokoak; gelako argitasun eta itzalunetak, elhunezko liliak, sukaldeko lurrin gozoa eta bere emaztearen oinots biguin isilak, guzti hoiak darabilzki buruan oheko gizonak.

Eta betiere, hasierara jotzen du, eta berriren berri hasi arloa osatuten, gertakari hornitutzen. Hor ari da axedrez-jokoan bezala, irudiak ere erruz baititu: Balthazar zaharra, Gendreautarrak, aita, Lisa eta Rikard, Ansevaleko gaztelua, Luis, Germane eta beste neskame tipi Mari haura.

Hara eta ona darabiltz, batean honela, hurrenik bestela. Geroago, hor dator Le Bret ere, Richard-Lenoir bulebarretik gurdian, zaldizaiari lehenbizi esanik: «Quai des Orfèvres».

Hau eta Xabier Guichard hika ari izaten al dira? Kezkaz betetzen zuan pentsamentu honek. Zer esan ote zion Le Bretek, des-

²⁴² Nor bere baitaratu: nor bere barruratu, *replegarse*.

²⁴³ Detu: apeta, mania.

patxu handi eder hartan? Maigret bi aldiz egon izan da soilik lantoki hortan eta munduko lekurik bikaintzat daduka.

—Ene zadorlari hori, zuk niri gomendioz emana, arazo batean ari da. Ezin izan dut beste deusik egin, lan hori eman baizik. Bainan bildur naiz oker ari izango ote dan...

Hori esan al du egiatan ere? Baliteke. Le Bret ezer baino lehen eta behinik, munduko gizona da, jende nagusi artekoa. Egunero ezpataketan ari izaten da Hoche Bileran, gero aretorik areto aberats artean, teatru-berri guztietan izaten da, eta lasterketa lekuan zaldiak pisatutzen ikusten egoten daki, buruan kapela luze arre kolore argia.

Bainan, eta Xabier Guichard? Hau, Maigreten aitaren adiskide mina zan, eta izakera berdineko. Manceau auzunean ez da bizi, Latino Auzoan etxe txiki batean baizik, eta bere liburuetan asti ematen du, ez ordea andre ederrei gortearen egiten²⁴⁴.

Ez zuan honek zirtzilukeriarik egingo, ez giza lotsarik jasango.

Alabainan, Barodeti agindua eman zion. Zer agindu izan ote zan?

Eta horrela izatez gero, zergatik ote, Maigretok oker egin zualako-edo? Egiatan ere, ez zuan artean, bilaketa amaiturik utzi. Ez zekian nork egin zuan tiro kondearen kaltez, ezta zergatik egin zuten ere. Bainan astiz jakingo zukean.

Dena dela, gauza batez ziur dago behintzat: aldi laburrean lan ona egin duela. Bere komisari jauna bildurrak joa ikusi izan baitu...

Orduan, zer zioz edo zergatik egin diote?

Egunkariak ez dute geroztik txintik atera. Hori... ahazturik zegoan. Boben hilotza *morguera* eramango zuten noski, gorpuzterketa egitekotz.

Han dabil Maigret bere amets eta gogapenetan: Chaptal kalean dagola uste du. Gizonak han ari dira, bainan jaun haiek ez dio-

²⁴⁴ Gortearen egin: gorteiatu.

te batere jaramonik egiten. Barodet ere hor dabil, bainan ezagutzen ez nunbait, eta Maigret etxe hartakoren bat dala uste izan du. Eta salatariak, epaikariak eta idazkariak Barodeten menpekotzat etsi dute...

Luisek bakarrik egin dio begirakune gaizto. Badaki noski, artez eta zehatz zer ari dan, Germanek esan diolako.

Gauza guzti hoiek apalgarri, durduziagarri zaizkio.

Eta une batzuetan, begiak osoro hertsirik, gorputza izerdiz betea, hor ari da bilaketa on bat nola egin litekeen pentsa eta pentsa: «Hurrengoan, honela eta honela egingo dut, bai...!».

Eta bat-batean, laugarren goizean, ohean egotez aspertua oso, zirularia heldu baino lehen jaiki da, iturriko txorroan garbitu, bizarra moztu goxo-goxo, eta oraindaino buruan duan zerrendazko lokarria kendu egin du.

—Zure lanera al zoaz?

Komisaritegiko usaia senti nahi du berriro ere, bere mahai beltz hura ikusi, eta horma zuri artean harako bezeru zarpailldu haiek ere bai, ezagutu nahi ditu.

—Eta zer esango diot bada Justini?

Orain Justin esaten diote, etxekoa bailitzan, edo ahaideren bat.

—Ordu batak aldean niganatu nahi baldin badu, elkarrekin bazkalduko dugula.

Lo egiteko ez zituan bibote-muturretakoak ipini eta horra, orain, berriz zorroztu behar mutur-puntak. Bidean zehar oinez joan da, kaleetako haize birietaratuaz, eta udaberriko goiz ederrean egurastuaz, ahantzirik gelditu dira bere haserre eta gorrototxoak.

—Bainan, zer dela-eta nago ni buruhaustetan jende haietaz?

Gendrecautarrak han dagoz nunbait beren gazteluan. Zaharrenaren aiurri eta zima²⁴⁵ emaztekietan berriztatzen omen da, ez

²⁴⁵ Zima: izacra, sen.

gizonezkoetan. Harako hilburuko edo azken-nahi haren istorio eta gorabeherak. Balthazar Kafeen jabe nor izango ote zan...!

Bai, badaki Maigretak diruaz gainera ere beste mota eta izate batzuek dirala. Ondasunik aski duenak gero beste gauza ere irrikitzen du: aginpidea, agintzea, besteak menpean edukitzea, oilar izatea.

Hor zegoan untzea! Azino eta eskubide gehien nork izango ote zuan, arreata-batzarreko²⁴⁶ mahaipuru nor izango ote zan. Lisa? Ala, Rikard?

Eta hori nunbait ere, grina indartsua duan zera izango da, neskatxa gazte eder batek bere sasoe berdingabea ahazturik, negozio edo garatzen buruzagitza nahi izateko, lehenago haren ama zanak egin zuan bezala.

Nagusi izan, nagusi handi, ugazabandre zabal!

—Hor konpon! Antola bitez nahi duten eraz!

Holakorik, ordea! Horixe egin dute bada-ta...! Eta horregatik, gazte bat, mutil gazte bat hilda, eta inor ere ez da negarrez ari izan, Wagram aldean zebilen neskatxa bat izan ezik.

Heldu da, bada, komisaritegira, eta bere lagunerik eskua heretsi die.

—Horra, ba, Bertrand joan da zuenera, zure osasunaren galdez.

Komisari jaunari ez dio adirazi han dagoanik ere. Bere lantokian eseri da ezer esan gabe. Eta hamar eta laurdenak aldean, Le Bretekek ideki du ate biguin hura, eta bertan ikusi ez du, ba?

—Ene, ba, hemen al zagoz Maigret? Zatoz honera.

Eta lasaiki agertu nahi zuan bere burua.

—Eseri zaite. Ez dakit ongi egin duzun, honen laster lanera etorriaz. Eriondoko oporketa eskatu nahi nuan zuretzat. Basoaldean, landan egun batzuk egitea ez al zaitzu egoki izango?

—Oso ongi nago, ordea.

—Hori hobe! Askoz hobe! Aizazu, ikusi ahal izan duzunez, harako arazo hura bukatu da. Halarik ere, nire zorion-agurra hartu ezazu, egiaren hurbil ibili baitziran. Ni zu ikustera joan nintzan egun hartan bertan, Luisek hots egin zion telefonoz poliziari.

—Bere kabuz?

—Horixe ez dakit. Gainera, horrezaz ez dugu axolarik. Gehienbat, aitortu egin zuala, horixe dugu zer nabariarik. Harek, zure aztarna-lanak sumatu nunbait, eta egia azalduko zenuala eta, bildurra leporatu.

Maigret mahaiari begira dago, eta aurpegian ez zaio ezertxo ere agertzen, ez pozik, ez minik, ez bildurik. Orduan, Le Bret, urduriagotu da, eta ekin dio esaten:

—Gu aintzat hartu gabe, Prefektura delakora hots egin zuan. Egunkariak ikusi al dituzu?

—Bai.

—Gauza agiria da egia zerbait aldatua izan dela. Bai, beharrian bat da hori, eta egumen batean ulertuko duzu. Gauza nabarmenak agertzea ez da sarritan egoki, egia garbi esatea kaltegarriago batzuetan, alegia. Jarraitu ezazu nire pentsamentuharira, otoi. Badakigu guk biok kondea etxe hartan lapur bezala sartu ez zana. Haren zai ote zegozten? Lisa Gendreau errukiorra izan zan harekin, eta hitz horri adierazpen onena ematen diot.

»Ez egizu ahaztu neskatxa Ansevareko gazteluan jaio zanik, eta bion sendiak hartu-emaneko zirala.

»Bob buruzorua zan. Gero eta hondatuago zijoan, gero eta beherago, erotua bailegoan. Horregatik, zergatik ez, bada, neskatxa hark mutila bidezuzeneratzeko ahalegina egin?

»Horixe duzu nire emaztearen iritzia, eta honek ongi bai ongi ezagutzen du neskatxa haura.

»Bainan, ez dio axolarik. Mozkortuta al zegoan gau hartan, maiz egoten zan bezala? Edo, nabarmenkiro jardun ote zuan?

»Luis horrek urri eta zeken jokatu du zehetasunak eman nahi ezta. Oihuak entzun omen zituan, eta orduan leku hartaratu.

²⁴⁶ Arreta-batza: administrazio-kontseilu.

Gelan sartu zanean, han zegozten lurrean luze Bob eta Rikard elkarri atxikiak, eta kondearen eskuan aiztoaren dirdira ikusi zuala-edo...

—Labana hori agertu al zan? —esan dio Maigretek isil samar, begiak mahaiari daduzkala betiere.

Mahaiak duan zikintxoren bati begira ari dala dirudi, setaz, atergabe.

—Ez dakit hori. Barodet duzu bilaketa bukatu duana. Bainan, behintzat, gaueko mahaitxo ganean pistola bat zegoan eta Luisek, bere nagusiaren bizia gorde nahirik, tiro egin zion kondeari.

»Eta orain, ene adiskide, esaidazu: nori on egingo zion guk zalapartaz agertu izan bagenu nabarmenkeria hura? Herri zeheak, jendeak, ez zuan osoro sinistuko. A, aspaldi hontan gizarte-maila batzuk ongi zaitu eta zelatatzen dituzte! Gendreau andereñoaren izen ona arriskuan ipiniko genuan egia azaldu arren, eta mingain zikin eta bihurriak izango zutekcan zertaz jardun eta maixiatu.

»Eta nolnabi ere, norbere burua zaitzeko ahalegina besterik ez zan izan...

—Bainan ziur al zagoz otscinak tiro egin zuana?

—Bere aitortpena dugu. Ulertu ezazu, Maigret. Horko egunkari batzuek haze iskanbila atera izango zuten, eta neskatxa horrentzat izango ziran kaltceak, nahi-ta honen arinkeria ontzat eman ez!

—Ulertzen dut bai...

—Gendreau andereñoa. Switzerland aldera joan da; oso artega eta kezkatua baitzegoan, eta hilabete batzuetan atsedentzera. Luis jaregin dute, eta auzi-arloa agian bertan behera utziko dute. Honen oker bakarra hauxe izan da: zorabiatu, tutulutu, zegoala-eta, hildakoa baratzean lurperatu izana, gertakaria bertatik azaldu eta aitortu beharrean.

—Berak bakarrik lurperatu al zuan?

—Rikard Gendreauren lekuan jarri zaite orain. Agidanez, zuk ez duzu ulertzen, bainan ulertuko duzu. Batzuetan ez dugu esku-biderik...

Eta hitz egokia aurkitu ezinik dabilela oharturik, Maigretek burua jaso eta bestelabaitakoan esan du, mintzo bakunez:

—Gure barruak agintzen diguna egiteko?

Eta orduan, tanpez eta bat-batean, Le Bret idor, gogor, harro, inoiz baino harroago jarri da.

—Nire barruak ez dit ezertxo ere gaitzesten —esan du zorrotz—, eta edonork bezin estu eta zuzena dudala uste dut, behintzat. Zu gazte zara, Maigret, oso gazte, eta horregatik ez dizut batere herrarik ez gorrotorik.

Areto nagusian urrutizkin-hotsa izan da, eta eguerdia da. Besson ikertzaileak hartu du tramankulua eta esan dio:

—Zuretzat da, Maigret. Hiru bider ere hots egin du gizon honek, eta beti ordu berean.

—Nor da? Juli, ote?

Laster ezagutu du noren ahotsa dan; harako Dedé da, alegia.

—Hobeki al zagoz? Bihurtu al zara uztarripera²⁴⁷? Esaidazu: bazkaltzeko gerturik al zagoz?

—Zergatik, bada?

—Neure asmoa da. Aizazu: lehengo egunetik zurekin bazkaltzeko gogoia dut, eta basoaldean gainera. Ez bildurrik izan, ordea. Nire gurdiaz joango natzaizu bila. Bainan ez horra komisaritegi aurrera, inguru hoiek maitatzea zail baitzait, Fontaine kale ertzerara baizik. Zer, baietz?

Berriz ere zirulari gaisoari huts eman behar...!

—Gora haundiko arazo batera joan naizela esaiozute, eta gauean edo bihar ikusiko dudala...

Ordu erdi barru hor ditugu Dion-Bouton barrenan Dedé eta Maigret.

—Zer zaitzu atseginen? Arrain xirrikatua²⁴⁸ gogoko al duzu? Lehendabizi, ordea, hemen, Maillot atean geldituko gara, zurrutadaxo bat egiteko.

²⁴⁷ Uztarripera bihurtu: lauera bueltatu, beharrean berriro hasi.

²⁴⁸ Xirrikatu: frijitu.

Edaritegi batean sartu dira, eta Dedék bermut bi eskatu ditu, lodi-lodiak, agindaria bailitzan, eta gozoki-koskorrari ura egozten dio tantoka-tantoka, xalinkoan²⁴⁹ apur-apurka hustuaraziaz.

Alai dago, bainan begietan halako bentasun²⁵⁰ edo gizon betearen tankera du. Harako jaunzki laurkaduna daduka, zapata horiskak eta korbata gorri-gorri ederra.

—Berriz nahi duzua? Ez? Nahi duzun bezala. Gaur badakizu zu mozkortutzeko ziorik ez dudana.

Bidez bide doaz, eta laster Sena ibaiaren ertzean zehar, potintxoetan arrantzuan ari diranak ikusten dituzte, kainaberak eskuetan, eta azkenez ur ondoan ostatu iski²⁵¹ bat aurkitu dute, loretegi politak inguratua.

—Holako bazkari bikaintxo, e, Gustava? Eta hasteko, kabotx²⁵² xirxikatuak, ulertzen?

Eta Maigreti diotsa:

—Orain jaurtiko du honek sarea, eta bizi-bizirik jango ditugu, noski.

Eta berriz ere, etxeko nagusiari:

—Hurrena, zer emango diguzu?

—Oilasko ardoztatua, Beaujolaisez ezotua.

—Ederki hori, oilasko ardoztatua.

Bere etxean bezala dabil hemen Dedé, sukaldera joan da, gero goñubera jatsi da eta hor dator orain, Loire ardo zuridun bombila bat eskuan duela.

—Mundu guztiko gazigarriak²⁵³ baino hobe duzu hauxe. Eta zartagiko zerok ekarri bitartean, bete ezazu pipa hori, gizon. Hitz-aspertua egin dezagun, adiskide.

Bere barruko gauzak azalera nahi zituan.

²⁴⁹ Xalinko: koilaratxo.

²⁵⁰ Bentasun: seriotasun.

²⁵¹ Iski: txiki.

²⁵² Kabotx: zarbo.

²⁵³ Gazigarri: janaurreko, *aperitivo*.

—Zurekin egote hau, niretzat begiko eta maitagarri zarelako da. Zu ez zagoz oraindaino usteldua, bizibide hortakorik asko dagozanez.

Eta horrela, hark ere egia bere araura moldatu nahi du. Eta Maigretek badaki hori jakin. Dedé bezalakoak berritsu haundi izan ohi dira, eta sarri askotan horretzek galtzen ditu.

Beuren buruaz asetarik baitagoz, buruiritziak baitira, beraiek egina han, hor eta hemen agertu beharra izan ohi dute. Ezin isilik eduki, horra ba.

—Nun dago Luzile? —galdegin dio Maigretek, hura ere bazkari hontara etorriko zala uste izan baitu.

—Zuk ez duzu, agian, sinistuko bainan oso gaizki dago. Bob hortaz erotua zegoan osoro. Hargatik bizitza ere emango zukean. Eta honentzat zartada gogorra izan da ezbehar hori. Ez zuan Brey kaletik inolaz ere alde nahi, haren irudia han zoko guztietan agertzen zitzaiola-eta. Atzo, landara, uritik kanpora joatea adirazi nion. Eta atera nuan. Gero joango naiz haren bila. Bainan, aski da! Egingo dugu geroago ere hitz hari buruz.

Zigarrotxo bat isiotu du, eta haren keia sudur-zilotik iragazten. Edontzietan ardoak dirdiz egiten du, eta haizeñoak zuhaitz-orriak dardarazten ditu emeki. Ostatu-gizona, potinean zutik, uretara begira dago zuhur, sarea bota orduko.

—Nire auzi-garbitasunak dituan papera ikusi izango zenuan, noski, hortarako irritsa izango zenuan eta; horregatik, nik inor hil ez dudana jakingo duzu, eta badakizu, nik uste. Gauza zeheak, zirtzileriak. Bi aldiz, sei hilabeteko kartzelaldiak izan ditut, eta horrenbestez asko zala esan nion nire buruari.

Eta suspertzeko asmoz, edan eta edan dihardu.

—Egunkariak irakurri?

Eta Maigretek buruaz baietz erantzun baitio, jarraitzen du:

—Ahaltsuak eta indartsuak dira, bai. Luzile ikusi izan bazenu! Zuri gelditu zan, maindire bezala. Haien bila joan nahi zuan, eta salakuntza egin haien kontra. Nik baretu egin nahi nuan, eta esaten nion: «Hori eginaz, zer lortuko duzu?».

»Bainan, dena zikindu dute bai ongi! Eta nik sudurroker hori aurkituko banu, —Rikard du izena— eta poliziarik ez dagoan lekua izan, musua apurtuko nioke, gogoz gainera.

»Berrogeta hamar mila libera eman zituan, eta zorra garbi dagola uste izan du. Hemen, gure artean esan dezagun, —nahi-ta zure lanbideak ontzat eman ez— ez duela hark zorra ordaindu inolaz ere. Goizago ala beranduago, elkar ikusiko dugu. Hordikeriak era askotakoak dira. Eta hoiek bezalakoak, ezin nik irentsi!

»Eta zuk zer?

—Ez didate nire bilaketa hori jarraitzen utzi —diotsa Maigret-tek.

—Badakit. Jakingo ez dut, bada!

—Isilik egoteko agindu al zizuten?

—Lasai eta bare egon banendi, izango nuela saria.

Zer esan nahi zuan horrek? Dedéren hobenak ez ikusi egingo zituztela. Eta buruan hartutako zartadaz ez zuala inork oroipenik izango. Eta sakelean aurkitu zizkieten berrogeta bederatzi mila liberaren jatorriaz ere ez.

—Batez ere, otseinari errua egozteaz asmatu duten ziri horrek amorruez jarri nahi. Zuk sinisten al duzu hori?

—Ez.

—Ederki! Honela izan ez balitz, nire iritzian galdu izango zenuan. Norbaitek tiro egin behar izan zuan, eta nork egingo? Otseinak, horrela baitzegokien. Nork uste duzu atsegin eman diola atzaparrari? Hemen gure artean mintza gaitzke, ezta? Nik orain diodanaz balia baldin nahi baduzu, nik ez dudala hitzik ere egin aitortuko nuke betiere. Nire aburuz, neskatxa izan zan...

—Nire iritzia ere horixe duzu.

—Alde bat, ordea; nik baditut zio eta arrazoi mardulak hori sinisteko. Eta are gehiago. Bob hil zuan bai, bainan okerean. Hark cratsi nahi zuana, bestea zan, bere nebatxoa. Hoiek elkar ezin ikusi dute, sendi gisa hortakoetan ohi duten gorrotoz bizi baitira.

»Zuk ez duzu Bob ezagutu, eta tamalgarrria da. Munduko gizonek eratsucna zan. Horrek apalaraziko zituan guztiak, inork, ba!

»Bainan ez gaiztakeriaz, ez. Harek ez zuan gaiztakeria-zale-tasunik. Bere izaera zan halakoxea. Parragarriztat zeduzkan, hain ezegarri izanik.

»Neskatxa hura haren inguramari hasi zanean...

—Noiztik, ordea?

—Udazkenean izan zan. Ez dakit nik nork esan zion neskari. Lasterketak egin ondorean, arratsaldeko bost eta erdiak aldean, gure Bob han Wagram aldeko edaritegiren batean aurkitu ziteke-ala zekian neska hark.

—Eta hara joan al zan neska?

—Bai, noski! Eta estalkirik gabe, gainera. Nor zan esan zion, Anseval gazteluan bizi zela ere bai, mutilaren berri jakin nahi zuala eta bere etxean ere pozik hartuko zuala.

—Eta adiskide egin al ziran?

—Bai. Mutil ederra zan hura, bainan neska ordea ez zan bate-re gizonzalea. Hemen dugu arrain xixikatuia, eta esango didazu zer deritzozun.

Jan eta hitz egin biok batean egiten zekian gurdi-jabeak, eta aurean duten bigarren ardo bonbilari ere ez dio baketan uzten.

—Bainan, ez ezazula ahaleginik ere egin nahaspila hori ulertzeko. Bob berak ere, —eta hori gu biok baino argiago zelarik, inori haserrebiderik eman gabe, alegia— luzaroan ez zuan gauza argi ikusi. Neskak, berarekin ezkontzeko zuan seta eta grina! Berberak azaldu zion bizimodu berria: lanik egin beharrik ez zuan izango, hileru diru-mordoa hartuko zuan gainera. Bainan, mutilak ez zuan ezertarako gogorik. Nondik edo handik, Ansevaleko kondesa izan behar zuala neskatxa hark! Badira horrelakoak ere. Lehenbizi gaztelu bat erosi, eta geroago etxearen izenaz ere jabetu nahi, arbasoak ere erosi nahi, alazaina! Horixe da Bobek niri esana.

Eta Maigreti tinki begira ari ondorean, eta hau harrituta utziko duala uste izanik, zorrozkiro diotsa:

—Bada... ez da horrela.

Kirrisk egiten duten arrainak gozaro jaten dihardu, eta noizik behin Sena aldera so egiten du. Han doaz ur gainean ontziak, eta ur-atera heldu baino lehen turuta jotzen dute.

—Ez bilatu ziorik. Ez duzu aurkituko. Bob ere, jakin zuanean, harrituta gelditu baitzan. Eta hori, sendi horren istorio eta gorabehera guztiak ongi zekizkiala! Ba al dakizu nundik zetorren ezkontza-asmo hori? Zaharragandik!

Garaitzaile agiri da, nunbait.

—Bougivalera etortea merezi du, noski, hainbat jakiteak. Entzun al duzu harako zaharraren konturik, bere etxera eta laurka edo kuadru guztiak museo bat egiteko utzi nahi zituan haren konturik? Parra egin nahi baldin baduzu, entzun jarraipena. Eta gainera nik osoro ez dakidala. Bobek ere osoro ez zekian-eta... Gizon harek, lehendabizi baserriko pitxi-saltzaile izan ondorean, biloba haundiki jatorrak eduki nahi zituan! Nire ustea hauxe duzu: agure hark asperkunde berezia iritxi nahi zuala. Ansevaltarrok, agidanez, ez ziran oso maitekorrak izan harekin. Gaztelua eta landetxeak saldu bai, egin zizkionten; bainan isil-isil, haiengandik urrundu egin ziran. Eta ez zuten inoiz ere Ansevaltarrengandik bazkari baterako ere deirik izan.

»Hori zala-eta, bere azken-nahi edo hilburuko aginduaz sendi osoa asaldarazi zuan.

»Agurea hil zanean, bizi zan anartean haren alaba; miloiez beterik dagozan hoiek ordea, urrutiko gauzak ikusten dituzte, arraioa!

»Alaba hori hil zedinean, azino edo ondasun-paperok bi zati-tan banandu behar zituzten. Neskaxarentzat, ehuneko 51. Eta sudurroker horrentzat ehuneko 49. Eta hori gauza handia izan, diotenez bada, neskak izango zukean alde nagusia.

»Nik ez dakit ondo gauza hoiien berri, egiatan. Bainan, tira, aurrera egingo dugu. Eta hori, neskak hogeta bat urte dituanean egin beharko da.

—Hurrengo hilean —dio Maigretrek.

—Berriz jan nahi dut honelakoa, nahi-ta oilaskoarentzat tokirik gabe gelditu. Zer esaten ari nintzan? A, bai! Beste gauzatxo bat dugu, ordea: neska, Ansevaltarren batekin ezkondu ezkeror, azino guztiak beregandutzeko eskubidedun izango da, eta behar-kun bat izango du soilik; bere nebari, zegokiokkeen diru-zatiaren irabazia urtero ematea.

»Zer esan nahi du horrek? Mutilak ez duela zerikusirik izango ez gazteluaz, ez kafeaz, ez beste zerez. Horrela, Balthazartarrak eta Gendreautarrak Anseval bihurturik lizatekez, eta mende erdiko Gurutzedunen jatorritikoak, beraz...

»Gure Bob azkarrak bazekizkian ipui hoiek, eta hamaika parra egiten zuan!

—Eta oniritzi al zuan eskeintza hori?

—Bainan nolakoa zela uste al duzu?

—Eta nola jakin zuan nahaste guzti hori?

—Haren nebarengandik. Eta orain ikusiko duzu gizon batek bere larrua zein ganoragabe utzi zuan. Gendreau sudurroker hori ez da zinez ergel ez ertzo. Hori ez dabil bere aita bezala bileretan astia eman ezinik ez Bake kaleko jostun neskaxen atzetik. Horrek ere, nagusi izan nahi du.

—Bai, bada, orain ulertzen dut.

—Ez, ezin liteke ulertu horren bizkor, Bob berak ez baitzuan behingoan ulertu. Bere despatxura joan zedila eskatu zion. Eleiz gela edo sakristia dirudi leku harek; hormetan zuleria du, oso landua, gotiko erako altzariz, eta erdian agurearen laurka luze bat, goitik beherainokoa, irri eta parraz agiri dala, gaiztoa halakoa!

»Eta sendi osoan ere, ni agure horren adiskide egingo nintzakean lehenbizi. Petral eta maltzur handia zela, esaten zuan Bobek, inor ez bezalakoa, alafede.

»Eta nebatxo hark galdetu zion Bob zanari —hila baitago—, bere arrebarekin ezkontzeko gertu zegoanetz. Eta Bobek ezetz biribila eman zion, egundaino ere horrelako asmorik izan ez zuala-eta. Besteak ordea, ziri egiten zion, guztientzat ere egoki eta onurakor zela-eta, gaizki egingo zuala, ba, ezetz esanaz.

»Zergatik izango ote zan mauka, guztientzat? Rikardek bere arrebaren senarrari dirua erruz emango ziolako, parra-parra alegia, nahi aina. Hau egiteko hitzean, ordea: bere arreba edomun erakuts zezala, jairik jai eraman zezala, garatz- eta negozio-asmoak burutik behin betiko kenaraz zezaiola...

»Ulertzen al duzu orain?

»Bobek, berriz, lanbide hartarako jaio ez zela, erantzun zion...

»Eta orduan, sudurroker petral harek berarentzat txarrago zela adirazi zion, eta ukapen hori zela-eta, kalteren bat etor zekio-la kondeari...

Hontan, ekarri diote oilaskoa, oilasko ardoztatua, eta haren lurrin gozoak zorroztu dizkio ederki asko hortzak, Dedék, lehen-txeago bete samar zegoala esan du, bainan.

—Musta ezazu Beaujolais hau, eta esango duzu bai tamala izango zela benetan, bazkari eder honen orde z ni baberrun-janariz egon beharra.

»Ba al dakizu gizakume itxusi hark esana? Lehen ere esan dizut Bob gizabidetsua zana oso, bainan behin ere ez dut nik adirazi santu zani, hori ez. Diru gabe gelditu den nornahiri gertatu ohi zaiona, hari ere gertatu zitzaion. Umetandik ezagutzen zituan haundi eta aberats harro asko. Eta inoiz, beragiaz²⁵⁴ edo olgetan haien izenak itxuratu zituan zor-agiri edo letra direlakoetan, eta beste hoi en antzeko paperetan. Hortan ez zegoan gauza bihurrik! Ez nimbait, inork ere ez baitzuan behin ere salatu, eta horrela gauza berez bezala konpondu ohi zan. Bada entzun ezadazu, Juli adiskideorrek: Rikardek ez dakit mundik nora, paper hoieta-ko batzuek erosi zituan.

»—«Nire arrebarekin ezkon ez bazaite, barrura sartuko zaitut. Ezkondu eta gero ere, eskurakoi eta esaneko ez baldin bazara, barrura sartuko zaitut.»

»Ankerra, agurea bera baino ere ankerragoa zan hura!

²⁵⁴ Beragiaz: beren-beregi, apropos.

»Eta Bob damutua zegoan neskatxa haren adiskide egina, eta nahaste hartan sartua ere.

»Eta neskatxak, ordea, iradu²⁵⁵ eta laster beharrez zihardu. Berehalakoan ezkondu nahi zuan, hogeta bat urte bete orduko. Telegrama, idazki eta abar bialtzen zizkion. Dei eta dei ari zitzaion.

»Eta haren deira, batzuetan joaten zan, besteetan ez Bob. Maizenik, ez zan joaten, eta orduan neska etorri ohi zan Brey kalera, eta ertz edo mutur batean egoten zan, jendearen iritziaren axolakabe...

»Luzilek ongi ezagutzen zuan.

—Eta zuk Chaptal karrikara eraman zenuanean, hilaren hamabostean, gau hartan...

—Behin eta betiko arlo hura bukatzeko asmoz zijoan, egiak zarta-zarta esan, eta inorgatik ez zela salduko adiraztera, bai nekari eta bai haren nebari.

—Han itxadoteko agindu al zizun?

—Itxadoteko, ez ba! Bainan arazo laburra izango zala bai uste zuan. Zer nahi duzu, hegala ala iztarra? Ziza gehiago hartu behar zenuke. Gustava hori berori joaten da mendiz mendi ziza bila, eta gero ongi gordetzen ditu.

Maigret eztitan dago, atseginez betea, eta Beaujolais eta ardo zuriak ere badute noski horren erru zatia.

—Ez al diozu zure buruari galdetzen zergatik esaten dizkizudan gauza horiek?

—Ez.

—Ba al dakizu, bada?

—Bai.

Edo behintzat, sumatzen du. Dedék pisu edo hazta²⁵⁶ jarria zuan bihotz gainean —urdailean hobeki esan— eta ezin isilik egon, ba! Orain, gainera ez du batere bildurrik hitz egin arren ere.

²⁵⁵ Iradu: arin, presaz.

²⁵⁶ Hazta: zama.

Horregatik, bazkari honen bidez bere barreneko astuna arindu nahi du; norbaitzuen zikinkeria eta okerreriak agertu eta bere burua garbiagotzat etsi.

Eta bazkari honen oroipena, Bougivaleko oturuntzaren²⁵⁷ gomuta, urteak urte, ongi ahaztu ezina izango zuan Maigretek, eta hortik, inoiz edo behin buruketa egoki ezak egiteko ikasbide izango zuan.

—Gero, han goian, etxean gertatu zaneko berririk, ez dakit arean²⁵⁸.

Maigretek ere ez daki, bainan ez da oso zaila hori asmatzea. Rikard etxean zegoan ala ez jakitea aski litzake. Bilera edota beste numbaiten ez ote zegoan gau hartan?

Eta izan liteke, Bobek berak iganaraztea Rikard, haren izakera ezagutu ezkerokoan. Zergatik ez, ba? Bici argi eta garbi esateko zakarkeria haien itxuskeria.

—«Lehenbiziko hitza hau duzute: ni ez naizela ezkonduko...»

Maigretek ez zuan behin ere ikusi, bainan orain haren izakera eta tankeraz ere badu zerbait asmo.

—«Nik ez baitut izen bat saltzeko usterik, eta ezta izen hori edukitzeko gogorik ere...»

Ternes enparantzan eta zaldi-lasterketa larrainetan norbaitzuek Konde jauna zeritzaten, bainan hura ezagutzen zuten gehienak hitz hori izengoiti edo gaitzizena zela uste zuten.

Lisa Gendreau aldigaiztoak jo ote zuan bere izen ona eta abar aipatuaz? Edota, haren neba Rikard amorrus itsutu al zan?

—«Eta zuk, hobe zenuke isilik egon. Bestela, zure arrebari esango diot zuk asmatu dituzun bihurrikeria hoiak.»

Eztabaidan ari ote ziran? Rikard berehalakoan hasi ote zan burruka?

Ene, ba! Balthazar kafea hartzen duten guztiak, eta kromotxo haiek liburuetan poliki gorde —Maigreten emazteak bezala—, ez

²⁵⁷ Oturuntza: otordu, jau-edan.

²⁵⁸ Arean: ezer, batere.

dakite beraiek goizetan gozaro hartzen duten kafe hori dela-eta Chaptal kalean, etxe apain batean egin duten burruka gorriaren berri...?

Guduka zakarra benetan, eta agian hango zalapartak entzuten otsein bat egon izan da ate ostean isilik.

Gizonezko biak elkarri esetsi²⁵⁹ zioten, noski. Agian, lurrean zebiltzan biraka. Rikardek ba ote zuan armarik?

Gizon maltzurra zan, azpikeriaz min emateko gai.

—Nire iritziz, neskak egin zuan tiro. Asmo txarrik gabe. Zoratu egingo zitzaion, numbait. Bai, lehenbizi leihoa ideki zuan laguntza eske; gero damutu bazitzaion ez dakigu. Edo, leihoa idekirik zegoan orduko. Ez nuan behatu, eta ez dakit.

»Eta nire buruari haxe ere esaten diot: neska Bobezaz maitte-zoratua ez ote zegoan. Batzuetan horrela gertatu ohi da eta. Bere diru eta zerok zirikatu hasi zan. Eta gero... Bainan ez gaiztorako, e!, hori ez; lehen ere esan dizut neska hori oso zentzunduna dela, ez dela prakazale. Bob ere, ez zan neska hark zituan adiskide asko bezalakoa...

»Nire ustez, Bob azpian eta Rikard gainean, hari zartako gogorren bat emateko antzean ikusirik, neska izutu egin zela, eta orduan danba!, jaurtiki zuela. Bainan zorigaitzez iskilua zuzentzen jakin ez, eta Bob sabel-sabelcan jo zuan. Eta beste boteila bat eskatzen badugu, zer diozu? Ardo hau ona da, arraiotan! Eta besterik ezer ere ez, Juli adiskide!

»Harako gizon hura ate-joka ikusi nuanean, alde egin nuan, eta geroago itzuli, orduko zer ikusirik ez zegoan, bainan. Handik lasterrera, joan egin nintzan.

»Luzile eta ni gogoketan ari ginan. Bob etorriko ote zan, eritegiren bateko berririk izango ote genuan... Eta azkenez, Gendreau ikustera joan nintzan haren lantegi edo despatxura. Orduan ezagutu nuan agure zahar hura ere!

²⁵⁹ Esetsi: eraso.

»Certatutakoaz ez al zuan inork ere ezer onik atera behar?

»Lanik asko gabe eman zidan dirua, eta gero pena izan nuan berrogeta hamar mila orde ez ehun mila eskatu eza...

»Zirtzilu²⁶⁰ zitalak halakoak...!

»Hemendik igesteko gengozala heldu zinan zu. Zozokeria izango zan gu atxiletaraztea, nunbait! Zure osasunera, adiskide!!!

»Geroz, haien gogara antolatu dute nahaspila. Badakit nik orain honelako zikinkerien berri. Eta kalean ikusiaz bakarrik nar-da ematen didate gurdi hoiek, zaldi ederrez, eta zaldizai apaina aurean dutela...

»Nagusi, ekar ezazu kafea, bainan ez Balthazar izeneko, gero!!

Halarik ere, beste kaferik izan ez, eta horrelakoa edan behar izan dute.

—A, zenbat txatxarkeria! Zorionez, ni neu landaldera noa-eta...!

—Luzilerekin, ordea?

—Ez dit ezetzik esan. Berrogeta hamar bat libera ditut. Ibai ondoan jatetxe bat edukitea izan dut aspaldiko asmo eta amets. Hauxe bezalakoa-edo, eta bezeruak adiskide izan ditezela. Zail samar da aurkitzea, zaldi-zelairen batetik hurbil egotea egokien litzakit eta. Bihar joango naiz Maisons Laffitte inguruak ikustera. Alde hartan baitago Luzile.

Hontan, lotsatu samar egin da, eta laster deitu du:

—Horregatik ez uste izan bat-batean onbidetsu bihurtu gare-nik...!

Astebetean gauzak berdintsu iraun dute. Goizero, txirrinak dei egiten dio Maigreti komisari jaunaren tegira, eta eguneko agerketak erakusten dizkio. Goizero, Le Bretek ahoa zabaltzen du zerbait esatekotan, bainan burua itzultzen du-eta...

²⁶⁰ Zirtzilu: lotsabako, *canalla*.

Laneko arloetaz gain, ez diote elkarriz hitzik egiten. Maigret lehenago baino ere benago eta sotilago dabil, eta baretsuago ere bai, anartean gizendurik ez da, bainan.

Ez du behin ere irriparrarik ere egiten, eta horrek Le Breti salakuntza edo txarrespena²⁶¹ jauki²⁶² eta agertzen diona badaki.

—Esan egidazu, adiskide...

Hostoilaren²⁶³ lehenbiziko egunak ditugu.

—Noiz egin behar dituzu azterketak, zure ikasaldi azkenak?

Harako gau hartan ikasten ari zan liburuarenak, eta zirularia haren lanegian eta bizibidean agerturik eten zion ikasaldiarenak.

—Hurrengo astean.

—Ongi egingo al duzu?

—Baietz uste dut.

Hotz-hotz dago, erdi muker ere bai.

—Zure nahia zein dan esan dit Guichardek: Quai des Orfèvresen sartzea.

—Bai, horixe zan.

—Eta orain ez al da?

—Ez dakit, ba!

—Han egokiago, zure erarago egongo zarela uste dut. Eta hemen zure beharra izan arren, zure alde lan egingo dudala-eta nago.

Maigret, zintzurra oso legor, isilik dago. Gogaro txarrez dago. Ez dio inori ere barkatzen, ez beraren komisari jaunari, ez Gendreaurreri, Sûretékoeri eta ezta Guichardi ere, hau aita bezala lotsaz eta begirunez gordea izan arren.

Halarik ere, Guichard honek zerbait egin baleza...

Halabeharrez, haiek guztiak zuten zioa eta arrazoia, bai; nola hala ulertzen du. Gauza nabarmenak agertzeaz ez zuten ezer onu-

²⁶¹ Txarrespen: gaitzespen.

²⁶² Jauki: egotzi.

²⁶³ Hostoil: maiatz.

rarik izango. Eta esanak esan, azkenean ere Lisa Gendreau aske eta jare²⁶⁴ utziko zutena, jakina zan.

Orduan, bada, zer...?

Ez du bizitza gorroto, ez holakorik. Berak du errua, bizitza den bezala ikasi eta sumatu ez dualako.

Ez du nahi inori zorrik ez mesederik izaterik. Batez ere, Le Bret komisari jaunari.

—Nire aldia eta txanda heldu arte itxadongo dut.

Biharamonean, *Quaira* joateko dei egin zioten.

—Oraindaino ere haserreturik al zagoz, gazte? —galdetu zion nagusi-nagusiak, sorbalda gainean eskua ezarririk.

Eta mutiko musindu antzean, bertatik erantzun zion:

—Lisa Gendreau izan zan Bob hil zuana.

—Noski.

—Ba al zenekian?

—Antzeman nion, ordea. Haren neba izan balitz, ez zan nunnabait Luis isilduko.

Sena ibaiera dagoz leihoak zabal. Ontzi-gidariak hor ari dira beste ontzi anitz atoean dituztela, turut- eta xistu-hotsez zubipetik iragan aurretik, gero kebideak beheratu eta apalduaz. Saint-Michel zubian zehar hor doaz tranbia, beribil, gurdi, eta kaleetan emaztekiak jaunzki argiz apaindurik agiri dira.

—Escri zaite, maite.

Eta egun hartan hartu zuan ikashide ederra, anaia antzo, ez du behin ere inungo polizi liburu argi bainan hozperetan aurkituko!

—Ulertzen al duzu? Ahalik kalte gutxien egin, ahalik kalte gutxien. Nor onduko da, nori on egingo dio gauzak argiegi esateak?

—Egiari.

—Zcin egiari?

²⁶⁴ Jarei: libre.

Eta buruzagi nagusiak honela bukatu zuan solasa:

—Berriz ere izetu dezakezu zure pipa hori. Astelehenean, Barodet komisariaren saileko egingo zaitugu, eta ikertzaile bezala.

Ez zekian asko Maigretrek handik hogeta bi urtera berriro Lisa aurkituko zuenik, orduan beste izen baten jabe, bere senarrarena, alegia, italiar haundikiarena.

Eta Balthazar Kafeen lantegiburu edo despatxuan hain zuzen, Dedéren ahoz soilik ezagutzen zuan despatxu aldagabe hartan, eta orduan ezagutuko zuan hobeki harako agurearen irudi jakina, beti geldi, beti bere lekuan...

—Ene komisari jaunori...

Komisari jauna, orduan, Maigret zan bai.

—Zuhur ari izango zarela uste dut...

Sûretéren ordez Auzi-poliziakoak izango ziran orduan.

Haien hizkeraz, sendien onerako bilaketak izango ziran egin-behar.

—Nire alabak, zorigaitzez, bere aitaren aiurri edo mendua du...

Lisa ordea, hotz, bare, estutasun gabe zegoan, Balthazar agurrearen iduri, han besalkiaren atzean agiri zanez.

—Kezkagabea dan gizon batek atzipetu du, eta hark Ameriketara eraman du, eta han baimen bat iritxi du ezkon ditezten. Bainan ez da komeni ezergatik ere...

Ez zekian, ez, handik hainbat urtetara ere Balthazartarren izen ona gordetea bere eskuan izango zuanik.

Hogeta sei urte zituan orduan Maigretrek.

Berri ona bere emazteari emateko irrikitzen zegoan: «Nagusiaren saileko nauzu!».

Ez zuan ordea, berehalakoan esaterik izan. Han zegoan Justin Minard kalean zai...

—Zer, berri txarrak?

—Berri onak. Goragotu egin haute.

Zirularia zegoan bera baino bihotz-ikara handiagoz!

—Eta komisaritegia utziko al duzu?

—Bai, bihartik.

—Hori ospatu egin behar dugu, alafede!

Kaietik hurbil zegoan Dauphine Garagardotegia. Han zegozen beti bezala harako polizia ikertzaileak edan eta edan, haien inguruan ardo pitsaduna zurrutzatuaz ari ziran gizon bietaz ohartzeke. Gizon bi hoiiek pozkarioz eta begi argi zegozten.

Handik egun gutxiren buruan, hoietako bat, Maigret alegia, haien besteko izango zan, eta ezagutuko zuten.

Edaritegi hartan, etxean bezin ezaguna izango zan eta ostatu-mutilak bere izenez deitu eta zer eman ere jakingo zuan egokiro.

Etxera zanean, arratsalde hartan, erdi mozkor zegoan. Zirularia eta biak, kale-mustur batetik bestera bi aldiz ibiliak genituan, elkarri lagundu beharrez eta agur egin ezinik.

—Eta zure emaztea...? —esan zion Maigretrek.

—Ez dio axolarik.

—Honezkero zure dantza-areto hartan egon behar zenuke-eta...!

—Zein dantza diozu?

Mailadian gora zioala, iskanbila apurra egin zuan.

Atea idekitzean, honela mintzatu ere bai, hitz ozenez eta goraki:

—Nagusiaren saileko ikertzaile berri hau agurtu ezazu...!

—Eta nun duzu zure burukoa...?

Eta eskuaz burua igurtzi zuanean, bere kapela numbaiten ahaztuta utzi zuela ohartu zuan.

—Andreak nolakoak direan! Eta aizazu, aizazu ongi... gauza gora haundikoa baita... gora haundikoa, ulertzen? Ez diot batere zorrik nire komisari jaunari. Ni begiz jo ninduten, eta nik ezertxo ere ez jakin...! Ba al dakizu nork esan didan? Buruzagi nagusiak... Hark esan dit... Ezin nik zuri esan orain hark esan didan guztia, baina aita bezala da... Aita bezalakoa, ulertzen?

Orduan, emazteak, etxeko oinetakoak ekarri zizkion, eta kafe trinko lodia gertu ere bai lehenbailehen edan zezan.

AMAI

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunkoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Carro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterra maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzaila: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. Jean Hirriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten
olerkiak eta artikuluak*
Biltzaila: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Callastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko
gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Candiaga: *Hitz lauz idazten*
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien
38. José Basterretxea *Oskillaso: Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

39. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura.*
Ume-denporako oihartzunak
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

LABAYRU-IXASTEGIA

BIBLIOTEKA - DERIO

NUM. 45066 / 2109

Gola.

Tokia.

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

32. ABERRIAREN ALDE
ARTIKULU POLITIKOAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikino*
Sarrera: Cesar Gallastegi
33. GÜRE ABERRIAREN ELEA
KAZETARI-LANAK
Estepan Urkiaga. *Lauaxeta*
Sarrera: Xabier Altzibar
34. NEURE AMATXO MAITIA
EUSKERAZKO GUTUNAK
Balentin Berrio-Otxoa Santua
Sarrera: Roman Berriozabal
Hitzkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKÜBETE NEURTITZ • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
36. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKÜBETE NEURTITZ • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
37. HITZ LAUZ IDAZTEN
Bitoriano Gandiaga
Sarrera eta edizioa: Inaki
Sarrugarte Irigoien
38. KURLOIAK
MUTIKO KALETARRAK BIZKAIAN
Jose Basterretxea. *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. BIZKAIA BEGIETAN (1913-1928)
Ebaristo Bustintza. *Kirikino*
Testu aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. MILLOITIK MUNDURA
UME-DENPORAKO OIHARTZUNAK
Angel Ugarteburu
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. ASPALDIKO MAIGRET
Georges Simenon
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia